

Hizkuntzaren Nahasmendu Espezifikoa eta Dislexia: aldagai iragarleen analisi ebolutiboa eta familia- testuinguruaren eragina

Ainhize Agirregoikoa Lopez

2019



Hizkuntzaren Nahasmendu Espezifikoa eta Dislexia: aldagai iragarleen analisi ebolutiboa eta familia- testuinguruaren eragina

Ainhize Agirregoikoa Lopezek

Psikologian Doktore titulua eskuratzeko

aurkeztutako ikerketa txostena

Zuzendariak:

Joana Acha doktorea

Enrique Arranz doktorea

Donostia, 2019

Tesi hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren
PRE_2016_1_0155 eta PRE_2017_2_0260 beken diru laguntzarekin egin da.

Ainhize Agirregoikoa Lopez.

Eskubide guztiak erreserbatuta.

Euskal Herriko Unibertsitatea

Tolosa Etorbidea 70,

Donostia, Gipuzkoa.

2019ko azaroa

Eskerrak

Doktorego tesi bat burutzea eta lortutako emaitzak idazteko prozesua zeregin neketsua eta, sarritan, gogorra ere bada. Horrek guztiak lan, esfortzu eta sakrifizio handia eskatzen ditu eta, horregatik, lan hori ez zatekeen posible izango pertsona ugariren sostengua izan ez banu. Lau urte luze iraun dituen lan honetako momentu gogorrenetan, beraien laguntza izan da aurrera egiten lagundu didan motorra eta motibazioa.

Lehenbizi, era berezian eskerrak eman nahi nizkieke ikerketan parte hartu duten familia guztiei, datu-bilketaren prozesuaz gozatzeko aukera eman didatelako, amen eta aiten aldetik euren motibazio itzelarekin, eta txikien kasuan, euren xalotasunarekin eta naturaltasunarekin eragin didaten irribarre pilarekin. Eskerrik asko ere hezkuntza-zentroetako zuzendaritzei eta irakasleei ikasgeletako atea irekitzeagatik eta proiektuan sinesteagatik, prozesu osoan zehar euren konfiantza eta ezagutzak helaraziz.

Zer esanik ez, mila esker tesiaren zuzendariei, Joanari eta Enriqueri, urteotako berrikusketa lan eskergagatik, eman didaten laguntzagatik eta egindako jarraipenagatik, askotan bidetik galdu bainaiz, baita euren ezagutzak eta esperientzia transmititzeagatik ere, nire prestakuntzarako aberasgarriak izan direlako. Eskertzeko da, halaber, nire egoerara egokitzeko erakutsi duten inplikazio eta malgutasun ordainezina, beti ez delako erraza izan. Ederto dakit zein babes handia eman didaten, hala maila profesionalean nola pertsonalean, eta horrek berebiziko garrantzia izan du niretzat. Mila esker ere Alemaniako Unviersität zu Köln unibertsitatean niretzat erreferentea izan zen pertsona aurkitzen laguntzeagatik. Matthias Grünke irakasleari buruz ari naiz, bere lantaldean besoak zabalik jaso baininduen eta ikasteko ez ezik, ikerketetan parte hartzeko aukera ere eskaini baitzidan. Thank you for treating me as if I was one more in your team, for the amazing opportunities you gave me to learn from the most experienced experts and for everything you have done for me during the time I was in Germany. *Vielen Dank für alles!*

Bestalde, nire familiaren laguntza eskertu nahi dut (aita, Oier eta Izas, Oianko, Izeko Belén,...), baina bereziki amarena, bera izan delako itzulpenarekin lagundu didan pertsona eta gehien jasan behar izan dituen nire gorabeherak nik neuk ere ezin nuenean neure burua eraman. Berak animatu ninduen bide hau hartzera eta bere babesa izan dudana oinarririk sendoenetako bat izan da ibilbide honetan.

Adriri, nire ondoan egoteagatik aurrera eman dudan urrats bakoitzean, egunez egun, momentu onetan eta gogorrenetan, gaindi eginda edo blokeatuta sentitu naizenean. Moltes gràcies pel teu suport i la teva tendresa, per estar sempre al meu costat sense dubtar-ho mai (encara quan ens ha tocat estar lluny l'un de l'altre), per fer tot el que estava a la teva mà per fer-me somriure quan tenia un mal dia, per les paraules encertades que sempre han sabut calmar-me tan bé, per les escapades de desconexió del món i per les tantíssimes abraçades quan més les necessitava. Gràcies per ser-hi.

Eskerrik asko nire lagunei, betikoei eta denboraren poderioz heltzen joan direnei, animatzea edo arnasa hartzea behar izan dudan guztietan hor egoteagatik, eta ebaluaketa-saio luzeen ostean burua husten laguntzeagatik. Kafeek, *pintxo-poteek* edo garagardoek, paseoek hondartzatik, mendiko irteerek, solasaldi luzeek, inprobisatutako afariek,..., denak konpainia onenean direnean, doktoretza bat aurrera ateratzeko behar diren indarrak berreskuratzen laguntzen dute. Ibinka, Maddalen, Andere, Marta, Laura, Edurne eta Eva, Monti, Unai, Mette... eskerrik asko tartetxo horiek konpartitzeko izateagatik. Ezer ez zatekeen berdina izango zuek gabe.

Halaber, eskertu nahi dut lehen urteko prestakuntza osagarriko klaseetatik unibertsitateko eguneroko bizitzaren antolaketaraino aurkitu dudan laguntza-giroa. Baina, esker berezi-berezia Ionerentzat da, prozesu osoan hor egon delako bere babes zintzoa ematen (solasaldi luze horiek!) SPSSrekin eta AMOSekin laguntzeagatik datuak nondik harrapatu ez nekienean ea berarekin sentitu dudan loturagatik ezagutu nuen momentutik.

Eskerrik asko Sherezade tesia idazten eta, aldi berean, nire bokazioa—adin goiztiarretan esku-hartzea—garatzen eman ditudan hileotan irakatsi, lagundu eta eman didazun guztiagatik. Egunerokotasuna atseginago egin izana eskertzen dizut, edonork poz-pozik hartuko lukeen lankidea izateagatik, partekatutako baliabide eta ezagutzengatik, animoengatik, nire lanean hainbeste interesa izateagatik eta zure adiskidetasuna, dudarik gabe luze iraungo duena, oparitzeagatik.

Azkenik, esker ona Maitaneri, tesi honen defentsan aldi bereko interpretazioa egiteak dakarren lan gogorra ezin hobeto egiteagatik. Mila esker gure hizkuntza ezagutzeko aukera ez duten haientzat ulergarri bilakatzeagatik.

Tesi hau ez zatekeen gauza bera izango zuok guztiok gabe. Ni neu ere ez nintzateke naizena izango. Horregatik, zuotako bakoitzari (eta oharkabean baten bat aipatu ez badut,

barka nazala) muchísimas gracias, moltíssimes gràcies, thank you very much, Danke schön.
Mila esker bihotz-bihotzez, nagoen lekuraino iristen lagundu izanagatik.

Laburpena

Lan honek hiru helburu nagusi zituen: batetik, hizkuntza- eta irakurketa-sistema eraginkorraren antolaketa identifikatzea; bestetik, familia-testuingurua ebaluatzen duen HEFCAS-6-DA galdetegiaren faktore-egitura lortzea; eta azkenik, familia aldagaiek hizkuntzaren eta irakurketaren azpiko prozesuen gainean duten rola aztertzea, gurasotasun positiboaren ikuspegi ekologikotik. Horretarako, ume normotipikoen lagin bat (N = 105) eta arriskuan dauden umeen beste bat (N = 8) ebaluatu ziren luzetara (6 eta 7 urterekin), oinarrizko prozesuen, trebetasun fonologikoen, deskodetzearen eta hizkuntzaren arloetan. Horrez gain, beren familiek familia-testuinguruaren kalitatea ebaluatzeko galdetegi bat osatu zuten T1ean. Emaitzek erakutsi zuten hizkuntza-sistema bi taldeetan era desberdinean egituratzen dela—bi kasuetan lan-oroimena gako-prozesua izanik—, eta gainera, prozesuen antolaketa espezializatorantz aldatuz doala T1etik T2ra. Bestalde, erlazio iragarle esanguratsuak aurkitu ziren zenbait familia-aldagai mikrosistemikoren eta prozesu kognitibo, fonologiko eta linguistikoen garapenaren artean; aldagai horiek talde bakoitzean desberdinak ziren. Emaitza horiek eragin praktiko garrantzitsuak dituzte, haur-hizkuntzaren garapena ulertzen laguntzen baitute, eta gainera, hizkuntzaren zein irakurketaren arteko komorbilitatea azaltzen duen eredu bat ematen dute ikuspegi ebolutibotik. Halaber, ebidentzian oinarritutako lan-esparrua eransten dute, bai familia-politikak eta hizkuntza- zein irakurketa-arazoak antzemateko protokoloak sortzeko, bai umeekin lan zuzena egitea eta familiei orientazioa ematea barne hartuko duten esku-hartze goiztiarrak planifikatzeko; hori dena garapena ahalbidetuko duten dinamikak indartzeko helburuarekin.

Gako-hitzak: hizkuntza, irakurketa, familia-testuingurua, epigenetika, HNE, dislexia, gurasotasun positiboa, prozesu kognitiboak, trebetasun fonologikoak, lan-oroimena.

Edukien aurkibidea

1. KAPITULUA: Sarrera orokorra
 - 1.1. Ikasteko zailtasunak: hizkuntza eta irakurketa interesgune gisa
2. KAPITULUA: Hizkuntzan eta irakurketan inplikaturako prozesuak.
 - 2.1. Hizkuntzaren garapena eta inplikaturako prozesu kognitiboak.
 - 2.1.1. HNEa (TEL) eta bere ezaugarri espezifikoak
 - 2.2. Irakurketaren garapena eta inplikaturako prozesu kognitiboak.
 - 2.2.1. Dislexia eta bere ezaugarri espezifikoak
 - 2.3. Komorbilitatea eta fonologia.
3. KAPITULUA: Oinarrizko prozesu kognitiboak eta lan-oroimenak komorbilitatean duten papera
 - 3.1. Ikuspegi teorikoak
 - 3.2. Oinarrizko prozesu kognitiboen garapena: hizkuntzaren garapenean eta zaurgarritasunean duten erlazioa.
4. KAPITULUA: Epigenetika eta balizko aldagai komunak hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduetan
 - 4.1. Hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduen oinarri genetikoa
 - 4.2. HNEan eta dislexian eragiten duten testuinguru-faktoreak
5. KAPITULUA: Familia-testuingurua ebaluatzeko esparru bat
6. KAPITULUA: Hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean inplikaturako familia-testuinguruaren aldagaiak
 - 6.1. Familia-testuinguruaren papera hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean
7. KAPITULUA: Helburu eta hipotesi nagusiak
 - 7.1. Ikerketaren helburuak
 - 7.2. Hipotesi espezifikoak
8. KAPITULUA: Hizkuntzaren garapenaren eredu kognitibo baten ebaluazioa lagin normatibo batean
 - 8.1. Lehenengo ebaluazio-fasea
 - 8.1.1. Metodoa
 - 8.1.2. Emaitzak

8.2. Bigarren ebaluazio-fasea

8.2.1. Metodoa

8.2.2. Emaitzak

8.2.3. Neurri kognitiboen eta linguistikoen arteko erlazio iragarleen analisia

8.3. Ondorioak

9. KAPITULUA: Hizkuntzaren garapenaren ebaluazioa arrisku-egoeran dauden umeez osatutako lagin batean

9.1. Metodoa

9.2. Emaitzak

9.3. Neurri kognitiboen eta linguistikoen arteko erlazio iragarleen analisia

9.4. Ondorioak

10. KAPITULUA: HEFCAS-6-DA galdetegia baliozkotzea

10.1. Metodoa

10.2. Emaitzak

10.3. Ondorioak

11. KAPITULUA: Familia-testuinguruaren eragina hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean

11.1. Analisi deskribatzaileak

11.2. Familia-testuinguruak hizkuntza- eta irakurketa-prozesuetan duen eraginaren analisia

11.3. Analisi iragarlea arriskuan dauden umeen laginean

11.4. Ondorioak

12. KAPITULUA: Eztabaida orokorra

Tesi honetan aurkeztutako datuetatik eta Koloniako Unibertsitatean (Universität zu Köln, Alemania) egindako egonalditik sortu diren argitalpenak.

Erreferentziak

Eranskinak

I Eranskina: glosarioa

1. KAPITULUA: Sarrera orokorra

Trebetasun akademiko jakin batzuk modu eraginkorrean bereganatzeko garaian umeengan arazo iraunkorrak, ustekabeak eta espezifikoak agertzea ikaskuntzaren nahasmenduen ezaugarria da. Horrek eskolako errendimenduan edo, are gehiago, eguneroko errendimenduan ondorio nabarmenak ditu. Gainera, zailtasun horiek agertu egiten dira nahiz eta umea modu egokian eskolaratuta egon, adimenez normala izan eta aldeko testuinguru soziokulturula eduki (Málaga eta Arias, 2010). Nahasmendu horiek eskola-adinean dauden umeen artean %5 eta %15 bitarteko intzidentzia dutela uste da (American Psychiatric Association, 2000; Málaga eta Arias, 2010). DSM-V (American Psychiatric Association, 2014) eskuliburuan jasotako kategoria-sailkapenean oinarrituta bereizten dira, batetik, komunikazioaren nahasmenduen kategoria, eta horren barruan hizkuntzaren eta hizkeraren nahasmenduak; eta bestetik, ikaskuntzaren nahasmendu espezifikoak, non irakurketaren, idazmenaren edo matematikaren nahasmenduak sartzen diren.

Hala ere, nahasmendu horien fenotipo desberdinen etiologia aztertzea ardatza izan duten ikerketa neuropsikologiko berriek zera iradokitzen dute: goi-mailako trebetasunak (hala nola, hizkuntza edo irakurketa) lortzeko beharrezkoak diren defizit kognitibo batzuk ikaskuntzaren eta garapenaren nahasmenduetan agertzen direla, eta horrek erakusten du beraien artean egon litekeen erlazioa eta komorbilitatea (ikusi Snowling 2014; Willcut, Pennington, Olson, Chhabildas, eta Hulslander, 2005). Lan honetan komorbilitate hori azal lezaketen faktore kognitiboak eta testuingurukoak aztertuko dira. Helburu horretara heltzeko, lehen urratsa hizkuntza- eta irakurketa-zailtasunak deskribatzea eta aztertzea da.

1.1. Ikasteko zailtasunak: hizkuntza eta irakurketa interesgune gisa

Gizakia hizkuntzaren gaitasuna duen izaki bizidun bakarra da; gaitasun horrek, aldi berean, oinarrizko beste trebetasun batzuk bereganatzea dakar, hala nola, komunikazio-ekintza ulertzea (Tomasello, 2007), hitzezko informazio harkorra kodifikatzea (Tallal, 1990) eta oroimenean gordetzea (Bishop, 2008), baita lexikoaren elementuak antzematea eta gramatika-arauen konbinazioak ulertzea ere (van der Lely, Jones, eta Marshall, 2011). Nahiz eta trebetasun horiek bereganatzea erronka handia den gizakiaren sistema kognitiboarentzat, ume gehienek hizkuntza modu egokian ikastea eta erabiltzea lortzen dute hizkuntza- eta gizarte-esperientziaren lehen urtean zehar. Hala ere, ume batzuek hizkuntzaren dimentsio

batean edo gehiagotan zailtasun handiak erakusten dituzte, adin kronologiko bera duten berdinekin alderatuta.

Irizpide ebolutiboak eta hizkuntzaren dimentsio desberdinak kontuan hartuta, hitzezko funtzionamenduaren eskuratzeari elkarren segidan doazen bost funtzioaren bidez garatzen dela esan daiteke: umeak txikitatik jaso duen hizkuntzari dagozkion fonemen pertzepzioa eta produkzioa, ahozko hitzen ulermena, hitzen adierazpena edo hizkera, eta hitzen arteko erlazioak zehazten dituzten gramatika-arauen eskuratzeari. Gainera, trebetasun horiek idatzitako hitzak deskodetzea eta ulertzea errazten dute gerora (Catts, Adlof, eta Ellis Weismer, 2006; Lyytinen, Erskine, Tolvanen, Torppa, Poikkeus et al., 2006). Hortik, hizkuntzaren eta irakurketaren artean erlazioa egon daitekeela ondorioztatzen da; izan ere, azken hori hizkuntzaren garapen eraginkorraren ondorioztat har daiteke. Hala, eskola-adinaren hasiera erlazio hori nabarmenago egiten den momentuetako bat da, irakurtzen ikasten hasteak ez ezik, ikaskuntza akademikoak ere garapen fonologikoari, semantikoari eta gramatikalarik laguntzen baitiete. Beraz, logikoa da momentu ebolutibo hori (5 eta 7 urteren bitartean) izatea maila linguistikoan eta irakurketa mailan gertatzen diren zailtasunak argien antzemateko unea.

Mendozaren arabera (2007), hizkuntzaren nahasmendua duten umeen artean, %70ek ikasteko nahasmendua ere badute. Zehazki, hizkuntzaren nahasmendu espezifikoen (HNE) prebalentzia, biztanle guztiekiko %2 eta %10 bitartekoa izan daitekeela uste da (Bishop eta Snowling, 2004; Carballo, 2012; Fresneda eta Mendoza, 2005; Mendoza, 2007), eta biztanle horien zati batek irakurtzeko arazoak ere garatuko ditu. Orokorrean hartuta, HNEak hizkuntza eskuratzeko, ulertzeko eta adierazteko defizitak egotea dakar berekin, bai maila idatzian baita ahozkoan ere. Oinarrizko zailtasunak goiz agertzen dira maila fonologikoan, nahiz eta gerora morfologiari, hiztegiari, sintaxiari edo/eta maila pragmatikoari dagozkien arloak ere eraginda ager daitezkeen (Fresneda eta Mendoza, 2005; Viding, Price, Spinath, Bishop, Dale et al., 2003). Azpimarratu behar da nahasmendu hori hizkuntza prozesatzeko arazoekin batera agertu ohi dela, baita iraupen laburreko oroimenaren hitzezko informazioa gordetzeko eta berreskuratzeko arazoekin batera ere. Horrek adierazten du hizkuntzaren nahasmenduaren azpian domeinu orokorreko zailtasun kognitiboak egon daitezkeela, ez derrigorrean linguistikoak, hala nola, oroimena, arreta edo pertzepzioa (Carballo, 2012). Dena den, HNEa duten umeengan ez da adimen-puntuazio baxurik aurkitu, eta hori ezinbesteko baldintza da nahasmendu horren diagnostikoa egiteko.

Beste alde batetik, Shaywitz (1998) edo Grigorenko (2001) bezalako autoreen arabera, ikasteko arazoak eta, aldi berean, irakurtzeko zailtasuna agertzen duten umeen ehuneko %70 eta %80 artean dago. Aitzitik, biztanleria orokorra hartuta, dislexiaren intzidentzia desberdina da hizkuntzaren egitura fonologikoaren arabera, hau da, hizkuntza jakin baten hitzen soinu-ereduen arabera (Goswami, 2003; Grigorenko, 2001). Izan ere, hizkuntza bakoitzak soinu-egitura propioa du, eta umeek hori hautemateko gai izan behar dute bai maila silabikoan (bokala silaba bakoitzaren nukleo da eta hitzaren unitate desberdinen arteko aldea markatzen du), bai silaba barnekoan (errima, honela ulertuta: bokalak eta horren atzetik datozen fonemek osatzen duten silaba-zatia, adibidez, “miel” hitzean, errima *iel* izango litzateke), baita soinu-egitura horiek hizkiei lotzen zaizkien gardentasunean ere. Ondorioz, hizkuntza oso gardena (hots, grafema-fonema arteko korrespondentzia ia 1:1 denean, gaztelanian bezala) erabiltzen duten dislexiadun umeek egitura hori zehatzago hautematen dute eta zailtasun fonologikoak azkarrago eta modu eraginkorragoan gainditzen dituzte, ortografia opakugoko hizkuntzetan (hala nola, ingelesa edo frantsesa) irakurtzen ikasten duten dislexiadun umeek baino. Azken horiek denboran zehar zailtasun fonologiko handiagoak erakutsiko dituzte, eta euren irakurketa-trebetasunean eragina izango dute (Ziegler eta Goswami, 2005).

Orain arte esandakoa kontuan hartuz, honako hau ondoriozta daiteke: badirudi hizkuntzaren eta irakurketaren artean partekatzen den prozesua prozesatze-fonologikoa dela (unitate bisualekin lotu beharko diren soinu-unitateak buruan gordetzeko, sortzeko eta horiekin lan egiteko gaitasuna), eta hizkuntzaren ortografiaren gardentasuna kontuan hartu beharreko funtsezko aldagaia dela hitzen soinuen eta idatzitako hizkien arteko igarotze hori egiteko erraztasuna edo zailtasuna azaltzeko orduan. Hala ere, arlo horretan egin diren ikerketa gehienek ingelesa izan dute erreferentzia-hizkuntza. Hizkuntza horrek ortografia oso opakua du eta egitura fonologikoa ere gaztelaniarena baino askoz konplexuagoa da, beraz, irakurketaren nahasmenduaren prebalentzia %3tik %17ra bitartean kokatzen da (Bishop eta Snowling, 2004; Eden, Olulade, Evans, Krafnick, eta Alkire, 2016). Kontrara, espainieraz hitz egiten duten herrialdeei dagokienez, azpimarratu behar da ez dagoela dislexiaren prebalentziari buruzko datu zehatzik, baina bere ezaugarri linguistikoengatik, uste da ehuneko italiararen parekoa dela, eskola-adinean dauden umeen %1 eta %2 artean kokatuz (Ardila eta Rosselli, 2014). Izan ere, arlo horretan egin diren ikerketa apurrek (ikus Jiméñez eta García, 2007; Jiméñez, Guzmán, Rodríguez, eta Artiles, 2009), indizea %2 eta %3 artean kokatzen dute. Datu horiek hizkuntzaren gardentasunak irakurketaren nahasmenduaren

prebalentzian izugarri eragiten duela erakusten dute eta, horregatik, hizkuntza-testuinguruak eragin handia duela umeen irakurtzeko gaitasunean. Orokorrean hartuta, dislexiak idatzitako hizkien eta dagokien soinuen arteko erlazioa ulertzeko zailtasuna, irakurketa urria jario-tasunari eta abiadurari dagokionean, eta ezagutza fonologikoaren defizita dakartza. Arazo horiek guztiak, hizkuntzaren nahasmenduan bezala, adimen- edo eskolaratze-arazorik egon gabe agertzen dira (Galaburda eta Cestnick, 2003; Snowling, 2014).

Ikus daitekeenez, hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduen intzidentzia nahiko altua da, eta hizkuntza eta irakurketa dira, hain zuzen, arrakasta akademikoa lortzeko funtsezko trebetasunetako bi, hezkuntza-sistemaren muina baitira. Izan ere, gizarte-harremanetan oinarritako komunikaziorako tresna izateaz gain, hizkuntzaren eta irakurketaren ikaskuntzak eskolako lehen urteetan garrantzi berezia ere badu, umeak denbora gutxian komunikatzen eta irakurtzen ikastetik, gaitasun horiek ikasteko eta dakitena erakusteko erabiltzera pasatu behar baitute. Horregatik guztiagatik, irakurtzeko ezintasunak jakintza ia eskuraezina izatea dakar, hortaz, ikaskuntza frustragarri bihurtzen da eta arrakasta akademikoa kasik lortezina. Gainera, horrek denak gerora desabantaila nabarmena ekarriko du lan munduan sartzeko momentuan (Wedderburn, 2014). Hala ere, lan gehienek prozesu horien garapena lagin klinikoetako umeengan antzemandako defizitak abiapuntutzat harturik aztertu dute. Hizkuntza- eta irakurketa- trebetasunen garrantzia kontuan hartuta, harrigarria da ikustea zer ikerketa gutxi egin den biztanleria normatiboko lagin zabalak erabiliz hizkuntza-sistemaren garapena aztertzeko helburuarekin; azterketa horri esker zehaztu ahal izango bailitzateke, batetik, nola egituratzen den hizkuntza-sistema eraginkor bat adin goiztiarretan, eta bestetik, egitura horren ezaugarriak eta haurtzaroan zehar duen bilakaera.

Bestalde, trebetasun kognitiboek eta hizkuntza-trebetasunek gure gizartean duten pisua kontuan hartuta,—eskolako arrakastan edo porrotean ez ezik, umeen gizarteratzean ere erabakigarriak izan baitaitezke—espero daitekeena da zailtasunak dituzten umeengandik hurbilen dauden pertsonak kezkatzea. Izan ere, zailtasun horiek daudela kontzientzia hartzeak eta onartzeak aldaketak ekar ditzake umeek euren ingurune hurbiletik hartzen duten estimulazioan, eta logikoa da estimulazio horrek hizkuntzan eta irakurketan inplikaturako trebetasun kognitiboen garapenean eragin handia izatea. HNEa eta dislexia agertzeko probabilitatea areagotzen duten gene batzuk identifikatu diren arren, nahasmenduaren balizko garapenean eta larritasunean genetikaren pisua %40koa da, gutxi gorabehera (Viding, Spinath, Price, Bishop, Dale et al., 2004). Ingurunearen garrantzia ikusita, gero eta ikerketa gehiagok aztertu dute familia-testuinguruak hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean duen

papera, aldagai jakin batzuen presentzia indartzailea izan daitekeelako eta babesle modura jokatu nahasmenduaren arriskuaren edo presentziaren aurrean. Adibidez, kalitatezko testuingurua definitzen duten ohitura eta jokaera jakin batzuk identifikatu dira, hizkuntzaren eta irakurketaren motibazioa eta garapena sustatzen dutenak. Kontrara, familia-testuinguruaren zenbait ezaugarri osasun emozionalari edo erregulazioaren garapenari ukitu ahal diote, beraz, ezaugarri horiek arrisku aldagaitzat har daitezke umeen hizkuntzaren eta irakurketaren garapenaren azpian dauden gaitasunetan izan dezaketen eragin negatiboagatik (ikusi Cowan eta Cowan, 2002; Conlon, Zimmer-Gembeck, Creed, eta Tucker, 2006; Froyen, Skibbe, Bowles, Blowby, eta Gerde, 2013; Guajardo, Snyder, eta Petersen, 2009; Laakso, Poikkeus, eta Lyytinen, 1999).

Lan honen bidez helburu bikoitz bati heldu nahi izan zaio defizit anizkoitzaren ikuspegitik eta esparru ekologiko-testuingurukotik: alde batetik, defizit anizkoitzaren ikuspegiaren arabera, trebetasun fonologiko, lexiko eta gramatikalen azpian oinarrizko prozesu kognitibo batzuk daude, eta horiek defizita duten umeen fenotipo desberdinak eta komorbilitatea azal ditzakete. Ildo horretan, garapen goiztiarra duten oinarrizko aldagai kognitiboak identifikatu nahi dira, hain zuzen, hizkuntzaren eta irakurketaren garapenaren azpian egon daitezkeenak eta nahasmenduen arteko komorbilitatea azal lezaketanak. Helburu horrekin, bai hizkuntza- eta irakurketa-zailtasunak izateko arrisku-markatzaileak dituzten umeez, bai garapen normatiboa duten umeez osatutako lagin zabalean aztertu nahi da gaia, prozesu horien garapen normala ebaluatzea ez ezik, garapen optimoaren jarraitutasun ikuspegia ematea ere ahalbidetzen duelako, defizit- eta dimentsio-ikuspegia eman beharrean.

Hizkuntzaren garapenean oinarrizko prozesu psikologikoei duten paperari buruz dagoen literatura lagin klinikoetan zentratu da bakar-bakarrik (Archibald eta Gathercole, 2006; Gathercole eta Baddeley, 1990; Montgomery, 2003, 2004; Montgomery eta Evans, 2009; Montgomery eta Windsor, 2007), baina ia ez dago lagin tipikoetan oinarritutako ebidentziarik (Gooch, Thompson, Nash, Snowling, eta Hulme, 2016). Beste alde batetik, adin goiztiarretan prozesu horiek garatzeko umearen testuingurua funtsezkoa denez, asmoa ere bada esparru ekologiko-testuingurukotik honako hau aztertzea: familia-testuinguruaren zenbait aldagaik hizkuntzan eta irakurketan inplikaturako oinarrizko trebetasun kognitiboetan izan dezaketen eragina. Helburu horrekin, tesi honetan familia-testuinguruaren aldagai batzuek prozesu kognitiboen eta linguistikoen garapenean duten papera aztertzen da, batetik, hizkuntzaren edo/eta irakurketaren nahasmendua garatzeko arriskuan dauden umeen lagin batean, eta bestetik, garapen normatibodun umeen lagin zabal batean luzetarako azterketa

baten bidez, arlo horretan egindako lanek talde klinikoak erabiliz baino ez dituztelako ikertu arazo horiek, funtsezko galdera honi erantzun gabe: Nola dago antolatuta hizkuntza-sistema erakingor bat eta nola susta daiteke sistema hori testuinguru naturalean?

Hala, lan honen helburuak honela labur daitezke:

- Hizkuntzaren eta irakurketaren azpian dauden garapen goiztiarreko oinarrizko aldagai kognitiboak identifikatzea, bai garapen normatibodun umeen lagin batean, bai maila horietako edozeinetan nahasmenduren bat garatzeko arriskuan dauden umeen lagin batean. Identifikatutako aldagaiok hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduen arteko komorbilitatea azaltzen lagunduko dute.
- Familia-testuinguruko aldagai batzuek hizkuntzan eta irakurketan inplikaturako oinarrizko trebetasun kognitiboetan izan dezaketen eragina aztertzea, hala arriskuan dauden umeen lagin batean nola garapen normatibodun umeen lagin batean.
- Gai horiek modu konkurrentean eta luzetara aztertzea.

2. KAPITULUA: Hizkuntzan eta irakurketan inplikaturako prozesuak

2.1. Hizkuntzaren garapena eta inplikaturako prozesu kognitiboak

Hizkuntza gizakien tresna sozio-kulturala da, norberarekin eta besteekin komunikazioa ahalbidetzen duena, eta horrek pentsamenduak adieraztea eta komunitatean elkarbizitzea dakar. Trebetasun horrek hiru dimentsio hartzen ditu barnean—forma, edukia eta erabilera—eta horiek, aldi berean, hizkuntzaren beste osagai edo dimentsio desberdinez osatuta daude. Egitate horrek nolabaiteko modularitatea dagoela onartzea eskatzen du, baina horri aurrerago egingo zaio erreferentzia. Formak bi osagai ditu: fonologia eta sintaxia. Fonologia soinuaren sistemari eta horien konbinazioari dagokio; konbinazio horietatik abiatuta, hizkuntza bakoitza osatzen duten hitzen morfemak—esanahia duten unitaterik txikienak—sortzen dira. Sintaxia hitzak konbinatzeko modua da, esaldi eta perpaus zuzenak sortzeko. Edukiak, bere aldetik, osagai semantikoa hartzen du bere baitan, hau da, sare semantikoetan—esanahiari lotutako ezaugarri semantiko edo atributu jakinak partekatzen dituzten hitzak—antolatzen diren hitzen eta esaldien esanahia. Azkenik, erabilerak osagai pragmatikoa eta adierazteko gaitasuna (hizkuntzaren erabilera egokia testuinguru desberdinetan; solaskidea eta egoera kontuan hartuta, elkarrizketa nola gauzatu behar den zehazten duen ez-hitzezko arau multzoan oinarritua) hartzen ditu, eta kulturaren arabera alda daitezke (Lizaso, Acha, Reizabal, eta García, 2017).

Osagai horien garapena progresiboa da eta beren bilakaera haurtzaro goiztiarrean hasten da bi etapatan zehar, non trebetasun desberdinak finkatzen diren. Hitz egin aurreko etaparen ezaugarria trebetasun fonologiko oinarrizkoenen garapena da, eta umetxoak ama hizkuntzaren soinuak hautematen eta ekoizten hasten direnetik lehen hitza ekoizteko gai diren arte—gutxi gorabehera, 12-18 hilabete dituzten arte—irauten du. Etapa horrek barne hartzen du hitzen soinu-egituraren irudikapen mentalak sortzea eta ekoizteko trebetasuna izatea, behin bere baitan gordeta egon eta gero. Gainera, etapa horretan umeak sarritan agertzen diren egiturak hautematen hasten dira, baita hitzak hizkera jarraituaren barruan bereizten ere, azentua eta tarreak bezalako gakoak erabiliz (Kooijman, Hagoort, eta Cutler, 2009). Zazpi hilabete dituztenean, dagoeneko, hitzak osatzen dituzten fonemen konbinazio desberdinak buruan gordetzen hasten dira, horregatik beren ama hizkuntzan ez dauden edo ohikoak ez diren konbinazioak hautemateari uzten diote (Werker eta Tees, 2002). Umeek soinu-sistema ixteko duten arintasunak erlazio zuzena du gerora izango duten hiztegiarekin (Kuhl, Conboy, Coffey-Corina, Padden, Rivera-Gaxiola et al., 2008), beraz, hasierako gaitasun fonologikoa

inausketa neuronalaren prozesu azkarraren adierazlea izango da, eta sailkatutako fonemekin lan egitea eskatzen duten prozesu linguistikoei lagunduko die. Hilabete geroago, 8 hilabeterekin, umetxoek fonema bakarrean desberdintzen diren bi sasihitz bereizteko trebetasuna garatzen dute, eta horrek soinuen ahoskera egokia ahalbidetzen du, baita hitzen barruan soinu-patroiak hautemateko, eta soinu-multzo horiek esanahi zehatzei lotzeko trebetasuna ere (Albareda, Pons, eta Sebastián-Gallés, 2011).

Hain zuzen, sistema fonologikoa barneratu denean hasten da zezelkatzea bezala ezagutzen den fenomeno unibertsala (silaba zehatzen errepikapena; normalean biezpainkariak *-b/p/-* edo sudurkariak *-m/n/* izaten dira). Une hori silaba naturalak—hitzak eraikitzeko elementu gisa funtzionatzen dutenak—ekoizteko abiapuntutzat hartzen da. Umeak entzuten duen hizkuntzaren soinuak imitatzen ditu; horien kopurua handitu ahala, bere errepertorioan txertatzen ditu eta hamar hilabete ditueneko umetxo gehienek modu argi, sistematiko eta errepikatuan zezelka egiten dute. Garrantzitsua da azpimarratzea soinuen ekoizpena, neurri handi batean, trebetasun harkorraren araberakoa dela, beraz, lehen hitzen ahoskera 12 eta 18 hilabete bitartean agertu ohi da, garapen fonologiko egokia—fonema espezifikoak gordetzeko, hautemateko eta ekoizteko trebetasuna—lortzeko estimulazioaren ondorioz (ikusi Zhao eta Kuhl, 2016). Lehenago aipatu denez, etapa hori oso goiz garatzen da, lehen urte eta erdian zehar, eta gerora lexikoari eutsiko dioten unitateak osatuko dituzten trebetasun fonologikoak garatzeko etapa da.

Hitzezko etapa, bere aldetik, umeak ekoizten duen lehen hitzarekin hasten da, eta hori, hain zuzen, 12 eta 18 hilabeteen bitartean gertatu ohi da. Momentu horretatik, gutxi gorabehera 18 hilabete bete arte, umeak hitz bakarren edo bi hitzen konbinazio sinpleen bidez komunikatzen dira. Hitzezko etaparen hasieran, hiztegi harkorra adierazpen-hiztegia baino askoz handiagoa da. Izan ere, hamahiru hilabete dituztenean umeek hitz kopuru zabala ulertzen dute (50 inguru), baina hamazortzi bete arte ez dira gai izango denak modu egokian ahoskatzeko. Haur-hiztegia oso azkar hazten da lehen hitzak ahoskatu ondoren. Pertsona garrantzitsuei, agurrei, animaliei, ibilgailuei, jostailuei, janariari, gorputz-atalei, jantziei eta etxeko objektuei buruzkoa da (inguruneko ohiko elementuak), eta testuinguruan erabat jarrita dago (etiketa lexikoa testuinguru espezifiko batean ikasten eta erabiltzen da). Hain zuzen, bi urte betetzen direnetik aurrera hiztegia hazi egiten da eta hizkuntza-testuingurutik atera eta egoera berrietara orokortzen da; zenbat eta aberatsagoa eta anitzagoa izan esperientzia linguistikoa eta interaktiboa, hainbat eta egoera berri gehiagotara orokortzen da (Ramírez-Esparza, García-Sierra, eta Kuhl, 2014).

24 hilabete dituztenetik aurrera ere, umeak gramatika-arauak barneratzen eta erabiltzen hasten dira (numero eta genero komunztadurak), nahiz eta batzuetan gehiegizko erregularizazioa egiten duten, adibidez, arau berberak salbuespen kasuetan ere erabiltzen dituztenean (“luna azula”). Lau urte betetzen dituztenetik aurrera hasten dira salbuespenen kontzientzia hartzen eta gero eta konplexuagoak diren arauak barneratzen (esaterako, aditzenak); orduan hasten dira aditzak jokatzeko arauak ulertzen eta aplikatzen (canto, canté, cantaste, como, comí, comiste), eta salbuespenetan ere aplikatzen dituzte (“cabo”, “poní”, eta abar, ikusi Clahsen, Aveledo, eta Roca, 2002). Hori dela eta, eskolako etapa, eta batez ere lau urteetatik sei urteetara doan aldia, bi alderdi garrantzitsu garatzeko eta ebaluatzeko funtsezko garai bihurtzen da: batetik, alderdi meta-fonologikoa (prozesu fonologikoen garapena, esate baterako, soinuak buruan gordetzea, sailkatzea eta modu argian ekoiztea); eta bestetik, doikuntza morfo-fonologikoa edo aditzen komunztaduraren eta morfologiaren inguruko oinarrizko gramatika-arauen menperatzea. Deskribapen horrek iradokitzen du trebetasun batzuk—fonologikoak—eboluboki beste batzuk baino lehenago agertzen direla—lexikoak, semantikoak—, eta ondorioz, berantiarrenen garapena baldintza dezaketela.

2.1.1 HNEa eta bere ezaugarri espezifikoak

Oinarrizko prozesuek hizkuntzaren garapenean duten paperari buruzko ebidentzia-iturririk nagusiena, oinarrizko prozesu horiek HNEan duten inplikazioa aztertzen duten ikerketetatik dator. Lan horiek oinarrizko prozesuen, trebetasun fonologikoen (ezagutza fonologikoa edo oroimen fonologikoa, adibidez) eta nahasmendu hori duten pertsonengan ohikoak diren muga gramatikalen edo hiztegiaren arteko lotura babesten dutela dirudi (Hilfner-Boucher, Milburn, Weitzman, Greenberg, Pelletier et al., 2014; SLI Consortium, 2002).

Hizkuntzaren nahasmendu espezifikoa (HNE) hizkuntza-maila desberdinetan gertatzen diren defizitek bereizten dute: ezagutza fonologiko eta fonemen bereizketa eskasa; hizketaren pertzepzio eskasa (hizkuntza harkorra); hitzen artikulazio eta jario urria; hiztegi-maila baxua bere adin kronologikorako; morfosintaxi-maila, ulermen-maila eta gramatikaren erabilera-maila oso sinplea, eta hizkuntzaren ulermen-maila baxua (Hilfner-Boucher et al., 2014; SLI Consortium, 2002; Viding et al., 2003). Aldagai iragarle goiztiar argienak dira, batetik, fonemak hautemateko eta kategorizatzeke zailtasunak, eta bestetik, hizketaren soinuak diskriminatzeke eta kategoriatan sailkatzeke (Tallal, 2004). Beste iragarle

garrantzitsu batek iraupen laburreko hitzezko oroimen-maila (informazio fonologikoa gordetzeko gaitasuna) oso baxuari egiten dio erreferentzia (Conti-Ramsden eta Durkin, 2007; Montgomery, 2003; Nash, Hulme, Gooch, eta Snowling, 2013), eta badirudi horrek hiztegia gordetzea eta erabiltzea oztopatzen duela (Ramus, Marshall, Rosen, eta van der Lely, 2013; SLI Consortium, 2002). Aipatutako zailtasunak aurkitu egiten dira, umeek adimena neurtzeko testetan batez besteko puntuazioak lortu arren, bereziki ez-hitzezko azpieskaletan, eta maila neurologikoan, zentzumenezkoan, sozioafektiboan edo jokabidezkoan ere ez dute nahasmendurik erakusten (Castro-Rebolledo, Giraldo-Prieto, Hincapié-Henao, Lopera, eta Pineda, 2004).

Hizkuntza nola antolatzen eta garatzen den aztertzen saiatu diren lan gehienak umeen lagin klinikoetan oinarritu dira, hizkuntzaren dimentsio desberdinen independentzia erlatiboa aztertzeak fenotipoak identifikatzea eta sistema espezializatuak bereiztea ahalbidetzen duelako, defizit zehatz batean oinarrituta (fonologikoa, lexikoa edo gramatikala). Ildo horretan, ikuspegi modularra eta ez-modularra ere nabarmendu dira HNEa duten umeen laginekin egindako ikerketetan.

Heather van der Lely (2005) da, agian, hizkuntzaren eredu modularren ordezkari nagusia. HNEa duten umeen lagin klinikoekin egin diren ikerketen ebidentzietatik abiatuta, bi moduluren inguruan—bat fonologikoa eta bestea morfo-sintaktikoa—antolatutako hizkuntza-sistema proposatzen du. Teoria horren alde dauden autoreak honetan oinarritzen dira: ume horiek sarritan euren adinerako espero daitezkeen gaitasun kognitiboak erakusten dituzte, baina hizkuntzaren arlo jakinetan (fonologikoan, morfologikoan eta gramatikalean) hizkuntza defizitarioa dute (van der Lely, 2005). Zehazki, iradokitzen dute ume horiengan soinu-egiturak antolatzeko eta hitzak osatzeko, edo esaldietan egitura sintaktikoak antolatzeko trebetasunari eragiten dioten arau hierarkikoak konputatzeko gaitasunean defizita izatea dela hizkuntzaren nahasmenduaren ezaugarri nagusia. Ondorio nagusia, irudikapen morfologikoen eta gramatikalen espezifikotasun falta da (Rice, Wexler, Marquis, eta Hershberger, 2000; van der Lely, 2005), edo horien azpian dauden arau konputazionalak ulertzeko eta errepikatze trebetasun falta (Ullman, 2004; Ullman eta Pierpont, 2005). Izan ere, HNEa duten umeek fonemak gordetzeko eta horiekin jarduteko zailtasunak erakusten dituzte (Archibald eta Gathercole, 2006; Weismer, Tomblin, Zhang, Buckwalter, Chynoweth et al., 2000), eta oroimen fonologikoko atazen emaitzek okerrera egiten dute, erabili behar dituzten egitura fonologikoak konplexuagoak edo maiztasun txikiagokoak direnean (van der Lely, Rosen, eta Adlard, 2004). Halaber, adin linguistiko eta kronologiko bereko beste ume batzuekin

konparatuz gero, egitura sintaktiko konplexuak prozesatzeko zailtasunak dituzte, adibidez, “Nori” bezalako galderetan (Nori eman zion Ballook azenarioa etxaldean?, Marinis eta Van der Lely, 2007), edo objektuko erlatiboetako esaldietan (Hau da amamak itxaroten duen neska). Aditz erregularren arau morfologikoak barneratzeko eta erabiltzeko zailtasunak—egitura flexiboak gutxiago erabiltzeak eta horien ordean infinitiboak behin eta berriz erabiltzeak— (Rice et al., 2000; Van der Lely eta Ullman, 2001) maila morfosintaktikoan zailtasuna dagoela berresten du. Umeen lagin klinikoekin lortutako ebidentziak, beraz, funtzio fonologikoen eta morfologiko-sintaktikoen disoziazioa babesten du, eredu modularrek proposatzen duten moduan.

Lan horiek HNEaren ezaugarri diren hizkuntza arazoek ikuspegi xehatua eskaintzen badute ere, eragozpenak ere badituzte: alde batetik, fonologiak prozesu desberdinak har ditzake bere barne, eta lehen aipatutako ikerketen autoreek ez dute desberdintasun horietan sakontzen. Adibidez, fonologiak soinu-unitateak (oroimen fonologikoa) gordetzeko trebetasuna ez ezik, horiekin jarduteko gaitasuna ere (ezagutza fonologikoa) ekar dezake. Ikerketa berriek egiaztatu dute bi trebetasun horiek HNEaren eta dislexiaren arteko markatzaile goiztiar bereizgarriak izan daitezkeela, eta beraz, beharrezkoa da bi gaitasunak desberdintzea eta neurtzea ataza espezifikoaren bidez (Ramus et al., 2013). Bestetik, aipatutako ikerketak lagin txikiekin egin dira (hamar eta hamalau ume bitarteko taldeak), eta horietan, HNEa duten umeen gauzatzea adin kronologiko edo linguistiko bereko umeenarekin alderatzen da. Ondorioz, ez dute fenotipoaren jatorriari buruzko datu argitzailerik ematen eta ez dute ahalbidetzen defizit jakin batzuek beste batzuk iragartzea.

Ikuspegi ebolutibotik, bestalde, ikertzaile batzuk muga horiek gaintzen saiatu dira, ebidentzia honetatik abiatuta: aipatutako neurriek ez dutela adin goiztiarretan zailtasunak detektatzeko fidagarritasun nahikoa eta, ondorioz, iradoki dute hizkuntza-zailtasunak garapen goiztiarreko gaitasun kognitiboetan oinarritzen direla. Lan horiek garapen goiztiarreko prozesuen eta hizkuntza-prozesuen arteko balizko erlazioa aztertu dute lagin klinikoaren bidez. Gehien aztertu den prozesuetako bat iraupen laburreko oroimen fonologikoa izan da. HNEa duten umeen laginen eta 7 eta 9 urte bitarteko kontrol-laginen arteko ikerketa konparatiboek erakutsi dute HNEa duten umeei hitzak errepikatze ataza nabarmenki okerrago gauzatzen dutela (Bishop, North, eta Donlan, 1996; Weismer et al., 2000), baita hitzezko lan-oroimenari dagokiona ere (Archibald eta Gathercole, 2006). Defizit horiek hiztegiaren eraikitzeari ez ezik, hitzezko informazioaren prozesatzeari ere eragin liezaiekete, baina orokorrean, hizkuntza-defizitak oso nabarmenak direnean ebaluatzen dira.

Markatzaile goiztiar bezala balio zezaketen neurri sentikorrek bilatzeko saiakera batean, Bishop-ek eta Hayiou-Thomas-ek (2008) luzetarako ikerketa bat egin zuten hizkuntzaren nahasmendua izateko arriskuan zeuden 333 biki-bikoterekin eta arrisku hori ez zeukaten 194 bikoterekin (adinaren batez bestekoa = 4 urte). “Arrisku” estatusa zehazteko konposatu linguistiko bat erabili zen, zein gramatikaren ulermenari eta ekoizpenari, ezagutza lexikoari, hitz jariotasunari, adimen-kozienteari, ezagutza fonologikoari eta iraupen laburreko oroimen fonologikoari buruzko probez osatuta zegoen. Emaitez HNEa definitzeko eta diagnostikatzeko adostasun falta nabarmena erakutsi zuten. Hizkuntza-trebetasun txikia zuten eta ez-hitzezko atazetan (Haurren Trebetasunak neurtzeko McCarthy Eskalarekin balioetsiak) zailtasunik erakusten ez zuten umeen %38 baino ez zen bideratu logopeda batengana gurasoen edo irakasleen aldetik. Gainera, azkenean diagnostiko klinikoa lortu zuten umeek (%30 gutxi gorabehera), puntuazio baxuenak lortu zituzten bai hizkuntza orokorraren neurketetan (hitzezko ekoizpena, hitzezko ulermena, hiztegia eta hitzezko jariotasunaren inguruko atazak), baita ataza fonologikoetan ere (hala fonemen ezagutzari eta bereizketari lotutakoetan, zeinek soinuekin jarduteko zailtasuna erakusten zuten, nola sasihitzen errepikapeneko atazetan, zeinek soinu-kateak biltegiratzeko zailtasuna adierazten zuten).

Diagnostiko klinikoa ez zuten umeengan ere neurri fonologikoak hizkuntzaren puntuazioei lotuta zeudela ikustea interesgarria da. Alde batetik, aurkikuntza horiek frogatzen dute hizkuntzaren arazoak nabarmenak direnean egiten dela bideratze klinikoa, eta seguruenik markatzaile sotilak erakusten dituzten umeak ez direla inoiz profesionalen batengana bidaliak izango. Beste aldetik, trebetasun fonologikoen eta hizkuntza-trebetasunen arteko erlazioa ere baieztatzen dute. Lehenengoen barruan fonemen maneia (monitorizazioa eta ezagutza fonologikoa) edo iraupen laburreko oroimen fonologikoa (sasihitzen errepikapena) daude; eta bigarrenen barruan hiztegi-maila, hitzen artikulazioa eta gramatikaren konplexutasuna. Lehenago aipatu ditugun neurriek HNEaren markatzaile goiztiar bezala duten indarra babesten du erlazio horrek (Gathercole, 1995; Munson, Edwards, eta Beckman, 2005).

Izan ere, beste ikerketa batzuek adin tarte berean HNEa duten umeek hitzezko lan-oroimeneko defizit argiak dituztela erakutsi dute—esaldietan txertatutako hitzak gogoratzeko atazekin (Montgomery, 2000) eta digituak atzerantz gogoratzeko atazekin (Montgomery eta Windsor, 2007) ebaluatutak—, baina horrez gain, agerian utzi dute defizit hori prozesatze-abiadura apalagoarekin batera doala, adin kronologiko bereko umeekin alderatuz gero. HNEa duten umeek lan-oroimenean zein monitorizazio fonologikoko trebetasunetan dituzten

defizitek babesten duten ideia da prozesu exekutiboek hizkuntzaren garapenean eragin dezaketela, eta, halaber, defizit horiek lexikoa eraikitzeke eta sintaxia prozesatzeko zailtasunekin zerikusia eduki lezaketela iradokitzen dute. Hori dela eta, autore batzuen ikerketa-puntu zehatza izan da aztertzea ea lagin horiek arreta-prozesuetan eta prozesatze-abiaduran ere defizitak adierazten dituzten.

Hala, Finneran, Francis eta Leonard (2009) ikerketa batean informazioa prozesatzeko zailtasunak aztertzen aritu ziren. Zehazki, arreta eutsiaren inguruko arazoak aztertu zituzten itxuraz arretaren nahasmendua erakusten ez zuten HNEdun umeengan. Lagina HNEa zuten 13 umek eta hizkuntzaren garapen normala zuten beste 13 umek osatzen zuten, eta adina 53 eta 83 hilabete bitartekoa zen ($m = 62$ hil.). Ume hauen ez-hitzezko adimena parekoa zen (CMMS Eskalaren bidez ebaluatua) eta ez zuten Arreta-Defizitaren eta Hiperaktibitatearen Nahasmenduaren (ADHN) markatzailerik erakusten Gurasoentzako Connors eskalaren arabera (CADS-P). Emaitzek egiaztatu zuten HNEa zuten taldeko umeen hizkuntza-errendimendua kontrol-taldeko umeena baino askoz txarragoa zela. Gainera, arretaren aldetik (ikusizko CPT ataza bat erabiliz ebaluatua) zehaztasun askoz txikiagorekin jokatu zuten, alarma faltsu gehiago (inpultsibitatearen markatzailea) eta igartze-tasa txikiagoa (arreta faltaren markatzailea) baitzuten. Hala ere, bi taldeen artean ez zen alde garrantzitsurik aurkitu erreakzio-denborari zegokionez. Era berean, Montgomeryk eta Evansek (2009) antzeko arreta-arazoak aurkitu zituzten (entzunezko CPT ataza baten bidez ebaluatu zuten). Kasu horretan, HNEa zuten umeak 6 eta 11 urte bitartekoak ziren eta lagin hori adin kronologiko bereko umeekin alderatu zuten. Ebert-ek eta Kohnert-ek berriki egin duten meta-analisi batek (2011) HNEa duten umeengan arreta-defizit subklinikoak daudela egiaztatzen du, eta autore horiek iradokitzen dute arreta-gaitasuna ebaluatzen duten atazen errore-tasak defizit horren adierazle fidagarritzat har daitezkeela. Ikerketa konparatibo horiek adierazten dute maila exekutiboan oinarritako prozesuetan gertatzen diren mugak hizkuntza-arazoak dituzten umeen funtsezko ezaugarriak izan daitezkeela, eta horrek adin kronologiko edo hizkuntza-maila bereko beste umeengandik bereizten dituela.

Ikerketa batzuek defizit horiek HNEa duten umeen hizkuntza-trebetasunetan eduki dezaketen paper iragarlea aztertu dute. Lanok iraupen laburreko oroimenaren papera egiaztatu dute lagin klinikoetan, batetik hiztegia ikastea (Gathercole eta Baddeley, 1990), bestetik, esaldiak ulertzean (Montgomery, 2004) eta azkenik, adierazpen-hizkuntzan (Conti-Ramsden eta Durkin, 2007). Horrez gain, arretaren, lan-oroimenaren eta prozesatze-abiaduraren rola ere argi geratu da trebetasun sintaktikoan eta adierazpen-hizkuntzan (Im-

Bolter eta Cohen, 2007; Mainela-Arnold eta Evans, 2005; Montgomery eta Evans, 2009). Baina, oraingoz, inongo lanik ez du aldagai horien guztien arteko lotura lagin kliniko edo normotipikoetan aztertu, nahiz eta azterketa horrek hizkuntza-sistemaren konfigurazioari eta garapenari buruzko esparru argitzailea eskaini lezakeen, eta gainera, hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduen arteko komorbiditatea azalduko luketen gakoak eman litzakeen. Horregatik, alderdi hori tesi honen helburuetako bat izango da, orain arte aipatutakoaz gain, gai horien azterketak esku-hartze goiztiarrak planifikatzeko eta, ondoren, ezartzeko oinarri enpirikoa eskaini baitezake.

2.2. Irakurketaren garapena eta inplikaturako prozesu kognitiboak

Lehenago aipatu den bezala, ezagutza fonologikoa (hitzak osatzen dituzten soinuak diskriminatzeko eta horiekin buruz jarduteko gaitasuna) eta oroimen fonologikoa (informazio fonologikoa biltegitratzeko gaitasuna) funtsezko bi trebetasun dira hizkuntza normaltasun parametroetan gara dadin. Orain arte egin diren ikerketen datuek trebetasun horiek hiztegiaren eskuratzean eta gramatika-arauekin jarduteko gaitasunean zerikusia izan lezaketela iradokitzen dute. Gainera, badirudi aipatu diren trebetasunak irakurketaren garapenari lotuta ere badaudela eta ahozko hizkuntzatik hizkuntza idatzira igarotzean paper garrantzitsua joka lezaketela. Izan ere, irakurrikiko ulermen-zailtasunak hizkuntza nahasmendua duten umeengan ohikoagoak direla frogatu da (Ygual-Fernández eta Cervera-Mérida, 2001). Gertakari horren azalpena hau da: ezagutza fonologikoa (hitzetan fonemak kentzeko edo segmentatzeko trebetasunaren bidez neurtua) hizkuntzan ez ezik, irakurketaren garapenean ere rol oso garrantzitsua du, soinu-unitateak monitorizatzeko edo horiekin buruz jarduteko gaitasuna beharrezkoa baita idatzitako hizkiak eta horiei dagozkien soinuak uztartzeko, hain zuzen, deskodetze deritzon prozesua egiteko (Hogan, Catts, eta Little, 2005).

Argi dagoena da ezagutza fonologikoa ondorengo irakurketaren eskuratzearen iragarle zehatzenetako bat dela garapen normaldun umeen kasuan (Herrera eta Defior, 2005), baita alfabeto-printzipioak erabiltzen ez dituzten hizkuntzetan ere (Goswami, 2003)—txinera eta koreera bezalakoetan adibidez—beraien hizkuntzako fonemen ezagutzak deskodetzea (grafema-fonema lotzea) modu egokian egitea, eta ondoren, jarioasunez irakurtzea ahalbidetuko liekeelako. Hain zuzen, Vellutino, Fletcher, Snowling, eta Scanlon-ek (2004) dioten bezala, prozesatze-fonologikoa dauden zailtasunak funtsezkoak dira irakurketaren nahasmenduen agerpenean, eta ezagutzafonologikoko atazetan (sasihitzaren lehen edo azken

fonema kendu, errimak bilatu, etab.) defizitak dituzten umeak irakurketa-arazoak garatzeko arriskuan egongo dira (Bradley eta Bryant, 1983).

Hizkien ezagutzak eta identifikazioak (hizkiaren izena edo soinua izendatzeko gaitasuna) ezagutza fonologikoarekin harreman estua du, hizki baten soinua bere irudikapen grafikoari lotu behar baitzaio idatzitako hitzak deskodetu ahal izateko (Foulin, 2005; McBride-Chang, 1999). Herrialde desberdinetako 5 urteko 659 umerekin egindako ikerketa batean Chiappe-k, Siegel-ek, eta Gottardo-k (2002) ezagutza fonologikoak eta alfabetikoak irakurketan duen papera aztertu zuten. Emaitzen arabera, bi gaitasunek irakurketan rol garrantzitsua zuten hizkuntza guztien kasuan, eta horrek horien ahalmen iragarlea babesten du. Ondorioz, logikoa dirudi irakurtzeko arazoak dituzten umeek bi maila horietan (soinuekin jardutean eta soinu-hizki lotura egitean) defizitak edukitzea, eta hasierako mailetan dagoen irakurle batentzat zailtasunik handiena, batetik, deskodetzean eta fonema-grafema serieen arteko korrespondentzian egotea, eta bestetik, kodetzean eta hitzetako hizkien ordena zein sekuentzia antzematean (Acha eta Perea, 2008).

Hala ere, ezagutza fonologikoa gara dadin, beharrezkoa da soinu-unitateak eta patroiak oroimenean barneratuta geratzea, zehatzago esanda, oroimen fonologikoan, informazio fonologikoa denbora tarte laburretan zehar gordetzen espezializatuta baitago (Gathercole eta Baddeley, 1990). Oroimen hori oso garrantzitsua izango da ahozko eta idatzizko hitzen irudikapen osoen (eta ondorioz, irudikapen fonologikoen eta ortografikoen) arteko korrespondentziak egiteko, baita fonemen eta grafemen sekuentziak barneratzeko ere. Izan ere, oroimen fonologiko eraginkorrak fonema-kate luzeagoak atzematea eta gordetzea erraztuko du, eta patroia horiek monitorizatzeko gaitasuna ere irakurketaren iragarle garrantzitsua izango da. Oroimen fonologikoan agertzen diren zailtasunek erregulartasunak eta hitz osoak barneratzeko defizitetara eramango lukete (Valdois, Bosse, eta Tainturier, 2004), eta ondorioz, horietara automatikoki heltzea eta, azken finean, jarioz irakurtzea oztopatuko lukete.

Irakurketa eskuratzeko eta ikasteko eredu bat Frith-ek (1986) proposatzen duena da. Eredu horrek irakurketaren garapena aipatutako trebetasunak txertatuz azaltzen du, eta gainera, berme zientifikoa ere badu. Ereduak irakurketa hiru etapatan garatzen den progresioa bezala ulertzen du: etapa *logografikoan* umeak zeinu bisualen ezaugarri grafikoengatik antzematen ditu hitzak. Ohikoa izaten da lehen hizkia funtsezko elementua izatea antzemate hori gerta dadin, eta gainerako elementuen ordena garrantzirik gabekoa izatea hitza

antzemateko. Fase horretan arrunta izaten da publizitateko logotipoak ezagutzea, Coca-cola markarena adibidez, eta hizki bat aldatzeak (Coca-cofa) ez du marka ezagutzeko oztoporik sortzen, antzematen dena multzoa delako, bere hizki batzuen ezaugarrietan oinarrituz. Bigarren etapa *alfabetikoa* da, eta horretan umea ulertzen hasten da, batetik, zeintzuk diren soinuen eta hizkien arteko korrespondentzien printzipio alfabetikoak (deskodetzea), eta bestetik, hitzak sortzeko soinu horien sekuentzia ordena jakin batean garatzeak duen garrantzia.

Fase horretan (bost eta sei urte bitartean garatzen da) trebetasun fonologikoak beharrezkoak dira, hizkiak ikasten hasten direnean eta horiek bata bestaren atzetik (serie batean) agertzen hasten direnean, ezagutza fonologikoa ukitua egoteak fonema-grafema korrespondentzia zuzen egiteko zailtasuna dakarrelako. Aldi horretan kodetze egokia egiteak egitura errepikariak barneratzea ahalbidetuko du, hitzak begi-kolpean antzematera heldu arte. Gertakari horrek azken etaparako trantsizioa adierazten du; irakurketaren garapena burutzearekin bat dator, eta etapa *ortografikoari* dagokio. Etapa horretan, hitzen aurrean behin eta berriro jarri izanagatik, buruko lexikoan gorde diren hitz osoak antzematen dira. Prozesu hori posiblea da hitzak osagai morfemikoetan, eta ez soinuetan, oinarrituta antzematen hasten direlako, hots, osagai morfologiko desberdinak prozesatzen dira lexikorako sarbidea automatikoa izan dadin.

Beraz, irakurketa jarduera konplexua dela ondoriozta daiteke; jarduera hori esperientziaren bidez automatizatuz eta gero eta eraginkorrago bihurtuz doa, hala zehaztasunaren aldetik nola abiadurarenetik. Hori dena egingarria izan dadin, beharrezkoa da bai fonemetara sarbidea edukitzea eta buruz maneiatu ahal izatea (Treiman, Pennington, Shriberg, eta Boada, 2008), eta bai erregulartasun ortografikoak zein esanahizko unitateak barneratzea (Castles eta Nation, 2008), azkenean hitz osoak antzemateko eta modu automatikoan eta ulergarrian irakurtzeko. Ezagutza ortografiko eta lexikoaren eskuratze progresibo hori bi estrategiaren konbinazioaren emaitza da: estrategia *sublexikoak* fonemen eta grafemen arteko deskodetzea zuzenean egitea dakar, eta batez ere, lexikoa oraindik ondo garatuta ez dagoenean erabiltzen da. Estrategia hori irakurketa eskuratzeko etapa alfabetikoan eta goiztiarrean baliatzen da, eta helduen irakurketa-sistemak hitz ezezagunei edo ezohikoei aurre egin behar dienean ere bai (Sprenger-Charolles, 2004). Autore batzuek adierazten duten bezala, estrategia fonologikoen erabilera egokia da grafema-morfema korrespondentzia dagoenean, hau da, ortografia gardenetan, baina ez testuinguruaren menpe dauden korrespondentzietan edo poligrafikoak direnetan. Horren ondorioz, fonema talde batzuen

deskodetzea zaildu egiten da (Singroni eta Borzone de Manrique, 2003; Alfonso, Suárez-Coalla, eta Cuetos, 2015).

Estrategia lexikoak, bere aldetik, oroimenean biltegituta dauden hitz osoen irudikapenetara sarbidea edukitzea dakar. Hala, estrategia horren erabilera lexikoaren eta bere irudikapen ortografikoen biltegitatze-kalitatearen eta –zehaztasunaren araberakoa izango da, irudikapenen eta idatzizko hitzen arteko lotura zuzenen menpe baitago. Ibilbide hori iraupen luzeko oroimenetik berreskuratu diren maiztasun handiko hitzak irakurtzean erabiltzen da. Estrategia jakin bat erabiltzea, neurri handi batean, hizkuntzaren gardentasunaren eta buruko lexikoan barneratutako irudikapenak modu automatikoki berreskuratzeko gaitasunaren araberakoa izaten dela ikusi da (Sprenger-Charolles, 2004; Alfonso et al., 2015). Laburbilduz, modu zehatzean biltegitatutako patroik ortografikoek hitzak azkar, zuzenean eta zehatz antzematea ahalbidetzen dute (Moll, Ramus, Bartlig, Bruder, Kunze et al., 2014), eta grafemen zein fonemen arteko kontsistentziak funtsezko papera jokatzen du umeek deskodetze-trebetasunak menperatzeko ez ezik, ezagutza lexiko eta ortografiko ona garatzeko duten abiaduran ere. Izan ere, irakurketa-trebetasunak hizkuntza gardenetan opakuagoak diren hizkuntzetan baino arinago eskuratzen dira (Moll et al., 2014; Yeong, Fletcher, eta Bayliss, 2014; Yeong eta Liow, 2010; Ziegler eta Goswami, 2005).

Irakurketaren prozesu ebolutiboa modu egokian garatzen ez denean, deskodetze-arazoak (printzipio alfabetikoak ezartzeko defizitak) edota jariotasun-arazoak (irudikapen ortografikoak barneratzeko eta horietara automatikoki sartzeko defizitak) aurki daitezke. Kasu gehienetan, irakurtzeko arazoak etapa alfabetikoan agertzen dira, soinuekin jarduteko eta soinu horiek hizkiei seriean eta modu ordenatuan esleitzeko zailtasunarengatik. Hori, izatez, hizkuntza-arazoa den arren, irakurtzeko jariotasun-arazo bihur daiteke gerora. Gaztelania bezalako ortografia gardenetan, ezagutza fonologikoak deskodetzeko trebetasunean duen pisua goiztiarragoa eta iraupen laburragokoa da ortografia opakuagoetan baino (Furnes eta Samuelsson, 2010). Hain zuzen, hizkien eta soinuen arteko erlazio unibokoari esker, umeak deskodetze-arauak menperatzeko gai dira lehen hezkuntzako lehen eta bigarren mailen artean, eta ondo ezarritako sistema fonologikoa funtsezkoa da aldi horretan (Aro eta Wimmer, 2003). Irakurtzeko arazoak dituzten umeak ere, denborarekin, arauak erabiltzera hel daitezke, eta hala, zortzi urterekin irakurtzeko arazoaren sintoma ez litzateke arauak erabiltzeko ezintasuna izango, baizik eta irakurketa motela eta behartua izatea eta lexikalizazio akatsak egitea; antzemate automatikoa erabili beharrean arauak etengabe erabiltzeagatik gertatzen da hori (Nelson, 2015). Izan ere, faktore horiek (ikaste

alfabetikoan atzerapena eta jariotasun txikia irakurketan) hezitzaileei eta gurasoei balizko dislexia kasu batez ohartarazten dieten oinarritzko markatzaileak dira.

2.2.1. Dislexia eta bere ezaugarri espezifikoak

Irakurtzeko nahasmendua edo dislexia ezaugarri hauengatik bereizten dira: batetik, printzipio alfabetikoak—grafemen edo idatzizko karaktereen eta horiei dagokien fonemaren edo soinuaren arteko loturak—ulertzeko zailtasunagatik (Griffiths eta Snowling, 2002; Landerl eta Wimmer, 2000; Nation eta Snowling, 2004; Wagner, Torgesen, Rashotte, Hecht, Barker et al., 1997); bestetik, sasihitzak irakurtzean errore asko egiteagatik, ortografia opakua zein gardena duten hizkuntzetan (De Bree, Wijnen, eta Gerrits, 2009; Landerl, Wimmer, eta Frith, 1997); eta azkenik, irakurtzeko jariotasun eskasagatik, irakurketa motela eta gorabeheratsua bezala ulertua (Grigorenko, 2001). Gainera, errimak bilatzea edo fonemak kentzea zein maneatzea bezalako atazetan, ezagutzafonologikoan zailtasunak izatea ohikoa da irakurle txarrengan, beraz, defizit fonologikoak irakurketaren nahasmenduaren oinarrian daudela pentsatzen da (Ramus et al., 2013). Goswami-ren arabera (2003), irudikapen fonologikoen espezifikotasun eskasa da, hain zuzen, hizkien eta soinuen arteko lotura egitea zailtzen duena, eta gaitasun hori deskodetzerako (idatzitako materiala soinu-kate bihurtzeko trebetasuna) eta hitzak zein testuak irakurtzeko funtsezkoa da. Dislexiarik ez duten umeekin konparatuta, dislexia duten umeeek sasihitzak irakurtzeko atazan lortzen dituzten emaitza txarretan islatu da defizit hori behin eta berriro (Nation eta Snowling, 2004), osagai lexikorik ez duenez, estimulu-mota hori hizkiaren eta soinuaren arteko korrespondentzia-arauen bidez baino ezin baita deskodetu. Aipatutako arazo guztiak adimen mailako edo hezkuntzara sartzeko zailtasunik egon gabe agertzen dira.

Dislexiari lotutako defizitak zeintzuk diren azaltzen saiatzen diren teoriak asko diren arren (besteak beste, teoria magnozellularrak, prozesatze-bisualari dagozkionak edo entzunezko-prozesatzeari dagozkionak), defizit nagusia fonologian kokatzen duten teoriak (hala ezagutzan—irudikapen fonologikoen mailan—nola oroimenean) babes zientifiko handiagoa lortu dute (ikusi Catts, Adlof, Hogan, eta Weismer, 2005; Joanisse, Manis, Keating, eta Seidenberg, 2000; Ramus, 2014). Defizit fonologikoaren hipotesiaren arabera (Vellutino et al., 2004), ezagutza fonologikoa ikasteko eta, gerora, irakurketa garatzeko funtsezkoak dira. Beraz, defizit batzuk hizketa letren bidez adierazten diren unitate txikiagoetan (fonemetan eta silabetan) segmenta daitekeela ulertzeko trebetasunean agertzen

dira, eta defizit horiek azal ditzakete dislexia duten pertsonen deskodetzea burutzeko eta erregularitasunen erabilera barneratzeko dituzten zailtasunak. Horregatik, zehaztasun gutxirekin irakurtzen dute, akats asko eginez eta oso astiro. Izan ere, hainbat lanek erakutsi dute dislexiadun umeek ez dutela hitzak osatzen dituzten unitate fonemikoen metakontzientziarik (Jiménez-González eta Ortiz-Gonzalez, 2000).

Azpimarratu behar da ezagutza fonologikoa dislexiaren iragarle modura duen indarra, trebetasun hori erakusten duten atazetan lortutako emaitzek irakurketaren nahasmendua iragarri baitezakete urte batzuk geroago. Ondorio hori luzetarako ikerketetatik atera da, adibidez, Puolakanaho, Ahonen, Aro, Eklund, Leppanen et al. (2007) autoreek egindakoa dugu. Horiek 198 umez osatutako lagin bat erabili zuten (106 dislexia edukitzeko familia-arriskuarekin eta 62 kontrolekoak) hizkuntzaren garapenaren eta irakurketa-trebetasunaren iragarle goiztiarrak aztertzeke. 3 urte eta erdi zeuzkatenetik 5 urte eta erdi bete arte, denak urtero ebaluatuak izan ziren ataza hauetan: ezagutza fonologikoa (soinuak hitzaren barruan identifikatzea, soinuak hitzak sortzeko elkartzea, lehen silaban oinarrituta hitzak sortzea, hasierako fonema identifikatzea eta hasierako fonema ekoiztea), objektuen izendapen azkarra eta automatikoa, iraupen laburreko oroimena (digituen oroimena), adierazpen-hiztegia (Boston Izendatze-testa eta WPPSI-R-en hiztegi-azpitatea), sasihitzen errepikapena, hizkien izendapena eta ez-hitzezko adimena. Horrez gain, gurasoen hezkuntza-maila ere jaso zuten. 8 urterekin umeen irakurketa-trebetasunak ebaluatu ziren dislexia- edo kontrol-arriskuaren estatusa ezartzeko. Hori hitzen eta sasihitzen irakurketaren bidez, testu baten irakurketaren bidez, sasihitzen bidez eta Lukilasse testeko (irakurketa-trebetasuna neurtzeko test estandarizatua) zerrenda-irakurketaren azpittestaren bidez egin zen. Emaitzek erakutsi zuten trebetasun fonologikoen ondorengo irakurketarekiko lotura estuak zituztela eta horiek zirela, izendapen azkar eta automatikoarekin eta hizkien izendapenarekin batera, irakurketaren geroko funtzionamendua eta dislexia ondoen iragartzen zutenak. Nabarmendu behar da gurasoek, edo bietako batek gutxienez, dislexia zutenean, nahasmendu hori 3,6 aldiz ohikoagoa zela umeengan. Beraz, maila horietako defiziten eta dislexia edukitzeko familia-arriskuaren konbinazioak irakurketaren nahasmendua garatzen laguntzen du. Emaitza horiek Lyytinen, Aro, Eklund, Erskine, Guttorm et al. (2004) autoreek luzetarako ikerketan lortu zituzten emaitzak egiaztatzen dituzte. Gainera, ikerketan hizkuntza-trebetasun jakin batzuen eta irakurketaren geroko garapenaren arteko erlazioa ere aztertu zuten. Lagina dislexia edukitzeko familia-arriskua zuten 107 umeek eta kontroleko 93 umeek osatzen zuten eta jaiotzatik eskolara sartu arte (5 urterekin gutxi gorabehera) ebaluatu zituzten. Horren bidez,

trebetasun fonologikoak eta hizkien ezagutza irakurketaren geroko funtzionamenduaren iragarle goiztiarrak direla egiaztatu zuten, bereziki deskodetze mailan, eta, gainera, dislexia edukitzeko familia-arriskuak irakurketaren nahasmendua garatzeko aukerak areagotzen dituela.

Emaitza horiek dislexia garatzeko arriskua diagnostikoa modu fidagarrian lortzeko aukera izan baino askoz lehenago identifika litekeela iradokitzen dute (DSM-Vak ezartzen baitu dislexia ez dela guztiz agerian geratzen eskaera akademikoek—azterketek eta testu luze eta konplexuen irakurketak, esaterako—gaitasun indibidual mugatuak gailentzen dituzten arte, eta hori 8 urteen inguruan gertatzen da). Horrela errazagoa izango litzateke ume horiek esku-hartze prebentibo goiztiarra jaso ahal izatea; horrek irakurtzeko zailtasunak arinduko lituzke eta, azken finean, emaitza akademikoetan eta eskolako lorpenetan eragin positiboa edukiko luke. Beraz, iragarle goiztiarrak identifikatzeko garrantzia frogatuta geratu da, irakurtzeko arazoak dituzten umeen lan terapeutikoa eta hezkuntzako ahalik eta azkarren gidatu ahal izateko.

Nahiz eta historikoki defizit fonologikoaren teoria oso fidagarritzat hartu den dislexia azaltzeko, berriki egindako ikerketek erakutsi dute arazo fonologikoak ez direla nahikoa dislexia eta bere heterogeneotasuna azaltzeko, eta adierazten dute badaudela diagnostikorako eskuliburuan deskribatzen direnak baino oinarrizkoagoak diren prozesu kognitiboak. Gainera, azpimarratu behar da dislexiaren jokabide-adierazpenak garapenean zehar aldatu egiten direla eta testuinguruaren eraginarekiko oso sentikorrak direla. Ondorioz, irakurketaren nahasmenduak fenotipo desberdinak erakusten ditu (Grigorenko, 2001).

Ebidentzia berrienak erakusten du hizkuntzaren nahasmenduan zerikusia duten oinarrizko prozesuetan ematen diren defizitak irakurketaren nahasmenduan ere agertzen direla. Zailtasun horiek lehen aipatu diren hizkuntzaren eta irakurketaren garapenaren oinarrian dauden prozesatze orokorreko trebetasunei lotuta daudela dirudi, hain zuzen, lan-oroimenari, arreta bisualari eta prozesatze-abiadurari (Facoetti, Corradi, Ruffino, Gori, eta Zorzi, 2010; Lavie, 2010; McGrath, Pennington, Shanahan, Santerre-Lemmon, Barnard, et al., 2011; Smith-Spark eta Fisk, 2007). Defizit horiek dislexia duten umeen zailtasunak azal litzakete, irudikapen ortografikoak antzeman eta barneratu ondoren irudikapen fonologikoei lotzeko, eta, aldi berean esanahiari sarbidea edukitzeko ere.

2.3. Komorbilitatea eta fonologia

Gaur egun, hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduaren markatzaile espezifikoak identifikatzeko zailtasun handiak daude, trebetasun horien garapenean inplikaturik dauden azpiko prozesu asko elkarrekin lotuta daudelako. Hori dela eta, ez da arraroa bi mailetan zailtasunak dituzten umeak aurkitzea. Pertsona berean gaixotasun edo nahasmendu bi edo gehiago batera eta modu konkurrentean agertzen diren kasuetan, *komorbilitateaz* hitz egiten dugu. Egoera hori ez da salbuespenezkoa, zenbait ikerketa neuropsikologikok hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduen arteko komorbilitate-tasa altua adierazten baitute (%19 eta %63 bitartekoa), baita ADHNarekin ere (Facoetti et al., 2010; Gooch, Hulme, Nash, eta Snowling, 2014; Miller, Keenan, Betjemann, Willcutt, Pennington et al., 2013; Nash et al., 2013). Horrek erakusten du hiztegiaren eraikitzean eta alfabetatze-trebetasunetan parte hartzen duten arreta-prozesuek eta prozesu fonologikoen elkarrekiko lotura estua dutela (Snowling eta Hulme, 2012; Wang eta Gathercole, 2013); horrek markatzaile espezifikoak detektatzea zailtzen du fenotipoen konplexutasunagatik eta aldakortasunagatik; kontutan hartuta fenotipoa geneek eta horiek ingurunearekin duten interakzioak zehaztutako ezaugarri anatomikoen, fisiologikoen eta jokabidezkoen adierazpen behagarria dela. Horregatik, hedapen handiko azalpenetako batek hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduaren arteko erlazioa fonologikoa dela onartzen du, hau da, bi nahasmenduetan dagoen defizita hizkuntzaren soinu sailkapen-, hautemate-, gordetze- eta maneiatze-mailan agertzen dela (Snowling eta Hulme, 2006). Nahiz eta hiztegiaren eta deskodetzearen defizit fonologikoen duten inplikazioaren gainean ebidentzia argia egon (Perfetti eta Stafura, 2014), erlazio horien izaerari buruzko azalpen teorikoak ez datoz bat.


Autore batzuek defizit fonologikoen arrazoi zuzena bezala entzumen-urritasunak jartzen dituzte, gai hori oraindik eztabaidatzen ari den arren (Gaab, Gabrieli, Deutsch, Tallal, eta Temple, 2007; Goswami, 2011). Joanisse-k et al. (2000) hipotesi hori dislexia, HNEa eta garapen normatiboa zuten 7 eta 9 urte bitarteko 137 umez osatutako lagin batekin aztertu zuten. Emaitzek HNEa zuten umeek hizkuntzaren eta hizkeraren hautemate-atazetan puntuazio txarragoak zeuzkatela erakutsi zuten; dislexia zuten umeek, ordea, sasihitzen irakurketan eta ezagutza fonologikoan agertzen zituzten defizitak, baina ez hizkeraren hautematean. Datu horiek hizkeraren hautematea eta hizkuntza-arazoak HNEan orokorragoak direla adierazten dute, aitzitik, ezagutza fonologikoko arazoak (soinuen maneiua) eta deskodetze-arazoak (soinua eta hizkia lotzea) ohikoagoak dira irakurketaren nahasmenduak dituzten umeengan. Beraz, neurri horiek hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduaren

markatzaile espezifiko eta bereizle modura erabil litezke. Maila guztietan zailtasunak agertzen dituzten umeak izango lirateke komorbilitatea erakusten dutenak.

Beste ikerketa batzuek, HNEa izanda, dislexia edukitzeko familia-arriskua ere duten umeek arazo fonologiko larriagoak eta hizkuntza-zailtasun handiagoak izaten dituztela frogatu dute, familia-arrisku hori ez daukaten HNEdun umeekin alderatuta. Horrek denak pentsarazten du defizit fonologikoaren kantitateak eta izaerak nahasmenduaren forma zehaz zezakeela (Snowling, 2014; Snowling, Dawes, Nash, eta Hulme, 2012). Hipotesi hori egiaztatzeko Ramus-ek et al. (2013) ikerketa bat egin zuten honako lagin hauek erabiliz: batetik, irakurketaren edo/eta hizkuntzaren nahasmendua zuten umeak (dislexia $N = 21$, TEL $N = 13$ eta biak $N = 30$) eta, bestetik, garapen normatiboa zuen talde bat ($N = 65$). Adinei dagokienez, nahasmenduren bat zuten umeak 8 eta 12 urte bitartekoak ziren eta garapen tipikoa zutenak 5 eta 12 urte bitartekoak. Emaitzek erakutsi zuten HNEa zuten umeek (bai dislexia zutenak eta bai ez zutenak) emaitza askoz txarragoak izan zituztela hizkuntza-domeinuetan (hiztegian eta gramatika harkorrean zein ekoizlean, esaldien errepikapenean, aditz erregularren eta irregularren flexioan, sintaxian, hizkeraren trebetasunetan eta prosodian), eta fonologikoetan (errimen eta fonemen antzematean, diskriminazio fonologikoan eta sasihitzen errepikapenean). Hala ere, irakurtzeko zailtasunak zituzten umeek ezagutza fonologikoko atazetan puntu gutxiago lortu zituzten, baina ez gainerako neurri fonologikoetan edo hizkuntza-osagaien.

Emaitza horiek dislexiari eta HNEari lotutako defizit fonologikoaren izaera mugatzea ahalbidetzen dute. Izan ere, autoreek defizit fonologikoak gutxienez bi dimentsio dituela ondorioztatu zuten: irudikapen fonologikoak (input fonologikoa kodetzeko eta gordetzeko trebetasunak, HNEan ukituta dagoena) eta prozesatze-fonologikoa (irudikapen fonologikoak maneiatzeko eta monitorizatzeko trebetasunak, dislexian ukituta dagoena). Aurkikuntza horiek HNEaren eta dislexiaren ezaugarri espezifikoen markatzailetzat ere har daitezke, kasu garbiak aurkitu baitziren.

Beraz, oroimen fonologikoa eta ezagutza fonologikoa (biltegitratze- eta prozesatze-fonologikoaren osagaiak), garapen normatiboan gertatzen den bezala, hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmendua azaltzeko gako eta elkarri lotutako osagai bezala ezartzen dira (ikusi Nation eta Hulme, 2011). Datu horiek hizkuntzaren eta irakurketaren arteko asoziazioa egiaztatzen dute, baita komorbilitatearen balizko arrazoiak ere ikuspegi fonologikotik (ikusi 1. irudia).



1. irudia. Trebetasun fonologikoen, iraupen laburreko hitzezko oroimenaren, hizkuntzaren eta irakurketaren arteko erlazioa 7 urteko umeen lagin batean (Nation eta Hulme, 2011).

Ikus daitekeenez, badirudi hizkuntzaren eta irakurketaren arteko lotura oso argia dela garapenean zehar; halaber, oroimen eta ezagutza fonologikoa hizkuntzaren bidez irakurketan eragiten duten funtsezko bi faktore direla ematen du. Hala ere, arazo fonologikoak ez dira nahikoa HNEaren edo dislexiaren koadro osoa azaltzeko (Bishop, Adams, eta Norbury, 2006; Norbury, Bishop, eta Briscoe, 2001).

Ikuspegi alternatibo batek prozesatze orokorreko trebetasunak erlazio horren bitartekariak izan daitezkeela proposatzen du, hau da, hizkuntza- edo irakurketa-patroia arretan, oroimenean eta prozesatze-abiaduran agertutako defiziten eta horri lotutako arazo fonologikoen araberakoa izango dela (Pennington, 2006). Ikuspuntu teoriko horietatik abiatuta, ikerketa esperimentalak nahasmendu horien azpian dauden arrazoiak aztertzen saiatu dira, zailtasun horien ezaugarri komunei eta espezifikoiei buruzko gako interesgarriak emanez.

3. KAPITULUA: Oinarrizko prozesu kognitiboek eta lan-oroimenak komorbilitatean duten papera.

3.1. Ikuspegi teorikoak

Hizkuntzaren eta irakurketaren osagai nagusien inguruan ebidentzia ugari dagoen arren, osagai horien eta beraien garapenean parte hartzen duten prozesu kognitiboek arteko erlazioa oraindik eztabaidatzen ari den gaia da. Hain zuzen, hizkuntzaren garapenean arloan egin diren lanak bi ikuspuntu desberdinetatik abiatzen dira: batetik, hizkuntza sistema espezializatu bezala hartzen dutenak; eta bestetik, trebetasun kognitibo orokorrak aztertzen dituztenak, garapen intelektuala eta linguistikoa trebetasun horien garapenean ondorio bezala ulertuz. Lehenengok hizkuntzaren ikuspegi modularra onartzen dute, bigarrenek, ordea, ikuspegi ebolutiboa eta defizit anizkoitzarena defendatzen dute. Bi ikuspegi arteko desadostasunen arrazoi nagusia agertutako ebidentzia berrietan datza, horiek erakutsi baitute hizkuntza arazoak dituzten umeei, sarritan, prozesatze orokorreko gaitasun kognitibo jakin batzuetan (ez-linguistikoa) ere arazoak izaten dituztela, hala nola, prozesatze-abiaduran edo arreta eutsian (Ebert eta Kohnert, 2011; Finneran et al., 2009; Martinussen eta Tannock, 2006). Hala ere, hizkuntza gure buruan nola antolatzen den aztertzeko modua ikuspegi modularretik abiatu da urte askotan, arlo horretan lagin klinikoekin egin diren ikerketak baldintzatuz.

Bigarren kapituluaren deskribatu den moduan, teoriko *modularrek* hizkuntza oinarrizko bi modulu funtzionalez osatutako sistema dela onartzen dute, fonologikoa eta morfosintaktikoa, eta horiek hizkuntzaren prozesatzea eta eskuratzea azaltzen dute (Jackendoff, 2003; Truscott eta Smith, 2004). Horrez gain, sistemak osagai gehigarri bat eduki dezakeela ere onartzen dute, adibidez, lan-oroimena, zeinek modulu bakoitzaren aktibazioa erregulatuko lukeen, informazioa iraupen luzeko oroimenean gordetzeko. Proposamenek aldaera txikiak badituzte ere, ideia nagusia honetan datza: bi moduluak independenteak dira, hau da, modulu bakoitzaren prozesatzaileak bere kode propioa antzematen du. Hori horrela balitz, modulu sintaktikoan gertatzen diren prozesuak independenteak lirateke sistemaren gainerako modulu eta osagaietan garatzen direnekiko, eta, ondorioz, gramatikaren prozesatze-trebetasunak eta fonologiaren trebetasunak independenteak izan litezke.

Alternatiba modura, ikuspegi *ez-modularra* defendatzen duten autoreek onartzen dute goiz agertzen diren prozesu kognitiboak (hala nola, arreta, prozesatze-abiadura edo lan-oroimena), hizkuntzaren garapenerako funtsezko oinarria direla (Bishop, 1992; Joanisse eta Seidenberg, 1998; O'Neill, Thornton, Marks, Rajendran, eta Halperin, 2016; Pennington, 2006; Pennington eta Bishop, 2009). Ikuspegi horren alde dagoen argudio sendoenetako batek dio oinarrizko mekanismo kognitiboek goi-mailako trebetasunen eskuratzean parte hartzen dutela, esate baterako, gogamenaren teorian (Carlson, Moses, eta Breton, 2002) edo ezagutza matematikoan (Geary, Hanson, eta Hoard, 2000). Autore horien arabera, goiz garatzen diren oinarrizko prozesu kognitiboek hizkuntza-trebetasun desberdinak modula litzakete, arlo fonologikokoak, lexikokoak edo gramatikalekoak diren kontuan hartu gabe. Hala, trebetasun horiek *mailakako eboluzioaren* patroiarri jarraiki agertuko lirateke.

Dena den, ez dago adostasunik honi buruz: prozesu goiztiar horiek nola erlazionatzen diren eta nola eragiten duten hizkuntzaren garapenean. Hainbat autorek prozesatze-abiaduraren, arretaren kontrolaren eta lan-oroimenaren papera aztertu dute populazio ez-klinikoak erabiliz; eta lan horietan lortutako emaitzetatik eratorritako zenbait azalpen-eredu probatu dituzte (Bayliss, Jarrold, Baddeley, Gunn, eta Leigh, 2005; Cowan, Elliot, Sauls, Morey, Mattox et al., 2005; Fry eta Hale, 1996, 2000; Gray, Green, Alt, Hogan, Kuo, Brinkley et al., 2017; Kail, 2000). Adibidez, Kail-ek (2000) *mailakako* garapen eredua proposatu zuen, non *prozesatze-abiadurak* funtsezko paper katalizatzailea duen. Eredu horren arabera, garapenaren ondorioz prozesatze-abiaduran lortutako hobekuntzek zuzenean eragingo lukete lan-oroimenean, bere erabilera eraginkorrago bihurtuz, eta aldi berean, horrek goi-mailako trebetasunetan eragingo luke, arrazoibidea edo adimen orokorra barne.

Lehen aipatutako hipotesi hori Fry eta Hale (1996, 2000) bezalako autoreek babestu dute. Autore horiek 7 eta 19 urte bitarteko 214 umerekin ikerketa bat egin zuten mailakako garapen eredu bat aztertzeko, non abiadurak lan-oroimena iragartzen zuen eta, gainera, subjektuen adinaren aldagaia kontrolatzen zen. Lortutako emaitzek prozesatze-abiadura adinaren arabera hobetzen dela iradokitzen dute, eta aldaketa horiek direla, hain zuzen, lan-oroimenaren eraginkortasunean eragiten dutenak. Lan-oroimena eraginkorrago bihurtzen da bai informazioa azkarrago prozesatzen delako, baita umeak hazi ahala informazio gehiago bereganatzeko estrategiak erabiltzeko gai direlako ere (elementuen multzokatzea, buruz egindako errepikapena, etab.).

Beste ikerketa batzuek ere hipotesi hori berretsi dute—esate baterako, umetxoen ohitze-abiadurak bi edo hiru urterekin izango duten hiztegiaren garapena iragartzen duela aurkitu dutenak (Bornstein, Hahn, Bell, Hayness, Slater et al., 2006)—eta mailakako garapen eredia babesten dute. Emaidza horiek prozesatze-abiadura hizkuntza garatzeko aldagai kognitibo garrantzitsua izan daitekeela iradokitzen dute, eta, gainera, aldagai horrek hizkuntzaren garapenean eragin zezakeela lan-oroimenaren bidez. Ildo horretan, Marchman-ek eta Fernald-ek (2008) 28 umez osatutako lagina erabili zuten prozesatze-abiaduraren eta lexikoaren neurri goiztiarrek (2 urterekin lortuak) geroko hizkuntza-trebetasunetan eta adimenean (8 urterekin ebaluatu ziren) eduki lezaketen balio iragarlea aztertzeko. Emaidzek erakutsi zuten bi urterekin prozesatze-abiadurak eta hiztegiak bariantzaren %41 azaltzen zutela geroko adierazpen-hizkuntzan, baita neurketa biek bariantzaren %58 ere azaltzen zutela lan-oroimenean zortzi urte izatean. Datu horiek prozesatze-abiadurak lan-oroimenean duen eragina berresten dute, eta mailakako eragin hori garapen linguistikoan bitartekaria izan daitekeela iradokitzen dute.

Beste autore batzuk, bestalde, *biltegitratzeak* edo *iraupen laburreko oroimenak* hizkuntzaren garapenean duten pisua aztertzen saiatu dira, 4 eta 10 urte bitarteko umeengan sasihitzak errepikatzeke atazaren gauzatzea (iraupen laburreko oroimen fonologikoa neurtzen duen ataza da) hitz berriak ikasteko gaitasunarekin erlazonatuta dagoela erakutsiz (Gathercole eta Baddeley, 1990; Gathercole, Service, Hitch, Adams, eta Martin, 1999). Hala, gogoratu behar den zerrendan hitzen orde sasihitzak daudenean, ataza okerrago gauzatzen da (Thorn, Gathercole, eta Frankish, 2002), eta horrek iraupen laburreko oroimen fonologikoaren eta hiztegi-mailaren arteko erlazioa babesten du.

Ildo horretan proposatutako ereduetakeo bat *baliabide partekatuen eredu* deritzona da, eta iraupen laburreko oroimenaren eta lan-oroimenaren arteko erlazioa ezartzen du (Daneman eta Carpenter, 1980). Autore horien arabera, lan-oroimenean inplikaturakeo biltegitratze- eta prozesatze-osagaiak lehian daude, oroimen-edukiera mugatua delako. Beraz, prozesatzea zenbat eta eraginkorragoa izan, orduan eta edukiera handiagoa geraturakeo litzateke biltegitratzea egiteke, eta horrek, azken finean, informazioa hobeto gogoratu ahal izatea eta hobeto prozesatzea ekarriko luke, gero iraupen luzeko oroimenean txertatzeko. Bestalde, *ataza aldaketaren ereduak* (Towse eta Hitch, 1995) defendatzen du subjektuek informazioaren prozesatzea eta biltegitratzea azkar txandakatzen dutela, horregatik, prozesatzea gauzatzen ari den bitartean, informazioa desagertuz doa biltegitratzea gauzatu gabe pasatu den denboragatik. Conlin-ek, Gathercole-k, eta Adams-ek (2005) hipotesi horien inguruko probak

egin zituzten, eta erakutsi zuten iraupen laburreko oroimenaren biltegitratze-gaitasunean honako hauek eragiten dutela: batetik, erretentzio-ataza batetik beste material batzuekin egiten den ataza batera aldatzeak, eta bestetik, atazaren zailtasunak eta prozesatze-kostua areagotzeko sartzen diren distraktoreek. Horrela, berriro frogatu zuten lan-oroimena, hau da, datuak modu eraginkorrean prozesatzeko gaitasuna, informazio linguistikoaren biltegitratzea erraztuko lukeen aldagai katalizatzailea izan litekeela.

Hizkuntzari dagokionez, erretentzioak lan handiagoa ematen du gogoan gorde behar diren hitzak luzeak direnean (Baddeley, Chincotta, Stafford, eta Turk, 2002) laburrak direnean baino, eta horrek berak erlazio hau babesten du: iraupen laburreko oroimenaren errendimendua (informazio fonologikoa gordetzeko gaitasuna) prozesatu behar den hitzezko informazioaren zailtasunaren araberakoa dela. Zentzu horretan, lan-oroimen onak biltegitratzea erraztuko du. Azken batean, teoria horiek oroimenaren prozesatze- eta biltegitratze-osagaiak (monitorizazioa eta erretentzioa, hurrenez hurren) bakoitza bere aldetik ebaluatu daitezkeela onartzen dute; eta lan-oroimena (informazioa monitorizatzeko gaitasuna) hizkuntzaren ikaskuntzaren erdiguneko aldagai bezala hartzen dute, biltegitratze-osagaia prozesatze-gaitasun horren menpe dagoela onartuz. Halaber, biak lexikoaren garapenean inplikaturik daudela ematen du, hizkuntzaren garapenean bakoitzak duen papera oraindik aztertu ez den arren.

Gainera, berriki egin diren ikerketa batzuek hizkuntzaren garapenean eragin lezakeen aldagai osagarri bat txertatu dute, argudiatuz garrantzitsua dena ez dela eraginkortasuna edo prozesatzeari emandako denbora, baizik eta denbora horrek zein neurritan kentzen dion subjektuari gaitasuna *arreta* informazioaren berreskuratze-prozesuan jartzeko (Barrouillet, Bernardin, eta Camos, 2004; Cowan et al., 2005; Gavens eta Barrouillet, 2004; Magimairaj eta Montgomery, 2012). Lehen hezkuntzako 3. mailako 37 umerekin, 5. mailako 37 umerekin eta 63 heldurekin egin zen ikerketa batean, Cowan-ek et al.(2005) iraupen laburreko hitzezko oroimenaren, lan-oroimenaren eta arretaren neurketa desberdinen arteko erlazioak aztertu zituzten. Emaitzek erakutsi zuten iraupen laburreko oroimena eta lan-oroimena arretaren neurketekin erlazionatuta zeudela, baita parte hartu zuten pertsonen adinaren aldagaia kontrolatu eta gero ere. Horrez gain, hiru aldagai horiek goi-mailako trebetasun kognitiboak (adibidez, ez-hitzezko adimena eta hiztegia) azaltzen dituen bariantzaren ehuneko handia partekatzen zuten lagin osoan, nahiz eta, berriro ere, lan-oroimena izan gaitasun horien iragarlerik onena umeen artean.

Baliabide partekatuen eredutik, Gavens eta Barrouillet-ek (2004) arretak eta prozesatze-abiadurak lan-oroimenean eduki lezakeen papera aztertu zuten. Horretarako, batetik, lan-oroimenaren ataza baten zailtasuna distraktoreekin (arreta), eta bestetik, kodetzeari ematen zitzaion denboraren iraupena (abiadura) maneiatu zuten 8 eta 10 urteko umeengan. Emaitzek erakutsi zuten atazaren zailtasunaren ondoriozko zama kognitiboak lan-oroimenean eragin itzela zeukala bi taldeetan; aitzitik, iraupenaren eragina askoz txikiagoa zen. Zenbat eta handiagoa izan atazaren prozesatze-zama, orduan eta okerrago gogoratzen zen. Autoreek ondorioztatu zuten lan-oroimenaren eraginkortasuna handitzearen oinarria informazioa abiadura handiagoan prozesatzeko gaitasunean zegoela, eta beraz, arreta gogoratze-prozesuan jartzeko denbora gehiago edukitzean. Horregatik, zenbat eta handiagoak izan pertsonaren arreta-baliabideak, orduan eta era eraginkorragoan prozesatuko du informazioa eta azkarrago egingo du buruko bilaketa, informazioa berraktibatzea eta gerora gogoratzea erraztuz. Autoreek iradoki zuten arreta dela, hain zuzen, prozesatzeak eta biltegitzeak partekatzen duten baliabidea, eta hori arretaren osagaiak lan-oroimenaren funtzionamenduan duen garrantziaren aldeko ebidentzia da.

Emaitza horiek iradokitzen dute oinarrizko zenbait aldagai kognitibo, adibidez biltegitratzea eta hitzeko prozesatzea bezalako osagaiak, hizkuntza-trebetasun orokorrak (semantika eta sintaxia) garatzeko funtsezkoak izan daitezkeela eta, aldi berean, aldagai horietan bi prozesu orokorrako egon litezkeela tartean: informazioa prozesatzeari eskainitako arreta-maila eta material hori denbora mugatu batean prozesatzeko abiadura. Duela gutxi, Magimairaj eta Montgomery (2012) arreta kontrolatuak, iraupen laburreko oroimenak (fonologikoak eta espazialak) eta prozesatze-abiadurak hitzeko lan-oroimenean duten paper erlatiboa aztertzen saiatu ziren 7 eta 11 urte bitarteko 61 umez osatutako lagin batean, nahiz eta ez zuten ebaluatu horiek hizkuntzarekin edo geroko adimenarekin duten lotura. Autoreek ikusi zuten arretak modu nabarmenean laguntzen zuela lan-oroimenean, eta arretaren eraginkortasun horrek prozesatze-abiadurarekin lotura zeukala. Datu horiek aditzera ematen dute lan-oroimenaren eraginkortasuna arreta fokalizatzeko gaitasunaren eta informazioa prozesatzeko abiaduraren araberakoa izan daitekeela. Emaitza horrek arretak eta prozesatze-abiadurak lan-oroimenean duten garrantzia azpimarratzen dituzten lanak babesten ditu (Conlin et al., 2005; Ferguson eta Bowey, 2005; Gray et al., 2017; Bayliss et al., 2005).

Laburbilduz, literatura zientifikoak hizkuntzaren garapenari lotutako prozesuak ulertzeko gakoa diren bi ideia babesten ditu. Alde batetik, oroimenak bi osagai espezifiko ditu, bata bestetik banagarriak direnak, eta hurrenez hurren, biltegitratzearen edukieraz eta

hitzezko informazioaren prozesatzeaz arduratzen dira (Alloway, Gathercole, eta Pickering, 2006; Baddeley, 2000). Garrantzitsua da azpimarratzea disoziazio hori haurtzaroan bereziki nabarmena dela (Cowan et al., 2005; Magimairaj, Montgomery, Marinellie, eta McArthy, 2009), eta horrek iraupen laburreko hitzezko oroimena (biltegitratzea) eta hitzezko lan-oroimena (prozesatzea) neurtzen duten atazen artean bereiztea eskatzen du. Beste alde batetik, arreta-gaitasunak eta prozesatze-abiadurak lan-oroimenaren egitekoa mugatzen dute haurtzaroan (Bayliss et al., 2005; Cowan et al., 2005; Ferguson eta Bowey, 2005; Gavens eta Barrouillet, 2004; Magimairaj et al., 2009; Magimairaj eta Montgomery, 2012).

Ikuspegi ez-modularren ikerketetatik atera daitekeen ondorioetako bat hau da: bai prozesatze-abiadura eta bai arreta, trebetasun erabakigarriak dira, eta hizkuntzaren garapenaren bitartekari modura jokatzeko dute, azpitik dauden biltegitratze-osagaien (iraupen laburreko oroimen fonologikoa) eta prozesatze-osagaien (lan-oroimena) bidez. Hizkuntzaren dimentsio desberdinen artean (hala nola, trebetasun gramatikalak, iraupen laburreko oroimen fonologikoa eta hiztegia) dagoen erlazioa ikerlan askotan zabal dokumentatu den arren (Adams eta Gathercole, 1995; Blake, Austin, Cannon, Lisus, eta Vaughan, 1994; Bowey, 2001; Jarrold, Thorn, eta Stephens, 2009), oso ebidentzia gutxi dago oinarrizko gaitasun kognitiboek—bereziki, lan-oroimenak—trebetasun horiei egiten dieten ekarpen erlatiboari buruz. Azken finean, badirudi lexikoaren eta hizkuntza-trebetasun orokorren garapena sistema kognitibo osoaren eraginkortasunaren menpe dagoela (Marchman eta Fernald, 2008; Gray et al., 2017), nahiz eta gai hori aurretiko lan batek ere ez duen aztertu. Eredu ez-modularrek hizkuntza era mailakatuan eskuratzen dela esaten dute, hau da, mekanismo kognitibo orokorrak informazio fonologikoa biltegitratzeko eta prozesatzeko gaitasunean inplikaturik daudela; eta bere eraginkortasunak hizkuntza-eremu desberdinen eskuratzean eragingo duela. Lagin normatiboekin egindako lanek aipaturako aldagai batzuen arteko erlazio konkurrentea baino ez dute aztertu. Ikerketa honek garapen goiztiarreko oinarrizko aldagai kognitiboek umeen hizkuntzaren garapenean duten ahalmen iragarlea argitzen lagundu nahi du, luzetara eta erabiliz garapen normatibodun umez osatutako lagin zabala, batetik, eta HNEaren eta dislexiaren patroia fenotipikoa izateagatik arriskuan dauden umez osatutako lagin txiki bat, bestetik. Patroi horrek nahasmendu hauen ezaugarri diren trebetasun zehatzetan defizitak izatea dakar, hain zuzen, ikerketa honen gako-aldagaiak direnak.

Laburpen modura, kapitulu honetan oinarrizko prozesuek (prozesatze-abiadurak, arretaren kontrolak eta lan-oroimenak) hizkuntzaren garapenean duten inplikazio garrantzitsua defendatzen duten ikuspegi teorikoak aurkeztu dira. Mailakako garapenaren

alde dauden teorikoek prozesatze-abiadurak, lan-oroimenean duen eraginaren bidez, hizkuntza-sisteman funtzio zentrala duela defendatzen dute. Beste teoria batzuek, ordea, oroimenaren bi osagaiek (biltegitratzeak eta prozesatzeak) hizkuntzaren garapenean duten papera azpimarratzen dute. Baliabide partekatuen eredutik, bestalde, hau defendatzen da: zenbat eta hobeia izan informazioaren prozesatzea, orduan eta handiagoa izango da biltegitratzeko gaitasuna, hizkuntzaren ikaskuntza erraztuz. Arlo horretan eragin handia duen beste teoria bat atazaren aldaketaren eredia da. Horren arabera, biltegitratzearen informazioa galdu egiten da prozesatzen ari den bitartean, ezin direlako bi atazak aldi berean egin. Azkenik, beste autore batzuek bi ikuspegiak batu dituzte eta arretaren osagaia gehitu dute beraien ikerketetan; hala, erakutsi dute prozesatzea zenbat eta eraginkorragoa eta azkarragoa izan, orduan eta arreta gehiago eskaini ahal izango zaiola informazioa gordetzeari, iraupen luzeko oroimenean biltegitratzea, eta ondorioz, ikaskuntza, hobetuz.

3.2. Oinarrizko prozesu kognitiboen garapena: hizkuntzaren garapenean eta zaurgarritasunean duten erlazioa.

Lehenago deskribatu diren lanek frogatzen dute lan-oroimena, eta zehazki, horren ezaugarri bat (kontrol exekutiboa), irakurketaren eta hizkuntzaren garapenaren muinean dagoela. Horregatik, komorbilitate arrazoi garrantzitsua izan daiteke, kontrol exekutiboak informazioa prozesatzeko sare osoari eragiten dion heinean, informazioa oroimenean berreskuratzen edo planifikatzen, prozesatze-abiaduraraino edo arreta fokuari eusteko gaitasuneraino. Mekanismo horiek guztiak orokorrean “funtzio exekutibo” deritzogunaren parte dira.

Funtzio exekutiboak arazo konplexuei edo egoera berriei irtenbidea aurkitzeko erabiltzen direnak dira, eta borondatea, planifikazioa eta nahitako ekintza bezalako funtzioak dituzte barnean. Funtzio horiek ondo garatzearen emaitza errendimendua eraginkorragoa izatea da, eta lan-oroimena da, hain zuzen, beraien osagai funtsezkoenetako bat. Funtzio horiek guztiak garapen goiztiarreko oinarrizko trebetasun kognitibo batzuen menpe daude, hala nola, prozesatze-abiaduraren edo arretari eusteko gaitasunaren menpe. Horien funtzionamendu ona cortex frontalaren osotasun anatomiko-funtzionalaren menpe dago, eta alderdi horrek trebetasun fonologikoen eta linguistikoen garapen prozesuari eragin diezaioke (Acosta-Rodríguez, Ramírez-Santana, eta Hernández-Expósito, 2017).

Prozesatze-abiadura pertsona batek oinarrizko funtzio kognitiboak (itemak identifikatzea edo bereiztea, adibidez) egiteko duen azkartasunari deritzo, eta garapenean zehar egon diren konexio sinaptikoen kalitatearen arabera da (Fry eta Hale, 2000). Arretaren kontzeptualizazioak bi alderdi garrantzitsu ditu: batetik, estimulu garrantzitsuen hautaketa-prozesuari dagokio, eta ondorioz, gure erantzunetan eragiten du; bestetik, kontzentrazio intentsiboari edo eutsiari dagokio, eta horrek prozesatze-kognitiboaren eraginkortasuna areagotzen du (Wells eta Matthews, 2014). Bi osagaiak garrantzitsuak dira eta erlazionatuta daude, aktibatzea beharrezkoa baita estimulu garrantzitsuak hautatzeko, eta, hain zuzen, kontzentratze-egoera izango da informazioa egokitasun handiagoarekin edo txikiagoarekin hautatzen eta prozesatzen lagunduko duena. Arreta-sistemaren eraginkortasuna, neurri handi batean, mekanismo horien gaineko kontrolaren arabera da, eta hori haurtzaro goiztiarrean eta ertainean nabarmena da.

Lan-oroimena, bere aldetik, arlo desberdinetako informazio garrantzitsua buruan gordetzeko sistemari dagokio, informazio hori prozesatzen den bitartean edo beste ataza bat gauzatzen den bitartean. Mekanismo hori hautematearen eta iraupen luzeko oroimenaren tartean dago, eta kontrol-mekanismoen garapenean oso menpe dago. Baddeley-ren ereduak mekanismo horiek oroimen-eredu berean sartzea ahalbidetzen du. Baddeley-ren (1992) kontzeptualizazioaren arabera, lan-oroimenak sistema exekutibo zentral bat du, eta horren parte diren bi azpisistemen funtzionamendua osatzen, antolatzen eta zuzentzen du: hitzezko lan-oroimena eta lan-oroimen bisuoespaziala. Lehenengoak informazio fonologikoa eta entzutezkoa prozesatuko eta gordeko luke; eta bigarrena, bere aldetik, material espazialaz eta bisualaz arduratuko litzateke. Ikerketek, lan-oroimenaren kasuan, hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduetan aurkitu diren defizitak batez ere hitzezko moduluari dagozkiola frogatzen dute. Hortaz, kontrolatzeko eta maneiatzeko gaitasuna orokorra izan arren, oroimenaren osagaien nolabaiteko modularitatea dago, eta zailtasun fonologikoak dituzten umeei informazio fonologikoarekin jarduteko erakusten duten gaitasun falta prozesatze orokorreko arazo baten ondorioa litzateke (Henry eta Botting, 2017), nahiz eta horrek bereziki hitzezko domeinuari eragiten dion (Gathercole eta Holmes, 2014). Oroimenaren eredu horrek barnean hartzen du, batetik, arreta-osagai bat (lan-oroimenean monitorizatutako informazioaren kontrola ahalbidetzen duena), eta bestetik, biltegi episodiko bat (jasotzen eta prozesatzen ari den informazioa iraupen luzeko oroimenean dagoen informazioarekin integratzen duena), eta horrek gertaeren denbora-sekuentziarioari laguntzen dio. Eredu horrek frogatzen du lan-oroimena eta arretaren kontrola gakoak izan daitezkeela

hizkuntzaren informazioarekin jarduteko, informazioa gordetzeko eta horretara sarbidea izateko erraztasunean, eta hori hizkuntzaren eta irakurketaren garapenerako funtsezkoa da.

Garrantzitsua da azpimarratzea prozesu horiek adin oso goiztiarrean agertzen direla, baina beraien garapena denboran zehar luzatzen dela, burmuineko eremu prefrontaletako konexioen araberakoa ez ezik, horien abiaduraren araberakoa ere badelako. Hala, prozesatze-abiadura zenbat eta azkarragoa izan eta arretaren aktibazioa luzeagoa, orduan eta handiagoa izango da gorde, kodifikatu eta maneiatu ahal izango den informazio kopurua. Izan ere, burmuinaren garapena eta garapen kognitiboa paraleloki gertatzen dira, eta aipatutako prozesuak, hain zuzen, kortex prefrontalean kokatzen dira; alde horrek garapen desberdina du gainerako eremu kortikalekin alderatuta. Umetxoan bizitzaren lehen hileetan garatzen eta heltzen diren zentzumen-area eta area motorra ez bezala, kortex prefontala gradualki garatzen da haurtzaro berantiarra eta nerabegarora arte, hazten doan garapen kognitiboarekin eta trebetasunen ikaskuntzarekin bat etorritik (Diego-Balaguer, Martínez-Álvarez, eta Pons, 2016). Aldi horren ondoren, konexio sinpatikoak gutxitzen hasten dira, eta irauten dutenak indartzen dira (Casey, Giedd, eta Thomas, 2000). Horrek prozesu kontzienteen kontrola eta arreta- zein oroimen-estrategien erabilera errazten du.

Lehenago esan denez, berriki egindako ikerketek iradokitzen dute informazioa prozesatzeko trebetasun orokorrek funtsezko papera eduki dezaketela HNEaren edo dislexiaren fenotipoan. Adibidez, Leonard-ek, Weismer-ek, Miller-ek, Francis-ek, Tomblin-ek et al., (2007), lan-oroimenaren, prozesatze-abiaduraren eta trebetasun fonologikoen arteko erlazioa ikertu zuten HNEa zeukaten umeengan. Horretarako, 14 urteko 204 nerabez osatutako lagin bat erabili zuten, guztiak jada 5 urterekin ebaluatuak izan zirenak. Emaitzek hitzezko lan-oroimena (Woodcock-Johnsonen Atzerantzko digituen atazaren bidez ebaluatua) hizkuntzaren osagaien (gramatikaren ulermena eta hiztegia) lortutako puntuazioari gehien laguntzen zion aldagaia zela erakutsi zuten; gainera, haur-hizkuntzaren neurketetan bariantzaren %62 azaltzen zuten, prozesatze-abiaduraren (errepikapen motorreko atazen eta sinboloen zein irudien hautemate-atazen bidez ebaluatua) eta lan-oroimen espazialaren (biratutako irudien atazaren bidez ebaluatua) osagaiekin batera. Aurkikuntza horiek oinarrizko trebetasunak hizkuntzaren garapenean oso garrantzitsuak izan daitezkeela adierazten dute.

Ildo horretan, lan batzuek hitzezko lan-oroimeneko defizitak bai HNEan eta bai dislexian gertatzen direla egiaztatu dute (Acosta-Rodríguez et al., 2015; Gathercole eta Holmes, 2014; Montgomery, 2000; Smith-Spark eta Fisk, 2007; Wang eta Gathercole, 2013).

Muga horiek hizkuntza partzialki eta jariotasun eskasagoarekin eskuratzera eraman lezakete, umeen garapena motelduz, egiturak hizkuntza-sisteman txertatzeko denbora gehiago behar dutelako. Halaber, lan-oroimen baxuak hautemateko, maneiatzeko eta konbinatzeko, hau da, fonemekin buruz jarduteko, ezintasunarekin zerikusia izan lezake. Lan-oroimen baxuak informazio fonologikoa iraupen laburreko oroimenean gordetzeko arazoak ere ekar litzake, eta horrek, aldi berean, hiztegia barneratzeko eta berreskuratzeko zailtasunetara eramango luke, umeen adierazpen-hizkuntzan eta hizkuntzaren ulermenean eraginez (Edwards eta Lahey, 1998; Gray, 2004, Montgomery, 2004). Ondorioz, autore batzuek hitzezko lan-oroimena eta iraupen laburrekoa hiztegiaren ikaskuntzarako eta geroko hizkuntzaren garapenerako trebetasun zentralak izango liratekeela defendatzen dute (Gathercole eta Baddeley, 1990; Gathercole et al., 1999; Thordardottir eta Weismer, 2002). Muga hori beste ataza-mota batzuetan gertatzen diren zailtasunekin ere lotu da, esaterako, hitzen izendapena edo izendapen azkar automatizatuarekin (ilaratan aurkezten diren zenbaki-, hizki-, irudi- edo kolore-serieen izendapen azkarra). Ataza horietan ikusitako zailtasunek zera adieraz lezakete: hizkuntza-arazoak dituzten umeek zer gutxi aurreratzen duten soinuak errazago kategoriza ditzaten astiro hitz egiten zaienean, prozesatze-denbora handitzeak lan-oroimenearen zama areagotzea ekartzen baitu (Alloway, Gathercole, Adams, Willis, Eaglen et al., 2005; Montgomery, Magimairaj, eta Finney, 2010).

Ikerketa batzuek arretaren kontroleko defizitak ere iradokitzen dituzte, bai HNEa duten umeengan, bai dislexia dutenengan. Denbora tarte luze samar batean zehar arretari eusteko arazoek prozesatze-abiadura eta hizketaren kontrola oztopa ditzakete, hizketaren hautemate pobrera eta hizkuntza-estimuluen antzemate defizitariora eramanez (Spaulding, Plante, eta Vance, 2008). Izan ere, ume horiek arreta eutsia murriztuta eduki lezakete, nahiz eta arretaren nahasmendu garrantzitsurik erakutsi ez, eta horrek oinarrizko hizkuntza-trebetasunen garapena modula lezake. Halaber, arreta bisual murriztuak umeek paraleloan jarritako hizki kopuru txikiagoa identifikatzea ekar lezake, idatzizko hitzen aztarnak ezartzeko gaitasuna zailduz, eta azken batean, irakurketa globalaren edo automatizatuaren garapena eragotziz (Valdois et al., 2004). Antzeko defizitak hizkuntzaren nahasmendua zuten eta ez zuten dislexiadun umeengan ikusi dira (Gooch et al., 2014). Autore horiek luzetarako ikerketa bat egin zuten 242 umez osatutako lagin batekin (85 HNErik gabekoak baina dislexia edukitzeko familia-arriskuarekin, 31 HNEdunak baina familia-arriskurik gabeak, 35 HNEa eta familia-arriskua zutenak eta 71 garapen normatiboa zutenak). Umeak 3 eta 4 urterekin ebaluatu zituzten arlo desberdinetan. Hizkuntzaren eta irakurketaren arteko erlazioa egiaztatuz,

hizkuntzan gertatzen ziren banakako aldakuntza goiztiarrek iragartzen zuten familia-arriskua zuten taldeko zein umek garatuko zituen irakurtzeko zailtasun gehigarriak (hau da, familia-arriskurik gabeko HNEdun umeek hizkuntzaren neurketetan puntuazio hobea lortu zuten familia-arriskua zuten HNEdun umeek baino).

Arretaren (entzunezko CPTaren bidez ebaluatua), prozesatze-abiaduraren eta inhibizioaren neurketei zegokienez, familia-arriskua eta HNEa zuten umeek emaitza orokor okerrenak izan zituzten. Gainera, hizkuntzaren nahasmendurik izan ez arren, dislexia edukitzeko familia-arriskua zutenek ere zailtasunak izan zituzten arretari eusteko eta kontrol exekutiboko atazetan, garapen normatibodun umeekin alderatuta, nahiz eta haien puntuazioak HNEa zuten umeenak baino hobekak ziren. Ikerketa horretatik ateratzen den kontu garrantzitsu bat honako hau da: arretaren kontrola, prozesatze-abiadura eta lan-oroimena, funtzio exekutiboen aurrerapen egokiaren isla diren heinean, ea kasu bakoitzaren larritasuna eta dislexiaren eta HNEaren arteko komorbilitatea azaltzeko gako-aldagaiak izan litezkeen (Gooch, Snowling, eta Hulme, 2011; Martinussen eta Tannock, 2006; McGrath et al., 2011).

Laburbilduz, arretaren kontrolaren, lan-oroimenaren eta prozesatze-abiaduraren defizit batzuk hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduetan ematen direla ondoriozta daiteke, eta horrek komorbilitatearen oinarria osatzen duten prozesutzat har litezkeela iradokitzen du. Berrikusketa horrek komorbilitatea partekatutako defizit kopuruaren arabera izan litekeela, eta horiek defizit fonologikoaren forma modula lezaketela erakusten du. Prozesatze orokorreko trebetasunek (informazioa kodetzeko, prozesatzeko eta monitorizatzeko eraginkortasuna), irudikapen fonologikoko trebetasunek (informazio fonologikoa diskriminatzea eta gordetzea), eta prozesatze-fonologikoko trebetasunek (informazio fonologikoa maneiatzeko trebetasuna) garapen prozesuan zehar elkarri eragin liezaioke (Bishop eta Snowling, 2004; Ramus et al., 2013). Horrek hizkuntza-trebetasunak continuum batean kontzeptualizatzeko aukera iradokitzen du, defizitetan oinarritutako kategorietan kontzeptualizatu beharrean.

Aurkikuntza horietatik ateratzen den ondorio teoriko garrantzitsu bat da prozesatze orokorreko mekanismoak hizkuntzaren prozesamenduan eta irakurketan nahastutako trebetasun fonologikoen agerpenean eta garapenean bitartekariak izan litezkeela (ikusi Norbury, Bishop, eta Briscoe, 2002). Defizit Anizkoitzaren eredua (Pennington, 2006) asoziazio hori azaltzen saiatzen da, gutxienez maila teorikoan. Eredua horrek defendatzen du aztertutako fenotipoetako edozein beti dela garapenean zehar dauden arrisku-faktore askoren kopuruaren eta interakzioaren emaitza. Ikuspegi horrek lehen aipatu diren ikerketetan

lortutako emaitza desberdinak azal litzake. Hala ere, nahiz eta pentsatu prozesatze orokorreko mekanismoek hizkuntzan eta irakurketan inplikaturako trebetasun fonologikoen eta oroimenekoen garapenari lagun liezaioketela, orain arte egin diren ikerketek ez dute kausa-erlazio hori luzetarako ikerketen bidez aztertu, aldagai guztiak lagin berean ebaluatuz. Gainera, aipaturako prozesuen arteko erlazio ebolutiboari dagokionez, harrigarria da ikustea zein ebidentzia eta ezagutza gutxi dagoen biztanleria ez-klinikotik jasotako laginetan. Izan ere, prozesu horiek HNEa duten umeen laginetan erlazionatzeko duten moduak garapen atipikoa dela erakusten du, eta iradoki da litekeena dela garapen hori ez agertzea garapen normatiboa duten umeengan (Bishop, 1997; Montgomery eta Windsor, 2007).

Lagin normatiboak erabili dituzten lan apurrek aipaturako oinarriko trebetasunen arteko harremana aztertu dute, arreta, prozesatze-abiadura eta lan-oroimena konstruktibeko prozesuak izan litezkeela frogatuz, euren artean erlazio-maila handia erakusten dutelako (Magimairaj et al., 2009; Magimairaj eta Montgomery, 2012). Lan horiek prozesuen arteko erlazioa ikertu dute baina ez dute hizkuntza bezalako goi-trebetasunetan izan dezaketen papera aztertu. Hala eta guztiz ere, ekarpen interesgarriak egiten dituzte, hala nola, arreta eta prozesatze-abiadura bezalako prozesuek lan-oroimenean eragin dezaketela (Bayliss et al., 2005; Fry eta Hale, 2000), eta garapenean zehar aldatu egiten direla sistema eraginkorragoa osatuz (Kail, 2007). Goi-prozesu eta -trebetasun horien artean erlazio iragarleak ezartzen saiatu diren autore batzuek prozesu horiek, hain zuzen, arretak, iraupen laburreko oroimenak eta lan-oroimenak, adimena eta hiztegia iragartzen dituztela erakutsi dute (Cowan et al., 2005; Gray et al., 2017). Adibidez, Cowan-ek et al. (2005), 37 umez osaturako bi laginetan (8 eta 10 urtekoak, hurrenez hurren) zera ikusi zuten: arreta bisualak (sinboloen bilaketaren atzarekin neurtua) eta hitzezko lan-oroimenak (atzeranzko digituen atzarekin neurtua) adimen orokorra eta hitzezkoa iragartzen zituztela ikerketa iragarle konkurrente batean. Lagin zabalagoa erabiliz (7 eta 9 urte bitarteko 168 ume), autore horiek arretak, hitzezko lan-oroimenak eta iraupen laburreko hitzezko oroimenak (sasihitzen errepikapenaren bidez neurtua) laginaren trebetasun lexikoen bariantza iragarlearen zati bat partekatzen zutela ikusi zuten (Gray et al., 2017). Lagina adierazgarria zen arren, ikerketak konkurrente izaten jarraitzen du, eta ez du prozesu horiek hizkuntza-trebetasunen garapenean duten paperaren inguruan interpretazioak egiteko biderik ematen ikuspegi ebolutibo batetik.

Orain arte egin den luzetarako lan bakarra Gooch-ek et al. (2016) egindakoa da, eta bertan funtzio exekutiboen (FE) eta hizkuntzaren arteko erlazioa aztertu zuten. Horretarako,

arriskuan zeuden umeen eta kontrol umeen lagin bat (243 ume) erabili zuten (dislexia-arriskuan zeudenak $N = 90$, hizkuntza-arazoak edukitzeko arriskuan zeudenak $N = 79$, kontrol umeak $N = 74$), eta momentu desberdinetan ebaluatu ziren (T1 = 3 urte eta erdi, T2 = 4-5 urte, T3 = 5-6 urte, T4 = 6-7 urte, T5 = 7-9 urte). Hizkuntzaren arloa (hiztegi harkorra eta adierazpen-hiztegia, gramatika harkorra eta ezagutza lexikoa), eta funtzio exekutiboena (mugimenduaren kontrola, bilaketa bisuala, lan-oroimena eta inhibizioa) ebaluatu ziren. Emaitzek erakutsi zuten, batetik, funtzio exekutiboak eta hizkuntza konstruktua banangarriak zirela, baina korrelazio handia zutela, eta bestetik, biek zutela egonkortasun altua ebaluazioaren lehen eta laugarren unearen artean (3,5 urteetatik 6-7 urte izan arte). Hala ere, ez zuten ebidentzia argirik aurkitu hizkuntza-zailtasunek FEak iragartzen zituztela frogatzeko, eta FEek hizkuntza-trebetasunak iragartzen zituzten T4 momentuan (6 urtetik 7ra).

Aurreko paragrafoan azaldutako emaitzek iradokitzen dute azpiko prozesu orokor oinarrikoen eraginkortasunak goi-trebetasunen (hizkuntza eta irakurketa) bitartekari modura jokatzen duela, baina ez dira erabakigarriak eta azterketa osoa eta sakona behar dute lagin normatibo zabala erabiliz. Egin berri den berrikusketa batean, Bishop-ek, Nation-ek, eta Patterson-ek (2014) gai hori aztertu dute, eta hizkuntza- zein irakurketa-sistema eraginkorra nola taxutzen den ezagutzeko erantzun behar diren bi gai proposatzen dituzte: alde batetik, osagai exekutiboek (abiadura, arreta, lan-oroimena) zein neurritan iragartzen dituzten garatzen dagoen hizkuntzaren osagai desberdinak (fonologia, lexikoa eta gramatika); beste aldetik, zein neurritan testuinguruaren beste faktore batzuek azal dezaketen nola garatzen diren bi faktoreak, exekutiboa eta linguistikoa. Galdera horiei erantzuteak hizkuntzaren eta irakurketaren garapenaren azalpen-esparrua ezartzea ahalbidetuko luke, baita esparru horren barruan gertatzen diren nahasmenduak sakonago ulertzea ere.

4. KAPITULUA: Epigenetika eta balizko aldagai komunak hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduetan

Epigenetikaren kontzeptua Waddingtonek proposatu zuen (1939) eta honela definitu zuen: garapenaren programa genetikoa askatzea eragiten duten gertakarien ikerketa. Kontzeptu horrek, beraz, genotipoaren—norbanakoaren informazio genetikoa—eta behatutako fenotipoaren—genotipoaren azken adierazpena—artean bitartekaria den prozesuari egiten dio erreferentzia. Epigenetika, bere ikuskera orokorrean, DNAREN egituran eta antolaketan heredagarriak diren aldaketei dagokie. Aldaketa horiek ez dute DNAREN sekuentzian alteraziorik sortzen baina bai eragiten dute eta modulatzeko dute bere geneen adierazpena (García, Ayala, eta Perdomo, 2012). Esparru horretatik, giza garapena geneen eta testuinguruaren arteko erlazio dinamiko bezala ulertzen da, eta bizitza osoan irauten duenez, garrantzi handiko ondorioak ditu. Epigenetika, hortaz, geneak-giroa arteko ohiko dikotomiatik harago doa, eta garapen-eredu globalagoak bultzatzen ditu. Eredu horiek barne hartuko dituzte, batetik, alderdi biologikoak eta ekologikoak, eta bestetik, alderdi horiek gene multzo baten fenotipoa modulatzeko duten era (ikusi Keating, 2011; 2016).

Epigenesi prozesua era goiztiarrean hasten da, hain zuzen, geneak modu batean zein bestean agertzea eragiten duten jaio aurreko eta osteko esperientziekin eta interakzioekin (Chen eta Baram, 2016). Adibidez, umea mugitzen den testuinguruan ikaskuntza maila kognitiboan eta hizkuntza-mailan estimulatu bada, eta mugak jartzearen eta afektuaren arteko orekara daraman atxikimendu segurua eskaintzen bada, epigenesia modu positiboan aktibatuko da. Izan ere, prozesu epigenetikoak aldaketak sar ditzake, bai jokabide-mailan, bai arlo emozionalean eta kognitiboan, bereziki bizitzaren lehen urteetan eta nerabezaroan (ikusi Kundakovic eta Champagne, 2015). Hala ere, umearen testuinguruaren estimulazioan aberatsa ez bada eta familia-gatazka edo estresa bezalako aldagaiak nagusitzen badira, epigenesi prozesuak garapenaren ibilbidea alda dezake, ondorio negatiboak sartuz (ikusi Chen eta Baram, 2016; Shonkoff, Garner, Siegel, Dobbins, Earls et al., 2012). Horrek denak ulertzen laguntzen du testuinguruarekiko interakzioek mekanismo molekularren eta genetikoaren gainean duten eragina, eta horiek, azken batean, aldakortasun fenotipiko behagarrian gauzatzen dira (Chiarella, Tremblay, Szyf, Provençal, eta Booij, 2015; Nilsson, Sadler-Riggelman, eta Skinner, 2018).

Baina faktore anitzeko konstruktua hori indarrez gailentzen ari da. Izan ere, azken 30 urteetan arlo horretan egindako ikerketak nabarmen hazi dira, eta gaur egun 7.000 lan inguru

daude (Lester, Conradt, eta Marsit, 2016). Igoera horren balizko arrazoietakoa bat honetan oinarritzen da: epigenesia ikuspegi inklusibo bezala erabiltzen ari dira, gizakiaren garapen psikologikoa bere adierazpen anitzetan sakonago ulertzeko helburuarekin (Barreto eta Arranz, s.f.). Gaur egun eragin handia duen ikuspegietako bat Gottlieb-ek (2007) proposatutako epigenetika *probabilistikoa* da. Eredu horren arabera, gizakiaren analisi-maila (genetikoa, neurala, jokabidekoa eta testuingurukoa) posible desberdinen arteko eta barruko eraginak anitzak, dinamikoak eta noranzko bikoak dira. Gainera, ereduak onartzen du egitura neurologiko desberdinak guztiz heldu aurretik funtzionatzen hasten direla eta horien jarduerak prozesu ebolutiboan paper garrantzitsua edukiko duela, adierazpen fenotipikoan ondorioak izango dituzten eragin askoren menpe egongo delako jarduera hori. Hortaz, genetika bera partekatzen duten norbanakoek ere garapen neural eta konduktual berezitua erakutsiko dute, *partekatu ez dituzten giroetan* bakoitzak bizi izan dituen aparteko esperientzien ondorioz (Plomin, DeFries, Knopik, eta Neiderhiser, 2016).

Orain arte esandakoa kontuan harturik, ondorio hau atera daiteke: haurtzaroan zehar norbanakoaren material genetikoan edo jokaerakoan eraginen bat izan dezaketen aldagaien identifikazioak eta ezagutzak, eragin horien ondorioz sortutako zailtasunen prebentzioan ez ezik, esku-hartze goiztiarrean ere lagunduko lukeela. Ondoren azaltzen diren azpiataletan, bai genetikak eta bai testuinguruak irakurketaren eta hizkuntzaren nahasmenduen garapenean duten eraginari buruzko ebidentzia aurkeztuko da.

4.1. Hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduen oinarri genetikoa

Tradizionalki, genetikak hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean duen inpaktua biki monozigotikoekin ikertu da. Hizkuntzari eta irakurketari lotutako nahasmenduetan oinarri genetikoa dagoela egiaztatzea ahalbidetzen duten aurkikuntzetako bat hau da: gene jakin batzuk partekatzen dituzten pertsonen antzeko hizkuntza-defizita (nahasmendua definitzen duten prozesu zehatzetan atzerapenak), erakutsi ohi dutela sexua edozein dela ere, %40ko bat-etortzearekin (Viding et al., 2004; Willcutt et al., 2005). Irakurketaren nahasmenduaren harira, heredagarritasunaren ehunekoak antzekoak dira (Pennington, 2006; Snowling, Gallagher, eta Frith, 2003), eta hortik nahasmenduan inplikaturako geneak daudela ondorioztatzen da. Umeen hizkuntza- eta irakurketa-trebetasunetan genetikak pisu garrantzitsua duen zehazteko beste bide bat da aztertzea zein mailataraino diren antzekoak gurasoen profil kognitiboa eta seme-alabena. Ildo horretan egin diren ikerketa batzuen

arabera, gurasoen profil kognitiboak eragina du umeek ikasteko zailtasunak izateko aukeran, eta ondorioz, horixe izan behar da arrisku-faktore gisa kontuan hartu behar den lehen familia-aldagaia.

Adibidez, Flax, Realpe-Bonilla, Hirsch, Brzustowicz, Bartlett et al. (2003) familia-agregazioa aztertzen aritu ziren Hizkuntzaren Nahasmendu Espezifikoa (HNE) egoteak familian duen eragina ikertzeko, eta irakurketa nahasmenduekin duen agerkidetza aztertzeko HNEa duten eta ez duten 7,5 urteko umeengan. Ume horien familia nuklearraren 174 kideek ere parte hartu zuten ikerketan. Emaitzen arabera, HNEa zuten ume guztiek puntuazio nabarmenki baxuagoak zituzten KIaren funtzionamenduan, eta familia nuklearreko kideek ere puntuazio txarragoa lortzen zuten hizkuntzaren eta irakurketaren neurketa gehienetan. Autoreek familia-historiei eta belaunaldiarteko fenotipo heredatuei buruzko informazioa bildu zutenean, emaitzek erakutsi zuten ume horien gurasoen %36k ere HNEa izateko irizpideak betetzen zituztela, baita neba-arreben % 37k eta familia zabalaren %16k ere. Ehunekoak antzekoak ziren irakurketaren nahasmenduaren kasuan ere, eta bi nahasmenduen komorbilitatea kohorteko kideen %68tan gertatzen zen, familia nuklearraren %59tan eta familia zabalaren %27tan. Ikertutako kohorteko HNEdun umeek izan zuten puntuazioa familiako gainerako kideena baino nabarmenki baxuagoa izan zela azpimarratu behar da, bai hizkuntzaren, bai irakurketaren neurketetan. Nahiz eta eragindako kideek zailtasun partekatuak erakutsi, profil fenotipiko desberdinak adierazi zituzten, eta horrek hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduak genetikaren menpe ez ezik, testuinguruaren menpe ere badaudela iradokitzen zuen. Hala, oinarri genetikoa badagoela adierazten duten defizit partekatuen ehunekoek tarte handia uzten diote testuinguruak hizkuntzaren nahasmenduari lotutako fenotipo zehatzen agerpenean eta garapenean izan dezakeen eraginari.

Dislexiari dagokionez, zenbait lanetan lortutako ehunekoak, berriro ere, antzekoak dira: Olsonek (1999) 516 familiaren parte-hartzearekin egindako 8 ikerketaren berrikusketa aipatzen du, zeinen arabera dislexia duten umeen gurasoen %37k ere irakurketa arazoak erakutsi zituen, %25 eta %60 artean ibiliz. Beste alde batetik, Torppa-k, Eklund-ek, van Bergen-ek, eta Lyytinen-ek (2011) gurasoen alfabetatze-maila umeen irakurketa-trebetasunaren testuinguru-aldagai iragarlea izan litekeen aztertu zuten. Horretarako, 99 familiaren irakurketa-maila aztertu zuten; familietan, gutxienez gurasoetako batek dislexiaren diagnostikoa egiaztatuta zuen arrisku-talde bat sortzeko moduan. Umeei jarraipena jaito zirenetik egin zitzaizen, eta ikerketa umeak hirugarren mailan zeudenean egin zen (8 eta 9 urteen artean). Autoreek egiaztatu zuten familia-arriskua zuten eta arrisku hori ez zuten

umeen artean ez zegoela alderik irakurketa partekatua egin bitartean gertatu ziren interakzio-motetan, ez hizkuntza idatzira iristeko orduan, ezta umeen irakurtzeko interesean ere.

Halaber, ikerketaren autoreek umeen garapenean hizkien izendapena irakurketaren iragarlerik onena zela aurkitu zuten, hizkien soinuak ezagutzeak irakurketa-trebetasunen oinarrietan duen paperaren inguruan zegoen ebidentzia egiaztatuz (McBride-Chang eta Treiman, 2003). Ikerketa horrek dislexiaren oinarri genetikoa bazegoela eta zenbait defizit kognitibo barne hartzen zituela erakutsi zuen. Defizitak irakurketa mailan (automatizazioa, azkartasuna, deskodetzea), hiztegian, fonologian (soinuen ezagutza eta erabilera) eta hitzezko oroimenean ematen ziren (Kovas, Haworth, Dale, Plomin, Weinberg et al., 2007; Viding et al., 2003; Willcutt et al., 2005). Gainera, ikerketak gurasoen profil kognitiboa arlo horietan neurtzearen garrantzia iradoki zuen, haurtzaroan irakurketa-zailtasunak garatzeko balizko arriskua zehaztu ahal izateko. Edozelan ere, hizkuntzaren nahasmenduan gertatzen zen bezala, ehunekoek defiziten agerpenean eta forman inguruneak izan dezakeen eraginari tartea uzten zioten.

Labur esanda, HNEra eta dislexiara daramaten defizit fonologikoen eta hizkuntza- zein irakurketa-defizitek osagai genetiko bat dute, eta dirudenez, horrek aipatutako prozesuetan inplikaturik dauden burmuineko gune jakinetako garapen sinaptikoan eragiten du. Bi nahasmenduetan ezkerreko hemisferioko guneak dira, prozesatze-fonologikoari lotutakoak (gune parieto-temporalak), integratze-fonologikoari eta bisualari lotutakoak (gune okzipitotemporalak eta dortsifrontalak—ikusi Saralegui, Ontañón, Fernandez-Ruanova, Garcia-Zapirain, Basterra et al., 2014—). Nerbio-sistema zentralaren (NSZ) garapenean gene horiek duten inpaktuak haurtzaroan zehar burmuina nola garatzen den modula dezake; hala ere, eta eragin genetikoari garrantzia kendu gabe, berriki egindako ikerketek eragin hori gizarte-interakzioen kalitatearen bidez gauzatzen dela ere egiaztatzen dute, horrela bide bikoitza ezarriz (genetikoa-interaktiboa, Plomin et al., 2016). Haurtzaroan burmuin-plastikotasuna altua denez, testuingurua ikertzea funtsezkoa da, batetik, oinarrizko defiziten eta hizkuntza- zein irakurketa-defiziten agerpena sustatu edo eragotzi dezaketen ingurune-aldagaiak ulertzeko, eta bestetik, bizitzaren lehen zazpi urteetan aldagai horietan eragiteko, tarte hori baita aipatutako trebetasunak sortzeko eta garatzeko garaia.

4.2. HNEan eta dislexian eragiten duten testuinguru-faktoreak

Aurreko atalean egiaztatu den bezala, genetikak hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean rol garrantzitsua du, baina bere eragina ez da nahikoa garapenean zehar ikusitako hizkuntza- eta irakurketa-patroien aldakortasuna azaltzeko. Vigotsky-k (1979) Formazio Bikoitzaren Legean deskribatu zuen bezala, goi-mailako prozesu psikologikoen garapena umearen eta bere zaintzailearen artean ezartzen diren interakzioak barneratzearen ondorioz gertatzen da. Aitak eta amak eskainitako laguntzak (aldamio-jartzeak) umeek ikaskuntza berriak barneratzea ahalbidetzen du, eta ikaskuntza horiek barneratu ahala, zaintzaileek eskainitako laguntzen sekuentzian dagozkion doikuntzak gertatzen dira. Hortaz, goi-mailako prozesu psikologikoen garapena hasiera batean gizarte-mailan gertatzen da, konplexutasuna areagotzea ahalbidetuz maila intrapsikologikorako bidean. Hizkuntza garapenaren kasu zehatzean, hizkuntza lehen momentuan funtzio komunikatiboa izatetik, norbanako mailan erabiltzeko tresna bezala ere balio izatera pasatuko litzateke, barne-elkarrizketaren funtzio autorregulatzailaren bidez.

Hala ere, barneratze-prozesu horrek guztiak, ikaskuntza berriak umearen egitura neurologikoan sartzeari ahalbidetuko duen burmuin-plastikotasuna eskatzen du; horrek, azken batean, umea mugitzen den ingurumenera egokitzea erraztuko du. Hortaz, burmuin-plastikotasuna izango da gene multzo berari fenotipo desberdinekin agertu ahal izateko bidea emango diona, pertsonarengan eragiten duten testuinguru-aldagaien arabera (Lester et al., 2016). Orain arte esandakoak genetikaren eta testuinguruaren artean interakzio-bide bikoitza dagoela uzten du agerian (alde batetik, geneen eragina, eta bestetik, gizarte-interakzioen kalitatearena). Ildo horretan, eredu genetikoen azalpenen mugak gainditzeko helburuarekin, ikerketa batzuek hizkuntza- eta irakurketa-trebetasunen garapenean ikusitako aldakortasun fenotipikoa azal lezaketen faktoreen azterketan urrunago joan nahi izan dute. Horretarako, testuinguruaren faktore jakin batzuek geroko hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean eduki lezaketen eraginean zentratu dira. Zehazki, ikerketa batzuek iradoki dute zenbait aldagai mikrosistemiko funtsezko faktoreak izan daitezkeela hizkuntzan eta irakurketan inplikaturako trebetasunen garapenerako (ikusitako Torppa, Poikkeus, Laakso, Eklund, eta Lyytinen, 2006; Van Bergen, Bishop, van Zuijen, eta de Jong, 2015).

Idea hori, besteak beste, Hammer, Tomblin, Zhang, eta Weiss-en (2001) ikerketetatik sortu da. Autore horiek hizkuntza-jokabideen, irakurketa-jardueran ezarritako interakzioen eta hizkuntzaren garapenaren artean dauden erlazioak aztertu zituzten HNEa zuten 177 umez

eta garapen normatibodun 925 umez osatuako lagin batean. Ikerketa horren emaitzek erakutsi zuten talde klinikoko umeek irakurketa partekatuan zehar hizkuntza-estimulazio txikiagoa jasotzen zutela, eta zaintzaileek seme-alabekin eguneko jardueri buruz hitz egiten denbora gutxiago ematen zutela, eskolarekin zerikusia zuten beste ataza batzuei—alfabetoa irakasteari, adibidez—denbora gehiago eskaintzen zietelako. Gainera, lan horrek hezkuntza-moldearen papera nabarmendu zuen, talde klinikoan kontrol-taldean baino hezkuntza-jardunbide zorrotzagoak ikusi baitziren. Mikrosistemaren bi aldagai horiek, exosistemari dagozkion amaren hezkuntza-mailarekin eta familiaren estatus sozioekonomikoarekin batera, umeek jariotasunean, pertzepzioan eta hizkuntzaren artikulazioan adierazten zituzten hizkuntza-zailtasunekin lotura estua zuten, ondorioz, hizkuntzaren nahasmenduen garapenerako, testuinguruko arrisku-faktoretzat har litezke.

Beste lan batzuek familia-testuinguruaren aldagai zehatzek hizkuntzaren nahasmenduen jarraitutasunean duten eragina ikertu dute. Adibidez, La Paro, Justice, Skibbe, eta Pianta-k (2004) amaren sentikortasunaren, amaren depresioaren, estatus sozioekonomikoaren eta familia-testuinguruaren kaliatearen papera aztertu zuten nahasmenduaren jarraitutasunean. Horretarako, bi lagin erabili zituzten: bata, hizkuntza-arazoak konponduta zituzten 33 umez osatutakoa, eta besteak hizkuntzaren nahasmendu iraunkorra zuten 40 ume zituen; denen batazbesteko adinia lau urte eta erdikoa zen. Lanaren emaitzek agerian jarri zuten bai sentikortasun baxuak, bai amaren depresio-maila altuak (biak familia-mikrosistemaren aldagaiak dira) hizkuntza-zailtasunen garapenean paper negatiboa eragiten dutela, nahasmenduaren jarraitutasunari lagunduz.

Irakurketaren nahasmenduari dagokionez, Zhang, Gegorgiou, eta Shu-k (2019) etxeko alfabetatze-testuinguruaren eta irakurketa-zailtasunen arteko erlazioa ikertu zuten; lagin bat dislexia garatzeko arriskuan zeuden 3 urteko umez osatuta zegoen, eta bestea adin kronologiko bereko garapen normatibodun umez osatuta. Denek hiztegiaren, trebetasun fonologikoen, irakurketaren, morfologiaren eta ez-hitzezko adimenaren inguruko atazak egin zituzten. Horrez gain, familiek etxeko alfabetatze-testuinguruari buruzko galdetegi bat bete zuten, baita eguneroko bat eta haurrentzako tituluak antzemateko zerrenda bat ere. Lan horrek agerian utzi zuen irakurketa-idazketa baliabideen eskuragarritasuna eta umeek irakurketarekiko zuten interesa ebaluatzen zuten itemetan aldea zegoela bi taldeen artean, arriskuan zeuden umeen laginean txikiagoa izanik.

Era berean, Hamilton, Hayiou-Thomas, Hulme, eta Snowling-ek (2016) ikerketa bat egin zuten etxeko alfabetatze-testuinguruaren eta irakurketa-idazketaren geroko garapenaren

arteko erlazioa aztertzeko dislexia izateko familia-arriskua zuten umeengan. Hala, erabili zuten lagina arriskuan zeuden 116 umez eta kontrol-taldeko 72 umez osatuta zegoen. Etxeko alfabetatze-testuinguruaren datuak batu ziren parte-hartzaileek 4 urte zituztenean; gainera, aurreirakurketa-trebetasunak ebaluatu ziren 5 urte zituztenean (hiztegia, gramatika, ezagutza fonologikoa, hizkien ezagutza eta deskodetzea) eta irakurketa-idazketa 6 urte bete zituztenean (deskodetzearen, letreiaketaren eta irakurizko ulermenaren bidez). Emaitzek erakutsi zuten dislexia-arriskuan zeuden umeen taldeak, kontrol-taldearekin alderatuta, hizkuntza- eta alfabetatze-trebetasunetan puntuazio txikiagoak lortu zituela, eta irakurliburuaren eraginpean ere gutxiago jartzen zirela. Edonola ere, aldagai horien arteko erlazio ebolutiboak antzekoak izan ziren bi taldeetan, hau da, etxeko alfabetatze-testuinguruak irakurketa-idazketa emaitzetan eragiten zuen 6 urterekin, aurreirakurketa-trebetasunen (hiztegia, ezagutza fonologikoa eta deskodetzea) ekintza bitarteko zela bi taldeetan.

Datu horiek Snowling, Muter, eta Carroll-ek (2007) egindako ekarpenen bide berean doaz. Autore horiek dislexia izateko familia-arriskua zuten eta arrisku hori ez zuten umeen segimendua egin zuten 3 urteetatik nerabegarora arte; umeen eboluzioa bai irakurketa- eta hizkuntza-trebetasunetan, bai trebetasun fonologikoetan eta arretazkoetan, eta bai lan-oroimenean aztertuz. Emaitzen arabera, arrisku-taldeko dislexiadun umeek irakurketa-proba guztiak okerrago egin zituzten, arrisku-taldeko dislexiarik gabeko umeekin eta kontrol-taldeko umeekin alderatuta. Azpimarratu behar da arretaren kontrolaren neurketetan ere aldeak nabarmenak zirela. Gainera, ume horien gurasoek antzematen zuten beren seme-alabek emozio- eta jokabide-doikuntza okerragoa zutela, baita gaitasun txikiagoa ere ikasketa mailan. Aurreko ikerketetan bezala, gurasoen alfabetatze-maila (exosistemaren aldagaia da baina mikrosistemaren kalitate interaktiboari eragin ahal dio) umeek alfabetatzean lortzen zituzten emaitzekin erlazionatuta zegoen. Halaber, autoreek zera azpimarratu zuten: irakurketa nahasmendua zuten umeen gurasoen erdiak baino gehiagok uste zuen semearen edo alabaren defizitak familiaren eguneroko bizimoduan eragina (%51,4) edo eragin handia (%14,3) zuela. Ikerketa horiek hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduak ulertzeko moduan jauzi handia izan ziren funtsezko hiru ideien berrespena ekarri dute. Lehenengoa, gurasoen profil kognitiboak umeen irakurketaren eta hizkuntzaren garapenean duen paperari buruz zegoen ebidentzia babesten dute. Bigarrena, arretaren nahasmenduek dislexiaren fenotipoan duten inplikazioa egiaztatzen dute. Hirugarrena, eta are interesgarriagoa dena, familia-testuinguruaren aldagaien funtsezko eragina badagoela iradokitzen dute; hain zuzen, hizkuntza- eta irakurketa-trebetasunen garapenean aldazio-jartzean lortutako kalitateari

eragiten dioten aldagaiena. Gai hori aztertu aurretik, kontu interesgarri bat honi dagokio: nola kontzeptualizatu daitezkeen modu ordenatuan eta sistematikoan garapen horretan potentzialki eragin dezaketen testuinguru-aldagai guztiak. Kapitulu honetan egiaztatu ahal izan den bezala, eredu epigenetikoak esparru inklusiboa eskaintzen du, kualitatiboki desberdinak diren zenbait aldagai (genetikoak eta testuingurukoak) batzea ahalbidetzen duena. Aldagai horiek gizakiaren garapen psikologikoan eragiten dute eta, azken finean, beha daitezkeen fenotipoa modulatzeko dute.

5. KAPITULUA: *Familia-testuingurua ebaluatzeko eredu bat.*

Ikuspegi biologikoak mugak erakutsi ditu genetikan bakarrik oinarritutako azalpen osoa emateko orduan (Pennington eta Bishop, 2009), eta hori berriki egin diren ikerketentzako erronka izan da. Izan ere, lan horiek garapen kognitiboa ikertzeko esparru teoriko egokia ekologiko-testuingurukoa dela nabarmentzen dute; hain zuzen, lan honen sarreran azaldu den esparrua da, eta nahasmenduen agerpenean edo garapenean eragin lezaketan aldagai epigenetikoak antzemateko gai izango litzateke.

Azken hamarkadetan egindako ikerketa kopuru handi batek familia-testuinguruak umeen garapen sozio-emozionalean eta kognitiboan duen eragina babesten du (Cunningham eta Boyle, 2002; Galende, Sánchez de Miguel, eta Arranz, 2011; Molfese, Modglin, eta Molfese, 2003; Murray eta Hornbaker, 1997; Ramchandani, Stein, Evans, eta O'Connor, 2005; Robledo eta García, 2009; Schroeder eta Kelley, 2009; Vera, Morales, eta Vera, 2005). Nahiz eta inpaktu hori nabarmenagoa den bizitzaren lehen bi urteetan, haurtzaro goiztiarraren osteko urteetan ere garrantzia izaten jarraitzen du. Izan ere, bost eta zazpi urteen artean ikaskuntza akademikoaren exigentzia-maila areagotzen da, eta, beraz, momentu horretan egiten dira nabarmenago hizkuntzaren eta irakurketaren ikasprozesuei lotutako zailtasunak.

Garapen kognitiboaren alorrean, arreta, prozesatze-abiadura eta lan-oroimena bezalako oinarritzko gaitasun kognitiboek hizkuntzaren garapenerako (Hipfner-Boucher, Milburn, Weitzman, Greenberg, Pelletier et al., 2014; Leonard, Weismer, Miller, Francis, Tomblin et al., 2007) eta irakurketaren garapenerako (Facoetti et al., 2010; Smith-Spark eta Fisk, 2007) beharrezkoak diren trebetasun fonologikoen garapenean—ezagutza fonologikoan edo oroimen fonologikoan—zerikusia dutela frogatzen duen ebidentzia zabala dago. Beste alde batetik, aurreko kapituluan ikasteko zailtasunek oinarri genetikoak dutela frogatu den arren (ikusi Viding et al., 2003), berriki egin diren ikerketek honako hau utzi dute agerian: familia-testuinguruko aldagai batzuek zailtasunak gutxitu edo prebenitu ditzaketela, bai oinarritzko gaitasun kognitiboak garatzean, baita gaitasun kognitibo konplexuak ikasteen ere, irakurketa eta hizkuntza tartean (La Paro, et al., 2004; Laakso, Poikkeus, eta Lyytinen, 1999; National Institute of Child Health and Human Development Early Child Care Research Network, 2000).

Lehenago aipatutakoaren arabera, ikaskuntzarako funtsezkoa den garai horretan gaitasunen eraikitze-epigenetikoari lagunduko dioten testuinguru-aldagaiak ebaluatzeko tresnak sortzeko beharra justifikatzen da. Helburu horrekin, Haezi-Etxadi Family Context

Assesment Scale-6-DA (HEFCAS-6-DA) eskala diseinatu zen, lehen hezkuntzan hastean hizkuntzaren edo irakurketaren zailtasunak garatzeko arriskua duten umeen familia-testuinguruaren kalitatea ebaluatzeari begira. Eskala hori HES-2 (Velasco, Sánchez de Miguel, Egurza, Arranz, Aranbarri et al., 2014), eta HES-7-11/FA (Barreto, González, Roncallo, Acha, eta Sánchez de Miguel, 2018) bertsioetatik abiatzen da. Lehenengoak 18 eta 30 hilabete bitarteko umeen familia-testuinguruak ebaluatzen ditu, bigarrenak, ordea, 7 eta 11 urte bitarteko umeen familia-testuingurua. Eskala horiek eta HEFCAS-6-DAk egiten dituzten proposamenak, halaber, familia-ebaluaziorako ohiko tresnetan oinarritzen dira, HOME eskalan (Caldwell eta Bradley, 1984) eta Garapenaren Historian (Pettit, Bates, eta Dodge, 1997) adibidez. Bi tresnen jatorrizko proposamenei familia-testuinguruko aldagaiak gehitu zaizkie, zehazki, ikerketa berriek garapen psikologikoaren hainbat eremutan eragin handiko bezala identifikatu dituztenak (Arranz, Olabarrieta, Manzano, Barreto, Roncallo et al. 2017).

Eskala horrek bi ereduren funts teorikoetan oinarrituta sistematizatzen ditu aldagaiak: lehenengoa Bronfenbrenner-en eredu ekologiko-testuingurukoa da (1997, 2005), eta horrek testuinguruko maila desberdinei buruzko aldagaiak txertatzea justifikatzen du, adibidez, familia-mikrosistema (familia barruko interakzioak eta giroa), edo exosistema bezalako sistema periferikoagoak (testuinguru fisiko eta sozialaren kalitatea). Eredua jokabidearen genetikak dituen muga alternatiba bezala sortu da, eta abiapuntua da material genetikoak ez dituela ezaugarri osoak sortzen, baizik eta material horrek eta testuinguruko esperientziak dinamikoki eragiten diotela elkarri, emaitza ebolutiboak zehazteko. Halaber, iradokitzen du prozesu proximalen ikerketek eta ingurumen-baldintza desberdinetan ematen diren beraien ondorio ebolutiboek zeharkako estrategia eskaintzen dutela, bai genetikak eta bai testuinguruak umeen garapenean ematen diren desberdintasun indibidualetan duten rol garrantzitsuaren mugak ebaluatzeko.


Testuinguru ekologikoa egitura habiaratuen banaketa bezala ulertzen da, eta egitura horien artean garapenean dagoen subjektua inguratzen duten interakzio-maila desberdinak bereizten dira. Ereduek ekologikoko mailen deskribapena mikrosistemikotik hasten da, hots, ama, aita eta seme-alaben artean gertatzen diren gizarte-interakzio zuzenak barnean hartzen dituenak, familia-egitura edozein dela ere. Maila honen propietateak elkarrekotasuna, bi pertsona baino gehiago hartzen dituen gizarte-sistema funtzionalaren ezagutza eta horiei lotuta egon daitezkeen goi-mailako ondorioak dira, baita faktore fisikoen zeharkako inpaktua ere. Maila mesosistemikoak, bere aldetik, mikrosistema desberdinen artean sortutako erlazioei egiten die erreferentzia, eta bere baitan hartzen ditu batetik, umeek beraien

berdinekin dituzten harremanak, bestetik, familia nuklearrak familia zabalarekin dituenak, eta azkenik, amen zein aiten harremanak eskolarekin. Maila honen propietateek testuinguru desberdinen arteko interakzioari eta trantsizio ekologikoari egiten diete erreferentzia, eta roletan, jardueretan zein lekuetan denboran zehar gertatu diren aldaketak hartzen ditu; aldaketa horiek garapenean dagoen pertsonari ez ezik, azpisisteman inplikaturako gainerako pertsonari ere eragiten diete. Hirugarren maila exosistema da, garapena ematen den toki bezala definitu ohi dena, eta hartzen dituen aldagaiak zuzenean interaktiboak ez diren arren, interakzioen kantitateari eta kalitateari eragin diezaiekete. Horien artean ditugu, besteak beste, familiaren maila sozioekonomikoa, gurasoen hezkuntza-maila, inguru fisikoaren kalitatea, komunitate-zerbitzuen eskuragarritasuna, etab. Azkenik, maila makrosistemikoan kultura bakoitzaren ezaugarri orokorrak zehazten dituzten aldagaiak sartzen dira, hala nola, familia-mikrosisteman eta beste mikrosistema batzuetan sortzen den interakzio motari eragin ahal dioten balio soziokulturalak, politikoak, ekonomikoak eta erlijiozkoak.

Ikuspegi ekologiko, interaktibo eta sistemiko hori bateragarria da familia azpisistemez (gurasoena eta neba-arrebena) osatuta dagoen, eta aldi berean beste sistema kultural, ekonomiko eta sozial batzuekin harremanak dituen, mikrosistema baten irudikapenarekin. Azpisistema bakoitzaren barruko erlazioei, bikotekideen artekoiei edo neba-arreben artekoiei, azpisistema barneko deritze; eta azpisistema desberdinen arteko erlazioei (gurasoen eta seme-alaben artekoiei) azpisistema arteko deitzen zaie. Horrek familia eragin anitzak jasaten dituen eremu interaktiboa dela onartzea dakar (Arranz, 2004). Beraz, eredu horrek familia-testuinguruak garapen psikologikoan duen eragina konplexutasunez ulertzea eta bereganatzea ahalbidetzen du, baita garapenean eragiten duten aldagaiak antolatzea eta aztertzea ere. Adibide gisa, makrosistemak garapenean eragiten duten aldagai batzuk hartuko lituzke, hala nola, sozioekonomikoak eta kulturalak (Rindermann eta Baumeister, 2015; Ursache eta Noble, 2016; Vera et al., 2005). Gurasoen hezkuntza-maila (Tamis-LeMonda, Shanon, Cabrera, eta Lamb, 2004), eta esperientziak zein testuinguru estimulatzaileak eskaintzeko ahalmena (Bradley, Corwyn, McAdoo, eta García, 2001; Ginsburg, 2007; National Institute of Child Health and Human Development Early Child Care Research Network, 2000; Snowling et al., 2007) bezalako aldagai demografikoak exosistemaren barruan daude, non zuzenean interaktiboak ez diren aldagaiak ere sartzen diren, esate baterako, estresa edo amaren depresio-maila (Julien, Gaudreau, Melançon, Mena, Gagnon-Trudeau et al., 2017; Ramchandani et al., 2005), edo guraso-autoeraginkortasun sentimenduak (Coleman eta

Karraker, 1997; Glatz eta Buchanan, 2015; Gerdes, Hoza, Arnold, Pelham, Swanson et al., 2007; Jones eta Prinz, 2005).

Mesosistema-mailan, familia zabalarekin eta lagun zein zerbitzuen sare sozialarekin dauden harremanak koka litezke. Familia zabalaren sostenguak duen eragina argi ikusten da Jæger-en lanean (2012), non agerian jartzen den familia zabalarekin ematen diren interakzioek umeen hezkuntza-arrakastan duten eragin positiboa. Gainera, familia zabalarekin ematen diren harreman positiboak egoera ekonomiko txarraren ondorio negatiboen konpentzatzaille modura agertzen dira. Beste alde batetik, sostengu nahikorik gabeko familietan bizi diren umeez ondorio negatiboak izateko arrisku handiagoa dute, gizartean eta hezkuntzan aukera gutxiago izateagatik (ikus Bidmead eta Whittaker, 2007; La Fave eta Thomas, 2017; McPherson, Kerr, McGee, Cheater, eta Morgan, 2013). Maila mikrosistemikoan, bere aldetik, interakzio zuzenekin erlazionatutako aldagaiak sartzen dira, hala nola, hezkuntza-moldea eta umek hazteko eta hezteko pautak (Cuervo, 2010; Guajardo et al., 2009; Hammer et al., 2001; Olabarrieta, Martín, Arranz, Manzano, Azpiroz et al., 2003), guraso eta seme-alaben arteko atxikimendu-mota (García-Dié, 2001) edo ezkontideen arteko gatazkaren eraginpean jartzea (Brocka eta Kochanska, 2016; Froyen et al., 2013). Aldagai horiek, aita-amen eta seme-alaben artean ezarritako komunikazio-moldearekin eta umeen beharrekiko erakusten duten sentikortasunarekin batera, umeez eskolan izaten duten doikuntzan eta ikasteko motibazioan zuzenean eragiten dutela ematen du (Garrett-Peters, Castro, eta Halberstadt, 2017; La Paro et al., 2004; Murray eta Horbarker, 1997; Tamis-LeMonda et al., 2004). Bigarren irudian, aipatutako aldagaien eta garrantzitsuak diren beste batzuen antolaketa ikus daiteke, Bronfenbrenner-en (2005) eredu ekologikoaren mailetan integratuta.



2. irudia. Familia-aldagaiak Bronfenbrenner-en eredu ekologikoari dagokionez.

Laburbilduz, maila desberdinetan ordenatuta dauden familia-testuinguruko aldagai horiek guztiek umeen garapenean positiboki edo negatiboki eragin dezakeen testuinguruaren izaera definitzen dutela ondoriozta daiteke. Halaber, testuinguru desegoki batek umei modu negatiboan eragin diezaikeela ikusi da, bai jokabidean (Guajardo et al., 2009; Hemmings, 2010; Jones eta Prinz, 2005), bai sozializatzeko trebetasunetan eta garapen afektibo-emozionalean (Coleman eta Karraker, 1997; Cuervo, 2010; Ginsburg, 2007; Guajardo et al., 2009; Marton, Brocha, eta Rosenzweig, 2005;) eta bai oinarrizko trebetasun kognitiboaren garapenean (Snowling et al., 2007) ondorioak edukiz.

Osagarri modura, familia-testuinguruko aldagaiak *gurasotasun positiboaren* ereduarekin osatzen dute. Eredu horrek hazkuntza eta hezkuntza umeen beharren errespetuan oinarritzen ditu, eta garapena sustatuko duten ekintzak martxan jartzen ditu (adibidez, atxikimendua indartzea, gatazken erangipean ez jartzea, jokoaren bidezko interakzioa, etab.), garapen hori indartuko duten guraso-trebetasunak erabiliz (Arranz et al. 2017). Eredu horren arabera, tratua ona, garapenearen sustapena eta gurasotasuna indartzeko ekologia egoteak aldeko testuinguruaren sustatzen dute, eta horrek, azken batean, umeen ongizatera eta garapen egokira darama.

Dimentsioak	Bigarren mailako adierazleak	Konpetentziak
<i>Tratu ona</i>	Atxikimendua sustatzea	Gurasoekiko loturak, atxikimendua, emozioen adierazpena eta erregulazioa, neba-arreben arteko harremanak, jolasa, aitaren/hazkuntzako 2. figuraren inplikazioa, ordezko zainketa.
	Erresilientzia sustatzea	Sustapena: frustrazio optimoa, autonomia, autoestimua.
<i>Garapenaren sustapena</i>	Garapena estimulatzea	Sustapena: neba-arreben arteko harremanak, hezkuntza-molde demokratikoa, edoskitze naturala, imitazioa, jolasa. Hornikuntza: ikasteko materialak, testuinguru fisikoaren kalitatea, esperientzien aniztasuna, neurotoxikoetatik babestu. Aldamio-jartzea: sinbolizazioa, gogamenaren teoria, hizkuntza.
	Gurasotasun indartzailearen profila	Gaitasun interaktiboak, guraso-autoeraginkortasuna, garapen psikologikoaren ezagutza, hezkuntza-koherentzia.
<i>Gurasotasuna indartzeko ekologia</i>	Gizartearen babesa	Estatus sozioekonomikoa, umeen sozializazioa sustatzea, familia zabalarekiko harremanak, gizartearen laguntza-sareak, harremanak eskolarekin.
	Familia-sistemaren tentsioa	Gurasoen estresa, gurasoen arteko gatazkaren eraginpean egotea.

EGITURA dimentsio guztien oinarria da, eta familiaren bizimoduaren arlo guztietan dauden errutina interaktibo egonkorrei dagokie.

1. *grafikoa*. Gurasotasun positiboaren eredu teorikoa.

6. KAPITULUA: Hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean inplikaturako familia-testuinguruaren aldagaiak.

Lehenago adierazi den bezala, haurren garapenak umea mugitzen den testuinguruarekin lotura estua dauka. Gizakiaren bizitzaren lehen urteetan testuinguru garrantzitsuena familiar dagokiona izanik—hain zuzen, umeek denbora gehiena ingurune horretan ematen dutelako—, testuinguru hori kalitate handikoa izatea funtsezkoa izango da umearen garapena optimoa izan dadin. Deskribaturako ereduak (ekologiko-testuingurukoa eta gurasotasun positiboa) aldagai-egitura ordenatua ematen dute, familia-testuinguruak umearen garapenean duen indarra modu sistematikoan ebaluatzea ahalbidetzen duena. Baina HNEaren eta dislexiaren adierazpen fenotipiko bereizgarrien jatorria eta bilakaera aztertzeak familia-aldagaien berrikusketa zorrotza eskatzen du, eta orain arte ez da horrelakorik egin. Literaturaren arabera, testuinguru-aldagaien eta hizkuntza- zein alfabetatze-trebetasunen garapenaren arteko erlazioen izaera ez da batere argia, eta familia-testuinguruaren balizko kalitate-aldagaiak sakon aztertzea eskatzen du.

6.1. Familia-testuinguruaren papera hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean

Ikusi denez, eredu ekologikoak umearen garapenean eragin dezaketen familia-testuinguruko aldagai desberdinak sistematizatzea ahalbidetu du. Literaturan garapen orokorrari buruzko lan asko dauden arren, familia-testuinguruko aldagaiek hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean duten eragina aztertzen dutenak gutxiago dira. Hala ere, ikerketa horiek informazio interesgarria ematen dute deskribaturako ereduak dauden zenbait aldagai espezifiko hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean izan dezaketen inpaktu babesleari eta sustatzaileari buruz.

Adibide modura, Laakso-k et al. (1999) egindako lan seminalak aipa liteke, non egiaztatu zen irakurketa partekatuan gertatutako ama- semea/alaba diaden interakzioen eta ondoren datozen hizkuntza-trebetasunen arteko erlazioa zegoela bi urteko umeengan. Gainera, ikerketa horren emaitzek erakutsi zuten dislexiadun eta dislexia gabeko amek irakurketa partekatua egin bitartean seme-alabekin zituzten interakzioak antzekoak zirela, eta aldazio-jartzeari dagozkion interakzio batzuk, hala nola testuak eta irudiak deskribatzea, galdetzea edo irakurketan parte-hartzea eskatzea, geroko hiztegi-mailari eta umearen irakurketarekiko jarrerari lotzen zitzaizkiola. Familia elebidunez osatutako laginekin

egindako ikerketetan ere antzeko emaitzak lortu ziren, irakurketa partekatua egin bitartean umearen hiztegiaren gertatzen ziren interakzioen eragin positiboa bigarren hizkuntzara ere hedatzen dela frogatuz. Adibide modura, Quiroz, Snow, eta Zhaok (2010) egindako ikerketa dugu, non irakurketa partekatua egin bitartean amak umeari galderak egiten zizkion umeak objektua etiketa zezan; eta horren bidez egiaztatu zuten galdera horien maiztasuna positiboki lotzen zitzaiola haur-hiztegiari, bai irakurtzen ari zen hizkuntzan eta bai umearen bigarren hizkuntzan ere.

Irakurketa partekatuko momentuen aldeko beste ebidentzia bat dago: umeak ipuin-liburuen eraginpean ematen duen denbora hizkuntza harkorraren, hiztegiaren eta ahozko ulermenaren mailarekin lotuta dago (Senechal y Le Fevre, 2002). Autore horiek iradoki zuten alfabetoa liburuen bidez irakastea umearen ezagutza fonologikoari lotzen zaiola eta, ondorioz, irakurketa-trebetasunei. Hizkuntzaren beraren aldazio-jartzeari dagokionez, Rowe-k (2012) egindako luzetarako ikerketa batek frogatu zuen, umeekin, hizkuntzaren aldazio-jartzeari dagozkion jokabideek haur-hiztegiaren eragin positiboa zutela. Gainera, inpaktua handiagoa izan zen hizkuntza-interakzioa umearen eboluzio-aldiari egokitzen zitzaiotenean (input kopurua 18 hilabeterekin, aniztasuna 30 hilabeterekin eta testuingurutik ateratzea 42 hilabeterekin).

Interakzio zuzenez gain, etxeko irakurketa-ohiturek eta gurasoen irakurketa-historiak umeengan eragin dezakete; hain zuzen, irakurketa-ohiturak barneratzeko moduan eta irakurketarekiko motibazioan. Nerabezaro goiztiarrean gurasoen profil kognitiboak trebetasun fonologikoen eta irakurketa-trebetasunen gainean duen papera aztertu zen ikerketa batean, Conlon, Zimmer-Gembeck, Creed, eta Tuckerek (2006) gurasoen irakurketa-ohiturak eta alfabetatze-maila umeen trebetasun fonologikoei zein ortografikoei eta irakurketa-jarioritasunari lotuta zeudela erakutsi zuten. Halaber, gurasoen errendimendu kognitiboak ez zituela emaitza kognitiboak guztiz azaltzen adierazi zuten, beraz, familiaren alfabetatze-testuingurua (aldagai exosistemikoa) eta gurasoen historia, irakurketa partekatuarekin batera (aldagai mikrosistemikoak), funtsezko faktoreak izan litezke umeen irakurketa-gaitasunen garapenerako, eragin genetikotik harago (ikus Torppa et al., 2006; Van Bergen et al., 2015).

Osagarri modura, jolasak ere hizkuntzaren eta irakurketaren garapenaren indartzaile gisa joka dezake. Zenbait ikerketak erakutsi dute helduek jolas librea egin bitartean hiztegi sofistikatu erabiltzen bazuten, horrek irakurritzko ulermena eta hitzen antzematea iragartzen zuela lehen hezkuntzako 4. mailan, eta eskolaurrean zeukaten hiztegi harkorraren maila erlazio horretan bitartekaria zela (Dickinson eta Porche, 2011). Ildo horretan, datuek

iradokitzen dute bi helduak etxean bizi diren familietan, aiten, amen eta seme-alaben arteko jolasetan interakzio aberatsek irakurketa mailan eragiten dutela lehen hezkuntzako 5. mailan (Cook, Roggman, eta Boyce, 2011). Aurkikuntza horiek haurtzaroan jolasak ikaskuntza-tresna eta epe luzerako sustapen-tresna (hizkuntzaren garapenarena ez ezik, irakurketarena ere) bezala duen garrantzia erakusten dute.

Loturaren, sentikortasunaren eta segurtasunaren garapenarekin erlazionatutako aldagai batzuk hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean garrantzitsuak izan daitezkeela iradokitzen duen ebidentzia ere aipatu behar da. Adibidez, diziplinaren eta afektuaren arteko oreka testuinguruak hizkuntzaren estimulatzaile bezala duen indarraren adierazle garrantzitsua izan daiteke. Zehatzago esanda, muga egonkorak egoteak eta frustrazio optimoa lantzeak zuzenean eragin dezake erregulaziori lotutako gaietan, eta zeharka, hizkuntza eta irakurketa eskuratzearekin zerikusia duten prozesuetan (Schroeder eta Kelley, 2009). Ildo berean, Hammer-ek et al., (2001) hazkuntza-moldearen, irakurri bitarteko interakzioen eta hizkuntza-zailtasunen arteko asoziazioa aztertu zuten garapen normatibodun 925 umez eta HNEdun 177 umez osatutako lagin batean (umeez 6 urte zituzten). Ikerketa horren arabera, hazkuntza-jardunbidea eta diziplina (aldagai mikrosistemikoak), gurasoen heziketari eta familiaren maila sozioekonomikoari dagozkion aldagai exosistemikoekin batera, jariatutasun-, pertzepzio- eta hizkuntzaren artikulazio-arazoekin erlazionatuta zeuden nabarmenki.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako ikerketan, afektu falta eta autoestimua zein frustrazio optimoaren sustapen eskasa hizkuntza-mailari negatiboki lotzen zitzaizkion. Aitzitik, kalitatezko interakzioak ez ezik, gurasoek seme-alabei zenbat aldiz irakurtzen zieten eta eguneroko jardueri buruz zein maiztasunez hitz egiten zuten ere, hori guztia umeen hizkuntza-trebetasunei positiboki lotuta zegoen. Beste ikerketa batzuek antzeko aurkikuntzak lortu dituzte, adierazkortasun emozionalak eta autoestimua indartzeak hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean duten papera azpimarratuz (ikusi Molfese et al., 2003). Horrez gain, diziplina-jardunbideak eta frustrazio optimoa oinarrizko gaitasun kognitiboen garapenean—arreta, autorregulazioa edo lan-oroimena—aldagai garrantzitsuak izan daitezkeela iradokitzen dute (Bernier, Carlson, Deschênes, eta Matte-Gagné, 2012; Schroeder eta Kelley, 2009; Thorell et al., 2012). Oinarrizko gaitasun kognitibo horiek gaitasun kognitibo konplexuen ibilbide ebolutiboa baldintzatzen dute (Grey et al., 2015; Magimairaj eta Motgomery, 2009).


Gainera, familia-testuinguruaren orekarekin erlazionatutako aldagaiei dagokienez, hainbat ikerketak frogatu dute estresa eta ezkontideen arteko gatazka bezalako aldagaiek, baita eguneroko bizitzaren antolaketa faltak ere, batetik, familia-mikrosistema

(aita/ama/semi-alabak) osatzen duten azpisistemen arteko interakzioen kalitateari negatiboki eragin diezaioketela; bestetik, arreta-garapena eta ikaskuntza-prozesuen oinarria diren autorregulazio-trebetasunak oztopatu ditzaketela (Harris, Henry, Liu, eta Morris, 2018; La Paro et al., 2004). Azpimarratu behar da, bai estresa eta bai familia-gatazka osasuntsuak direla, beti ere, umeak horiei modu egokian aurre egiteko beharrezko tresnak eta helduen laguntza baldin baditu. Hala ere, estresa estimulu toxiko bihurtzen den egoeretan, eta umeak egoera hori gainditzeko behar den laguntza ez duenean, bere garapenak eragin negatiboa jaso dezake (Jacob, van den Heuvel, Jama, Moore, Ford-Jones et al., 2018).

Lan-lerro horretan, Froyen et al. (2013) ezkontideen gogobetetasuna, adierazkortasun emozionala eta etxeko ikaskuntza-testuingurua aztertzen aritu ziren umeen irakurketa-trebetasunetan, horretarako ama/semi-alaba motako 385 diadaz osatutako lagin bat erabiliz. Ikerketa horren emaitzen arabera, adierazkortasun emozionalak eragin negatiboa jasotzen du, familia-sisteman tentsioa sortzen duten aldagaiak direla kausa (estresa, gatazka konpontzeko zailtasuna eta ezkontideen gogobetetasun baxua). Izan ere, aldagai horiek trebetasun akademikoetan inplikaturako funtzio exekutiboaren garapenean eragin bereziki negatiboa dute (Bernier et al., 2012), eta azken finean, umeen hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean (ikusita ere Paulson, Keefe, eta Leiferman, 2009). Ildo berean egindako beste lan batzuk antzeko ondorioetara heldu dira, familia-estresaren maila altuak hiztegi harkorreko eta adierazpen-hiztegiko maila baxuekin lotuz eskolaurreko umeengan (Noel, Peterson, eta Jesso, 2008).

Beste alderdi garrantzitsu batzuek hizkuntzaren garapenaren indarrean eragiten duela ematen du, hain zuzen, gurasoek beren autoeraginkortasunaren gainean duten pertzepzioak eta semi-alaben hazkuntzari buruzko ezagutzak. Berrikusketa batzuek erakusten dutenez, guraso-autoeraginkortasunak ere haur-hizkuntzaren garapenean eragina izan lezake. Hautemandako guraso-autoeraginkortasuna altua denean, horrek aldagai babesle gisa jokatzen du stres-egoeretan (Benedetto eta Ingrassia, 2017), baina autoeraginkortasun baxua hautemanez gero, semi-alabek gaitasun gutxiago dituztela pentsatzera eramaten ditzake gurasoak, eta ondorioz, funtsik gabeko hezkuntza-jardunbideak gauzatzera; alderdi horiek negatiboki eragin dezakete garapen kognitibo orokorrean (Jones eta Prinz, 2005; Coleman eta Karraker, 2003). Adibidez, Shumow-ek eta Lomax-ek (2002) guraso-autoeraginkortasunak beren semi-alaben doikuntza sozioemozionala eta lorpen akademikoa iragartzen zituela erakutsi zuten, inplikazioa eta jokaeraren monitorizazioa bezalako hazkuntza-jokabideak bitartekari zirela.

Beste ikerketa batzuk guraso-autoeraginkortasunak umeen jokabide-arazoetan duen eragina aztertzean zentratu dira, eta agerian utzi dute guraso-autoeraginkortasun baxua zuten aitek eta amek diziplina-teknika zorrotzagoak erabiltzen zituztela; gainera, guraso horiek, euren burua eraginkortzat hartzen zuten gurasoek ez bezala, beraien seme-alabek jokabide-arazo gehiago zituztela uste zuten (Day, Factor, eta Szkiba-Day, 1994). Autoeraginkortasunaren pertzepzioaren eta jokabide-arazoen arteko asoziazioa eboluzio-aldi berantiarragoetan ere aurkitzen da, nerabegarora ere hedatuz (Bogensneider, Small eta Tsay, 1997; Dumka, Gonzales, Wheeler, eta Millsap, 2010); horrek adierazten du zein paper garantzitsu duten gurasoen hautemateek umeen garapenean.



3. irudia. Sintesi honek Bronfenbrenner-en eredu ekologikoan dauden mailen eta gurasotasun positiboaren ereduaren arteko bateragarritasuna erakusten du, baita testuinguru-aldagaien eta behatuko den fenotipoan eragiten duten geneen arteko erlazio interaktiboa ere.

Laburbilduz, hizkuntza- eta irakurketa-prozesuen bide ebolutiboan eragin dezaketen familia-testuinguruaren aldagai espezifikoek buruz ebidentzia zabala dago. Baina aldagai horiek bata besterekin nola erlazionatzen diren ez da aztertu (Rindermann eta Baumeister, 2015), eta ez dago horiek ebaluatu ahal izateko tresnarik; beraz, gai horiei erantzuna emango

dien galdetegi espezifiko bat sortzea eta baliozkotzea justifikatuta dago, lehenago deskribatutako aldagai guztiak barne hartuz, gero aldagai kognitiboekin eta hizkuntza-aldagaiekin duten erlazioa aztertzeko. Izan ere, familia-testuinguruaren eta hizkuntzaren zein irakurketaren garapenaren arteko erlazioa aztertu duten ikerketek etxeko eguneroko jardunean sortzen diren interakzio mikrosistemikoak (amak, aitak ea seme-alabak) aztertu behar direla iradokitzen dute, hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduetarako arrisurfaktore goiztirarrak definitzeko. Lan horiek, ordea, gainditu beharreko mugak dauzkate.

Lehenik eta behin, lan gehienek irakurketa- eta hizkuntza-aldagaiak bakoitza bere aldetik aztertzen dituzte, azpiko oinarrizko prozesuak kontuan hartu gabe eta dislexiaren eta HNEaren arteko komorbilitate tasa handia alde batera utzita. Lan batzuk HNEan eta dislexian inplikaturako trebetasun fonologikoetan zentratu dira, edo komorbilitatea duten arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduari (ADHN) lotutako arreta-trebetasunetan. Baina ez dituzte faktore horiek guztiak kontuan hartu diseinu bera erabiliz. Halaber, ez dago gai hori garapen normatibodun umeengan aztertzen duen luzetarako ikerketarik, eta horrek ezinezko bihurtzen du funtsezko gai honi erantzutea: nola antolatzen da hizkuntza-sistema eraginkor bat haurtzaroan? Horregatik egiaztatu behar da, batetik, familia-aldagai horietatik zeintzuk modulatu dituzten emergentzia-goiztiarreko baina garapen geldoko prozesuak—adibidez, arretaren kontrola, lan-oroimena eta informazioa prozesatzeko abiadura (prozesatze-orokorreko trebetasun ere deritzenak)—eta bestetik, maila honetan defizitak zein neurritan datozen bat hizkuntzaren nahasmenduetan eta irakurketaren nahasmenduetan. Hala izango balitz, familia-aldagai horiek garapen kognitiboaren babesle diren familia-aldagaien hierarkian estatus berezia izan beharko lukete. Lan honek ekarpen berritzaileak egin nahi ditu, aztertu ez diren aldagaien eragina eta horien azpiko prozesuak identifikatuz arlo honetan oraindik erabili ez diren ikerketa-diseinuen bidez.

Bestalde, laginaren adina ikerketa batetik bestera aldatu egiten da, eta ondorioz, emaitzek eboluzio-aldi desberdinak hartzen dituzte. Zehazki, hizkuntzarekin eta irakurketarekin, zein horiei lotutako nahasmenduekin, erlazionatutako oinarrizko prozesuak eta prozesu fonologikoak aztertzen dituzten ikerketek umeen lagin heterogeneoak erabiltzen dituzte, hain zuzen, 4 eta 6 urte bitarteko adina duten umeenak (Finneran et al., 2009), edo 4 urtetik 10 urte artekoak (Gathercole eta Baddeley, 1990; Gathercole et al., 1999), 7 eta 9 urte bitartekoak (Gray et al., 2017; Joanisse et al., 2000; Torppa et al., 2011), 7 urtetik 12 urte artekoak (Magimairaj eta Montgomery, 2012), 8tik 12 urtera artekoak (Ramus et al., 2013), edo 7 urtetik 19 urte artekoak (Fry eta Hale, 1996; 2000), besteak beste. Halaber, familia-

aldagaiak garapen kognitiboan eta hizkuntzaren zein irakurketaren garapenean duten eragina aztertzen duten ikerketen laginek ere eboluzio-aldi desberdinak hartzen dituzte barne, hala nola, 14 hilabeteak (Laakso et al., 1999), 15 hilabetetik 3 urtera arteko tartea (National Institute of Child Development and Early Child Care Research Network, 2000), 3 urtetik 4 urte eta erdira (La Paro et al., 2004), 6 urteak (Hammer et al., 2001), edo 11 eta 13 urte bitarteko tartea (Conlon et al., 2006), besteak beste.

Gorabehera hori hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduen kasuan garrantzitsua da, trebetasun fonologikoak eta printzipio alfabetikoak 6 eta 7 urteen tartean integratu eta barneratu behar direlako, eta horixe da, hain zuzen, alfabetatze-trebetasunei lotutako ikaskuntza-zailtasunak nabarmentzen hasten deneko garaia. Hori dela eta, testuinguru-aldagaien eta aldagai kognitiboen ebaluazioa eskolaurreko garaian egitea erabakigarria da, umeei momentu horretan dutelako lehen kontaktua instrukzio alfabetikoarekin (ikus Frith, 1986). Lehen ikusi denez, 7 urte bete baino lehen umeei fonemen kategorizazioa, ezagutza fonetikoak edo hitzezko oroimena bezalako trebetasunak menperatu behar badituzte, eta irakurketa-trebetasunak eskuratzea ahalbidetuko duen hiztegi-maila eduki behar badute (Nation eta Hulme, 2011; Nation eta Snowling, 2004; Tallal eta Gaab 2006), trebetasun horiei eusten dieten prozesuen garapen optimoa aldeztu aurretik garatu behar da, eta adin horretan familia-testuingurua funtsezkoa izan daiteke garapen horretarako.

Azkenik, aipatutako lan gehienek zeharkako diseinuak erabili dituzte eta ezin izan dute aldagai horien indar iragarlea zehaztu. Edozelan ere, premisa hau indartzen dute, zalantzarik gabe: badagoela erlazioa familia-aldagaien—bereziki aldagai mikrosistemikoen—eta hizkuntza eta irakurketa bezalako goi-mailako trebetasun kognitiboen eskuratzean inplikaturako oinarritzko prozesu kognitiboen (arreta edo oroimena) garapenaren artean.

Orain arte esandakoa kontuan harturik, aipatutako ikerketek hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduetan eragiten duten testuinguru-aldagaien definizio ilun eta, seguruenik, oker batera eraman lezakete. Beraz, ezinbestekoa da gai hori argitzea eta argi identifikatzea zeintzuk diren hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean inplikaturako prozesuekin zerikusia duten familia-testuinguruko aldagaiak, bai ume normotipikoen kasuan bai lagin klinikoan. Horrek hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduen artean dagoen komorbilitate altua hobeto ulertzen lagunduko du, baina ez hori bakarrik, prozesu espezifikoetan familia aldagaiak duten papera argitzeko bidea ere emango du.

7. KAPITULUA: Helburu eta hipotesi nagusiak

7.1. Ikerketaren helburuak:

Jokabidearen ebidentziak arreta eta prozesatze-abiadura bezalako oinarrizko prozesu batzuek lan-oroimenean eragin dezaketela frogatu du, hizkuntzari eta irakurketari eusten dioten trebetasun fonologikoetan mailakako eragin ebolutiboa eginez, nahiz eta orain arte ikerketa batek ere ez duen gai hori luzetara eta aldagai guztiak ikerketa berean kontuan harturik ebaluatu. Beste alde batetik, familia-testuinguruak trebetasun horien ibilbide ebolutiboan eragin dezake, hizkuntzaren zein irakurketaren garapenean garrantzitsuak izan daitezkeen familia-testuinguruko alderdi zehatzak ebaluatzeko tresnarik ez dagoen arren, eta testuinguru-aldagaiak hizkuntza sistema osatzen duten aldagai kognitibo guztietan duten eragina aztertu ez den arren.

Ikerketa honetan gai horiei luzetarako diseinu baten bidez erantzun nahi zaie, eta helburua da prozesatze orokorreko trebetasunen, trebetasun fonologikoen, hizkuntzaren eta irakurketaren arteko erlazioa aztertzea. Horretarako, batetik, hizkuntzaren edota irakurketaren nahasmendua garatzeko arriskuan dauden umeen lagin txiki bat erabili da; eta bestetik, garapen normatibodun umeez osatutako beste lagin zabalago bat, 6 urte zituztenean eta urtebete beranduago, zazpi urte zituztenean, hartua. Horrela, hizkuntza eta irakurketa, eta ondorioz, hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduak (HNE edo dislexia, esaterako) nola garatzen diren azaltzen duen esparru bat eman liteke.

Lehen esandakoa kontuan harturik, ikerketa honen helburu orokorra hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean zerikusia duten aldagai espezifikoak identifikatzea izan da, eta horrez gain, familia testuinguruak horietan duen inpaktua, eredu ekologiko-testuingurukotik abiatuta. Horretarako, helburu espezifiko hauek proposatzen dira:

- Oinarrizko prozesuek eta lan-oroimenak trebetasun fonologikoetan (iraupen laburreko hitzezko oroimena, ezagutza fonologikoa, hizkien ezagutza) eta ezagutza linguistikoaren neurrietan (hiztegia, gramatika, adierazpen-hizkuntza) duten eragina aztertzea, modu konkurrentean eta luzetara, lagin tipiko batean eta arriskuko beste batean.
- Hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean zerikusia duten familia-testuinguruko aldagaiak neurtzeko item guztien faktore-egitura aztertzea. Abiapuntua HES-2 eta HES-7-11/FA eskaletan erabilitako gurasotasun positiboaren eredia izango da.

- Familia-testuinguruaren faktoreen eragina hizkuntza-irakurketa sistema osatzen duten prozesuetan eta trebetasunetan aztertzea, modu konkurrentean eta luzetara, lagin tipiko batean eta arriskuko beste batean.

7.2. Hipotesi espezifikoak:

Adierazitako helburuei heltzeko, hipotesi espezifiko hauek probatuko dira:

- Mailakako garapen kognitiboaren eta defizit anizkoitzaren ikuspuntuaren arabera, oinarrizko prozesu kognitiboek (arreta eta prozesatze-abiadura, Cowan et al., 2005; Kail, 2000; Magimairaj eta Montgomery, 2012) trebetasun fonologikoen eta hizkuntza-trebetasunen ibilbide ebolutiboa modulatu dute, bai maila konkurrentean bai luzetarakoan, lagin tipiko batean eta arriskuko beste batean.
- Baddeley-ren (2003) oroimenaren ereduari eta baliabide partekatuen erduei jarraiki (Barrouillet eta Camos, 2004), lan-oroimenaren estatusa independentea da iraupen laburreko oroimenarekiko (Conlin et al., 2005), eta bere prozesatze-osagaiak hizkuntza-trebetasunak modulatu ditu maila konkurrentean eta luzetarakoan.
- Gurasotasun positiboaren ereduaren arabera, garapen kognitiboaren eta hizkuntzaren garapenaren sustapenari lotutako familia-testuinguruaren aldagaiek—adibidez, jokoak (Dickinson eta Porche, 2011) eta irakurketa ohiturak zein irakurketaren sustapena (Conlon et al., 2006)—hizkuntza- eta irakurketa-trebetasunen garapenean eragingo dute.
- Eredu berberarekin bat etorritik, garapen sozioemozionalaren sustapenarekin zerikusia duten familia-testuinguruko aldagaiek, hala nola, frustrazio optimoa eta heziketa-molde demokratikoa erabiltzea, hizkuntzaren jarioasunean eta adierazpenean eragin lezakete (ikus Hammer et al., 2001).
- Azkenik, eredu horrek aurreikusten du testuinguru sozialari—adibidez, estresari edo gatazkari—eta gurasotasun indartzailearen profilari—guraso-autoeraginkortasunari—lotutako aldagaiek hizkuntza-sistemaren ibilbide ebolutiboan eragin zuzena eduki dezaketela (Froyen et al., 2013; Noel et al., 2008; Jones eta Prinz, 2005).

8. KAPITULUA: Hizkuntzaren garapenaren eredu kognitibo baten ebaluazioa lagin normatibo batean.

Aurreko kapituluetan aipatu den bezala, hizkuntzaren ikuspegi ez-modularrak arreta, lan-oroimena edo prozesatze-abiadura bezalako oinarrizko prozesuek hizkuntza-trebetasunak modula ditzaketela defendatzen du, berdin delarik zein domeinutakoak diren. Hizkuntza mailaka eskuratzen dela uste duten ereduek iradokitzen dute oinarrizko prozesuek iraupen laburreko oroimen fonologikoan (biltegitratzeko gaitasuna) eta ezagutza fonologikoan (informazio fonologikoa prozesatzea eta maneiatzea) eragiten dutela, eta, azken finean, bere eraginkortasunak hizkuntzaren arlo desberdinei lotutako trebetasunen eskuratzean eragingo duela.

Kail (2000) bezalako autore batzuek prozesatze-abiadurak paper garrantzitsua izango lukeela proposatzen dute, trebetasun horretan gertatzen diren hobekuntzek lan-oroimenaren eraginkortasunean zuzenean eragingo luketelako, eta hobekuntza hori trebetasun kognitibo konplexuetan, hala nola, arrazoiketan, hizkuntzan edo adimen orokorrean (ikusirik Bornstein et al., 2006; Fry eta Hale, 1996, 2000; Marchman eta Fernald, 2008), arituko litzateke. Beste autore batzuek, bestalde, aldagai berri bat sartu dute ereduan, informazioaren prozesamendua arreta-gaitasunaren arabera ere dela uste dutelako. Adibide modura Gavens-en eta Barrouillet-en lana (2004) aipa daiteke. Lan horretan erakutsi zuten lan-oroimenaren eraginkortasuna informazioa azkarrago prozesatzeko gaitasunaren menpe ez ezik, arreta oroitzapenean jartzeko behar den denboraren menpe ere dagoela. Beraz, zenbat eta arreta-baliabide gehiago eduki, hobeto prozesatuko da informazioa eta azkarragoa izango da buruko bilaketa, horrela, informazioa berriz aktibatzea eta gero oroitzea erraztuz.

Hau da, datuek iradokitzen dute hizkuntza-sistemaren garapena sistema kognitibo osoaren eraginkortasunaren arabera dela, arreta eta prozesatze-abiadura hitzezko informazioa biltegitratzeko eta prozesatzeko (trebetasun fonologikoak eta lan-oroimena) gaitasunean eragiten duten funtsezko prozesu bitartekariak izango liratekeelako; eta aldi berean, gaitasun horiek funtsezkoak dira hizkuntza orokorra garatzeko bere domeinu desberdinetan (ikusirik Conlin et al., 2005; Ferguson eta Bowey, 2005; Gray et al., 2017; Bayliss et al., 2005).

8.1. Lehenengo ebaluazio-fasea.

8.1.1. Metodoa

Parte-hartzaileak

Hasierako lagina 113 umek osatzen zuten (105 garapen normatibodunak ziren eta 8k arrisku-talde bezala sailkatuak izateko baldintzak betetzen zituztela zirudien, gerora egiaztatu zen bezala). Ikerketan parte hartu zuten ume guztiak lehen hezkuntzako lehen maila egiten ari ziren, eta adina 5 urte eta 9 hilabetetik 7 urtera bitartekoa zen ($m = 6$ urte eta 4 hilabete; $DT = 4,31$). Lagina Bilboko (Euskal Herria) hiri inguruan dauden sei eskolatan hartu zen (5 eskola publiko eta ikastola bat). Familiaren maila sozioekonomikoa parte hartu zuten familiek betetako galdetegi baten bidez kontrolatu zen eta maila ertainean sailkatu ziren (familia-nukleoan hilero 1500 eta 3000 euro bitarteko diru sarrerak). Beraz, ez zegoenez aldakortasunik, datu hori ez zen gero aurkezten diren analisietan txertatu. Parte-hartzaile guztiek sistema berberen bidez ikasten zuten irakurtzen.

Ikerketan parte hartu zuten umeek inklusio-irizpide hauek betetzen zituzten: a) lehen hezkuntzako 1. mailan matrikulatuta egotea; b) arazo neuropsikiatrikoak (ADHN, Autismoaren Espektroko Nahasmendua, etab.) eta sentsozialak ez edukitzea; c) hezkuntza bereziko edo irakurketa- edota hizkuntza-terapiako zerbitzuetan egon izanaren historiala ez edukitzea; d) ikusmen normala edo zuzendua; e) 60tik gorako puntuazio estandarizatua Kaufman-en Adimen-test Laburreko Matrizeen azpittestean (K-BIT, Kaufman eta Kaufman, 1990); f) hiztun elebidunak izatea euskaraz eta gaztelaniaz (bi hizkuntzek ortografia gardena dute). Etxeko hizkuntzarekiko esposizio-maila familiek bete zuten galdetegi baten bidez neurtu zen laginean. Ume guztiek eskolatik kanpo gaztelaniarekiko esposizio-maila bertsua erakutsi zuten, bi hizkuntzen erabilera parekoa zen eta gaztelania lehenetsitako hizkuntza zen.

Arrisku-taldeak ($N = 8$), bere aldetik, irizpide hauek betetzen zituen: a) hizkuntza- edota irakurketa-zailtasunak edukitzea (DTa batezbestekoaren azpitik bi azpiprobatan edo gehiagotan); b) arazo neuropsikiatriko edo sentsozial erantsiak ez egotea; c) ikusmen normala edo zuzendua; d) 60tik gorako puntuazio estandarizatua Kaufman-en Adimen-test Laburreko Matrizeen azpittestean (K-BIT, Kaufman eta Kaufman, 1990).

Parte hartu zuen ume bakoitzaren amak eta aitak dagokion Batzorde Etikoak onartutako baimen informatuaren dokumentua sinatu zuten (erref. M10_2016_071MR1).

Prozedura

Ikerketa egiteko, luzetarako diseinua erabili zen, parte hartu zuten umeak 6 eta 7 urte zituztenean ebaluatu baitziren. Ikuspegi horrek ahalbidetzen du, batetik, taldeen arteko konparaketa egitea, eta bestetik, ikertzen ari garen trebetasun kognitiboen jarraipena egitea garapen normatiboa duen taldearen barruan.

Balorazio-prozesua urte akademikoaren hasieran egin zen (irailaren eta abenduaren bitartean). Ume bakoitza banaka ebaluatu zen elkarren segidako egunetan egindako bi saiotan, eta saio bakoitzaren iraupena 45 minutukoa zen, gutxi gorabehera. Prozesu osoa eskola orduen barruan egin zen, gela lasai batean. Ataza guztiak ordena berean banatu zitzaizkien parte-hartzaile guztiei eta aztertzaileak ematen zituen jarraibideen arabera bete ziren. Umeek behar izan zuten guztietan atsedenaldia egin zen, nekea saihesteko eta umeen errendimendua optimizatzeko.

Ez-hitzezko adimena, hizkuntza, arreta eta prozesatze-abiadura sinboloak hautemanaz ebaluatzeko atazak, baita atzeranzko digituen oroimena ebaluatzekoa ere, proba estandarizatuak ziren. Sasihitzen errepikapenari, ezagutza fonologikoari eta deskodetzeari buruzkoak, ordea, ordenagailu bidezkoak ziren eta helburu esperimentalarekin diseinatu ziren, hain zuzen, linean eta denbora errealean atzemateko bai erreazio-denborak (ED) eta bai errorearen ehunekoa (errore %). Proba horiek gure laborategian diseinatu ziren DMDX programaren bidez ordenagailu eramangarri batean erabiltzeko. DMDX batez ere esperimentu psikolinguistikoak egiteko diseinatutako softwarea da, baina gaur egun trebetasun kognitibo batzuk konduktualki ebaluatzeko ere erabiltzen da (Forster eta Forster, 2003).

Umeak ordenagailuaren aurrean esertzen ziren, eta bitartean, aztertzaileak ataza bakoitzari buruzko jarraibideak azaltzen zituen, banan-banan. Entrenatzeko entseguak ere egin ziren, umeak egin beharrekoa behar bezala ulertu zuela ziurtatzeko.

Tresnak eta neurriak

Kontrol-atazak

Ez-hitzezko adimena. Kaufman-en Adimen-test Laburreko (K-BIT, Kaufman eta Kaufman, 1990) Matrizeen ataza erabili zen ez-hitzezko arrazoiketaren puntuazioa parte-

hartzaille guztiengan kontrolatzeko. Proba horretan ebaluatua den pertsonak sekuentzia edo serie logiko batean falta den irudia seinatu behar du. Horrela, arazo berriak konpontzeko trebetasuna neurtzen da, loturak ulertzeko eta kidetasun bisualak osatzeko gaitasuna ebaluatuz. Azpittestak irudiak erakusten dituzten 48 item ditu—gehienak, irudi abstraktuak dira—, eta horrela beste estimulu-mota bat (linguistikoa, adibidez) erabiltzen denean ager daitekeen eragin kulturala ekiditen da. Saiok zortzi serietan batzen dira, bakoitza bost itemekin. Ebaluazio-prozesua ebaluatua den pertsonak multzo bereko item guztiak oker erantzuten dituenean bukatzen da. Matrizeen azpittestak ez du denbora mugarik, eta item bakoitzean eskatzen dena hau da: ematen diren bost, sei edo zortzi aukeren artean erantzun zuzena zein den adieraztea, besterik ez.

Testak, gainera, ikasteko itemak ere baditu, akats goiztiarrak egiten dituzten subjektuentzat. K-BIT-ek adinaren araberako puntuazio tipikoa ematen du azpittest bakoitzarentzat, 100eko batez besteko puntuazioa eta 15eko desbideratze tipikoa, baita Inteligentzia-koefiziente (IK) konposatuaren puntuazio globala ere. Item bakoitzaren puntuazio guztiak dikotomikoak dira, hau da, erantzun zuzen bakoitzeko puntu bat jasotzen da, eta erantzun okerra emanaz gero, ez da punturik lortzen. Azpittest bakoitzaren zuzeneko puntuazioa kalkulatu ondoren, puntuazio estandarizatu lortzen eta interpretatzen da, irizpide hauen arabera: IK oso baxua izango da puntuazio tipikoa <69 bada; baxua 70-79 bitartean dagoenean; ertain-baxua balioak 80 eta 89 artekoak direnean; ertaina 90 eta 109 artean; ertain-altua 110etik 119ra; altua 120 eta 129 artean; eta oso altua 130 puntutik aurrera. Propietate psikometrikoei dagokienez, matrizeen azpittestaren fidagarritasuna 0.74 eta 0.93 artean dago, eta baliozkotasuna 0.80koa da WISC-R-rekin alderatzen bada, eta 0.75ekoa WAIS-R-ri dagokionean. Proba horren iraupena 15 minutukoa da, gutxi gorabehera.

Hizkuntzaren osagaia

Hizkuntzaren trebetasun orokorrak. Hizkuntza-gaitasuna CELF-4 (Semel, Wiig, eta Secord, 2006) test estandarizatuaren bidez ebaluatu zen. Tresna horrek hizkuntzaren alde desberdinei heltzen die dituen azpittesten bidez. Kasu horretan, hizkuntza-arlo desberdinei dagozkien hiru ataza hautatu ziren: esaldien egitura, esaldiak gogoratzea eta hitz-motak. Esaldien egituraren ataza gramatikaren ulermena neurtzeko erabiltzen da, eta honetan datza: ebaluatua den pertsonak adierazi behar du erakusten zaizkion lau irudietatik zeinek azaltzen duen ondoen aztertzaileak irakurtzen duen esaldia. 31 item dikotomikoz osatuta dago; erantzun zuzen bakoitzagatik puntu bat lortuko da eta ez da punturik izango erantzun okerra

ematen denean. Esaldiak gogoratzearen ataza hizkuntzaren eta lexikoaren ezagutza neurtzeko erabiltzen da (Klem, Melby-Lervåg, Hagtvet, Lyster, Gustafsson et al., 2015). Ataza horretan aztertzaileak irakurtzen dituen esaldiak—gero eta konplexutasun gramatikal handiagoa izango dutenak—errepikatu behar ditu ebaluatutako pertsonak. Testak 32 item ditu eta bukatutzat emango da itemak errepikatzean hiru akats baino gehiago egiten badira elkarren segidan dauden sei esalditan. Erantzunak irizpide honen arabera puntuatzen dira: errepikapen zehatzak hiru puntu ematen ditu; akats bat egiten bada bi puntu ematen dira; errepikapenean bi edo hiru akats eginez gero, puntu bat ematen da; hiru akats baino gehiago egiten badira, ez da punturik ematen. Akatsa zera izango da: jatorrizko esaldiaren hitzen bat ez esatea, errepikatzea, gehitzea, lekuz aldatzea edo ordeztea. Azkenik, hitz-moten ataza adierazpen-hizkuntza neurtzeko erabiltzen da, eta pertsona ebaluatuak erakusten zaizkion hiru edo lau irudien artean lotura duten biak aurkitu behar ditu, eta asoziazio hori zertan oinarritzen den azaldu. Lotura semantikoa edo funtzionala izan daiteke. Osagai hau gauzatzeko 30 bat minutu behar dira.

Hiztegia. Hiztegi harkorraren maila Peabody-III (PPVT-III, Dunn eta Dunn, 1997) Irudietako Hiztegiaren Testa erabiliz neurtu zen. Tresna hori erabilgarria da parte-hartzaileak hiztegi harkorrean duen maila ebaluatzeko, baita hitzezko zailtasunak antzemateko ere. 175 txartel ditu, bakoitzean lau irudi daudelarik, eta pertsona ebaluatuak esan behar du zein den aztertzaileak aipatzen duen estimulu-hitzaren esanahia ondoen adierazten duena. Gainera, ikasteko bost item osagarri ditu. Itemak 12ko taldetan multzokatuta daude, eta abiapuntua parte-hartzailearen adinaren arabera (urtetan eta hilabetetan) zehazten da, ebaluatuko den pertsonarentzat errazegiak edo zailegiak diren itemak kentzeko. Kasu bakoitzarentzako abiapuntua testaren eskuliburuan aurki daiteke. Ebaluazio-prozesuak akats bat egin arte jarraitzen du, horrela oinarria ezartzen da, hain zuzen, serie onenaren—elkarren segidan zuzen emandako zortzi erantzun dituenaren—azken itemari dagokiona. Beste alde batetik, goiko muga ezartzen da ebaluatuak multzo berean zortzi akats egiten dituenean, eta puntu horrexetan geldituko da ebaluazioa. Zortzi akats multzo batean ere ez denean egiten, goiko muga 175ean jarriko da. Testaren puntuazioak dikotomikoak dira, erantzun zuzen bakoitzeko puntu bat jasoz, eta bat ere ez erantzun okerra ematen denean edo parte-hartzaileak erantzuna ez dakiela esaten duenean. Azkenean, guztirako puntuazio gordina kalkulatzeko da goiko mugako itemaren azpitik dauden erantzun zuzenekin, eta betiere, eskuliburuan ezartzen den protokoloari jarraiki; bertan pertzentilaren eta adin bakoitzerako puntuazio normatiboak aurki daitezke, 100eko batez bestekoarekin eta 15eko desbideratze tipikoarekin. Parametro

psikometrikoei dagokienez, baliozkotasuna Stanford-Binet-en Testaren hiztegi-azpittestarekin alderatuz ezarri da, eta 0.68 eta 0.76 artean dago. Beste alde batetik, fidagarritasuna 0.60-0.80 eta 0.70-0.90 artean kokatzen da. Test hori egiteko 15 minutu behar dira, gutxi gorabehera.

Ataza fonologikoak

Ezagutza fonologikoa. Bruce-ren (1964) fonemak kentzea eskatzen zuen atazaren bertsio eguneratua diseinatu zen, umeen ezagutza fonologikoaren gaitasuna ebaluatzeko helburuarekin. Silaba biko 16 sasihitz sortu ziren hasierako soinua kentzeko: horietatik, erdiak kontsonante-bokal (KB) motako silaba sinpleak zituzten, adibidez “mupa”, eta beste erdiak silaba trabatua zuten (KKB), adibidez “tradi”. Zehazki, itemen egitura hau izan zen: 4 elementu KB.KB motakoak, 4 item KB.KKB motakoak eta 8 sasihitz KKB.KB motakoak. Sartu ziren silaba guztiak maiztasun handikoak dira, eta silaben konbinazioak maiztasun handitik txikira eta txikitik handira orekatu ziren multzoaren barruan. Ataza hori gauzatzeko, ebaluatua izango den pertsonak entzungailuak jartzen ditu, eta hortik itemak banan-banan entzuten ditu. Sasihitz bakoitza aurkeztu ondoren, errepikatu egin beharko du lehen soinua kenduta (adibidez “mupa”, “upa”). Erantzuna ematen denetik hurrengo itema aurkeztu arte 500ms-ko etena ezarri zen. Ordenagailuaren pantaila zuri geratzen da ataza osoa bete bitartean, eta iraupena, gutxi gorabehera, 5 minutukoa da. Erantzun zuzen bakoitzagatik puntu bat ematen da eta erantzun okerrekin ez dute punturik ematen.

Iraupen laburreko oroimen fonologikoa. Sasihitzen errepikapeneko ataza bat diseinatu zen, paradigma klasikoan oinarritua (Hulme eta Tordoff, 1989), eta gerora Bishop-ek (2006) ere erabili zuena. Kasu horretan, lau talde sortu ziren, bakoitza sei sasihitzez osatua: lehenak bi silabatako luzera duten kateak ditu, eta elkarren segidako bloke bakoitzak silaba bat gehitzea dakar, gehienez bost silabatara heldu arte. Ataza gauzatzeko, ebaluatutako pertsonak ahalik eta modu zehatzenean errepikatu behar ditu entzungai modura, entzungailuen bidez, aurkeztutako sasihitzak. Prozedura hau da: ordenagailuaren pantaila batuketaren sinboloa (+) erakusten da 500ms bitartean, horiek igaro eta gero, umeak errepikatu behar duen silaba-katea entzuten du, bigarren mailatik hasita. Ahozko erantzunak ordenagailuan grabatuta geratzen dira entzungailuek daukaten mikrofonoaren bidez. Jarraian lau saio egin ondoren, hurrengo blokeara pasatzen da, gutxi gorabehera bost minutu irauten dituen ataza bukatu arte. Ebaluatua den pertsonak puntu bat lortzen du erantzun zuzen bakoitzeko, eta bat ere ez ematen duen erantzuna bat ez datorrenean estimulu-hitzarekin.

Prozesatze orokorreko atazak

Prozesatze-abiadura eta arreta. Trebetasun horiek WISC-IV (Wechsler, 2003) eskalaren Sinboloen azpitestaren bidez ebaluatu ziren, zeinetan ebaluatutako pertsonak egiaztatu behar duen aurkezten zaion diana-sinbolaria sinbolo-kate baten barruan dagoen ala ez. Ataza hori egiteko, saio bakoitzarentzat 30 segundo ezarri ziren eta item bakoitzaren erantzun-denbora zenbatu zen. Itemak ordenagailu bidez aurkeztu ziren, ume bakoitzari aurkezteko modua homogeneizatzeko eta erreakzio-denbora zorrotzak lortu ahal izateko. Saio bakoitzaren hasieran, begiak finkatzeko puntu zentrala (+) erakusten da 500 ms-tan zehar, eta ondoren pantaila zuria 100 ms-tan. Berehala, sinbolo-katea 30 segundoz agertzen da puntu zentrolean, WISC-IVaren item-orrian agertzen den bezala. Ataza osatzeko, ebaluatua den pertsonak “B” tekla (eranskailu berde batekin markatua errazago identifikatzeko) ahalik eta azkarren sakatu behar du, ezkerrean dagoen diana-estimulua erdiko katean agertzen denean. Estimulua agertzen ez denean ez du erantzunik eman behar. Bloke osoak 10 minutu inguru irauten du. Erreakzio-denborak (prozesatze-abiaduraren adierazlea) eta igartze-portzentajeak (arretaren adierazlea) aztertu ziren.

Hitzezko lan-oroimena. Trebetasun hori ebaluatzeko, WISC-IV (Wechsler, 2003) eskalaren atzeranzko digituen oroimena erabili zen. Atazak zazpi bloke ditu, bakoitza bi itemekin. Beti bi digituekin hasten da, eta bloke batetik bestera pasatzen denean digitu bat gehiago txertatzen da. Ataza egiteko, ebaluatua den pertsonak digitu-serieak entzungailuetatik entzuten ditu eta alderantzizko ordenan errepikatu behar ditu. Ahozko erantzunak ordenagailuan grabatzen dira entzungailuetan txertatuta dagoen mikrofonoaren bidez. Ataza eteten da bloke bereko bi saioak oker errepikatzen direnean, eta ondorioz, zuzen gogoratutako digitu kopuru handiena da digitu-hedaduraren oroimenaren adierazlea. Atazak bost minutu irauten ditu, gutxi gorabehera.

8.1.2. Emaitzak

Analisi deskribatzaileak eta korrelazioak

Lehen ebaluazio-faseko aldagai guztien datu deskribatzaileak 1. taulan aurkezten dira. Datuak iragazi egin ziren aldagai bakarreko muturreko balioak kentzeko, hau da, laginaren batez bestekoaren gainetik edo azpitik bi desbideratze tipiko edo gehiago aldentzen ziren balioak zituzten kasuak. Ume baten datuek irizpide hori betetzen zuten bi neurritan edo

gehiagotan, beraz, kasu hori ondorengo analisisietatik kendu zen. Horrela, geroko analisisietan erabili zen behin betiko datu-multzoan garapen normatibodun 104 zeuden.

Erabilitako neurrien fidagarritasuna bi erdien metodoaren bidez kalkulatu zen, itemak bikoititan eta bakoititan banatuz eta Cronbach-en alfa koefizientea kalkulatu. Indize hori kasu guztietan egokia izan zen, balioak ertain eta altu bitartean baitzeuden. Gainera, asimetriari eta kurtosiari zegozkien balioak ere kalkulatu ziren, eta horien emaitzek puntuazioen banaketa normala adierazten zuten.

1. taula

Lehen Ebaluazio-fasean (T1) Erabilitako Neurrien Datu Deskribatzaileak. Lagin Normatiboa.

Ataza-mota	Batezbestekoa	DT	Fidagarritasuna	Asimetria	Kurtosia
Prozesatze-abiadura (ms)	2438,51	390,85	0,59	-.55	.19
Arreta bisuala (asmatzeen %)	75,65	17,07	0,79	-1.01	1.00
Hitzezko lan-oroimena (atzeranzko digituen oroimena)	2,51	1,04	0,55	-1.22	1.22
Iraupen laburreko oroimen fonologikoa (Sasihitz. errep., asmatzeen %)	63,49	17,03	0,68	-.02	-.48
Esaldien errepikapena (CELF punt. gordina)	48,15	15,05	0,95	-.45	.20
Ezagutza fonologikoa (CELF fonema kendu, asmatzeen %)	40,23	34,62	0,89	.12	-1.51
Gramatika harkorra (CELF punt. gordina)	22,70	3,45	0,60	-.17	-.61
Adierazpen-hizkuntza (CELF punt. gordina)	21,08	2,32	0,56	-.09	-.45
Hiztegi harkorra (PPVT pertzentila)	57,09	25,08	0,96	-.40	-.74
Ez-hitzezko adimena (KBIT pertzentil matritzeak)	62,16	23,09	0,76	-.15	-.93

Neurri nagusien arteko korrelazio-koefizienteak 2. taulan erakusten dira. Oinarrizko prozesuei dagokienez, analisiak prozesatze-abiaduraren eta arretaren artean asoziazio argia erakutsi zuen. Lan-oroimenak arretarekin korrelazio esanguratsuak adierazi zituen, baita ezagutza fonologikoarekin eta, neurri txikiagoan, iraupen laburreko oroimen fonologikoarekin ere.

Hizkuntza-osagaien kasuan, hiztegiaren, gramatika harkorraren eta esaldien errepikapenaren arteko korrelazio esanguratsua aurkitu zen. Iraupen laburreko oroimen fonologikoaren korrelazio-koefizienteak, bestalde, ertainak izan ziren esaldien errepikapenari eta ezagutza fonologikoari zegokienez.

Adimen-neurria dela eta kontuan hartu behar den alderdi bat hau da: ezagutza eskatzen duten neurriek (kasu horretan ezagutza linguistikoak) adimenarekin korrelazioa eduki dezaketen arren, neurri horrek ez luke oinarrizko prozesuekin korrelaziorik eduki beharko. Adimenarekiko independente samar izatea da, hain zuzen, adierazle goiztiarrak ezartzeko irizpide baliagarri bat.

Kasu horretan, emaitzek adierazten dute ez-hitzezko adimenak gramatika harkorrarekin korrelazio esanguratsuak erakutsi zituela, eta neurri txikiagoan, prozesatze-abiadurarekin eta ezagutza fonologikoarekin. Hala ere, balioak ez dira oso altuak, eta horrek ikaskuntza orokorreko trebetasunarekiko independenteak direla adierazten du, eta aztertu diren hizkuntzaren garapeneko ereduak (markatzaile goiztiarren eraginean oinarrituak) neurri horrekiko independente samar direla.

2. taula

Aldagai biko korrelazioak Lehen Ebaluazio-faseko (T1) Neurri Nagusien artean. Lagin Normatiboa.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1. Prozesatze-abiadura	1									
2. Arreta bisuala	.35**	1								
3. Lan-oroimena	-.13	.33**	1							
4. Irau. labur. oroim. fonolog.	-.14	.11	.23*	1						
5. Esaldien errepikapena	.04	-.03	.14	.32**	1					
6. Ezagutza fonologikoa	-.16	.23*	.32**	.28**	.25*	1				
7. Gramatika harkorra	-.16	.12	.18	.24*	.35**	.25*	1			
8. Adierazpen-hizkuntza	.05	.09	.10	.17	.25*	.05	.16	1		
9. Hiztegi harkorra	-.07	-.08	-.02	.10	.48**	.04	.29**	.05	1	
10. Ez-hitzezko adimena	-.20*	.17	.19	.14	.13	.23*	.31**	.05	.03	1

* p<.05

**p>.00

Faktore-analisi esploratzailea

Aipatutako harremanetan sakontzeko asmoz, eta neurrien arteko erlazioen azpian dagoen goi-mailako egitura ikertzeko, neurri guztien puntuazio gordinekin osagai nagusien analisia egin zen, Varimax errotazioa erabiliz azken emaitza lortzeko. Analisi horrek 7 faktore azaleratu zituen .30etik gorako zamarekin errotazioko osagaien matrizean.

3. taula

Lehen Ebaluazio-fasean (T1) Erabilitako Neurri Nagusien Faktore-analisia. Lagin Normatiboa.

	Osagaiak						
	1	2	3	4	5	6	7
Adierazpen-hizkuntza	.97						
Hiztegi harkorra		.91					
Esaldien errepikapena		.75					
Gramatika harkorra			.95				
Prozesatze-abiadura				.90			
Arreta bisuala				-.64			
Lan-oroimena					.92		
Iraupen labur. oroimen fonolog.						.95	
Ezagutza fonologikoa							.96

Ikus daitekeenez, 1 faktoreak, adierazpen-hizkuntzari dagokionak, pisurik handiena du .97ko zamarekin. Bigarren faktorean, bere aldetik, ezagutza lexikoaren (hiztegia eta esaldien errepikapena) neurriak batzen dira, .91ko eta .75eko zamarekin, hurrenez hurren. Gramatika harkorrek 3. faktorea osatzen du, hori ere zama altuarekin (.95). Laugarren faktoreak oinarrizko prozesuak (arreta eta prozesatze-abiadura) biltzen ditu, .64ko eta .90eko zamarekin, hurrenez hurren. Bosgarren, seigarren eta zazpigarren faktoreak lan-oroimenarekin, iraupen laburreko oroimen fonologikoarekin eta ezagutza fonologikoarekin osatzen dira, eta zamak ere oso handiak dira (.92, .95 eta .96). Faktore bakoitzak azaltzen duen bariantzari dagokionez, bigarren osagaia litzateke ehuneko handiena ematen duena (%26,43), eta ondoren, oinarrizko prozesuak leudeke, bariantzaren %17,66 azaltzen baitute. Lan-oroimenak bariantzaren %11,77 azalduko luke, eta adierazpen-hizkuntzak %9,85. Iraupen laburreko oroimen fonologikoak, bere aldetik, bariantzaren %8,78 azalduko luke, eta ezagutza fonologikoak eta gramatika harkorrek %7,8 eta %7,24, hurrenez hurren.


Analisi iragarle konkurrentea T1ean: Ereduen konparaketa

Hurrengo urratsa eredu espezifiko konkurrenteen faktore-egitura ebaluatzea izan zen, EEE (Bentler, 2001) egitura-ekuazioko ereduen analisia erabiliz. Metodo horrek erabilitako neurrien artean dauden erlazio iragarleei buruzko ikuspuntu teoriko desberdinen egokitzapena ebaluatzea ahalbidetzen du, proposatutako eredu bakoitza behatutako aldagaien eta konstruktuen arteko ibilbideetan, baita konstruktuen artekoetan ere, zehazten baita. Ereduen proposamenen ondoren, bakoitzaren doikuntzaren egokitasuna ebaluatzen da indize desberdinak kalkulatu. Ohikoenetako bat estatistikako χ^2 indizeari dagokio. Horrek alderatzen du erudian iragarritako kobariantzek zein neurritan aldentzen diren aurkitutako kobariantzetatik. Indize horren balio txikiak eta ez-esanguratsuek eredia ondo doitu dagoela adierazten dute, baina indize hori laginaren tamainan egiten diren aldaketekiko sentikorra denez, ereduaren doikuntza egokitzapen-indize global gehigarriekin baloratu behar da, indize global horiek ereduaren beraren zehaztasunetikiko sentikorrak baitira (Kline, 1998).

Indize horietako bat Egokitasun Konparatiboaren Indizea (CFI; Bentler, 1990) da. Horrek formulatutako eredia eta eredu nulua erkatzen du, non aldagai latenteen arteko erlazioak ez dauden zehaztuta, eta ondorioz, zero bezala ezartzen diren. Indize horren balioa .95etik aurrera ona da. Beste indize bat RMSEA da, hurbilketa-erroreen batezbesteko koadratikotik abiatuta kalkulatu dena. Kasu horretan, balio onargarria .08tik behera dagoena litzateke, .05etik beherako balioak izanik ereduaren doikuntza ona adierazten dutenak (McDonald eta Ho, 2002).

Umeen adierazpen-hizkuntza ebaluatu zen arren, neurri hori ez zen ereduak sortzeko erabili bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, aldagai hori sartuta aztertu ziren ereduetan ez zen horrekiko erlazio iragarle esanguratsurik aurkitu, eta beste aldetik, izaera subjektiboagoko neurria da, baina oso aberatsa; horregatik, familia-testuinguruko aldagaien analisi iragarleen fasean erabiltzea erabaki zen (aurrerago aurkeztuko dira beste atal batean). Beraz, ereduak sinplifikatzearen, literatura zientifikoan erabilera zabala duten neurri linguistiko oinarrikoagoak erabili ziren, hala nola, iraupen laburreko oroimen fonologikoa (Gathercole et al., 1997; 1999), ezagutza fonologikoa (Ramus et al., 2013; Lyytinen et al., 2004), esaldien errepikapena (Klem et al., 2015), gramatika harkorra (van der Lely et al., 2004; 2011) eta deskodetzea (Nation eta Hulme, 2011; Nation eta Snowling, 2004).

Tleko datuak erabiliz, hiru aldagai latente sortu ziren eredu modularra probatzeko: oinarrizko prozesuak (prozesatze-abiadura eta arreta), fonologia (lan-oroimena, iraupen laburreko oroimen fonologikoa eta ezagutza fonologikoa) eta ezagutza lexiko-sintaktikoa (hiztegia, esaldien errepikapena eta gramatika harkorra). Lehen eredu bat aztertu zen, hauek zituena: batetik, oinarrizko prozesuetatik fonologiaren eta ezagutza lexiko-sintaktikoaren aldagaietara arteko erlazio iragarle zuzenak, eta bestetik, azken bi horien arteko erlazioa. Ereduak doikuntza ona erakutsi zuen arren, oinarrizko prozesuen eta ezagutza lexiko-sintaktikoaren arteko erlazioa ez zen esanguratsua izan, hortaz, bigarren eredu bat prestatu zen erlazio hori egin gabe (4. irudian erakusten da).




4. irudia. 1 eredu iragarlea: Tlean erabilitako neurrien arteko erlazioak, hizkuntzaren eredu modularren arabera.

4. irudian aurkezten den ereduak datuen doikuntza ona erakutsi zuen ($\chi^2 = 24.91$, $gl = 18$, $p = .127$, $CMIN = 1.38$, $CFI = .928$, $RMSEA = .061$), eta adierazi zuen oinarrizko prozesuen eta hizkuntzaren artean erlazio iragarlea dagoela, osagai fonologikoa bitartekaria izanik. Hala ere, eredu modularrak ez du informaziorik ematen aldagai latente bakoitza osatzen duten neurrien arteko erlazioei buruz.

Arazo hori gainditzeko, eta aldagai espezifikoaren arteko balizko erlazio iragarleak aztertzeko, mailakako eredu iragarlea probatu zen. Horretarako, bigarren eredu bat proposatu

zen, hizkuntzaren mailakako garapenaren ikuspegi ez-modularretik onartzen diren iragarpenetan oinarrituta. Lehenik eta behin, lan-oroimenaren, prozesu fonologikoen eta linguistikoen arteko erlazio zuzenak hartzen zituen eredua proposatu zen, baita aldagai horien arteko erlazio bitartekariak ere. Lehen eredu horren doikuntza, modularra baino hobea izan zen ($\chi^2 = 16.39$, $gl = 14$, $p = .293$, $CMIN = .1.167$, $CFI = .976$, $RMSEA = .040$), baina ez zuen erlazio iragarlerik erakutsi oinarritzko prozesuen eta lan-oroimenaren artean. Hala ere, lan-oroimenaren eta ezagutza fonologikoen artean erlazio zuzena adierazi zuen, baita azken horren eta iraupen laburreko oroimen fonologikoen artean ere. Eredu horretan lan-oroimenetik gramatikara, iraupen laburreko oroimen fonologikora eta ezagutza lexikora arte abiatzen ziren erlazio iragarle zuzenak ez ziren esanguratsuak izan, eta ezagutza fonologikotik gramatika harkorrera zihoazenak ere ez. Hori dela eta, bigarren eredu bat sortu zen erlazio zuzen horiek gabe. Ereduak hizkuntza-trebetasunen eta oinarritzko prozesuen arteko erlazioak proposatzen zituen, lan-oroimena eta prozesu fonologikoak bitartekari zirelarik, mailakako garapena onartzen duten eredu ez-modularrek iragartzen duten bezala (ikus 5. irudia). Ereduaren bigarren bertsio horrek doikuntza ona erakutsi zuen ($\chi^2 = 23.38$, $gl = 18$, $p = .176$, $CMIN = 1,0299$, $CFI = .944$, $RMSEA = .054$) eta gainera, informazio askoz osoagoa ematen du aldagai batzuek bestetan nola eragiten duten jakiteko. Irudian ikus daitekeenez, arretak, eta ez prozesatze-abiadurak, hitzezko lan-oroimenean eragin handia izan zuten, eta horrek, aldi berean, ezagutza fonologikoa iragarri zuen. Azken horrek, bere aldetik, ezagutza gramatikalaren maila eta iraupen laburreko oroimen fonologikoa iragarri zituen; aldagai horiek ezagutza lexikoa modu esanguratsuan iragartzen lagundu zuten.



5. irudia. 2 eredu iragarlea: T1ean erabilitako neurrien arteko erlazioak, hizkuntzaren mailakako garapenaren ereduen arabera.

8.2. Bigarren ebaluazio-fasea

8.2.1. Metodoa

Luzetarako ikerketa bat izatean, bigarren faseko lagina ikerketaren lehen faseko garapen normatibodun 104 umeek osatzen zuten. Bigarren aldi horretan umeen adina 6 urte eta 9 hilabete eta 7 urte eta 10 hilabete bitartean zegoen ($m = 7$ urte eta 3 hilabete; $DT = 3,69$). Sartzeko eta kentzeko irizpideak aurreko faseko berberak izan ziren.

Prozedura

Bigarren ebaluazio-aldia umeen trebetasun kognitiboen jarraipenaren zatia izan zen, eta umeen ebaluazioa baino ez zuen hartzen, aurreko ikasturtean ebaluatu ziren familia-testuingurua eta familia-dinamikak denboran irauten dutela suposatzen baita. Ebaluazio-prozedura aurreko fase esperimentaleko jarraibide berberak eta, ahal zen neurrian, baldintza berberak erabiliz egin zen.

Tresnak eta neurriak

Fase honetan 1 fase esperimentalean deskribatu diren proba eta ataza berberak eman ziren, eta gainera, irakurketa-trebetasunei dagokienez, deskodetze-ataza berri bat txertatu zen. Ataza hori 7 urterekin baino ez zen eskatu irakurketa alfabetikoaren maila neurtzen duelako, beraz, umeek irakurketan trebatzen hasita egon behar zuten.

Irakurketa-trebetasunak

Deskodetzea. PROLEC-R bateriaren (Cuetos, Rodríguez, Ruano, eta Arribas, 2007) sasihitzak irakurtzeko atazaren bertsio informatizatua da. Proba honetan ebaluatua den pertsonak bi silabatako 40 sasihitz irakurri behar ditu ozen. Sasihitzak maiztasun handiko silabaz osatuta daude. Item bakoitza banan-banan eta era aleatorioan aurkezten zitzaion subjektu bakoitzari. Irakurketa zuzenaren tasak aztertu ziren, eta ondo kodetutako itemen neurketak (ehunekotan) atera ziren. Ataza horrek 5 minutu irauten du, gutxi gorabehera.

8.2.2. Emaitzak

Analisi deskribatzaileak eta korrelazio konkurrenteak T2an

Bigarren ebaluazio-fasearen aldagaien datu deskribatzaileak 4. taulan erakusten dira. Aurreko fasean bezala, datuak iragazi egin ziren aldagai bakarreko muturreko balioak kentzeko, hau da, laginaren batez bestekoaren gainetik edo azpitik bi desbideratze tipiko edo gehiago aldentzen ziren balioak zituzten kasuak. Lehen fasean kendutako kasua baztertu ondoren, ez zen beharrezkoa izan lagineko beste subjekturik kentzea, hortaz, ondorengo analisisietarako azken datu-multzoari (104 ume) eutsi zitzaion.

Erabilitako neurketen fidagarritasuna bi erdien metodoaren bidez kalkulatu zen, itemak bikoititan eta bakoititan banatuz eta Cronbach-en alfa koefizientea kalkulatu. Indize hori kasu guztietan egokia izan zen, balioak ertain eta altu bitartean baitzeuden. Gainera, asimetriari eta kurtosiari zegozkien balioak ere kalkulatu ziren, eta horien emaitzek puntuazioen banaketa normala adierazten zuten. Errepikatutako neurketen bariantzaren analisi batzuk egin ziren, eta horren ondorioz, denboran zehar aldagai guztietan hazkunde esanguratsua egon zela ($p < .001$) ezarri zen, ez-hitzezko adimenean eta hiztegi harkorrean izan ezik.

4. taula

Bigarren Ebaluazio-fasean (T2) Erabilitako Neurrien Datu Deskribatzaileak. Lagin Normatiboa.

Ataza-mota	Batezbestekoa	DT	Fidagarritasuna	Asimetria	Kurtosia
Prozesatze-abiadura (ms)	2156,05	403,67	0,95	-.32	-.67
Arreta bisuala (asmatzeen %)	88,62	10,82	0,63	-.10	-.46
Hitzeko lan-oroimena (atzeranzko digituen oroimena)	3,23	0,79	0,66	-.33	2.03
Iraupen labur. oroimen fonolog. (Sasihitz. errep., asmatzeen %)	71,34	14,14	0,51	-.08	-.74
Esaldien errepikapena (CELF punt. gordina)	56,86	12,82	0,90	-.34	-.10
Ezagutza fonologikoa (CELF fonema kendu, asmatzeen %)	51,65	22,25	0,87	.01	-.04
Gramatika harkorra (CELF punt. gordina)	25,49	2,71	0,53	-.82	.75
Adierazpen-hizkuntza (CELF punt. gordina)	22,29	1,93	0,40	-1.17	1.33
Hiztegi harkorra (PPVT pertzentila)	54,15	25,15	0,96	-.18	-.92
Ez-hitzezko adimena (K-BIT pertzentil matrizeak)	56,24	23,77	0,75	.12	-.73
Deskodetzea (asmatzeen %)	84,95	15,39	0,87	.01	-.41

Neurrien arteko korrelazio-koefizienteak 5. taulan aurkezten dira. Analisi horrek berriro ere, prozesatze-abiaduraren eta arretaren arteko lotura ez ezik, hiztegiaren, gramatika harkorraren eta esaldien errepikapenaren artekoa ere erakusten du. Lan-oroimenak korrelazioa eduki zuen esaldien errepikapenarekin eta gramatika harkorrarekin, eta azken horrek, aldi berean, esaldien errepikapenarekin eta adierazpen-hizkuntzarekin erakutsi zituen korrelazioak. Iraupen laburreko oroimenaren korrelazio-koefizienteak, bestalde, ertainak izan ziren esaldien errepikapenarekiko, eta neurri txikiagoan, ezagutza fonologikoarekiko.

Ebaluazioaren lehen aldian gertatu zen bezala, ez-hitzezko adimenak korrelazio ertain esanguratsuak erakutsi zituen neurri linguistiko batzuekin, hain zuzen, eta literaturak aurreikusten duen bezala (Bishop et al., 1996), aurretiko ezagutza eskatzen duten neurriekin: gramatika harkorra eta adierazpen-hiztegia, eta neurri txikiagoan, adierazpen-hizkuntza eta esaldiak gogoratzea. Hala ere, ez zen hizkuntzaren azpian dauden oinarrizko prozesuekin korrelaziorik aurkitu. Horrek iradokitzen du neurri horiek ikasteko trebetasun orokorrarekiko independenteak izaten jarraitzen dutela eta aztertu diren ereduak hizkuntzaren garapeneko patroia bat besterik ez dutela jasotzen.

Azkenik, pisu handien duen erlazioa nabarmendu behar da, deskodetzearen eta ezagutza fonologikoaren artean dagoena, hain zuzen.

5. taula

Aldagai biko korrelazioak Bigarren Ebaluazio-faseko (T2) Neurri Nagusien artean. Lagin Normatiboa.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
1. Prozesatze-abiadura	1										
2. Arreta bisuala	-.26**	1									
3. Lan-oroimena	-.14	.12	1								
4. Iraupen laburreko oroimen fonologikoa	-.04	.15	.13	1							
5. Esaldien errepikapena	.06	.10	.32**	.26**	1						
6. Ezagutza fonologikoa	-.07	.01	.12	.21*	.19	1					
7. Gramatika harkorra	.05	.14	.30**	.09	.31**	.18	1				
8. Adierazpen-hizkuntza	-.13	.12	.09	.01	.26**	.16	.32**	1			
9. Hiztegi harkorra	-.00	.07	.07	.24**	.40**	-.06	.28**	.20*	1		
10. Ez-hitzezko adimena	-.15	.18	.13	.11	.22*	.13	.36**	.25**	.31**	1	
11. Deskodetzea	.13	-.00	-.13	-.16	-.08	-.41**	-.08	.07	-.02	-.11	1

* p<.05

**p>.00

Faktore-analisi esploratzailea T2an

Ebaluazioaren lehen momentuan egin zen bezala, neurri guztien puntuazio gordinekin osagai nagusien analisia egin zen, eta helburua zen aipatutako erlazioetan sakontzea eta neurri desberdinen arteko aldaketen azpian dauden goi-mailako egitura ikertzea. Azken emaitza lortzeko, Varimax errotazioa erabili zen eta, berriro ere, 7 faktore agerian geratu ziren, .30 baino zama altuagoarekin errotazioko osagaien matrizean.

6. taula

Bigarren Ebaluazio-fasean (T2) Erabilitako Neurri Nagusien Faktore-analisia. Lagin Normatiboa.


	Osagaiak						
	1	2	3	4	5	6	7
Adierazpen-hizkuntza	.94						
Hiztegi harkorra		.91					
Esaldien errepikapena		.59					
Deskodetzea			.94				
Ezagutza fonologikoa			.63				
Prozesatze-abiadura				.83			
Arreta bisuala				-.84			
Lan-oroimena					.87		
Iraupen labur. oroimen fonolog.						.96	
Gramatika harkorra							.91

Ikus daitekeenez, 1 faktorea, adierazpen-hizkuntzari dagokiona, .97ko zama du. Bigarren faktorean, bere aldetik, ezagutza lexikoaren neurriak biltzen dira (hiztegia eta esaldien errepikapena) .91ko eta .59ko zamarekin, hurrenez hurren. Irakurketa-trebetasunak (deskodetzea eta ezagutza fonologikoa) hirugarren faktorean batzen dira .94ko eta .63ko zamarekin, hurrenez hurren. Laugarren faktoreak oinarrizko prozesuak biltzen ditu (arreta eta prozesatze-abiadura) eta zamak -.84 eta .83 dira. Lan-oroimenak, iraupen laburreko oroimen

fonologikoak eta gramatika harkorrak osatzen dituzte bosgarren, seigarren eta zazpigarren faktoreak, eta horien zamak ere oso handiak dira (.87, .96 eta .91, hurrenez hurren). Faktore bakoitzak azaltzen duen bariantzari dagokionez, oinarrizko prozesuen osagaiak bariantzaren ehuneko handiena azalduko luke %24,51ko ekarpenarekin, eta ondoren lan-oroimenak %15,01eko ekarpenarekin. Bestalde, irakurketa-trebetasunek %11,36 gehiago erantsiko lukete eta ezagutza lexikoak %10,73. Iraupen laburreko oroimen fonologikoak bariantzaren %10,03 azalduko luke, adierazpen-hizkuntzak %7,14 eta gramatika harkorrak %6,41.

Analisi iragarle konkurrentea T2an: ereduaren konparaketa

Hurrengo urratsean eredu espezifiko konkurrenteen faktore-egitura ebaluatu zen, faktore-analisi berrestailera erabiliz (Bentler, 2001). Berrero ere, T2ko datuak hartuta, eredu modularra probatzeko hiru aldagai latente sortu ziren: oinarrizko prozesuak (prozesatze-abiadura eta arreta), fonologia (lan-oroimena, iraupen laburreko oroimen fonologikoa eta ezagutza fonologikoa) eta ezagutza lexiko-sintaktikoa (hiztegia, esaldien errepikapena eta gramatika harkorra). Eredu horretan deskodetzea ere sartu zen behatutako aldagai gisa. Aztertu zen lehen ereduak erlazio iragarle zuzenak hartzen zituen, oinarrizko prozesuetatik hasi eta fonologiako zein ezagutza lexiko-sintaktikoko aldagaietara arte; bai eta azken bi horien artean ere. Gainera, hiru modulu-tako bakoitzetik deskodetzera ateratzen ziren erlazio iragarleak gehitu ziren. Nahiz eta ereduak doikuntza ona erakutsi zuen, oinarrizko prozesuen eta deskodetzearen zein ezagutza lexiko-sintaktikoaren arteko lotura ez zen esanguratsua izan, ezta azken horien artean zeudenak ere. Horregatik, bigarren eredu bat proposatu zen lotura horiek kenduta. Eredua 6. irudian aurkeztu da.




6. irudia. 1 eredu iragarlea: T2an erabilitako neurrien arteko lotura, hizkuntzaren eredu modularren arabera.

6. irudian aurkezten den ereduak datuekiko doikuntza egokia erakutsi zuen ($\chi^2 = 28.48$, $gl = 24$, $p = .240$, $CMIN = 1.187$, $CFI = .952$, $RMSEA = .042$) eta adierazi zuen, alde batetik, bigarren aldi honetan jada ez dagoela erlazio iragarle zuzenik oinarrizko prozesuen eta hizkuntza-prozesuen artean, eta bestetik, osagai fonologikoen eta deskodetzearen artean badagoela erlazio iragarle zuzena. Hala ere, T1ean gertatzen zen bezala, ez du informaziorik ematen aldagai latente bakoitza osatzen duten neurrien arteko loturei buruz. Berriro ere, hiztegiaren eta gramatika harkorraren neurriek ezagutza lexiko-sintaktikoaren faktoreari egin zioten ekarpenaren pisua nahiko baxua izan zen (.49 eta .47, hurrenez hurren), baita iraupen laburreko oroimenaren eta lan oroimenaren neurriek fonologiaren faktoreari egin zioten ekarpenaren pisua ere (.35 eta .43, hurrenez hurren).

Muga horiek gainditzeko, bigarren eredu bat probatu zen, hizkuntzaren mailakako garapenaren eredu ez-modularrean oinarrituta, EEE analisia erabiliz. Aztertu zen lehen bertsioaren doikuntza optimoa izan zen modularrekin alderatuta ($\chi^2 = 18.97$, $gl = 21$, $p = .587$, $CMIN = .90$, $CFI = 1.00$, $RMSEA = .000$), baina erakutsi zituen hainbat erlazio iragarle ez ziren behar besteko esanguratasun-mailara heldu (adibidez, lan-oroimenetik deskodetzera, iraupen laburreko oroimen fonologikora edo ezagutza lexikora; edo iraupen laburreko oroimen fonologikotik gramatika harkorrera). Esanguratsuak ez ziren iragarpenak kontuan harturik, bigarren eredu bat egin zen erlazio horietako batzuk kenduta, eta ereduak oso

doikuntza egokia erakusten jarraitu zuen ($\chi^2 = 22.87$, $gl = 25$, $p = .585$, $CMIN = .915$, $CFI = 1.000$, $RMSEA = .000$). Gainera, eredu horrek ebaluazioa egiten denean aldagaien artean dagoen kausa-erlazioari buruzko informazio askoz osoagoa eskaintzen du.

7. irudian ikus daitekeen bezala, erlazio iragarlea berriro ere hainbat mailatan gertatzen da: oinarrizko prozesuen eta lan-oroimenaren arteko erlazio iragarlea bigarrenaldi honetan ez zen heldu beharrezko esanguratasun-mailara, aurreko ebaluazioan aurkitu zenaren kontrakoa. Hala ere, lan-oroimenak gramatika harkorra iragarri zuen, eta beste behin, ezagutza fonologikoaren funtsezko iragarle bezala kokatu zen. Azken horrek, aldi berean, iraupen laburreko oroimen fonologikoa eta deskodetzea iragarri zituen. Sare horrek zera iradokitzen du: lan-oroimenean, hau da, umeak unitate fonologikoekin edo soinua-hizkia asoziazio-arauekin buruz jarduteko duen gaitasunean, inplizitu dagoen hitzezko informazioa monitorizatzeko gaitasunaren garrantzia. Gainera, gramatika harkorraren aldagaiak ezagutza lexikoa iragarri zuen. Aurreko ebaluazio-aldian ere bazegoen erlazio esanguratsu eta garrantzitsu bat iraupen laburreko oroimen fonologikoaren eta ezagutza lexikoaren artean ikusitakoa da. Horrek arauekin jarduten duen (lehenago aipatu den sarea) eta hitzak barneratzeko soinu-serieak gordetzen dituen (oroimen lexikoaren sarea) hizkuntza-sistemaren espezializazio argia adierazten du. Baina erlazio esanguratsuenetako bat ezagutza fonologikoaren eta deskodetzearen artean dagoena da.



7. irudia. 2. eredu iragarlea: T2an erabilitako neurrien arteko loturak, hizkuntzaren mailakako garapenaren ereduaren arabera.

T1 eta T2 neurrien arteko korrelazioen analisia.

Lehen eta bigarren ebaluazio-faseen neurri nagusien arteko korrelazioak 7. taulan erakusten dira. Analisi horrek agerian jartzen du 1 aldiko (T1) arretaren eta 2 aldiko (T2) prozesatze-abiaduraren artean erlazio egonkorra dagoela, baita bi ebaluazio-aldien arteko asoziazioa ere hiztegiari eta esaldien errepikapenari dagokionean.

T1eko lan-oroimenak T2ko gramatika harkorrarekin erlazio esanguratsua erakutsi zuen, azken aldagai hori bi aldietan esaldien errepikapenarekin, hiztegiarekin eta ez-hitzezko adimenarekin lotu zen bitartean.

Beste alde batetik, T1eko oroimen fonologikoak T2ko lan-oroimenarekin, esaldien errepikapenarekin eta gramatika harkorrarekin lotura esanguratsua agertu zuen, eta hortik, oroimen-mota horrek hizkuntzaren garapenean duen paper garrantzitsua ondorioztatzen da; gai hori zehatzago landuko da eztabaidan.

Horrez gain, T1eko esaldien errepikapenak T2ko lan-oroimenarekin eta adierazpen-hizkuntzarekin erakutsi zituen asoziazioak. T2an ebaluatutako deskodetze-gaitasunari dagokionez, T1eko ezagutza fonologikoa eta adierazpen-hizkuntza izan ziren korrelazio esanguratsuak erakutsi zituzten aldagai bakarrak.

7. taula

Aldagai biko korrelazioak Lehen eta Bigarren Ebaluazio-faseetako (T1 eta T2) Neurri Nagusien artean. Lagin normatiboa.

	1 (T2)	2 (T2)	3 (T2)	4 (T2)	5 (T2)	6 (T2)	7 (T2)	8 (T2)	9 (T2)	10 (T2)	Deskodetzea (T2)
1. Prozesatze- abiadura (T1)	.37**	.05	-.29**	-.03	-.06	-.04	-.19	-.16	.14	-.18	-.16
2. Arreta bisuala (T1)	-.20*	.01	.29**	.02	.01	-.02	.15	.04	.00	.19	-.17
3. Lan- oroimena (T1)	-.00	.11	.21*	-.00	.13	.05	.31**	-.01	.13	.12	-.13
4. Irau. labor. oroim. fonol. (T1)	.02	.15	.31**	.39**	.37**	.14	.26**	.05	.16	.30**	-.18
5. Esaldien errepika. (T1)	.04	.17	.22*	.19	.85**	.14	.30**	.30**	.43**	.26**	-.13
6. Ezagutza fonolog. (T1)	-.02	.07	.20*	.10	.19*	.39**	.32**	.19*	.05	.17	-.36**
7. Gramatika harkorra (T1)	-.04	.17	.12	.03	.29**	.09	.37**	.26**	.28**	.19*	-.13
8. Adierazpen- hizkuntza (T1)	-.11	.13	.10	-.01	.19	.04	.11	.36**	.17	.22*	-.29**
9. Hiztegi harkorra (T1)	-.03	.13	.10	.18	.46**	-.02	.15	.13	.41**	.03	-.08
10. Ez-hitzezko adimena (T1)	-.14	.10	.15	.09	.06	.06	.32**	.17	.21*	.46**	-.10

* p<.05


**p>.00

Trebetasun fonologikoen eta linguistikoen luzetarako iragarleak T2an

Azken urratsa eredu iragarle konkurrente espezifikoen faktore-egitura ebaluatzea izan zen, eta horretarako faktore-analisi berrestaila (Bentler, 2001) erabili zen. Zehatzago esanda, T1eko neurriek T2ko hizkuntzan eta irakurketan lortutako emaitzak iragartzeko gaitasuna zuten baloratu nahi zen, proposatutako eredu guztietan aipatutako aldagaien ondorio autorregresiboak kontrolatuz. Kasu horretan, ez ziren eraiki aurreko faseetako (oinarrizko prozesuak eta ezagutza lexikoa) faktore-analisiaren multzokatzean oinarritutako aldagai latenteak, iragarle bakoitzaren eragina trebetasun zehatzetan aztertu nahi zelako, eta iraupen


laburreko oroimenak eta ezagutza fonologikoak hizkuntza- eta irakurketa-trebetasunetan, hurrenez hurren, duen pisu garrantzitsuagatik (Ramus et al., 2013).

T1eko oinarrizko prozesuek T2ko neurri linguistikoen gainean duten balio iragarleari dagokionez, ondoren proposatu zen ereduak (ikusi 8. irudia) datuen doikuntza ona erakutsi zuen ($\chi^2 = 10.98$, $gl = 15$, $p = .754$, $CMIN = .732$, $CFI = 1.00$, $RMSEA = .000$), eta erakusten du esanguratasun estatistikoa adierazi duen iragarpen bakarra prozesatze-abiaduraren eta ezagutza lexikoaren artean dagoena dela. Sinplifikatzeko, ereduaren irudietan ez dira autorregresio-balioak sartu.




8. irudia. T1 eta T2 arteko 1. eredu iragarlea: T1eko oinarrizko prozesuen eta T2ko hizkuntza-trebetasunen arteko erlazioa.

Gero, T1eko oinarrizko prozesuen balio iragarlea T2ko neurketa fonologikoen gainean probatu zen (9. irudian aurkezten den eredu). Eredu horrek datuen doikuntza ona erakutsi zuen arren ($\chi^2 = 1.40$, $gl = 3$, $p = .704$, $CMIN = .469$, $CFI = 1.00$, $RMSEA = .000$), horretan inplikaturako aldagaiak ez zirela iragarleak argitu zuen.




9. irudia. T1 eta T2 arteko 2. eredu iragarlea: T1eko oinarrizko prozesuen eta T2ko trebetasun fonologikoen arteko erlazioa.

T1eko prozesu fonologikoen balio iragarleari dagokionez, T2an lortutako neurri linguistikoekiko, proposatu zen ereduak (ikusi 10. irudia) datuen doikuntza ona adierazi zuen ($\chi^2 = 9.12$, $gl = 17$, $p = .936$, $CMIN = .537$, $CFI = 1.00$, $RMSEA = .000$). T1eko lan-oroiaren eta T2ko gramatika harkorraren arteko erlazio iragarleak esanguratsuak izan ziren; ezagutza lexikoaren kasuan, ordea, iragarpena ez zen behar besteko esanguratasun estatistikora heldu. Beste alde batetik, T1eko iraupen laburreko oroimen fonologikoak T2ko gramatika harkorra eta ezagutza lexikoa iragarri zituen; halaber, azken hori T1eko ezagutza fonologikoak ere iragarri zuen. Ezagutza fonologiko horrek, bere aldetik, T2ko adierazpen-hizkuntzarekin erlazio iragarle esanguratsua adierazi zuen.



10. irudia. T1 eta T2 arteko 3. eredu iragarlea: T1eko aldagai fonologikoen eta T2ko hizkuntza-trebetasunen arteko erlazioak.

Azkenik, T2ko deskodetzean T1eko prozesu fonologikoen duten balio iragarlea kontuan izanda, 11. irudian aurkeztu den ereduak datuen doikuntza ona erakutsi zuen ($\chi^2 = .10$, $gl = 1$, $p = .742$, $CMIN = .108$, $CFI = 1.00$, $RMSEA = .000$). T1eko iraupen laburreko oroimen fonologikoaren eta T2ko deskodetzearen arteko erlazio iragarlea esanguratsua izan zen, baita T1eko ezagutza fonologikoaren eta T2ko deskodetzearen artekoa ere; azken hori garrantzitsuagoa izan zen.



11. irudia. T1 eta T2 arteko 4. eredu iragarlea: T1eko aldagai fonologikoen eta T2ko irakurketa-trebetasunen arteko erlazioak.

Kapitulu honetan T1eko eta T2ko lagin normatiboaren analisi konkurrenteen emaitzak aurkeztu dira. Emaitza konkurrenteak honela labur daitezke:

- Hizkuntzaren mailakako garapenaren ereduak (ez-modularrek) doikuntza hobea erakutsi zuten, eta gainera, informazio aberatsagoa eman zuten hizkuntza-sistemaren garapenean zerikusia duten aldagaien erlazionatzeko moduari buruz, eredu modularrekin alderatuta.
- Lan-oroimenak hizkuntza-sisteman paper oso garrantzitsua du, ezagutza fonologikoan jarduten duelako, eta aldi berean, azken horrek bai biltegitratzea eskatzen duten trebetasunetan (iraupen laburreko oroimen fonologikoa) eta bai informazioa buruz prozesatzea eskatzen dutenetan (gramatika) eragiten duelako.
- Arretak T1eko lan-oroimenean eragiten du zuzenean, baina eragin hori T2an desagertzen da, aldi horretarako oinarrizko prozesuak jada garatu direlako eta hizkuntza-sistema espezializatzen eta trebetasun fonologikoen menpeago egoten hasten delako.
- T2an, lan-oroimenak zuzenean eragiten du gramatika harkorrean, seguruenik, deskodetzeak eta irakurketak gramatika-arauen barneratze-prozesuaren garapena bultzatzen dutelako. Izan ere, deskodetzea da ezagutza fonologikoak indar handiagoz iragartzen duen trebetasuna; bestalde, iraupen laburreko oroimenak eta gramatika harkorrak ezagutza lexikoa T1ean baino indar handiagoz iragartzen dute.

Gainera, bi aldien arteko erlazio iragarleei dagozkien emaitzak aurkeztu dira, honen arabera:

- T1ean, prozesatze-abiadurak, baina ez arretak, urte bat geroago edukiko zen hiztegi-maila iragarri zuen. Baina oinarrizko prozesuetatik, batek ere ez zituen iragarri T2ko trebetasun fonologikoak.
- T1eko lan-oroimenak T2ko gramatika harkorra iragarri zuen.
- T2ko hiztegia T1eko iraupen laburreko oroimen fonologikotik eta ezagutza fonologikotik abiatuta iragarri zen. Azken horrek T2ko adierazpen-hizkuntza ere iragarri zuen.
- T1eko ezagutza fonologikoa da T2ko deskodetzea ondoen iragarri zuen trebetasuna.

8.3. Ondorioak

T1 aldiari buruz aurkeztu diren emaitzak kontuan hartuta, ondoriozta daiteke hizkuntzaren garapen modularreko eta ez-modularreko ereduak ez dutela hizkuntza-sistema eraginkor baten egituraketa zehaztasun berarekin deskribatzen. Egitura modularrak, hizkuntzaren hiru dimentsioz (fonologikoa, sintaktikoa eta lexikoa) eta oinarrizko prozesuez osatuak, 6 urteko umeen hizkuntza-sistema datuen doikuntza onarekin deskribatu zuen. Hala ere, hizkuntza-modulu batzuen faktore latenteek osatu zituzten zenbait neurriren ekarpena ez zen oso altua izan (adibidez, iraupen laburreko oroimen fonologikoak fonologiaren moduluari egindakoa .48koa baino ez da, eta gramatika harkorrak ezagutza lexiko-sintaktikoaren moduluari egindakoa .47koa). Horrek adieraz lezake modulu horiek garapen normatibodun umeen laginetan disozigarriak izan daitezkeela. Gainera, eredu modularren arazoetako bat da ez dutela aldagaien arteko erlazio iragarlerik onartzen (Jackendoff, 2003), eta hori ez dator bat 1 ereduaren faktoreen artean aurkitutako iragarpenekin.

Izan ere, faktore-analisi esploratzaileak zazpi osagaien disoziazioa babestu zuen, non argi ikus daitekeen neurri fonologikoen eta hitzezko lan-oroimenaren arteko bereizketa. Horrek adierazten du atzeranzko digituen oroimenak biltegiratze- eta prozesatze-betebehar desberdinak eskatzen dituela sasihitzen errepikapenarekin eta fonemak kentzearen atzarekin alderatuta. Aurkikuntza hori bat dator aurreko ikerketetan lortutako datuekin, hain zuzen, lan-oroimena bi osagai espezifikotan disozia daitekeela onartzen dutenekin. Osagai bat biltegiratze fonologikoari dagokio, eta unitate fonologiko sublexikoak biltegiratzen ditu; bestea hitzezko prozesatzeari dagokio, eta hitzezko informazioa lantzen eta monitorizatzen du (Alloway et al, 2006; Baddeley, 2000; Magimairaj et al., 2009).

Aipatutako bereizketak hizkuntzaren eskuratzean eragina du, iraupen laburreko oroimenaren mailan dauden defizitek hitzak osatzen dituzten soinuak gordetzea, eta ondorioz, hiztegi berria ikastea zailduko luketelako. Era berean, maila horretako defizitek irakurketaren ikaskuntzan eragingo lukete, hain zuzen, grafemen eta fonemen arteko korrespondentziak buruan gordetzean eta idatzitako hizkien sekuentzia desberdinak biltegitratzean (Alloway et al., 2005). Baina arazoak hitzezko informazioaren prozesatze- eta monitorizazio-mailan daudenean, zailtasunak neurri handiagoan agertuko dira gramatika-mailan batetik, arauak erabiltzeko soinuak maneiatzea eskatzen duelako, eta deskodetze-mailan bestetik, zehaztasunez irakurtzeko oroimenean biltegitratutako irudikapen fonologikoak berreskuratzea eskatzen duelako.

Atazen artean multzokatzea erakutsi zuen faktore-analisiaren beste osagaietako bat hiztegi harkorrari eta esaldien errepikapenari dagokie. Horrek proposamen hau babesten du: badagoela ezagutza lexikoaren modulu bat hitzezko prozesatze- eta monitorizazio-trebetasunetatik bereizita (Klem et al., 2015). Zehazki, autore horiek erakutsi zuten esaldien errepikapeneko ataza hobeto kontzeptualizatzen dela hitzezko lan-oroimeneko edo hizkuntza orokorreko neurketa bat bezala (osagai morfologikoak, gramatikalak eta fonologikoak barnean hartuz), 4 eta 6 urte bitarteko umeen lagina erabiliz. Autoreek ikusi zuten ebaluatutako pertsonak esaldiaren errepikapenean akatsen bat egiten zuenean, sintaxia aldatzen zuela, eta horrek iradokitzen zuen ez zela soilik oroimenezko ataza bat. Izan ere, emaitzek erakutsi zuten esaldien errepikapeneko ataza ez zela aldakuntzen luzetarako iragarle bat hizkuntza-trebetasunetan (hiztegia eta gramatika), baina egokiago kontzeptualizatzen zela hizkuntza-trebetasunen arteko beste ataza bat bezala.

Hiru faktoreko eredua ikuspegi modularrekin bateragarria den arren, datuek erakusten dute lehenik eta behin, analisi esploratzaileak egiaztatzen duen bezala, modulu horiek osatzen dituzten aldagaiek modu independentean lagun diezaioketela hizkuntza-sistemaren eraginkortasunari; eta bigarrenik, ereduak ez duela azalpenik ematen hizkuntza-sistema egituratzen den moduari buruz, hau da, nola aldagai batzuk beste batzuetan eragin dezaketen.

Azalpen hori eredu ez-modularrean aurki daiteke, mailakako prozesuen erlazioa onartzen baitu (Kail, 2000; Fry eta Hale, 1996, 2000) eta gainera, eredu modularrak baino doikuntza-balio egokiagoak erakusten baititu. Lehenik eta behin, 2. ereduak aldagaien mailakako erlazioa egiaztatu zuen eta iradoki zuen aldagai batzuek besteen gainean duten eragina hiru mailatan ematen den erlazio iragarlean oinarrituta azal daitekeela: lehen mailak

oinarrizko prozesuak (arreta eta prozesatze-abiadura) eta lan-oroimena hartuko lituzke; bigarrena prozesu fonologikoak izango lirateke (iraupen laburreko oroimen fonologikoa eta ezagutza fonologikoa); eta azkenak, bere aldetik, hizkuntzaren beraren alderdiak hartuko lituzke, hau da, gramatika eta ezagutza lexikoaren maila. Maila horien arteko loturari dagokionez, oinarrizko prozesuek eta lan-oroimenak trebetasun fonologikoen gainean zuten pisu iragarlea handiagoa izan zen azken horiek hizkuntza-neurketen gainean zutena baino. Asoziazio horrek zera adierazten du: oinarrizko prozesuek zer garrantzi duten hizkuntzaren funtsezko oinarriak garatzeko, hots, trebetasun fonologikoak garatzeko, eta gerora, hiztegia eta arau gramatikalen ezagutza zein erabilera eskuratzeko (Bayliss et al., 2005; Cowan et al., 2005; Ferguson eta Bowey, 2005; Gavens eta Barrouillet, 2004). Gainera, aurkikuntza garrantzitsua da arreta-prozesuek lan-oroimenaren bidez sisteman eragiten dutela ikustea.

Bigarrenik, eta aurkikuntza horri lotuta, nabarmendu behar da lan-oroimenak ezagutza fonologikoaren gainean duen balio iragarlea azken horren prozesatze-osagaian oinarritu litekeela, hots, umeak hitzezko informazioa buruz maneiatu behar duela ataza zuzentasunez egiteko: lan-oroimenaren kasuan, entzuten dituen hitzak aurkeztu zaizkion ordenan baino, alderantzizko ordenan errepikatu behar ditu; horrek eskatzen du gordetako informazioarekin buruz jardutea, informazioa atzekoz aurrera errepikatzeko. Ezagutza fonologikoan, bere aldetik, atazak item bakoitzeko lehen fonema kentzea eskatzen du, beraz, umeak hitzen soinuak maneiatu behar ditu erantzun egokia aurkitzeko. Hitzezko informazioaren buruzko monitorizazioa da, hain zuzen, neurri biek partekatzen duten osagaia, eta ezagutza fonologikoaren zein gramatika harkorraren arteko erlazioa azaltzeko gakoa ere izan liteke.

Van der Lelyk (2005) onartzen duen bezala, gramatikaren ezagutzak eta erabilera elementu lexikoak prozesatzea eta arauak aplikatzea dakar (adibidez, numero eta genero komunztadurak—“las mesas” eta ez “los mesa”—artikulua ez ezik substantiboa eta berarekin doazen osagarri guztiak ere maneiatzea eskatzen du; edo aditz-amaierak—como, comes, come, comemos...—pertsonek, numero, denbora, etab. bakoitzaren formak ezagutzea dakarte. Beraz, ezagutza fonologikoak eta gramatika harkorrak partekatzen dutena hitzezko informazioa buruz prozesatzeko, maneiatzeko eta horrekin jarduteko gaitasuna denez, lan-oroimena horietan bitartekaria dela argia dirudi.

Azkenik, emaitzek iradokitzen dute hizkuntza-elementuen buruzko maneiuari eta monitorizazioari lotutako alderdi horiek guztiak ezagutza lexikoarekiko edo iraupen luzeko oroimenean dagoen informazioarekiko independente samar direla. Egitate horrek adierazten

du bai informazio fonologikoa gogoratzeko edo gordetzeko funtzioak eta bai hitzezko informazioa, informazio fonologikoa eta gramatikala barne hartzen dituzten buru-jardueren funtzioak bereizita daudela, aurretik egindako lanen aurkikuntzak babestuz. Adibidez, Bowey-k (2001) sasihitzak errepikatzeko atazan (iraupen laburreko oroimen fonologikoa) lortutako errendimenduaren eta geroko hiztegi-garapenaren arteko erlazioa aztertu zuen 5 urterekin eta 6 urterekin ebaluatu zuen umeen lagin batean. Bere emaitzek hau erakutsi zuten: lehen ebaluazio-aldiko iraupen laburreko oroimen fonologikoak 6 urterekin edukiko zuten hiztegia iragartzen zuela eta, are interesgarriagoa dena, iragarpena alderantziz ere ematen zela egiaztatu zuen, hau da, bost urterekin zeukaten hiztegi-mailak 6 urterekin edukiko zuten iraupen laburreko oroimena iragartzen zuela. Aurkikuntza horiek adierazten dute hiztegiak duen indarra irudikapen fonologikoak kodetzeko, zehazteko eta berrantolatzeko aldami-elementu gisa. Horren antzera, Jarrold et al. (2009) iraupen laburreko oroimen fonologikoak eta ezagutza fonologikoak hitz berrien ikaskuntzan zuten inplikazioa ebaluatzen aritu ziren, baita jadanik zegoen hiztegiaren eragina ere. Kasu horretan ere, emaitzek iraupen laburreko oroimen fonologikoa hitz berrien ikaskuntzaren iragarlerik onena zela erakutsi zuten. Datu horiek lan-oroimenaren eta hitzen ikaskuntzaren arteko erlazioari buruz lagin klinikoetan eta normotipikoetan aurretiaz lortutako ebidentziak berresten dituzte (Avons, Wragg, Cupples, eta Lovegrove, 1998; Gathercole, 1995; Gathercole, Hitch eta, Martin, 1997; Gathercole et al., 1993, 1999). Alderdi horiek emaitzen eztabaidari dagokion atalean landuko dira zehatzago.

T2an lortutako emaitzei dagokienez, berriro ere ikus daiteke hizkuntza-moduluen faktore latenteak osatu zituzten neurri batzuek egindako ekarpena ez zela oso handia izan (adibidez, lan-oroimenak eta iraupen laburreko oroimen fonologikoak fonologiaren dimentsioari .43 eta .35 ekarri zioten, hurrenez hurren; hiztegiak eta gramatika harkorrak .49 eta .47 eman zioten morfosintaxiaren faktoreari). Gainera, hizkuntzaren dimentsioek beraien arteko korrelazioa erakutsi zuten, eta hori ez dator bat eredu modularren oinarritzko onarpenekin. Eredu horretan agerian geratzen da, nabarmenki, aldagaien arteko erlazioetan indar aldaketa dagoela: lehen aldian oinarritzko prozesuek zuten pisu esanguratsua bigarren mailara pasatu zen, dimentsio fonologikoaren eta morfosintaktikoaren arteko lotura areagotuz. Aldaketa horrek, batetik, hizkuntza-sistemaren espezializazioaren berri ematen du, eta bestetik, 6 eta 7 urte bitarteko aldi ebolutiboak duen garrantziarena, hizkuntza-sistemaren, eta ondorioz, irakurketa-sistemaren garapen eraginkorrerako gakoa izan litekeena. Hala ere,

datuak teoria modularrekin bateragarriak ziren arren eta ereduak doikuntza ona izan zuen arren, eredu-mota horrek ez du azaltzen nola gertatzen diren ikusitako aldaketak.

Faktore-analisi esploratzailean lortutako datuek neurrien disoziazioaren balizko balioa babesten dute, eta nabarmendu behar da bigarren aldiko neurriak antzeko eran multzokatu zirela, salbuespen bakarrarekin. Ezagutza fonologikoak, lehen isolatuta agertzen zenak, deskodetzearekin lotura handia du. Loturak trebetasun horrek hitzezko zein idatzizko hizkuntzaren prozesatzean duen inplikazioa ematen du aditzera. Izan ere, ondo zehaztuta dauden irudikapen fonologikoak edukitzea eta horiekin buruz jarduteko gai izatea funtsezkoa da gero soinua dagokion grafema idatziari lotzeko. Datu horrek ezagutza fonologikoaren eta deskodetzearen arteko asoziazioari buruz literatura zientifikoan jasotzen diren ebidentziak babesten ditu (Wagner et al., 1997), baita ezagutza fonologikoak irakurketa-trebetasunean duen indar iragarlea ere (Hogan et al., 2005; Moll et al., 2014). Aldaketa horiek mailakako prozesuen eredu ez-modularren arabera egindako analisi berrestailean ere islatzen dira.

Eredu modularrean bezala, oinarrizko prozesuek balio iragarlea galdu zuten, baina eredu horrek ematen duen informazioa zehatzagoa da. Izan ere, oinarrizko prozesuek ez zutela lan-oroimena iragarri ikusi zen, eta hori sistema modulatzeko duen elementu nagusi bihurtu zela. Hain zuzen, badirudi hitzezko lan-oroimenak hizkuntza monitorizazio osagaitik modulatzeko duela, iraupen laburreko oroimen fonologikoak (biltegitate fonologikoko osagaia) gaitasun iragarlea galtzen duelako ebaluazioaren momentu horretan. Zehazki, ereduak argi erakusten du, batetik, lan-oroimenetik abiatzen den eta ezagutza lexikorantz eta gramatikorantz doan sare iragarle bat, eta bestetik, iraupen laburreko oroimen fonologikotik hiztegiaren biltegitatzera doan oroimen lexikoaren sare bat. Beraz, monitorizazioaren osagaiak paper garrantzitsua hartu zuen hitzezko lan-oroimenetik ezagutza fonologikora doan ibilbidearen bidez, hizkuntza-sisteman hitzezko prozesatze- edo monitorizazio-osagaiak eraikitze lexikoarekiko duen desberdintasuna babestuz.

Eredu horrek iradoki lezake, behin hizkuntzaren alderdi fonologikoak barneratzen eta finkatzen direnean, oinarrizko prozesuak bigarren mailara pasatzen direla, eskuratze horren ostean informazio fonologikorako sarbidea modu automatizatuagoan egiten baita eta ez zaio hainbeste arreta eskaini behar, ezta informazioa era analitikoan—unitatez unitate—prozesatu behar ere. Beste azalpen bat izan daiteke adin horretan umeek arreta eta prozesatze-abiadura mailetan sabai-efektua erakustea; ondorioz, neurri horien balio iragarlea murriztuta geratuko litzateke (Manly, Anderson, Nimmo-Smith, Turner, Watson et al., 2001). Hirugarren aukera

izan liteke umee 7 urterekin baliabide exekutiboak hizkuntza-atazetan modu espezifikoa aplikatzen ikasi izana; horrek azalduko luke hitzezko trebetasun guztiak—lan-oroimena barne—adinari lotuago egotea (Alloway et al., 2006; Gathercole, Pickering, Ambridge, eta Wearing, 2004) eta domeinu orokorreko atazekiko independenteagoak izatea. Antolaketa horrek garapen-bide berezia jarrai lezake, non ez-hitzezko trebetasunen ekarpenak hizkuntzaren garapenean eragin garrantzitsua izateari utziko liokeen.

Garapen-bide hori maila fonologikoa ere islatzen da. Izan ere, ezagutza fonologikoa eta iraupen laburreko oroimen fonologikoa prozesu independente bezala, neurri handi batean, adin horretan zehazten hasten direla dirudi. Lehenak deskodetzearekin (irakurketa egokia egiteko funtsezko trebetasuna) jarduten du eta horri laguntzen dio, eta iraupen laburreko oroimen fonologikoa, bere aldetik, lexikoaren eskuratzean paper garrantzitsua du (Gathercole eta Baddeley, 1993; Gathercole et al., 1999; Thordardottir eta Weismer, 2002). Erlazio iragarle horrek aurreko ikerketetan lortutako emaitzak babesten ditu; hain zuzen, ikerketa horiek ezagutza fonologikoa defizita egotea dislexiaren tasun bereizgarria dela iradokitzen dute (Catts et al., 2005; Nation eta Snowling, 2004, Joanisse et al., 2000; Ramus, 2014), eta informazio fonologikoa gordetzeko arazoa HNEaren ezaugarritzat hartzen dute (Bishop, 1992, 2006; Bishop eta Snowling, 2004; Ramus et al., 2013; Tallal, 2004).

Baina kontu garrantzitsuena, ikerketa konkurrenteetatik harago, honetan datza: ea luzetarako erlazio iragarlerik dagoen T1ean ebaluatutako oinarrizko prozesuen eta prozesu fonologikoen artean T2ko hizkuntza-trebetasunekiko. T1eko eta T2ko datuek erakutsi zuten T1eko oinarrizko prozesuek (arreta eta prozesatze-abiadura) korrelazio esanguratsua zutela T2ko hitzezko lan-oroimenaren neurriekin, eta T1eko hitzezko lan-oroimenak gramatika harkorrarekin korrelazio esanguratsua erakutsi zuen. Erlazio horrek gramatika-arauen ulermenean eta erabileran prozesatze-osagaia inplikaturik dagoela adierazten du. Beste alde batetik, T1eko ataza fonologikoen emaitzek T2ko hainbat neurriekin korrelazio esanguratsuak erakutsi zituzten. Zehatzago esanda, iraupen laburreko oroimen fonologikoa hitzezko lan-oroimenarekin, esaldien errepikapenarekin, gramatika harkorrarekin eta ez-hitzezko adimenarekin lotu zen. Ezagutza fonologikoa, bere aldetik, korrelazioak erakutsi zituen gramatika harkorrarekin eta deskodetzearekin, eta neurri txikiagoan, esaldien errepikapenarekin, hiztegiarekin eta hitzezko lan-oroimenarekin.

Halaber, hizkuntza-neurriek zenbait neurriekin korrelazio esanguratsuak adierazi zituzten: esaldien errepikapenak korrelazio esanguratsua izan zuen gramatika harkorrarekin,

adierazpen-hizkuntzarekin, hiztegi harkorrarekin eta ez-hitzezko adimenarekin, eta neurri txikiagoan, hitzezko lan-oroimenarekin; horrek babesten duen ideia da neurri horrek hizkuntzaren tarte handiagoa hartzen duela hitzezko lan-oroimenak baino (Klem et al., 2015). Gramatika harkorrak, bere aldetik, esaldien errepikapenarekin, hiztegi harkorrarekin eta ez-hitzezko adimenarekin korrelazio esanguratsua izan zuen. Bestalde, adierazpen-hizkuntza ez-hitzezko adimenari eta deskodetzeari lotu zitzaizkion, eta azkenik, hiztegi harkorrak esaldien errepikapenarekin korrelazio esanguratsuak erakutsi zituen. Korrelazio horiek esanguratsuak ziren arren, eman zituzten balioak erdikoak edo baxuak izan ziren, baina eredu iragarleak sortzeko aukera indartzen dute lerrokidetasuna saihestuz.

T1eko eta T2ko neurrien artean aztertu ziren eredu iragarleak analisi konkurrenteetan lortutako ebidentzia batzuk berretsi zituzten, eta frogatu zuten sei urterekin trebetasun batzuk ondo betetzeak, zazpi urterekin edukiko diren hizkuntza- eta irakurketa-gaitasunak zuzenean iragar ditzakeela. Zehazki, prozesatze-abiadurak lexikoa eraikitzean paper garrantzitsua duela ikusi zen, eta iragarpen horrek aurretik lortutako antzeko aurkikuntzak babesten ditu. Fry-k eta Hale-k (1996, 2000) adierazi zuten bezala, informazioa azkarrago prozesatzeak umeari informazio kopuru handiagoa hartzea ahalbidetzen dioten estrategiak erabiltzeko bidea ematen dio, eta horrek iraupen luzeko oroimenean hitz eta esanahi berriak gogoratzea eta barneratzea erraztuko du. Ildo berean, Kail-ek (2000, 2007) ere prozesatze-abiadurak lan-oroimenaren garapenean duen garrantzia azpimarratu zuen; hori, aldi berean, hiztegiaren eta trebetasun lexikoen garapenari lotu zaio (ikusitako Cowan et al., 2005; Gray et al., 2017). Ikerketa horiek, ordea, ez dute oinarrizko prozesuek hizkuntzan duten eragina ikertu luzetarako azterketen bidez, Gooch-ek et al. (2016) egin zuten bezala. Autore horiek erakutsi zuten funtzio exekutiboan (arreta, oroimena eta inhibizioa) eta hizkuntza-funtzioen (hiztegia, gramatika eta hizkuntza orokorra) paper iragarlea sei eta zazpi urteen tartean baino ez zela nabaria (ez lehenago ezta ondoren ere), eta iradoki zuten prozesatze-abiadura bezalako beste faktore batzuek bai funtzio exekutiboetan eta bai hizkuntzaren garapenean eragin lezaketela. Tesi honen emaitzek hipotesi hori baieztatzen dute, baina ikerketa gehiago egin behar dira gai hori aztertzeko: batetik, azaldu ahal izateko nola alda dezakeen esperientzia linguistikoak hizkuntza-osagaien eta horien aldagai iragarleen garapenaren bilakaera; bestetik, biak modu interaktiboan garatzen diren ala ez ezartzeko.

Beste alde batetik, hitzezko lan-oroimena gramatika-trebetasunaren iragarle sendoa dela ikusi zen, eta hori bat dator aurretik egindako lanekin, non frogatzen den biltegitratzeko diren eta arauetan oinarrituta dauden hizkuntza-sistemen garapenean inplikaturik daudela (Martin

eta Ellis, 2012; Nation, Adams, Bowyer-Crane, eta Snowling, 1999; Williams eta Lovatt, 2003). Egitate horrek adierazten du hitzeko informazioa buruz prozesatzen duen oroimen-osagaia arau gramatikalen aplikazioan inplikaturik dagoela, gramatika prozesatzeak hitzak maneiatzea eskatzen duelako, hain zuzen, kasu bakoitzean zuzenak diren formak konbinatu eta eraiki ahal izateko (adibidez, generoa, plural markak, aditzen jokabidea, etab.). Iraupen laburreko oroimen fonologikoak gramatika harkorra neurri txikiagoan iragarri zuen arren, trebetasun hori, ezagutza fonologikoarekin batera, ezagutza lexikoaren iragarle argiagoa izan zen, eta hori bat dator aurreko ikerketekin (Gathercole eta Baddeley, 1993; Gathercole et al., 1999; Thordardottir eta Weismer, 2002). Trebetasun fonologikoek hitz berrien ikaskuntzan duten rola askotan jaso izan da literaturan (ikusi Bowey, 2001; Jarrold et al., 2009). Gainera, ezagutza fonologikoa deskodetzearen iragarle sendoa izan zen; ezagutza fonologikoak irakurketaren garapenean duen papera eta trebetasun hori ukituta egoteak irakurketaren nahasmenduetan duen rola aztertzen duten aurreko ikerketak babestuz (Puolakanaho et al., 2007; Lyytinen et al., 2004; Ramus et al., 2013; Vellutino et al., 2004). Erlazio iragarle horrek ondorio garrantzitsuak ditu, irakurketaren nahasmendu bat garatzeko arriskua adin goiztiarretan identifikatu litekeelako ezagutza fonologikoko trebetasunen ebaluazioaren bidez, horrek etorkizuneko zailtasunak arintzea ahalbidetuko lukeen esku-hartze goiztiarra martxan jarriko luke.

T1eko eta T2ko neurrien arteko asoziazioen indar aldakorraren emaitzak direla eta, datuek adierazten dutenaren arabera, hizkuntza-sistemaren oinarritzko egitura denboran zehar nahiko dinamikoa izan litekeela dirudi. Aukera hori lehenago ere irakurketaren iragarle goiztiarrekin aztertu izan da, eta lan horiek frogatu dute arretak, lan-oroimenak eta trebetasun fonologikoek irakurketaren gainean duten indar iragarlea haurtzaroan zehar aldatu egiten dela. Ikerketa horiek, gainera, irakurtzeko esperientziak berak ere irakurketaren iragarleei eragin diezaiekeela, eta eragin hori prozesu guztiz interaktibo batean gertatuko litzatekeela iradokitzen dute (Gooch et al., 2011).

Laburbilduz, garapen normatibodun umeen lagin zabala erabiliz, hizkuntzaren mailakako garapenaren eredu kognitiboa babesten duten datuak lortu dira. Aurkeztutako aurkikuntzek oinarritzko prozesuak hizkuntza-trebetasunen bitartekariak izan litezkeela eta horien balio iragarlea denboran zehar txikitu egiten dela iradokitzen dute, hau da, 6 urterekin esanguratsua dela baina ez 7 urterekin. Une horretan hizkuntza-sistema espezializatzen hasten dela dirudi, eta prozesu fonologikoak indar handiagoko iragarle independente bihurtzen dira. Emaitza horiek ondorio teoriko eta praktikoa oso garrantzitsuak dituzte, alde batetik,

hautzaroan hizkuntza-sistema nola antolatzen den jakiteko azalpen esparru bat eskaintzen dutelako, eta beste aldetik, sistema horrek denboran zehar duen izaera dinamikoari buruzko ebidentzia ematen dutelako. Egitate horrek iradokitzen du sistema osoaren eraginkortasuna areagotu daitekeela hautzaro goiztiarrean zehar garatzen diren mekanismo espezifikoetan eraginda. Maila praktikoan, bestalde, datu horiek nabarmentzen dute sei urtetik beherako umeak ebaluatzen direnean prozesatze-abiadura, arreta eta hitzezko lan-oroimena kontuan hartu behar direla, baita maila horietan ematen diren zailtasunak hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduetarako balizko arrisku-faktore bezala sartzeko aukera ere. Horrela, kasu bakoitzean ukituta dauden trebetasunak identifikatu ahal izango dira, eta nahasmendu horien oinarrian dauden arazoak gutxitzen lagunduko duten banakako esku-hartze zehatzagoak diseinatu. Baina oraindik gai batzuk konpondu gabe daude, hain zuzen, mekanismo horiek nola laguntzen dioten modu interaktiboan hizkuntzaren eta irakurketaren eraginkortasunari, norbere garapenaren edo umeak hizkuntzarekin eta irakurketarekin duen esperientziaren emaitza bezala. Hori dena argitzen laguntzeko ikerketak egin beharko lirateke etorkizunean.

9. KAPITULUA: Hizkuntzaren garapenaren ebaluazioa arrisku-egoeran dauden umeez osatutako lagin batean

Aurreko kapituluetan aipatu den bezala, hizkuntzaren nahasmendu espezifikoa hizkuntza-arlo desberdinetan defizit garrantzitsuak egoteagatik bereizten da, adimen-zailtasunik edo bestelako nahasmendurik (zentzumen- zein jokabide-mailan, eta maila sozioafektiboan edo neurologikoan) izan gabe. Eragindako pertsonak erakusten dute, lehenik eta behin, hizketaren pertzepzio defizitarioa; bigarrenik, artikulazio eta hitzezko jariorasun eskasa; hirugarrenik, hiztegi-maila baxua eta gramatikaren ulermen eta erabilera eskasa; eta azkenik, hizkuntzaren ulermen-maila baxua (Höpflner-Boucher et al., 2014; SLI Consortium, 2002). Hala ere, defizit nagusia maila fonologikoan gertatzen da, fonemak hautemateko eta kategorizatzeke unean zailtasunak ikusten baitira, eta horrek, azken finean, hizkera osatzen duten soinuak diskriminatzea eta soinu horiek kategoria desberdinetan sailkatzea oztopatzen du (Tallal, 2004). Arazo fonologikoekin erlazio estuan, HNEak iraupen laburreko hitzezko oroimen-maila oso baxua dakar berarekin (Conti-Ramsden eta Durkin, 2007; Nash et al., 2013), buruan gordetzeari eta hiztegiaren erabilerari eraginez (Ramus et al., 2013).

Dislexia duten pertsonak, bestalde, grafema bakoitza dagokion soinuarekin lotzeko zailtasunak izaten dituzte; horren oinarria ezagutza fonologikoko arazo batean dago (Goswami, 2003; Griffiths eta Snowling, 2002; Nation eta Snowling, 2004). Izan ere, irudikapen fonologikoen espezifikotasun eskasak soinuak idatzitako hizkiei lotzeko beharrezkoak diren buru-jarduerak egitea oztopatzen du, beraz, irakurri bitartean akats asko egiten dituzte, irakurketaren jariorasunari eraginez, eta, azken batean, irakurritako materialaren ulermenari (De Bree et al., 2009; Grigorenko, 2001; Landerl et al., 1997). Azpimarratu behar da aipatutako defizitak ez direla gertatzen eskolatzeko faltagatik edo adimen-maila baxuagatik.

Ikus daitekeenez, biek defizit fonologikoa partekatzen dute, baina defizit hori kasu bakoitzean dimentsio desberdinean agertzen da. Dislexiaren kasuan, zailtasuna ezagutza fonologikoaren mailan agertzen da, fonemak buruz maneiatzeko eta monitorizatzeke gaitasuna ukituta dagoelako; HNEan, ordea, oztopoak gordetze- eta kodetze-mailan ikusten dira, defizit nagusia iraupen laburreko oroimen fonologikoaren mailan kokatuz (Nation eta Hulme, 2011). Hortaz, bi dimentsioetan mugak dauzkaten pertsonak bi nahasmenduen komorbilitatea gara dezakete.

Edozelan ere, arazo fonologikoez ez dute HNEaren eta dislexiaren koadro osoa azaltzen, eta horregatik hainbat ikerketak komorbilitatearen zergatia ulertzen lagundu lezaketen defizit batzuen—oinarrizko prozesuen eta lan-oroimenaren mailakoak—papera aztertu du. Zehazki, arreta-zailtasunek eta informazioa azkar prozesatzeko trebetasunari lotutakoek lehen aipatutako trebetasun fonologikoetan hitzezko lan-oroimenaren ekintzaren bidez eragiten dutela egiaztatu da (ikus Gooch et al., 2014; Leonard et al., 2007; Norbury et al., 2002). Trebetasun horiek hizkuntza eta irakurketa gara daitezkeen funtsezkoak dira, beraz, maila fonologikoan agertzen diren mugek eragingo diote, batetik, umeen garapen lexiko eta gramatikalari, eta bestetik, deskodetze-prozesuari; horrek, azken finean, umeak hizkuntza-sistema eraginkorra garatzea eta zehaztasunez eta jarriotasunez irakurtzea zailduko du.

9.1. Metodoa

Parte-hartzaileak

Parte-hartzaileak hizkuntzaren edo/eta irakurketaren nahasmendua garatzeko arriskuan zeuden 8 ume izan ziren (2 mutil eta 6 neska). Umeak kontrol taldetik atera ziren eta beren ebaluazio diagnostikoak hizkuntzaren nahasmendua zegoela egiaztatu zuten. Ume horiek lehen hezkuntzako lehen mailan (batez besteko adina = 6 urte, DT = 2,72) eta lehen hezkuntzako bigarren mailan (batez besteko adina = 7 urte eta hil bat, DT = 3,06) ebaluatu ziren. Parte-hartzaileen hasierako atalean adierazten denez, ume horiek ikerketan parte hartzeko ezarri ziren irizpideak betetzen zituzten: a) dislexiaren edo HNEaren diagnostikoa egiaztatua edukitzea; b) arazo neuropsikiatriko edo sensorial erantsiak ez izatea; c) ikusmen normala edo zuzendua; d) 60tik gorako puntuazio estandarizatua Kaufman-en Adimen-test Laburreko Matritzeen azpittestean (K-BIT, Kaufman eta Kaufman, 1990); e) hiztun elebidunak izatea euskaraz eta gaztelaniaz.

Prozedura

Prozedura garapen normatibodun laginarekin erabilitako berbera izan zen, aurreko atalean deskribatua.

Tresnak eta neurriak

Erabili ziren tresnak eta neurriak garapen normatibodun laginarekin erabilitakoak izan ziren, hain zuzen, aurreko ataletako T1ean eta T2an deskribatutakoak.

9.2. *Emaitzak*

Analisi deskribatzaileak eta korrelazioak

Aldagai guztien estatistiko deskribatzaileak ebaluazioaren une bakoitzean 8. eta 9. tauletan aurkezten dira. Erabilitako neurrien fidagarritasuna bi erdien metodoaren bidez kalkulatu zen, itemak bakoititan eta bikoititan banatuz eta Cronbach-en alfa koefizientea kalkulatu. Indize hori egokia izan zen kasu guztietan, eta balioak moderatu eta altu artean zeuden. Laginaren tamaina eta lagin klinikoetan dagoen aldakortasuna kontuan hartuta, balioak onargarritzat har daitezke. Gainera, fidagarritasuna T1ean handiagoa izan zen T2an baino, seguruenik banakoen desberdintasunak areagotzen zirelako eta nahasmenduak ibilbide ebolutibo desberdinak zituelako. Horrez gain, asimetriari eta kurtosiari dagozkien balioak kalkulatu ziren eta horien emaitzek puntuen banaketa normala adierazten zuten. Balio horiek zerotik urrun zeuden ebaluazio-aldi bietan, bai prozesatze-abiaduran eta bai iraupen laburreko oroimen fonologikoan. Hiztegiaren kasuan, balioak oso altuak dira T1ean, baina balio normalak hartzen dituzte T2an. Bariantzaren analisi errepikatu batzuek neurketa guztiak T1etik T2ra modu esanguratsuan igo zirela erakutsi zuten ($p < 001$).

8. taula

Lehen Ebaluazio-fasean (T1) Erabilitako Neurrien Datu Deskribatzaileak. Arriskuan dauden umeen lagina.

Ataza-mota	Batezbestekoa	DT	Fidagarritasuna	Asimetria	Kurtosia
Prozesatze-abiadura (TR)	2509,25	192,53	.80	.37	1.41
Arreta bisuala (asmatzeen %)	53,84	25,74	.80	-.86	.83
Hitzezko lan-oroimena (atzeranzko digituen oroimena)	1,63	1,06	.88	-.91	-.13
Iraupen labur. oroimen fonolog. (Sasihitz. errep., asmatzeen %)	47,92	22,60	.88	.35	-1.42
Esaldien errepikapena (CELF punt. gordina)	18,32	8,56	.94	.18	-1.02
Ezagutza fonologikoa (CELF fonema kendu, asmatzeen %)	7,81	25,19	.89	1.17	.27
Gramatika harkorra (CELF punt. gordina)	18,50	3,16	.67	.00	-1.02
Adierazpen-hizkuntza (CELF punt. gordina)	18,50	1,77	.53	.41	-.65
Hiztegi harkorra (PPVT pertzentila)	2,39	2,18	.83	1.55	2.54
Ez-hitzezko adimena (KBIT pertzentil matrizeak)	56,50	16,75	.87	-.52	1.32

9. taula

Bigarren Ebaluazio-fasean (T2) Erabilitako Neurrien Datu Deskribatzaileak. Arriskuan dauden umeen lagina.

Ataza-mota	Batezbestekoa	DT	Fidagarritasuna	Asimetria	Kurtosia
Prozesatze-abiadura (TR)	2631,02	439,60	.56	.37	-1.66
Arreta bisuala (asmatzeen %)	78,37	14,73	.67	.11	-.30
Hitzezko lan-oroimena (atzeranzko digituen oroimena)	3,13	.64	.74	-.07	.74
Iraupen labur. oroimen fonolog.(Sasihitz. errep., asmatzeen %)	69,79	16,02	.83	-.07	-1.67
Esaldien errepikapena (CELF punt. gordina)	30,13	8,63	.96	.54	1.10
Ezagutza fonologikoa (CELF fonema kendu, asmatzeen %)	42,97	20,44	.96	-.64	.09
Gramatika harkorra (CELF punt. gordina)	22,88	4,09	.86	.15	.46
Adierazpen-hizkuntza (CELF punt. gordina)	21,63	1,06	.83	.05	-.94
Hiztegi harkorra (PPVT pertzentila)	19,38	15,28	.99	.00	-.72
Deskodetzea (asmatzeen %)	86,51	11,52	.90	-.92	.36
Ez-hitzezko adimena (KBIT pertzentil matrizeak)	32,38	17,69	.76	.85	.59

Erabilitako neurrien arteko korrelazio-koefizienteak 10. eta 11. Taulatan erakusten dira. Analisi horrek neurrien arteko erlazio ahula erakutsi zuen bi aldietan. T1ean prozesatze-abiadurak esaldien errepikapenarekin eta adierazpen-hizkuntzak iraupen laburreko oroimenarekin korrelazio esanguratsuak adierazi zituzten. T2an prozesatze-abiadurak arretaren eta esaldien errepikapenaren neurriekin adierazi zuen korrelazio esanguratsua, eta azken horrek, aldi berean, ezagutza gramatikalaren neurriarekin. T2ko trebetasun fonologikoei dagokienez, ezagutza fonologikoak hiztegi harkorrarekin eta deskodetzearekin izan zuen korrelazio esanguratsua.

10. taula

Lehen Ebaluazio-faseko (T1) Neurri Nagusien arteko Korrelazioak. Arriskuan dauden umeen lagina.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1. Prozesatze-abiadura	1									
2. Arreta bisuala	.23	1								
3. Lan-oroimena	.46	.34	1							
4. Iraupen labur. oroimen fonologikoa	.16	.47	.21	1						
5. Esaldien errepikapena	.79*	.05	.15	.22	1					
6. Ezagutza fonologikoa	.44	.17	-.38	.37	.69	1				
7. Gramatika harkorra	-.50	.10	-.27	.26	-.42	-.33	1			
8. Adierazpen-hizkuntza	.27	-.39	.11	.83*	.53	.43	.28	1		
9. Hiztegi harkorra	.41	.05	.44	.48	.20	.43	.09	.23	1	
10. Ez-hitzezko adimena	-.03	.60	-.54	.17	-.05	.26	.60	.17	-.27	1

* p<.05

11. taula

Bigarren Ebaluazio-faseko (T2) Neurri Nagusien arteko Korrelazioak. Arriskuan dauden umeen lagina.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
1. Prozesatze-abiadura	1										
2. Arreta bisuala	-.74*	1									
3. Lan-oroimena	-.11	.27	1								
4. Iraupen labur. oroimen fonologikoa	-.27	.56	.42	1							
5. Esaldien errepikapena	.75*	.35	.22	.08	1						
6. Ezagutza fonologikoa	-.41	.39	-.12	.05	.59	1					
7. Gramatika harkorra	-.46	.43	.11	.32	-.72*	.27	1				
8. Adierazpen-hizkuntza	-.21	.19	-.34	-.30	-.26	.14	.26	1			
9. Hiztegi harkorra	-.02	-.11	.08	.07	.13	-.71*	.07	.13	1		
10. Deskodetzea	.04	.13	.73*	.57	.15	-.84*	-.14	-.11	.06	1	
11. Ez-hitzezko adimena	-.55	.70	.26	-.05	-.51	.15	.80*	.08	.23	-.10	1

* $p < .05$

9.3. Neurri kognitiboen eta linguistikoen arteko erlazio iragarleen analisisia

Ebaluazio-aldi bakoitzean erregresiozko bi analisi egin ziren oinarrizko prozesuek (arreta, abiadura eta lan-oroimena) trebetasun fonologikoetan (oroimena eta ezagutza fonologikoa) eta hizkuntza-irakurketakoetan (hiztegi harkorra, gramatika, adierazpen-hizkuntza eta deskodetzea T2an) izan dezaketen indar iragarlea aztertzeko. T1ean oinarrizko prozesuen eta ezagutza fonologikoaren arteko erlazio iragarle bat aurkitu zen, $F(3,7) = 4.07$, $p = .05$. Hain zuen, prozesatze-abiadurak eta lan-oroimenak ezagutza fonologikoari nabarmen lagundu zioten, $B = -.99$, $t = -3.1$, $p = .05$; y $B = .98$, $t = 2.9$, $p = .041$, hurrenez hurren. T2an, bere aldetik, esanguratasunera hurbildu zen erlazio iragarlea oinarrizko prozesuen eta deskodetzearen artean gertatu zen, $F(3,7) = 2.49$, $p = .06$, zehatzago esanda, lan-oroimenak deskodetzean nabarmen lagundu zuen, $B = .95$; $t = 3.1$, $p = .05$. Ondoren, T1eko oinarrizko prozesuek eta prozesu fonologikoei T2ko trebetasun fonologikoei eta hizkuntza-irakurketakoei laguntzen zieten ala ez egiaztatu zen. Erregresiozko analisiak erakutsi

zuenaren arabera, T1eko oinarrizko prozesuek T2ko oroimen fonologikoari ekarpen bakarra egiten zioten, $F(3,7) = 6.12$, $p = .05$, hain zuzen, T1eko arretak oroimen fonologikoari ekarpen nabarmena egin zion T2an, $B = .57$; $t = 2.18$, $p = .05$. Aipatu behar da oinarrizko prozesuen eta deskodetzearen erlazio iragarlea esanguratsua izatetik oso hurbil geratu zela, $F(3,7) = 2.62$, $p = .06$, lan-oroimenak T1ean deskodetze-trebetasunari ekarpen erlatiboa egin baitzion T2an, $B = .15$; $t = 2.62$, $p = .06$.

Kapitulu honetan arrisku-laginari buruzko analisi iragarleen gaineko emaitzak aurkeztu dira T1ean eta T2an, baita T1eko neurriek T2ko neurriekiko dituzten erlazio iragarleak ere. Emaitzak honen arabera labur daitezke:

- Prozesatze-abiadurak eta lan-oroimenak ezagutza fonologikoa iragarri zuten T1ean.
- Lan-oroimenak paper garrantzitsua izan zuen irakurketa prozesuan, trebetasun horren eta deskodetzearen artean erlazio iragarlea aurkitu baitzen T2an.
- T1eko arretak iraupen laburreko oroimen fonologikoa iragarri zuten T2an.
- T1eko lan-oroimenak irakurketa deskodetzeko trebetasunari nabarmen lagundu zion T2an.

9.4. Ondorioak

Ikerketan erabili zen lagina, arrisku egoeran zeuden umeena, oso txikia izan zen arren, lortu ziren emaitzek aurretik egindako ikerketen ondorioak egiaztatu zituzten. Zehazki, datuek lan-oroimena ezagutza fonologikoan eta deskodetzean—trebetasun garrantzitsuak irakurketaren garapenean—inplikaturako mekanismo gisa gakoa dela baieztatzen dute. Asoziazio hori bai lagin klinikoekin, bai garapen tipikoa duten umeekin aurkitu da (ikusi Näslund eta Schneider, 1991; Rohl eta Pratt, 1995).

Beste alde batetik, emaitza horiek oinarrizko prozesuen, bereziki arretaren, rola babesten dute iraupen laburreko oroimen fonologikoari dagokionean, berriki egindako ikerketetan ikusi ahal izan denez (ikusi Majerus, Attout, Argembeau, Degueldre, Fias et al., 2011). Erlazio hori hizkuntzaren nahasmenduen eta arreta-arazoaren arteko komorbiditatea azaltzeko balio lezakeen faktoretako bat izan liteke (Martinussen eta Tannock, 2006; McGrath et al., 2011).

Laburbiltzeko, badirudi lan-oroimena haurtzaroan hizkuntza-sistema bat egituratzeko berebiziko papera jokatzeko duen trebetasuna dela, eta irakurketaren geroko garapenari ere

eragingo diona, trebetasun fonologikoetan paper modulatzailerak betez; paper garrantzitsu hori, azken batean, hitzen deskodetzean lortzen den zehaztasunean islatuko da.. Trebetasun horien garapena haurtzaroan zehar gakoa da garapen normotipikoko umeengan eta arriskuan dauden umeen laginetan, aurkeztutako datuek adierazten duten bezala. Erlazio hori funtsezkoa izan daiteke lehen haurtzaroan hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduak definitzen dituzten defizitak agertzeko unean. Emaitza horiek bat datoz defizit anizkoitzaren ereduaren proposamenarekin (ikus Pennington, 2006), zeinek onartzen baitu behatutako fenotipoak agertzen diren oinarrizko defiziten araberakoak izango direla, baita garapenean zehar haien artean sortzen den interakzioaren araberakoa ere. Beraz, zenbait defiziten konbinazioak, batetik, klinikoki esanguratsuak diren nahasmenduak agertzera eramango luke, eta bestetik, komorbilitate-arrisku handiagoa egotera, bai hizkuntzaren zein irakurketaren nahasmenduen artean, (Bishop eta Snowling, 2004; Pennington eta Bishop, 2009; Thompson et al., 2015), bai arretaren nahasmenduekin, defizitak oinarrizko prozesatze-mailan agertzen direnean (Gooch et al., 2011; 2016).

Atal honetan aurkeztu diren emaitzek zenbait lanetan lortutako aurkikuntza batzuk baieztatzen dituzte. Adibidez, Willcutt-ek et al. (2005) prozesatze-abiaduran eta lan-oroimenean agertzen diren mugak bai ADHDna zein irakurketaren nahasmendua duten umeen ezaugarria direla erakutsi zuten, eta irakurketa-zailtasunak zituzten umeek maila fonologikoan ere mugak zituztela. Gainera, komorbilitatearen ezaugarria erakusten zuten umeek bi nahasmenduei lotutako sintomen konbinazioa erakusten zuten. Antzeko emaitzak Gooch-ek et al. (2011) egindako lanean aurkeztu ziren; horiek ikusi zuten dislexiaren eta arretaren inguruko sintomen komorbilitatearen ezaugarriak erakusten zituzten umeek bi nahasmenduei zegozkien defiziten konbinazioa zeukatela, hau da, maila fonologikoan eta funtzio exekutiboetan. Lan honetan erabilitako laginarekin lortu diren emaitzek oinarrizko prozesuen eta trebetasun fonologikoen artean dagoen erlazio iragarleari buruz ebidentzia batzen dute.

Ildo berean, Gooch-ek et al. (2016) funtzio exekutiboan eta hizkuntza-trebetasunen artean erlazio iragarlea aurkitu zuten. Lan honetan aurkeztu diren emaitzek lan-oroimenak eta arretak hizkuntzaren garapenean daukaten papera baieztatzen dute, zehazki, trebetasun fonologikoen gainean (ezagutza eta iraupen laburreko oroimena). Hortaz, oinarrizko prozesuek trebetasun fonologikoen garapenean eragiten dutela ondoriozta daiteke, eta azken horiek, aldi berean, hizkuntza- eta irakurketa-sistemaren funtzionamendu zuzenerako oinarria direla. Horregatik, bi mailetan zailtasunak adierazten dituzten umeek hizkuntzaren eta

irakurketaren nahasmenduei dagokien komorbilitate-fenotipoa azaltzea logikoa da, hainbat ikerketatan erakutsi den bezala (ikus Gooch et al., 2013; Thompson, Hulme, Nash, Gooch, Hayiou-Thomas et al., 2015). Maila praktikoan, lortutako emaitzek oinarrizko prozesuen funtzionamendua ere ebaluatzeko beharra erakusten dute, hizkuntza- edo irakurketa-mailan zailtasunak daudenean. Horrela, HNEa edo dislexia bezalako nahasmenduak lantzerantz bideratutako esku-hartzeek ukituen dauden alderdiak indartzeko atazak txerta litzakete, zeren eta, egiaztatu denez, oinarrizko prozesuek trebetasun fonologikoetan duten eraginak, azken finean, umeen hizkuntza- eta irakurketa-trebetasunaren garapenean eragiten baitu.

10. KAPITULUA: HEFCAS-6-DA galdetegia baliozkotzea

5. eta 6. kapituluetan aipatu den moduan, familia-testuinguruak paper garrantzitsua du hizkuntzaren eta irakurketaren garapenaren azpian dauden trebetasun kognitiboen garapenean. Lan askok oinarrizko prozesuen (prozesatze-abiadura eta arreta) eta lan-oroimenaren inplikazioa frogatu dute trebetasun fonologikoen (ezagutza fonologikoa edo iraupen laburreko oroimen fonologikoa) garapenean, funtsezkoak baitira hizkuntza-sistema era optimoan gara dadin. Aipatu diren trebetasunak garatzeko bizitzaren lehen urteak oso garrantzitsuak diren arren, bost eta zazpi urteen artean eskakizun akademikoa areagotu egiten da irakurketa-idazketaren irakaskuntza hasten delako, ondorioz, aldi horretan hizkuntza- eta irakurketa-arazoei lotutako ikaskuntza-zailtasunak azaleratzen hasten dira. Hori dela eta, maila horietan zailtasunak garatzeko arrisku potentziala duten umeen familia-testuinguruko aldagaiak zehatz identifikatzea eta ebaluatzea ezinbestekoa da, hain zuzen, arrisku-aldagai edo aldagai babesle bezala jokatzeko dutenak. Beraz, aldagai horiekiko sentikorra den, eta, ikaskuntzako gakoa den aldi horretan, trebetasun kognitiboen eraikitze-epigenetikoa ahalbidetuko duen tresna bat edukitzea ezinbestekoa izango da.

Bosgarren kapituluan aurkeztu den esparru teorikotik abiatuta, familia-testuinguruaren kalitateari euskarri enpirikoa ematen dioten guraso-trebetasunak, HES-2 (Velasco et al., 2014) eta HES-7-11/FA (Barreto et al., 2018) eskaletan daudenak, HEFCAS-6-DA tresnan lau azpieskalaren bidez neurtzen dira—lehen biek maila mikrosistemikoa aztertzen dute eta azken biek maila exo eta mesosistemikoa—bakoitza galdetegia osatzen duten bere faktore eta itemekin.

Lehenak garapen kognitiboaren eta hizkuntzaren garapenaren estimulazioari dagozkion aldagaiak ebaluatzen ditu; aldagai horiek faktore jakin batzuetan gauzatzen dira, eta faktoreen itemek guraso-trebetasunak aztertzen dituzte, ikaskuntzaren eta heldutasun akademikoaren estimulazioa, imitatze-ereduak ematea, hizkuntzaren eta irakurketaren garapenaren estimulazioa eta jolasaren estimulazioa bezalako esparruetan (Laakso et al., 1999; Senechal eta Le Fevre, 2002; Tamis-LeMonda et al., 2004; Ontai eta Thompson, 2008; Yogman, Garner, Hutchison, Hirsh-Pasek, Golinkoff et al., 2018). Bigarren azpieskalak, bere aldetik, garapen sozioemozionala sustatzen duen testuinguruari lotutako aldagaiak hartzen ditu barne, zehazki, gurasoen sentikortasuna eta ematen duten erantzuna, arauak eta mugak egotea, autonomia eta autoestimua estimulatzea, frustrazio optimoa eta erresilientziaren

sustapena, guraso-kontrol egokia, hezkuntza-molde demokratikoa eta hezkuntza-koherentzia, baita komunikazio eraginkorrerako jarraibideak eta emozio-adierazkortasuna zein emozioen erregulazioa ere (Guajardo et al., 2009; López eta Vesga, 2009; LeCuyer-Maus eta Houck, 2002; LeCuyer eta Swanson, 2013).

Hirugarren azpieskalak testuinguru sozialaren eta inguru fisikoaren aldagaiak ebaluatzen dituzten itemak biltzen ditu. Aldagai horiek faktore hauen inguruan biltzen dira: aitaren inplikazioa, gatazkaren maiztasuna eta bere eraginpean jartzea, familiaren estres-maila, gizarteko laguntza-sare egonkorra egotea, eguneroko bizitzako esperientzien aniztasuna, familiarekin partekatzen den denbora libre edo etxebizitza zein espazio fisiko egokiak edukitzea (Anthony, Anthony, Glanville, Naiman, Waanders et al., 2005; Brocka eta Kochanska, 2016; Bidmead eta Whittaker, 2007; Crnic, Gaze, eta Hoffman, 2005; Froyen et al., 2013; Jacob et al., 2018; La Fave eta Thomas, 2017). Azken azpieskalak garapena indartzen duen guraso-profil batekin zerikusia duten aldagaiak neurtzen ditu, eta biltzen dituen faktoreak hauen ingurukoak dira: garapen-faseei buruz gurasoek duten ezagutza, guraso-autoeraginkortasunaren pertzepzioa, asertibitatea eta hezkuntzaren malgutasun-maila (Coleman eta Karraker, 2003; Davis-Kean, 2005; Glatz eta Buchanan, 2015; Jones eta Prinz, 2005; Solís-Cámara eta Díaz, 2007). Faktore horien grafikoa 12. taulan jasotzen da.

Eskala horrek bere fidagarritasuna frogatu du, eta umeen garapenari lotutako familia-testuinguruaren konstruktua espezifikoen neurketa bermatzen du. Hala ere, HES-2 eta HES-7-11/FA bertsioak ez ziren diseinatu hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean espezifikoki eragiten duten testuinguru-aldagaiak aztertzeke. Ikerketa honen helburuetako bat hizkuntza-edo irakurketa-zailtasunak garatzeko arrisku potentziala duten umeen familia-testuinguruaren kalitatea ebaluatzeko eskala bat egitea denez, eskala horretan hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean inplikaturako trebetasunen (arreta, oroimen fonologikoa, ezagutza fonologikoa, ikaskuntza alfabetikoa, hiztegia) aldagai indartzaileen edo inhibitzaileen balorazioa txertatu beharko da, hain zuen, arrisku-kasuak ulertzeko eta kasu horietan modu integralean esku-hartzeko orduan hil edo bizikoak izan daitezkeen aldagaiena. Horregatik, aztertzen ari garen galdetegian hizkuntza- eta irakurketa-arazoen pronostiko hobe bati asoziatutako aldagai espezifikokoak sartu dira. Honen ondoren, Jatorrizko HEFCAS-6 eskalaren deskribapenean aipatu diren aldagaien osagarri modura txertatutako aldagaiak deskribatzen dira.

Adibidez, garapen kognitiboaren eta hizkuntzaren garapenaren testuinguru sustatzailearen esparruan, ikasteko materialak edo jolas-jokabideak egotea kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsuak dira gaitasun kognitibo konplexuen garapenean duten

inplikazioagatik. Hala ere, haurtzaro goiztiarrean zehar arreta elementu espezifikagoetan jartzea komenigarriagoa izan daiteke, hala nola, etxean dituzten irakurketa-ohituretan edo hizkuntzaren eta irakurketaren aldazio-jartzeari dagozkion jokabideetan, horiek erlazio estua baitute hizkuntzaren eta irakurketaren ibilbide ebolutibo optimoarekin (van Bergen, Zuijen, Bishop, eta Jong, 2017; Burgess, Hecht, eta Lonigan, 2002; Cates, Dreyer, Berkule, White, Arevalo et al., 2012; Weigel, Martin, eta Bennett, 2006). Hori dela eta, lehen azpieskala honetan ikaskuntzaren estimulazioaren materialei, partekatutako eguneroko interakzioei eta partekatutako irakurketaren interakzioei, gurasoen irakurketa-ohiturei eta etxean egiten den irakurketaren sustapenari lotutako aldagai-talde bat aztertzen da. Aldagai horiek aukeratzearen zergatia egindako ikerketa anitzek lortu dituzten ebidentzietan oinarritzen da, jokaera batzuek bai lexikoaren eskuratzean inplikaturako trebetasun fonologikoak, eta bai umeen irakurtzeko motibazioa ere bultzatzen ditzaketela frogatu baitute (Conlon et al., 2006; Cook et al., 2011; Laakso et al., 1999; Quiroz et al., 2010; Rowe, 2012; Senechal eta Le Fevre, 2002; Sonnenschein eta Munsterman, 2002).

Garapen emozionalaren testuinguru sustatzaileari dagokionez, eskalak gurasoen sentikortasunari eta ematen duten erantzunari, neba-arreben arteko harremanen kalitateari, mugak jartzeari eta frustrazio optimoari, eta autonomia indartzeari lotutako aldagai-multzo bat aztertzen du. Aldagai horien aukeraketa hainbat lanetatik datozen ebidentzietan oinarritzen da (ikus Brenning, Soenens, Van Petegem, eta Vansteenkiste, 2015; Pauli-Pott eta Mertesacker, 2009; Pekrun, 2011; Pettit, Laird, Dodge, Bates, eta Criss, 2001), hain zuzen ere, 6. kapituluaren deskribatu direnei eusten dietenak—besteak beste, hiztegi-mailari edo lan-oroimenari lotutako aldagaiak—(Bernier et al., 2012; Hammer et al., 2001; Schroeder eta Kelley, 2009; Thorell et al., 2012).

Beste alde batetik, testuinguru fisikoarekin eta sozialarekin erlazioetatutako azpieskalak hauen inguruko aldagaiak aztertzen ditu: testuinguru fisikoaren kalitatea, aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioa (Lamb, 2004; Lamb eta Lewis, 2013; Pruett, Pruett, Cowan, eta Cowan, 2017), familia zabalarekiko eta lagunen zein zerbitzuen gizarte-sarearekiko harremanak (Bridges, Roe, Dunn, eta O'Connor, 2007; La Fave eta Thomas, 2017), umeen gizarte-harremanen egonkortasuna eta gurasoek horiekiko duten interesa (Arranz, 2005), eguneroko bizitzaren antolaketa (Harris et al., 2018), esperientzien aniztasuna (Arranz, Martín, Manzano, Olabarrieta, Bellido et al., 2005), gurasoen estresa (Guajardo et al., 2009; Julien et al., 2017), gurasoen gatazkaren maiztasuna eta bere eraginpean jartzea, eta gurasoen gatazkaren konponbidea (Brocka eta Kochanska, 2016; Cantón, Cortés, eta Justicia,

2007). Zentzu horretan, 6. kapituluaren deskribatutako zenbait aldagai sartu dira, besteak beste, hiztegi harkorra eta adierazpen-hiztegia, ezagutza fonologikoa edo deskodetzea (Bernier et al., 2012; Froyen et al., 2013; Noel et al., 2008). Azkenik, gurasotasun indartzailearen profila definitzen duen azpieskalak guraso-autoeraginkortasuna edo garapen psikologikoaren ezagutza bezalako aldagaiak aztertzen ditu (Bogensneider et al., 1997; Coleman eta Karraker, 2003; Dumka et al., 2010; Glatz eta Buchanan, 2015; Jones eta Prinz, 2005).

Familia-testuinguruak ebaluatzeko ohiko tresnak oso generikoak suertatu direnez, testuinguru-aldagaiari buruzko informazio garrantzitsua baztertzen baitute trebetasun horien garapenari dagokionean, ikerketa honetan deskribatutako aldagai guztiak barne hartuko dituen tresna espezifiko bat landuko da. Hortaz, behin aldagai horiek identifikatuta, lehen urratsa ebaluazio-tresna ikerketaren helburura egokitzea da. 2 urteko umeen eta lehen hezkuntzako eskolan hasten direnen (5-7 urte) artean alde ebolutiboa dagoela, eta gainera, ikerketa honetan erabili den tresnak ikaskuntza-zailtasunei lotutako familia-aldagaietara (6. kapituluaren zehaztu direnak) sentikor izan nahi duela kontuan hartuta, HES-2 eta HES-7-11/FA eskalen bertsioak 6 urteko umeentzat egokitu behar zirela ikusi zen, hizkuntzaren eta irakurketaren garapenarekin zerikusia zuten item espezifikoak sartuz. Egokitzapena egiteko erabili zen oinarrizko eskalaren zehaztasunak 12. taulan aurkezten dira. Bigarren urratsa honetan datza: tresna hau erabiltzea aldagai horiek oinarrizko prozesuen eta aurreko kapituluaren deskribatutako hizkuntza- zein irakurketa-trebetasunen garapenean duten indar iragarlea ebaluatzeko.

Tresna berri hori bai gurasoei eta bai hezkuntza-, gizarte- eta osasun-arloko profesionalei zuzenduta dago, eta hizkuntzaren zein irakurketaren garapenerako funtsezkoak diren eremu guztiak hartuko dituzten esku-hartzeen diseinua errazteko helburua du. Tresnak xede bikoitza du: lehenik eta behin, aurreirakurketa adinean arrisku-aldagai kognitiboekin erlazionatutako testuinguru-faktoreen detekzioa erraztea; baita arrisku hori bere esparru ekologikoan kokatzea ere. Bigarrenik, familia arloan lan egiten duten profesionalei baliabide bat ematea, familia-testuinguruek garapena sustatzeko duten indarra zorrotasunez ebaluatzeko, interakzio- zein testuinguru-aldagaiak esparru bio-ekologikotik begiratuta.

12. taula

Jatorrizko Tresnan (HES-2) dauden Faktoreak eta Azpieskalak.

HES-2 Jatorrizko faktoreak

1. AZPIESKALA. GARAPEN KOGNITIBOAREN ETA HIZKUNTZAREN GARAPENAREN ESTIMULAZIOA

1. Ikaskuntza estimulatze materialak (1-8).
2. Jolasaren ahalmena (9-12).
3. Garapen kognitiboaren estimulazioa (13-16).
4. Hizkuntzaren garapenaren estimulazioa (17-22).

2. AZPIESKALA. GARAPEN SOZIOEMOZIONALAREN ESTIMULAZIOA

1. Emozio-adierazkortasuna (23-27).
2. Gurasoen harremanaren kalitatea (28-33).
3. Mugak jartzea eta frustrazio optimoa (34-43).
4. Autoestimua eta autonomiaren sustapena (44-53).

3. AZPIESKALA. INGURUNE FISIKOAREN ETA TESTUINGURU SOZIALAREN ANTOLAKETA

1. Testuinguru fisikoaren kalitatea (54-63).
2. Aitaren edo erreferentziako 2. figuraren inplikazioa (65-70).
3. Familia zabalarekiko eta laguntzako gizarte-sarearekiko harremanak (lagunak eta zerbitzu komunitarioak) (71-81).
4. Interakzioen egonkortasuna eta gurasoen interesa horiei buruz (82-85).
5. Eskolarekiko harremanak (86-90).
6. Esperientzien aniztasuna (91-99).
7. Gurasoen estresa (100-105).
8. Familia-gatazkaren eraginpean egotea (106-110).
9. Familia-gatazka konpontzeko ahalmena (111-116).

4. AZPIESKALA. GARAPENA INDARTZEKO ALDAGAIK

1. Guraso-autoeraginkortasuna eta zeharkako trebetasunak (117-128).
 2. Haur-garapenaren ezagutza inplizitua (129-140).
-

10.1 Metodoa

Parte-hartzaileak

Eskalaren baliozkotzea egiteko erabili den lagina 6 urteko 127 umeren familiek osatzen zuten ($m = 6$ urte, 6 hilabete; $DT = 9,42$ hilabete) eta hiztun elebidunak ziren (euskaraz eta gaztelaniaz). Aiten adina 33 eta 55 urteren artean zegoen ($m = 42,57$; $DT = 4,09$) eta amen adina 30 eta 50 urteren artean ($m = 40,45$; $DT = 3,69$). Lagina Bilbo (Euskal Herria) inguruko sei eskolatan bildu zen (5 publiko eta ikastola bat); eskolak profil sozioekonomiko ertaineko auzoetan daude. Azpimarratu behar da laginaren hautaketa ikaskuntzaren nahasmenduak garatzeko arriskuan zeuden umeak, eta ez maila sozioekonomiko desberdinetakoak direnak, sartzeko helburu nagusiarekin egin zela. Parte hartu zuten familiek Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordeak (GIEB) onartutako baimen informatu bat sinatu zuten (erref. M10_2016_071MR1).

Tresnak eta neurriak

Familia-testuinguruaren kalitatearen ebaluazioa

Haezi-Etxadi Family Context Assessment Scale-6-DA (HEFCAS-6-DA): ikaskuntza-zailtasunak garatzeko arriskuan dauden umeen populazioan familia-testuinguruaren kalitatea ebaluatzen duen eskala da, sei urteko umei egokitua; eskalak umeen hizkuntzaren zein irakurketaren ikaskuntzari lotutako aldagaiak espezifikoki aztertzen ditu. Tresna horren xedea aipatutako trebetasunetan positiboki edo negatiboki eragiten egon litezkeen familia-aldagaiak identifikatzea da.

Jatorrizko tresnak HES-2 (Velasco et al., 2014) eta HES-7-11/FA (Barreto et al., 2018) eskaletan zuen abiapuntua, eta lau azpieskala bereizten zituen: garapen kognitiboaren eta hizkuntzaren garapenaren estimulazioa (33 item), garapen sozioemozionalaren estimulazioa (28 item), testuinguru fisikoaren eta testuinguru sozialaren antolaketa (62 item) eta garapena indartzen duen guraso-profila (24 item). Proposamen horrek alde zuzenetik 5. eta 6. kapituluetan deskribatutako faktore eta item berriak biltzen ditu; HES-2 eta HES-7-11/FA eskaletan ez zeuden eta ikaskuntza-zailtasunei zehatz-mehatz erreferentzia egiten dieten faktore eta itemak dira. Horietako bakoitza sei puntuko Likert eskala batekin baloratzen da, maiztasuna (Inoiz ez—Beti) edo adostasun-maila (Erabat desados—Erabat ados) galdetuz.

Gainera, eskalak hasieran galdera batzuk ditu gurasoen adinari eta umearen hizkuntza-testuinguruari buruzko informazioa jasotzeko (gurasoen hizkuntza nagusia, umearen komunikazio-hizkuntza eskolan eta bere hizkuntza nagusia eskolako testuingurutik kanpo).

Horrez gain, arreta-sintomek hizkuntza- eta irakurketa-arazoekin erakusten duten komorbilitate altua kontuan hartuz, ADHNaren ebaluazio-eskala sartu zen (ADHD Rating Scale, DuPaul, Power, Anastopoulos, eta Reid, 2016), sintomatologia hori agertzen den ala ez kontrolatzeko. Eskala hori DSM-Varen diagnostiko-irizpideetan oinarritutako 18 itemek osatzen dute; horietako 9 arreta faltari dagozkie eta beste 9ak hiperaktibitateari/inpultsibitateari. Erantzun-sistema dikotomikoa da, gurasoek aipatutako sintomak beren seme-alabengan agertzen diren ala ez adierazi behar baitute.

Azkenik, jaio aurreko eta osteko baldintzak aztertzen dituzten item gehigarriak txertatu ziren, gurasotasun positiboaren curriculum optimoan (GPCO) sartuta daudenen artean agertzen ez diren arren, horiek ezagutzea ezinbestekotzat jo zelako, adibidez, edoskitze naturala (2 item) eta ordezeko zainketaren kalitatea (2 item). Erantzunak sei puntuko Likert eskala batekin baloratzen dira, aldagai bakoitzarentzat 6a puntuazio optimoa eta 1a puntuazio baxuena izanik. Hori dena azala eta betetzeko jarraibideak ere jasotzen dituen 18 orrialdeko dokumentu batean biltzen da, ikertzailearen harremanetarako datuekin batera. Hasierako eskalaren faktore-egitura 13. taulan aurkezten da, lehenago azaldutako testuinguru teorikoan oinarritutako lehen elkarketa orokor batekin.

13. Taula

HEFCAS-6-DA eskalaren Hasierako Egitura

Jatorrizko Egitura

AURRETIAZKO GAIAK

Aitaren eta amaren adina

Amaren eta aitaren hizkuntza nagusia.

Umearen hizkuntza nagusia eskola eremutik kanpo

Umearen eskolatzea

Arretaren sintomatologia eta inpultsibitatea (DSM)

Jaio aurreko eta osteko baldintzak (ordezeko zainketa eta edoskitze naturala)

1. AZPIESKALA: GARAPEN KOGNITIBOAREN ETA HIZKUNTZAREN GARAPENAREN ESTIMULAZIOA

- 1.1 Faktorea: Ikaskuntza estimulatzen diren materialak
- 1.2 Faktorea: Eguneroko partekatzen diren interakzioak
- 1.3 Faktorea: Irakurketa partekatuko interakzioak

2. AZPIESKALA: GARAPEN SOZIOEMOZIONALAREN ESTIMULAZIOA

- 2.1 Faktorea: Gurasoen sentikortasuna eta erantzuna
- 2.2 Faktorea: Neba-arreben arteko harremanen kalitatea
- 2.3 Faktorea: Mugak jartzea eta frustrazio optimoa
- 2.4 Faktorea: Autonomiaren indartzea

3. AZPIESKALA: INGURUNE FISIKOAREN ETA TESTUINGURU SOZIALAREN ANTOLAKETA

- 3.1 Faktorea: Testuinguru fisikoaren kalitatea
- 3.2 Faktorea: Aitaren edo erreferentziako bigarren figuraren inplikazioa eta kohesioa
- 3.3 Faktorea: Familia zabalarekiko eta lagunen zein zerbitzuen gizarte-sarearekiko harremanak.
- 3.4 Faktorea: Haurren gizarte-harremanen egonkortasuna eta gurasoen interesa horiekiko
- 3.5 Faktorea: Eskolarekiko harremanak
- 3.6 Faktorea: Eguneroko bizimoduaren antolaketa
- 3.7 Faktorea: Esperientzien aniztasuna
- 3.8 Faktorea: Gurasoen estresa
- 3.9 Faktorea: Familia-gatazkaren maiztasuna eta horren eraginpean egotea
- 3.10 Faktorea: Familia-gatazka konpontzea

4. AZPIESKALA: GARAPENA INDARTZEN DUEN GURASO-PROFILA

- 4.1 Faktorea: Guraso-autoeraginkortasuna
 - 4.2 Faktorea: Ingurunearen teoria inplizituak
-

Prozedura

Familia bakoitzak HEFCAS-6-DA eskala bete zuen etxean ikasturtearen hasieran (irail-urria). Aztertzaileak lehen hezkuntzako lehen mailako irakasleei eskalaren kopia eman

zien koaderno formatuan, familia bakoitzak bat etxera eraman zezan. Koaderno horretan betetzeko jarraibideak jasotzen ziren, baita aztertzailearekin harremanetan jartzeko datuak ere, familiek sor litekeen edozein zalantza argi zezaten. Gurasoek eskala norik betetzen zuten adierazi behar zuten gurutze baten bidez (kasu horretan, ama kasuen %43,3tan erantzun zuten, aitak %9,4tan, eta biek batera kasuen %47,2tan bete zuten). Behin galdera guztiak erantzunda, koaderno irakasleari eraman behar zioten bueltan, aztertzaileari itzul ziezaion. Eskala betetzeko aurreikusi zen denbora ordu bat eta erdi izan zen.

10.2. Emaitzak

Analisi estatistikoaren lehen urratsa jatorrizko tresnaren Varimax errotazioarekin faktore-analisi esploratzailea egitea izan zen, bai pisu faktorial gutxiko (<0.30) item guztiak eta bai faktore bakoitzaren fidagarritasuna (α koefizientea) arriskuan jartzen zutenak kentzeko. Analisi horren emaitzek bost azpieskala zeudela jarri zuten agerian, eta 58 item kentzearen egokitasuna erakutsi zuten.

Faktoreen egitura

Faktore-analisi esploratzailea egin eta gero, dagokion analisi berrestaila (FAB) egin zen tresnaren faktore-egitura baliozkotzeko, IBM SPSS Amos softwarearen 24. bertsioa erabiliz. Analisi horiek erakutsi zuten eskalaren jatorrizko egitura ez zela estatistikoki eusten, eta azpieskala orokorrak mantendu ziren arren, faktoreen eta itemen antolaketa asko aldatu zen. Izan ere, 5 azpieskala azaleratu ziren, hasierako bertsioan baino bat gehiago, 3. azpieskala (testuinguru fisikoaren eta testuinguru sozialaren antolaketa) bi azpieskala desberdinetan banatu baitzen. Bereizketa hori egin zen batuz, alde batetik, umearen parte-hartze zuzena eskatzen zuten faktoreak (aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioa, gizarte-harremanen egonkortasuna eta esperientzien aniztasuna), eta bestetik, zeharka eragiten zioten faktoreak, umearen parte-hartzea aktiboa izan gabe (testuinguru fisikoaren kalitatea, gurasoen estresa eta gurasoen gatazka). Jarraian ikusi ahal izango denez, banaketa horrek jatorrizko azpieskalaren doikuntza nabarmen hobetu zuen, non faktore guztiak sartzen ziren ($\chi^2 = 727.008$, $gl = 390$, $p = .000$, $CMIN = 1.864$, $CFI = .739$, $RMSEA = .083$). Eskalaren azken egitura 14. taulan erakusten da.

HEFCAS-6-DAREN egitura

AURRETIAZKO GAIAK

Aitaren eta amaren adina

Amaren eta aitaren hizkuntza nagusia.

Umearen hizkuntza nagusia eskola eremutik kanpo

Umearen eskolatzea

Arretaren sintomatologia eta inpultsibitatea (DSM)

Jaio aurreko eta osteko baldintzak (ordezko zainketa eta edoskitze naturala)

1. AZPIESKALA. GARAPEN KOGNITIBOAREN ETA HIZKUNTZAREN
GARAPENAREN ESTIMULAZIOA

1.1. Etxeko irakurketa-ohiturak

1. Etxean gurasoek irakurtzen dugu...
2. Umetan, etxean nengoenean irakurtzea maite nuen.
3. Etxean dagoenean gure umeak bere borondatez irakurtzen du...
4. Gure etxean irakurketa-ohitura sustatu ohi da (egunak astero):
5. Gure umeak irakurtzeko liburu berriak eskatzen dizkigu.
6. Gure umeak bere adinerako liburu eta ipuin egokiak irakurtzen ditu.
7. Etxean denbora ematen dugu umearekin irakurtzen.

1.2. Irakurketaren sustapena

8. Umearekin irakurtzen dugunean edukiak azaldu eta zabaltzen ditugu, ideiak edo marrazkiak deskribatzen ditugu.
9. Umearekin irakurtzen dugunean gauza zehatzak azaltzera edo deskribatzera animatzen dugu (adibidez, ideia bat deskriba dezan edo egoera bat konparatu edo orokortu dezan)
10. Hitz bat txarto ahoskatzen duenean, errepikatu egien diogu kontura dadin eta forma zuzena entzun dezan.
11. Irakurketa partekatua egiten dugunean, testuko ideiei buruz ari garenean, ideia horiek testuan atzamarrarekin seinalatzen ditugu.

1.3. Ikasteko materialak

12. Umea kulturari, historiari edo naturari buruzko DVDak edo dokumentalak ikustera animatzen dugu, TVE2an edo ETB1ean ematen dituztenen modukoak.
13. Etxean hiztegia dugu, elektronikoa (Internetekoa) edo paperezkoa, eta umeak etxeko lanak egiteko edo informazioa lortzeko erabiltzea sustatzen dugu.
14. Umearekin berak telebistan ikusten dituen programei buruz hitz egiten dugu.
15. Solasean gaudenean, umeari hitz berrien esanahia azaltzen diogu.

1.4.Jolasa

- 16.Umeari egiten dizkiogun oparien artean mahai-joko bat (oka, partxisa, dominoa, etab.) edo joko hezigarriren bat (puzzleak, oroimen-jokoak, etab.) sartzen saiatzen gara.
- 17.Umeak Internetera, hizkuntza edo oroimena garatzeko edo matematikak praktikatzeko joko hezigarriak dituzten orrialdeetara, sarbidea izan dezan saiatzen gara, beti ere gu gainbegirale garela.
- 18.Etxean xakean, dametan, partxisean edo mota horretako beste batzuetan jokatzeko dugu.
- 19.Eguneroko bizitzaren aukerak bilatzen ditugu matematikako kontzeptuak edo hizkuntza-trebetasunak praktikatzeko (adibidez, azokara bagoaz, 5 euroko billete batekin zenbat janari eros dezakegun galdetzen dugu), eragiketa matematiko errazak egin ditzan animatzen dugu (batuketak, kenketak, biderketak edo zatiketak) eta hitz berriak ere irakasten dizkiogu.
- 20.Umeari musika-mota desberdinak eta poesiak irakasten dizkiogu, eta asmakizunak proposatzen dizkiogu.

2. AZPIESKALA. GARAPEN SOZIOEMOZIONALAREN ESTIMULAZIOA

2.1. Frustrazio optimoa

- 21.Umea arazoak bere kabuz konpontzera animatzen dugu, adibidez, beste ume batzuekin dituen desadostasunak.
- 22.Umeak ondo ez dagoen zerbait egiten badu, argi eta berehala esaten diogu.
- 23.Umeari zergatik egin duen zerbait txarto eta zein den jokabide zuzena azaltzen diogu.
24. Umeari bere jokabidearen ondorio negatiboak buruz hausnartzen laguntzen diogu (“Ez zaudenez mahaian jaten, arropa zikindu duzu”, “hain zakarra zarenez, zure nebari/anaiari min egin diozu”).
- 25.Umeari gure haserrea adierazten diogu zerbait txarto egiten badu, eta gure alaitasuna zerbait ondo egiten duenean.
- 26.Umeari txanda errespetatzen irakasten diogu, bai hitz egiteko bai jolasteko.
- 27.Umeari zerbait gustatzen ez bazaio edo txarto iruditzen bazaio esan diezagula eskatzen diogu.

2.2. Autoestimua

- 28.Etxean gure emozioak eta maitasuna umeari aurrean adierazten dugu naturaltasunez.
- 29.Umea triste dagoenean gure babesa ematen diogu eta bere larritasunaren zergatia adierazten laguntzen diogu.
- 30.Umearekin eskolan nola joan zaion eguna komentatzen dugu eta lagunekin dituen harremanak buruz hitz egiten dugu.
- 31.Umeak zerbait ondo egiten badu, aitortzen diogu eta esplizituki balioesten dugu.
- 32.Umeak egiten dituen marrazkiak edo lanak gordetzen ditugu.
- 33.Umeari ikaskuntzarako edo jolaserako helmuga egingarriak ezartzen laguntzen diogu.
- 34.Umea motibatzen dugu talde-jardueretan parte har dezan (jolas-, kirol-

edo kultura-jarduerak ...), eta beste pertsona batzuen jarduerak egiten bere borondatez lagun dezan, adibidez, beste batzuei eskolako lanak egiten lagunduz.

2.3. Hezkuntza-molde demokratikoa

35. Umeak haserrealdiren bat badu, irmo eusten diogu.
36. Gure umeari hasiera batean etxeko edo eskolako lan bat egitea kostatzen bazaio ere, bere ahalegina eta autonomia sustatzen dugu (adibidez, egunero ohea lantzea).
37. Egiteko gai denetik abiatuta, umeari pixka bat zailagoa den zerbait egiten laguntzen diogu, eta gero bakarrik egiten uzten diogu.
38. Umeari zer arropa jantziko duen erabakitzen uzten diogu.
39. Umeak lan bat egitea nahi badugu, egin gabe gera dadila uzteko gai gara berak egin dezan itxaroteko. Adibidez, bere lana ohea lantzea bada, eta ezetz esaten badu ez duelako gogorik, landu gabe uzten dugu ondorioetan pentsa dezan.
40. Funtzionamendu-arau argiak eta egonkorrak ezartzen eta betearazten ditugu (bazkaltzeko ordua, bainatzekoa, jolastekoa, telebistaren eta ordenagailuaren erabilera...).
41. Gure umeak eguneroko bizitzako erantzukizun txikiren bat du ezarrita, hala nola, mahaia ipini eta batu, bere arropa prestatu edo beste edozein.

3. AZPIESKALA. TESTUINGURU SOZIAL ZUZENAREN ANTOLAKETA

3.1. Aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioa

42. Aitak edo erreferentziako 2. figurak umearekin jolasteari denbora eskaintzen dio.
43. Umea txarto portatzen denean aita edo erreferentziako 2. figura ere arduratzen da bere jokaera kontrolatzeaz.
44. Aitak edo erreferentziako 2. figurak aktiboki hartzen du parte etxeko lanetan.
45. Aita edo erreferentziako 2. figura eskolako bileretara joaten da.
46. Aitak edo erreferentziako 2. figurak haurdunaldian zehar inplikazioa erakutsi zuen.
47. Ama eta aita edo erreferentziako 2. figura arauen gainean ados egoten gara umeari adierazi aurretik.
48. Ama aitaren edo erreferentziako 2. figuraren aldetik ondo babestuta sentitzen da hazkuntza-zereginei dagokienean.

3.2. Gizarte-harremanen egonkortasuna

49. Lagun batzuekin irteten garenean, umeak ere gurekin eramaten ditugu.
50. Gure umeak bere neba-arrebekin, lehengusu-lehengusinekin edo beste ume batzuekin jolasten du parkean, gure etxean edo besteenean.
51. Umeari bere lagunekin egoten uzten diogu eskola ordutegitik kanpo.
52. Gure umearen lagunak etxera gonbidatzen ditugu.
53. Umeari bere lagunak etxera joaten uzten diogu.

3.3. Esperientzien aniztasuna

54. Astero umearekin etxetik kanpo jarduerak partekatzeko denbora hartzen dugu.

55. Joan den urtean zehar gure herritik kanpo joan ginen paseatzera edo txango bat egitera.
56. Iaz umeentzako ikuskizunetara joan ginen umearekin (antzerkera, pailazoak ikustera, zirkura edo beste batzuk).
57. Umeak zaletasun propioak edukitzea sustatzen dugu eta horretan laguntzen diogu, adibidez, kromoen eta txanponen bildumak egitea, trenen maketak egitea, etab.
58. Ahal dugunean, umea ekitaldi kultural tradizionaletara eramaten dugu (dantza tipikoak, folklore-ekitaldiak...) edo/eta zientzietako edo historiako museo batera.
59. Hilean zehar umea liburutegira joaten da (ikasgelako edo eskolako liburutegia eta liburutegi publikoa barne...).
60. Umea mendialdera eramaten dugu naturaz goza dezan edo zuhaitz bat landatzea zein animaliak ikustea bezalako esperientziak izan ditzan.

4. AZPIESKALA. INGURUNE FISIKOAREN ETA ZEHARKAKO TESTUINGURU SOZIALAREN ANTOLAKETA

4.1. Testuinguru fisikoaren kalitatea

61. Umeak idazmahai bat edo irakurtzeko, etxeko lanak egiteko eta ikasteko aproposa den gune bat erabiltzea errazten dugu.
62. Gure etxeko gelak altzariei dagokienez honela daudela uste dugu:...
63. Umeak lan egiteko gune lasaia du, ikasteko eta etxeko lanak egiteko.
64. Gure familian etxea ordenatuta edukitzen dugu.

4.2. Gurasoen estresa

65. Gure umea zaindu behar izateak daukaguna baino denbora eta indar gehiago eskatzen digula sentitzen dugu.
66. Umearen jokaerak estresa sortzen digu.
67. Gure umearen etorkizunean pentsatzeak eta lagundu ezin izateak kezkatzen gaitu.
68. Gure umearekin gaudenean ez dugula lasai egotea lortzen sentitzen dugu.
69. Azken bi urteetan gure familia-bizitzan gertaera negatiboak egon dira (senideen heriotza, ebakuntzak, langabezia, etab.).

4.3. Gurasoen gatazka

70. Gure kasuan, bikote bezala eztabaidatzen dugu...
71. Gure eztabaidak oihuetara heltzen dira.
72. Gure eztabaidak berotu egiten dira eta irainetara eta mehatxuetara heltzen dira.
73. Umearen aurrean eztabaidatzen dugu.
74. Umeak eztabaidaren batean elkarri irainak esan dizkiogula ikusi du.
75. Liskarren edo eztabaidaren baten ondoren atsekabea, frustrazioa eta ezintasuna sentitzen dugu.
76. Liskar bat dugunean, akordio batera heltzeko negoziatzea nahikotxo kostatzen zaigu.
77. Liskar bat dugunean biok saiatzen gara gure aldetik jartzen norbere interesak eta bikotearenak asetzeko.

5. AZPIESKALA. GARAPENA INDARTZEN DUEN GURASO-PROFILA


5.1. Guraso-autoeraginkortasuna

- 78. Gure umeari ematen ari gatzazkion hazkuntzan pentsatzean estutasuna sentitzen dugu.
- 79. Zailtasunen bat dagoenean, gure umearekin zer egin erabakitzea kostatzen zaigu (adibidez, nola zuzendu bere jokaera txarra, zainketa gurasoek lan egiten badute, etab.).
- 80. Benetan izan nahiko genukeen guraso-mota ez garela sentitzen dugu.
- 81. Gure umea lasaitzeko gai garela uste dugu, berak behar duenean.
- 82. Pozik eta lasai gaude gure umearen heziketarekin.
- 83. Umeak dituen arazoak ulertzea konplexua iruditzen zaigu.
- 84. Erraza iruditzen zaigu gure umearen jokaera bere adinerako espero litekeenaren arabera den jakitea.

5.2. Garapen psikologikoaren ezagutza


- 85. Gure umearen adineko hurrek gurasoekiko eta familiarekiko pixka bat independenteagoak izatea gero eta garrantzitsuagoa dela sentitzen dute.
- 86. Adin horretako ume batek bere sentimenduei eta emozioei hitzak jartzeko gai izan beharko luke.
- 87. Adin horietan, forma aldatu arren kopurua berdin mantentzen dela konturatzeko gai dira. Adibidez, plastilinazko bi bola berdin-berdinak aurkezten badira, eta bere aurrean bietako bat "txurro" bat egin arte zapaltzen bada, umeak plastilina kantitate bera dagoela erantzungo du, forma desberdina izan arren.
- 88. Adin horretan umeek hipotesiak edo/eta teoriak adierazteko eta egiaztatzeko gai izan beharko lukete.
- 89. Adin horretan umeek pentsamendu abstraktua erabiltzeko gai izan beharko lukete, adibidez, zuzen identifikatzea zertan datozen bat eulia eta zuhaitza.

Lehen azpieskalan lau faktore azaleratu ziren: etxeko irakurketa-ohiturak (7 itemekin), irakurketaren sustapena (4 itemekin), ikasteko materialak (4 itemekin) eta jolasa (5 itemekin). Azpieskala horren doikuntza ona izan zen ($\chi^2 = 213.232$, $gl = 161$, $p = .004$, $CMIN = 1.324$, $CFI = .878$, $RMSEA = .051$) eta item bakoitzak faktoreari egiten dion ekarpena 12. irudian ikus daiteke.




12. irudia. 1. azpieskalaren faktore-analisi berrestaila.

Bigarren azpieskala hiru faktorez osatuta zegoen: frustrazio optimoa, autoestimua eta hezkuntza-molde demokratikoa, guztiak 7 itemekin. Kasu horretan ere, azpieskalaren doikuntza ona izan zen ($\chi^2 = 233.460$, $gl = 183$, $p = .007$, $CMIN = 1.276$, $CFI = .908$, $RMSEA = .047$), eta itemek faktore bakoitzari egin zioten ekarpen independentea 13. irudian ikus daiteke.




13. irudia. 2. azpieskalaren faktore-analisi berrestaila.

Hirugarren azpieskalari dagokionez, testuinguru sozialaren antolaketari buruzko hiru faktore bildu zituen: aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioa (7 itemekin), gizarte-harremanen egonkortasuna (5 itemekin) eta esperientzien aniztasuna (7 itemekin). Azpieskalaren doikuntzari dagozkion balioak egokiak izan ziren ($\chi^2 = 192.603$, $gl = 142$, $p = .003$, $CMIN = 1.356$, $CFI = .913$, $RMSEA = .053$), eta item bakoitzari dagozkion zama faktorialak 14. irudian jasotzen dira.




14. irudia. 3. azpieskalaren faktore-analisi berrestaila.

Laugarren azpieskalak, bere aldetik, doikuntza ona erakutsi zuen ($\chi^2 = 142,93$, $gl = 112$, $p = .026$, $CMIN = 1.276$, $CFI = .951$, $RMSEA = .047$) hiru faktoretarako: testuinguru fisikoaren kalitatea (4 itemekin), gurasoen estresa (5 itemekin) eta gurasoen gatazka (8 itemekin). Item bakoitzaren ekarpena 15. irudian agertzen da.



15. irudia. 4. azpieskalaren faktore-analisi berrestaila.

Azken azpieskalan bi faktore azaleratu ziren, zehazki, guraso-autoeraginkortasuna (7 itemekin) eta garapen psikologikoaren ezagutza (5 itemekin). Azpieskala horri dagokion doikuntza ere ona izan zen ($\chi^2 = 69.29$, $g = 52$, $p = .05$, $CMIN = 1.333$, $CFI = .945$, $RMSEA = .051$), item bakoitzaren ekarpen independentea 16. irudian ikus daiteke.



16. irudia. 5. azpieskalaren faktore-analisi berrestaila.

Barne-tinkotasuna

Barne-tinkotasunari buruzko Cronbach-en alfa koefizienteak 15.taulan agertzen dira. Ikus daitekeenez, alfa koefizientea .53 eta .83 balioen artean dago, horietako gehienak .60tik gorakoak izanik. Azpieskala bakoitzaren alfa puntuazio globalek balio onak adierazten dituzte (.77, .81, .76, .75 eta .71), bat eta hiru azpieskalak osatzen dituzten bi faktore (.55 eta .53, hurrenez hurren) bakarrik izanik fidagarritasun gutxiko indizeak erakusten dituztenak.

15. taula

Bost azpieskaletako Cronbach-en Alfa Koeffizientea eta Dagozkion Faktoreak

Azpieskalak eta faktoreak	α
1. AZPIESKALA. GARAPEN KOGNITIBOAREN ETA HIZKUNTZAREN GARAPENAREN ESTIMULAZIOA	.77
1.1. Etxeko irakurketa-ohiturak	.77
1.2. Irakurketaren sustapena	.67
1.3. Ikasteko materialak	.55
1.4. Jolasa	.60
2. AZPIESKALA. GARAPEN SOZIOEMOZIONALAREN ESTIMULAZIOA	.81
2.1. Frustrazio optimoa	.75
2.2. Autoestimua	.71
2.3. Hezkuntza-molde demokratikoa	.61
3. AZPIESKALA. TESTUINGURU SOZIAL ZUZENAREN ANTOLAKETA	.76
3.1. Aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioa	.78
3.2. Gizarte-harremanen egonkortasuna.	.76
3.3. Esperientzien aniztasuna	.53
4. AZPIESKALA. INGURUNE FISIKOAREN ETA ZEHARKAKO TESTUINGURU SOZIALAREN ANTOLAKETA	.75
4.1. Testuinguru fisikoaren kalitatea	.62
4.2. Gurasoen estresa	.62
4.3. Gurasoen gatazka	.83
5. AZPIESKALA. GARAPENA INDARTZEN DUEN GURASO-PROFILA	.71
5.1. Guraso-autoeraginkortasuna	.75
5.2. Garapen psikologikoaren ezagutza	.69

10.3. Ondorioak

HEFCAS-6-DA tresnaren garapen- eta baliozkotze-prozesuan lortutako emaitzei begiratuta, faktore-analisi esploratzaileak eta ondoren, analisi berrestaileak, jatorrizko egituraren aldaketa nabarmenak ekarri zituztela ondoriozta daiteke. Izan ere, 58 item kentzea eta testuinguru fisikoaren zein sozialaren antolaketari buruzko azpieskala bitan banatzea egokia zela ikusi zen; horrela, behin betiko bertsioan bost azpieskala azaleratu ziren. Azpieskala horiek batzen dituzte, hurrenez hurren, garapen kognitiboaren eta hizkuntzaren garapenaren estimulazioari (1. azpieskala), garapen sozioemozionalaren estimulazioari (2. azpieskala), testuinguru sozial zuzenaren antolaketari (3. azpieskala), zeharkako ingurune fisikoaren eta sozialaren antolaketari (4. azpieskala) eta garapena indartzen duen guraso-profilari (5. azpieskala) lotutako faktoreak. Hala, 3. eta 4. azpieskalen arteko alderik nagusia honetan datza: 3. azpieskalak gizarte-harremanen kalitatearekin erlazionatutako faktoreak hartzen ditu barnean, hain zuzen, umearen testuinguru sozial hurbila osatzen duten harremanena (adibidez, hazkuntzako bigarren figurarekin duen harremana, bere gizarte-harremanen egonkortasuna eta familian egindako jardueren aniztasuna); 4. azpieskalak, ordea, familiak umeari egonkortasun fisikoa eta psikologikoa emateko duen gaitasunarekin lotutako faktoreak hartzen ditu, testuinguru fisiko egokia eta estresik zein gatazkarik gabeko harremanak eskainiz.

Orokorrean, lortutako tresnak doikuntza ona erakutsi zuen, eta horrek adierazten du familia-testuinguruaren aldakortasunarekiko sentikorra dela eta, gainera, alfa koefizientearen bidez kalkulaturako fidagarritasun-indizeak onargarriak izan ziren eskaletako bakoitzarentzat, bat eta hiru azpieskaletako bi faktorek (ikasteko materialak eta esperientzien aniztasunak, hurrenez hurren) erakutsi zuten balioa eskas samarra izan zen arren. Arrazoi bat izan daiteke faktore horiek pisu gutxiago izatea adin horretako umeen familiaren antolaketan gainerako faktoreekin alderatuta. Beste arrazoi bat erantzunen aldakortasun handiagoan egon liteke, konstruktua espezifikoa bat antzemateko itemen gutxiegitasuna dela eta. Izan ere, faktore horien desbideratze tipikoak handiagoak dira azpieskala bera osatzen duten faktoreena baino (1. azpieskalako faktoreen $DTa = 1,4$ vs. MA faktorearen $DTa = 1,62$; 3. azpieskalako faktoreen $DTa = 1,25$ vs. DE faktorearen $DTa = 1,5$). Baina horrek ez du esan nahi itemak baliogabeak direnik, horiek kentzeak eskalaren egituraren doikuntzan eragin negatiboa baitu.

Edozelan ere, aldagaiek faktoreetan positiboki kargatzen dute, gurasotasun positiboaren curriculum sarreran aipaturako gako-aldagaien arabera mugatuz. Adibidez, 1

eta 4 bitarteko faktoreetan positiboki kargatzen duten aldagai guztiek etxeko irakurketa- eta hizkuntza-ohituren alderdiak islatzen dituzte, eta lau faktoreen inguruan biltzen dira: etxeko irakurketa-ohiturak, gurasoen aldetik irakurketa sustatzea, ikasteko materialak eta etxeko jolas-jokabideak. Beste alde batetik, garapen sozioemozionalari lotutako item guztiak frustrazio optimoari, autoestimuari eta hezkuntza-molde demokratikoari dagozkien hiru faktoreen inguruan biltzen dira. Testuinguru fisikoa eta soziala irudika dezakeen faktore bat dagoeneko hipotesia, itemak faktore horien inguruan bi maila bereizitan biltzen direla frogatzen duen ebidentzian oinarritzen da.

Bi maila horietan bereizten dira, alde batetik, testuinguru sozial zuzena neurtzen duten faktoreen inguruan biltzen diren itemak, eta bestetik, testuinguru fisiko eta sozialaren kalitatea zeharka neurtzen duten faktoreen inguruan biltzen direnak. Faktore horiek bi azpieskalatan, eta ez azpieskala bakarrean, biltzen direla esan da, eta horren arrazoia izan daiteke HEFCAS-6-DA eskalan txertatutako item kopurua handitu izana, hizkuntzaren garapenari lotutako aldagai espezifikoak antzemateko. Baliteke horrek aldakortasun handiagoa eta itemak konstruktuko espezifikoagoen inguruan—azpieskala gehiagotan islatuta— biltzeko aukera sortu izana. Azkenik, item multzo bat guraso-autoeraginkortasunaren pertzepzio-maila eta umearen garapen psikologikoaren ezagutza-maila islatzen duten bi faktoreen inguruan biltzen da. Faktore horiek gurasotasun positiboaren curriculumaren barruan garapena indartzen duen guraso-profil bezala sailkatuko genukeenaren barruan sartuko lirateke. Profil hori jatorrizko eskaletan ere badago.

Ikuspuntu kualitatibotik, tresna berriak bidea ematen du ebaluatutako familiak proposatutako lau dimentsioei dagozkien kontinuuetan kokatzeko: *tratu ona*, familiek lotura egonkorrak sustatzen dituztenean eta frustrazio optimoa praktikan jartzen dutenean; *garapenaren sustapena*, familiek garapena eraginkortasunez estimulatzen dutenean eta zaintzaileek profil egokia dutenean; *gurasotasuna indartzeko ekologia* familiek gizarte-sare sendoak dituztenean eta estresa zein gatazka egokitzapenez kudeatzen dituztenean; eta azkenik, *egitura*, familiek eguneroko bizitza antolatzeko errutinak ematen dituztenean. Azken hori, gako-aldagai bezala identifikatu du guraso-hezkuntzaren eta hazkundearen arloko literatura zientifikoak (Spagnola eta Fiese, 2007; Reay, 2019). Errutinek garrantzia dute familia-testuinguruaren kalitateari sendotasuna ematen diotelako; hala ikuspuntu positibotik, nola negatibotik, umeen garapenean arrasto esanguratsua uzten dutenak dira, hain zuzen, errepikatzen diren—eta ondorioz, subjektuak modu iraunkorrean barneratzen dituen— interakzioak. Gainera, errutinei zeharkako izaera edo izaera inklusiboa gehitzen bazaie,

guraso-gaitasunen arlo guztiei eragiten diela egiaztatzen da, eta ondorioz, familia-testuinguruaren kalitatea neurtzeko funtsezko irizpide diagnostiko bihurtzen dira. Hain justu, ikerketa honetan aurkezten den galdetegiaren pareko galdera-sorta batek, hots, maiztasun-
eskala erabiltzen duen galdetegi batek, errutina egonkorak identifikatu eta kuantifikatu nahi ditu familia-testuinguru egituratua deritzonaren adierazle enpiriko bezala. Azkenik, azpimarratu behar da errutinak ezartzea gurasotasunaren inguruko edozein programaren giltzarria dela, eta bereziki, garapenean atzeratasuna duten umeen populazioari zuzendutako gurasotasun-programena (Arranz et al., 2016; Ibañez et al, 2018).

11. KAPITULUA: Familia-testuinguruaren eragina hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean

Bederatzigarren kapituluan aurkeztu diren emaitzek hizkuntza-sistema eraginkorraren garapenean inplikaturako prozesuen artean mailakako eboluzioaren moduko erlazioa (ikus *Kail*, 2000; *Fry eta Hale*, 1996, 2000) zegoela egiaztatu zuten. Kapitulu horretan aurkeztutako ereduak hiru mailatan elkarri eragiten dioten aldagaien arteko erlazio iragarlea erakutsi zuen: lehen mailan, adin oso goiztiarretan garatzen diren oinarritzko prozesuak egongo lirateke, prozesatze-abiadura, arreta eta lan-oroimena bezala. Bigarren mailak, bere aldetik, izaera fonologikoko prozesuak hartuko lituzke (ezagutza fonologikoa eta iraupen laburreko oroimen fonologikoa). Azken maila ezagutza linguistikoa ingurukoa litzateke, eta lexikoaren zein hiztegiaren ezagutzari, gramatika harkorrari eta adierazpen-hizkuntzari buruzko neurriak hartuko lituzke.

Eredu horren arabera, oinarritzko prozesuak funtsezkoak dira trebetasun fonologikoak garatzeko. Hala ere, lan-oroimena arretak eta prozesatze-abiadurak prozesu fonologikoetan duten eraginaren bitartekari izango da. Aldi berean, azken horiek ezagutza linguistikoa bere osotasunean gara dadin hil ala bizikoak izango dira. Hortaz, oinarritzko prozesuen papera oso garrantzitsua da hizkuntza-sistemaren euskarria izango diren oinarriak eraikitzeke: trebetasun fonologikoak. Trebetasun horiek hiztegia eta gramatika-arauak eskuratzea ahalbidetuko dute gerora, azken finean, horiek direlako adierazpen-hizkuntza garatzeko bidea ematen dutenak. Aurkikuntza hori urte bat geroago lortutako emaitzekin indartzen da, patroiek mailakako erlazioa edukitzen jarraitzen baitute, oinarritzko prozesuek hizkuntza-sisteman pisu gutxiago hartzen duten arren, prozesu fonologikoen alde eginez. Familia-testuinguruako aldagai batzuek prozesuetan eduki dezaketen eragina ikusita, lan honen azken helburua hau da: HEFCAS-6-DA eskalako faktoreen—hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean esanguratsuak izan daitezkeen familia-testuinguruaren alderdi espezifikoak islatzen dituztenen—eta mailakako eredu kognitiboan identifikaturako hizkuntza- zein irakurketa-prozesu eta trebetasunen arteko erlazioa aztertzea.

6. eta 10. kapituluetan deskribaturako lanekin bat etorritik, literaturak hainbat ebidentzia eman ditu ikertzen ari diren prozesu eta trebetasunak sustatzeko gakoa izan daitezkeen testuinguru-aldagai batzuen inguruan. Irakurketaren eta hizkuntzaren sustapen zuzenarekin erlazionaturako aldagaietatik harago, familia-ingurunearen ekologiari eta eraginkortasunaren pertzepzio subjektiboari lotutako aldagaiek trebetasun horietan inplikaturako prozesuen

garapena modula dezakete. Adibidez, Jones-ek eta Prinz-ek (2005) edo Shumow-ek eta Lomax-ek (2002) emandako ebidentziekin bat, guraso-autoeraginkortasunak oinarrizko prozesuetan eragin lezake, autoeraginkortasunaren pertzepzio baxuak gurasoen inplikazioa eta monitorizazioa gutxitzera, baita sendotasunik gabeko hezkuntza-jardunbideak erabiltzera ere eraman dezakeelako; horrek hizkuntzaren eta irakurketaren garapenari eragin diezaioke eta, azken finean, lorpen akademikoari. Aldagai hori estresari (familia-testuinguruko aldagaia, umearen garapenean ere eragiten duena) oso estu lotuta dago. Benedetto-k eta Ingrassia-k (2017) erakutsi zuten bezala, guraso-autoeraginkortasunaren pertzepzio altua edukitzeak estresaren eragin negatiboetatik babes dezake. Baina estresak ez du ezinbestean negatiboa izan behar, continuum bat bezala kontzeptualiza baitaiteke, hain zuzen, estres-maila osasuntsu eta garapen-sustatzaileen (garapen normatiboaren parte diren estres-egoerak, heldu baten figurarekin konpontzen direnak) eta estres-maila toxikoen (kalitateko interakzioak ezartzea oztopatu eta umearen garapen normalerako ondorio negatiboak dituztenak) artean mugituz (Jacob et al., 2018). Ikerketa multzo handi batek ondorio horiek umeen garapen kognitiboan duten garrantzia aztertu du, familia-tentsioarekin batera, nabarmenago eragin lezakitelako oinarrizko prozesuetan edo irakurketaren zein hizkuntzaren azpian dauden mekanismoetan, horietan eragin goiztiarra dutelako.

Adibidez, Bernier et al. (2012) familia-tentsioaren eta estresaren papera aztertzen aritu ziren, luzetarako ikerketa batean, 12 hilabetetik 3 urtera arteko umeen familietan. Autore horiek frogatu zutenaren arabera, familia-tentsioak negatiboki eragiten du, bai hizkuntza eta irakurketa, eta bai trebetasun akademikoak modu egokian gara daitezten beharrezkoak diren funtzio exekutiboen garapenean. Antzeko lanek adin goiztiarrean familia-estresak hizkuntzaren garapenean duen papera erakutsi dute. Noel-ek et al. (2016) egindako ikerketa batean, autoreek erakutsi zuten familia-tentsio maila altuak haur-hiztegiari negatiboki eragiten diola 2 eta 4 urteen bitartean. Hortaz, emaitza horiek eta Gooch-ek et al. (2016) lortutakoak—non 6 eta 7 urteen artean funtzio exekutiboek hizkuntza-zailtasunak iragartzen zituztela frogatzen zen—kontuan hartuta, estresak eta familia-tentsioak oinarrizko prozesuen gainean duten eragina adin berantiaragoetara ere hedatzen den aztertzea interesgarria da. Hala, eskolatzeko hasierako adinetan familia-testuingurua hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean bitartekari izango litzatekeen azter liteke.

Era berean, aitaren edo erreferentziatzko bigarren figuraren inplikazio-maila hazkuntzan, umeari eskainitako esperientzien aniztasuna eta etxeko testuinguru fisikoaren kalitatea bezalako aldagaiak haur-hizkuntzaren garapenean eragin lezakete (ikus Arranz et

al., 2005; Lamb, 2004; Lamb eta Lewis, 2013). Azkenik, jolas-esperientziek, interakzioen aberastasunak, afektuak, hezkuntza-molde demokratikoa erabiltzeak edo adin goiztiarretan frustrazio optimoa sustatzeak erlazio handiagoa izan lezakete geroko hiztegiarekin eta hizkuntza orokorrarekin (Dickinson eta Porche, 2011; Shroeder eta Kelly, 2009; Hammer et al., 2001); aitzitik, liburuen eraginpean egoteak, etxeko irakurketa-esperientziek eta irakurketa-ohiturek bai hizkuntzan eta bai ondorengo deskodetze-prozesuan eragin lezakete (Conlon et al., 2006; van Bergen et al., 2015).

11.1. Analisi deskribatzaileak

HEFCAS-6-DA eskalaren bidez bildutako aurretiazko gaiei buruzko analisi deskribatzaileak 16. taulan aurkezten dira. Ikerketan parte hartu duten umeen artean dagokienez, horien adina 30 eta 50 urteen artean dago ($m = 40,17$, $DT = 3,53$) eta gehiengoen ama-hizkuntza gaztelania zen (%66,9); %29,9k euskara identifikatu zuen ama-hizkuntza bezala eta gainerako %2,4ak beste hizkuntza desberdin bat. Aitei buruzko datuek, bestalde, adina 33 eta 55 urteen artean zegoela erakutsi zuten ($m = 42,15$, $DT = 3,90$), eta berriz ere gaztelania zen ama-hizkuntza nagusia (%68,5). Bestalde, aiten %28,3k euskara ama-hizkuntza zela adierazi zuen, eta % 2,4k beste hizkuntza bat identifikatu zuen ama-hizkuntza bezala.

Edoskitze naturala eta ordezkoi zainketa dela eta, biak sei puntuko Likert eskala batekin neurtu ziren, 1 puntuazio baxuena eta 6 puntuazio optimoa izanik aldagaietako bakoitzean. Ikus daitekeenez, ordezkoi zainketa balioak edoskitze naturalarenak baino hobeak izan ziren, azken horren aldakortasuna handiagoa izanik. Asimetriari eta kurtosiari buruzko indizeek, bestalde, datuak kurba normalari jarraiki banatzen direla erakutsi zuten.

16. taula

HEFCAS-6-DA eskalan dauden Aurretiazko Gaien Datu Deskribatzaileak.

Aurretiazko gaiak	Batezbestekoa	DT	Asimetria	Kurtosia
Ordezko zainketa	4,78	1,59	-1,25	0,31
Edoskitze naturala	3,68	2,08	-0,12	-1,65
Aitaren adina	42,15	3,90	0,25	0,23
Amaren adina	40,17	3,53	0,10	0,13
	Euskara	Gaztelania	Beste bat	
Amaren ama-hizkuntza	29,9%	66,9%	2,4%	
Aitaren ama-hizkuntza	28,3%	68,5%	2,4%	

Beste alde batetik, HEFCAS-6-DA eskala osatzen duten bost azpieskaletako faktore bakoitzaren datu deskribatzaileak kalkulatu ziren, 17. taulan ikus daitezkeenak. Neurtzeko eskala sei puntukoa izan zela kontuan hartuta, azpimarratu behar da faktore guztiek hirutik gorako puntuazioak eman zituztela, eta horrek adierazten du parte hartu zuten familiek umeen hazkuntzan dinamika positiboak ezartzen dituztela. Izan ere, puntuazio hobek eta erantzunetan aldakortasun txikiagoa izan zituzten faktoreek frustrazio optimoa ($m = 5,45$; $DT = 0,58$) eta autoestimua ($m = 5,36$; $DT = 0,76$) neurtzen zituzten; aitzitik, puntuazio baxuenek aldakortasun askoz handiagoa erakusten zuten, eta etxean ikasteko materialek duten presentzia ($m = 3,67$; $DT = 1,62$) eta umeen garapen psikologikoaren inguruko ezagutza ($m = 3,91$; $DT = 1,39$) ebaluatzen zutenak izan ziren. Banaketa dela eta, asimetria eta kurtosi indizeek datuak kurba normalari jarraiki banatzen direla erakutsi zuten.

17. taula

HEFCAS-6-DAREN Azpieskalak Osatzen dituzten Faktoreetako Bakoitzaren Datu Deskribatzaileak.

Azpieskalak eta faktoreak	Batezbestekoa	DT	Asimetria	Kurtosia
1. AZPIESKALA				
Irakurketa-ohiturak	4,11	1,55	-0,30	-1,00
Irakurketaren sustapena	4,54	1,49	-0,97	0,04
Ikasteko materialak	3,67	1,62	-0,06	-1,12
Jolasa	4,02	1,44	-0,17	-0,86
2. AZPIESKALA				
Frustrazio optimoa	5,45	0,58	-1,23	0,88
Autoestimua	5,36	0,76	-1,37	1,44
Hezkuntza-molde demokrat.	4,42	1,29	-0,66	-0,32
3. AZPIESKALA				
Aitaren edo hazkuntzako 2. figuraren inplikazioa	4,99	1,22	-1,37	1,33
Gizarte-harreman. egonkor.	4,53	1,33	-0,40	-0,93
Esperientzien aniztasuna	4,75	1,49	-0,96	-0,17
4. AZPIESKALA				
Inguru fisikoaren kalitatea	4,86	1,21	-0,82	-0,13
Gurasoen estresa	4,20	1,55	-0,67	-0,44
Gurasoen gatazka	4,61	1,41	-0,94	0,16
5. AZPIESKALA				
Guraso-autoeraginkortasuna	4,73	1,19	-1,09	0,85
Garapen psikologikoaren ezagutza	3,91	1,39	-0,29	-0,83

11.2. Familia-testuinguruak hizkuntza- eta irakurketa-prozesuetan duen eraginaren analisia.

Behin eskalaren egitura ezarrita, egitura-ekuazioko ereduak analisiak egin ziren (EEE) HEFCAS-6-DAREN bost azpieskalak osatzen dituzten faktoreetako bakoitzaren eta aurreko kapituluetan, bi ebaluazio-aldietan (T1 eta T2), aztertu diren hizkuntza-trebetasun desberdinen

artean. Eskalak lagin normatiboan umeen hizkuntza-trebetasunen garapena iragartzeko zuen gaitasuna balioestea zen helburua. Nabarmendu behar da oinarrizko prozesuen (arreta eta prozesatze-abiadura) eta familia-aldagaien arteko loturak ez zirela esanguratsuak izan kasu batean ere ez (p guztiak $>.05$), hortaz, β koefizienteak eta horien p balioak ez ziren sartu 18. taulan (beherago aurkezten da).

Ikus daitekeenez, familia-testuinguruko aldagai batzuek erlazio iragarle esanguratsuak erakutsi zituzten izaera fonologikoko prozesuekiko, hain zuzen, 8. kapituluko emaitzen atalean deskribatutako eredu kognitiboaren bigarren mailari dagozkion prozesuekiko. Zehazki, T1eko lan-oroimenaren eta esperientzien aniztasunari buruzko faktorearen artean erlazio iragarle esanguratsua dagoela ikus daiteke ($\beta = -.27$, $p = .04$). Aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioaren faktorean sartzen diren itemek iraupen laburreko oroimen fonologikoa iragarri zuten T1ean ($\beta = .22$, $p = .04$) eta T2an ($\beta = .24$, $p = .03$); gurasoen estres-mailak ere trebetasun horrekin erlazio iragarlea erakutsi zuen ($\beta = -.26$, $p = .03$). Azkenak ezagutza fonologikoa ere iragarri zuen T1ean ($\beta = -.39$, $p = .00$) baita ADHNari lotutako sintomatologia ere ($\beta = -.43$, $p = .00$), eta horrek, aldi berean, guraso-autoeraginkortasunari dagokion faktorearekin erlazio iragarlea erakutsi zuen ($\beta = -.31$, $p = .00$).

Ezagutza linguistikoari erreferentzia egiten dioten aldagaiak direla eta, T1eko adierazpen-hizkuntzaren eta irakurketa sustatzen duten faktoreen ($\beta = .24$, $p = .04$), aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren ($\beta = .31$, $p = .00$) eta hezkuntza-molde demokratikoaren ($\beta = .26$, $p = .03$) artean erlazio iragarle esanguratsuak zeudela egiaztatu zen. Azken horrek, gainera, T1eko hiztegi harkorra iragarri zuen ($\beta = -.35$, $p = .00$). Beste alde batetik, jolasari buruzko faktoreek ($\beta = .34$, $p = .01$), etxeko irakurketa-ohiturei buruzkoek ($\beta = .22$, $p = .05$) eta guraso-autoeraginkortasunari buruzkoek ($\beta = .24$, $p = .03$) umeen gramatika harkorraren maila iragarri zuten T2an. Nabarmendu behar da testuinguru fisikoaren kalitatea ebaluatzen duen faktorea bi aldietan trebetasun bat iragarri zuen bakarra izan zela, zehazki, esaldien errepikapena, barneratutako ezagutza linguistikoaren neurria dena ($\beta = -.31$, $p = .00$ eta $\beta = -.29$, $p = .00$, hurrenez hurren).

18. taula

HEFCAS-6-DA eskalak Ebaluatutako Familia-testuinguruko Aldagaien eta Neurri Linguistikoen arteko Erlazio Iragarleak T1ean eta T2an. Lagin normatiboa.

Irakurketa-ohiturak				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.12	.27	.06	.56
Gramatika harkorra	.14	.19	.22	.05*
Esaldiak gogoratzea	.08	.46	.08	.45
Adierazpen-hizkuntza	.15	.17	.07	.53
Lan-oroimena	.18	.09	-.15	.17
Ezagutza fonologikoa	.07	.51	-.10	.37
Iraupen labur. oroimen fonolog.	.20	.07	.02	.83
ADHN sintomak	-.06	.57	-	-
Deskodetzea	-	-	.02	.85
Irakurketaren sustapena				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.17	.14	-.04	.73
Gramatika harkorra	.08	.47	-.06	.60
Esaldiak gogoratzea	.17	.15	.17	.14
Adierazpen-hizkuntza	.24	.04*	-.07	.56
Lan-oroimena	.16	.16	.01	.91
Ezagutza fonologikoa	.05	.63	.08	.47
Iraupen labur. oroimen fonolog.	.11	.34	.12	.31
ADHN sintomak	-.08	.50	-	-
Deskodetzea	-	-	.07	.52

Ikasteko materialak				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	.17	.24	.04	.74
Gramatika harkorra	-.02	.86	-.20	.13
Esaldiak gogoratzea	.11	.44	.12	.40
Adierazpen-hizkuntza	.06	.63	.19	.22
Lan-oroimena	-.16	.26	-.10	.46
Ezagutza fonologikoa	.01	.93	.01	.96
Iraupen labur. oroimen fonolog.	-.03	.81	.06	.63
ADHN sintomak	.13	.35	-	-
Deskodetzea	-	-	-.04	.75
Jolasa				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	.20	.12	.23	.07
Gramatika harkorra	.20	.11	.34	.01*
Esaldiak gogoratzea	.20	.11	.22	.09
Adierazpen-hizkuntza	.12	.33	.07	.57
Lan-oroimena	.11	.36	-.01	.91
Ezagutza fonologikoa	.22	.10	.03	.77
Iraupen labur. oroimen fonolog.	.14	.25	-.15	.23
ADHN sintomak	-.04	.74	-	-
Deskodetzea	-	-	.10	.39
Frustrazio optimoa				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.16	.15	-.20	.07
Gramatika harkorra	-.12	.28	-.06	.58
Esaldiak gogoratzea	-.19	.09	-.13	.23
Adierazpen-hizkuntza	.03	.77	.01	.89
Lan-oroimena	-.11	.32	.03	.76
Ezagutza fonologikoa	-.11	.33	-.08	.47

Iraupen labur. oroimen fonolog.	-.06	.56	-.07	.53
ADHN sintomak	-.01	.92	-	-
Deskodetzea	-	-	-.10	.38
Autoestimua				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.15	.20	-.10	.39
Gramatika harkorra	-.01	.90	-.16	.17
Esaldiak gogoratzea	-.08	.48	-.05	.67
Adierazpen-hizkuntza	.11	.34	.01	.94
Lan-oroimena	-.05	.67	-.16	.18
Ezagutza fonologikoa	.05	.68	-.06	.60
Iraupen labur. oroimen fonolog.	.05	.69	.02	.85
ADHN sintomak	-.02	.84	-	-
Deskodetzea	-	-	.11	.35
Hezkuntza-molde demokratikoa				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.35	.00**	-.16	.17
Gramatika harkorra	-.02	.87	.16	.17
Esaldiak gogoratzea	-.15	.19	-.11	.33
Adierazpen-hizkuntza	.26	.03*	.14	.22
Lan-oroimena	-.06	.58	.00	.97
Ezagutza fonologikoa	.06	.60	.06	.61
Iraupen labur. oroimen fonolog.	.12	.31	-.12	.29
ADHN sintomak	.14	.24	-	-
Deskodetzea	-	-	-.10	.38

Aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioa				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.10	.36	.06	.60
Gramatika harkorra	.14	.21	-.02	.84
Esaldiak gogoratzea	.00	.99	.01	.90
Adierazpen-hizkuntza	.31	.00**	.13	.22
Lan-oroimena	-.10	.38	-.11	.33
Ezagutza fonologikoa	.13	.25	-.02	.89
Iraupen labur. oroimen fonolog.	.22	.04*	.24	.03*
ADHN sintomak	-.18	.11	-	-
Deskodetzea	-	-	-.04	.74
Gizarte-harremanen egonkortasuna				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.10	.36	-.05	.64
Gramatika harkorra	.02	.81	-.06	.59
Esaldiak gogoratzea	-.07	.48	-.13	.24
Adierazpen-hizkuntza	.06	.53	.17	.13
Lan-oroimena	.01	.89	-.09	.41
Ezagutza fonologikoa	.02	.84	-.01	.89
Iraupen labur. oroimen fonolog.	-.02	.84	-.18	.11
ADHN sintomak	.05	.63	-	-
Deskodetzea	-	-	.08	.45

Esperientzien aniztasuna				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.12	.34	-.17	.17
Gramatika harkorra	-.02	.84	-.11	.36
Esaldiak gogoratzea	-.02	.90	.02	.87
Adierazpen-hizkuntza	.09	.46	.04	.72
Lan-oroimena	-.27	.04*	-.09	.43
Ezagutza fonologikoa	-.07	.55	-.09	.44
Iraupen labur. oroimen fonolog.	-.12	.33	-.04	.76
ADHN sintomak	-.01	.91	-	-
Deskodetzea	-	-	-.06	.60
Testuinguru fisikoaren kalitatea				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.20	.07	.00	.99
Gramatika harkorra	-.06	.58	.09	.43
Esaldiak gogoratzea	-.31	.00**	-.29	.00**
Adierazpen-hizkuntza	-.11	.33	-.16	.13
Lan-oroimena	.16	.14	-.06	.57
Ezagutza fonologikoa	.15	.17	-.16	.14
Iraupen labur. oroimen fonolog.	-.01	.91	.08	.46
ADHN sintomak	.03	.76	-	-
Deskodetzea	-	-	.03	.81

Gurasoen estresa				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.13	.26	-.15	.19
Gramatika harkorra	.01	.95	.19	.12
Esaldiak gogoratzea	.06	.62	.14	.25
Adierazpen-hizkuntza	-.08	.52	-.06	.59
Lan-oroimena	-.07	.53	.10	.41
Ezagutza fonologikoa	.39	.00**	.01	.95
Iraupen labur. oroimen fonolog.	.26	.03*	-.01	.94
ADHN sintomak	-.43	.00**	-	-
Deskodetzea	-	-	.09	.43

Gurasoen gatazka				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.11	.28	-.18	.09
Gramatika harkorra	-.07	.48	.06	.57
Esaldiak gogoratzea	-.08	.43	.00	.99
Adierazpen-hizkuntza	-.12	.27	-.05	.61
Lan-oroimena	-.03	.74	-.10	.33
Ezagutza fonologikoa	.08	.42	-.16	.13
Iraupen labur. oroimen fonolog.	.13	.22	.04	.69
ADHN sintomak	-.12	.24	-	-
Deskodetzea	-	-	-.13	.22

Guraso- autoeraginkortasuna				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	-.16	.13	.00	.99
Gramatika harkorra	.07	.51	.24	.03*
Esaldiak gogoratzea	-.02	.87	.04	.69
Adierazpen-hizkuntza	-.03	.76	-.05	.63
Lan-oroimena	-.05	.65	.04	.72
Ezagutza fonologikoa	.09	.43	-.03	.79
Iraupen labur. oroimen fonolog.	.19	.07	.09	.42
ADHN sintomak	-.31	.00**	-	-
Deskodetzea	-	-	-.08	.46
Garapen psikologikoaren ezagutza				
	T1		T2	
	β	p	β	p
Hiztegi harkorra	.09	.41	.01	.92
Gramatika harkorra	.17	.13	.11	.33
Esaldiak gogoratzea	.00	.99	.04	.72
Adierazpen-hizkuntza	-.07	.54	.16	.15
Lan-oroimena	.01	.95	.05	.66
Ezagutza fonologikoa	.13	.23	.04	.69
Iraupen labur. oroimen fonolog.	-.04	.73	-.14	.19
ADHN sintomak	.06	.55	-	-
Deskodetzea	-	-	.05	.62

Bestalde, T1ean eta T2an umeen hizkuntza-aldagaiei, aldagai fonologikoei eta irakurketa-aldagaiei dagokienez, ADHNari lotutako sintomatologiaren balio iragarlea (ikus Pennington, Groisser eta Welsh, 1993; Purvis eta Tannock, 1997) aztertzekeo saiakera batean, erregresiozko analisi gehigarriak egin ziren. Emaitzetan ikus daitekeenez, ADHNaren sintomek iraupen laburreko oroimen fonologikoa iragarri zuten bi aldietan ($\beta = -.23$, $t = -2.45$, $p = .01$; $\beta = -.25$, $t = -2.67$, $p = .00$, hurrenez hurren). Emaitzak 19. eta 20. tauletan aurkezten dira eta sakonago landuko dira eztabaidaren atalean.

19. taula

Erregresio-indizeak Lehen Ebaluazio-faseko (T1) Neurri Linguistikoen eta ADHN Sintomen artean. Lagin normatiboa

Aldagai dependentea	Iragarlea	β	t	R ² doitua
Lan-oroimena F(1,103) = .24; p = .62		-.04	-.49	-.00
Iraupen labur. oroimen fonolog. F(1,103) = 6.03; p = .01		-.23	-2.45**	.04
Ezagutza fonologikoa F(1,103) = 1.20; p = .27		-.10	-1.09	.00
Hiztegi harkorra F(1,103) = .01; p = .89	ADHN sintomak	.01	.13	-.01
Esaldien errepikapena F(1,103) = 2.05; p = .15		-.14	-1.43	.01
Gramatika harkorra F(1,103) = .17; p = .67		.04	.42	-.00
Adierazpen-hizkuntza F(1,103) = .00; p = .94		.00	.07	-.01
Ez-hitzezko adimena F(1,103) = .20; p = .65		.04	.45	-.00

*p<.05, **p<.01, ***p<.00

20. taula

Erregresio-indizeak Bigarren Ebaluazio-faseko (T2) Neurri Linguistikoen eta ADHN Sintomen artean. Lagin normatiboa

Aldagai dependentea	Iragarlea	β	t	R ² doitua
Lan-oroimena F(1,103) = .14; p = .70		-.03	.38	-.00
Iraupen labur. oroimen fonolog. F(1,103) = 7.16; p = .00		-.25	-2.67***	.05
Ezagutza fonologikoa F(1,103) = .00; p = .92		-.00	-.09	-.01
Hiztegi harkorra F(1,103) = .75; p = .38	ADHN sintomak	.08	.86	-.00
Esaldien errepikapena F(1,103) = 3.30; p = .07		-.17	-1.81	.02
Gramatika harkorra F(1,103) = .84; p = .36		-.09	-.91	-.00
Adierazpen-hizkuntza F(1,103) = .48; p = .48		.06	.69	-.00
Deskodetzea F(1,103) = .12; p = .72		-.03	-.35	-.00
Ez-hitzezko adimena F(1,103) = .19; p = .66		-.04	-.43	.00

*p<.05, **p<.01, ***p<.00

Lortutako emaitza iragarleei begira, eta kontuan hartuta etxeko irakurketa-ohiturek ez zutela deskodetzea espero zen bezala iragarri, faktore hori osatzen duten itemen analisi zorrotzagoa egitea erabaki zen, horien gaitasun iragarlean sakontzeko. Emaitzen arabera, etxeko irakurketa-ohiturei buruzko faktorearen 1. itemak (*etxean gurasoek irakurtzen dugu...*) 3. itemak (*etxean dagoenean gure umeak bere borondatez irakurtzen du...*) eta 6. itemak (*gure umeak bere adinerako liburu eta ipuin egokiak irakurtzen ditu*) deskodetze-neurriarekin korrelazio esanguratsuak erakutsi zituzten (-.26, p = .00; -.25, p = .05; eta .39, p = .00, hurrenez hurren). Izan ere, item horiexek izan ziren egindako erregresiozko

analisietan balio iragarle esanguratsuak erakutsi zituztenak: 1. itemak ($\beta = -.25$, $t = -2.69$, $p = .00$), 3. itemak ($\beta = -.25$, $t = -2.58$, $p = .01$) eta 6. itemak ($\beta = .38$, $t = 4.18$, $p = .00$).

Azkenik, HEFCAS-6-DA eskalaren bidez bildutako aurretiazko gaien (amaren eta aitaren adina, ordezeko zainketaren kalitatea eta edoskitze naturala) rola aztertu zen oinarritzko prozesuei zein umeen hizkuntza-aldagaiei, aldagai fonologikoei eta irakurketa-aldagaiei dagokienez, ebaluazioaren bi aldietan. Erregresiozko analisietan lortutako emaitzek erakutsi zuten erlazio iragarle esanguratsu bakarrak hauek zirela: aitaren adinaren eta T1eko gramatika harkorraren ($\beta = .23$, $t = -2.29$, $p = .02$) zein T2ko hitzezko lan-oroimenaren artean sortutakoak ($\beta = .21$, $t = -2.04$, $p = .04$); ordezeko zainketaren kalitatearen eta umearen T2ko gramatika-mailaren artean sortutakoa ($\beta = -.19$, $t = 26.78$, $p = .04$); eta edoskitze naturalaren zein lan-oroimenaren ($\beta = -.23$, $t = -2.39$, $p = .01$) eta arretaren artean sortutakoa T1ean ($\beta = -.20$, $t = -2.03$, $p = .04$).

11.3. Analisi iragarlea arriskuan dauden umeen laginean

Arriskuan dauden umeen balio iragarleari dagozkion analisiak egiteko, 10. kapituluan aurkeztu diren analisietan erabilitako lagin bera hartu zen. Lagin oso txikia zenez ($N = 8$), ezin izan zen egitura-ekuazioko ereduaren analisia (EEE) egin HEFCAS-6-DA eskalako faktoreetako bakoitzaren eta hizkuntzaren zein irakurketaren inguruko neurrien artean. Hala ere, faktore desberdinak osatzen dituzten itemek neurri horiekiko duten balio iragarlea kalkulatu ahal izan zen bi aldietan, baita ADHNari lotutako sintomatologiak T1ean eta T2an hizkuntzaren zein irakurketaren neurriekiko dituen erlazio iragarleak ere. Erregresiozko analisi horien emaitzak 21., 22., 23. eta 24. tauletan aurkezten dira.

21. taula

Estatistikoki Esanguratsuak diren Erlazioak HEFCAS-6-DA eskalako itemen eta Lehen Ebaluazio-faseko (T1) Neurri Linguistikoen artean. Arriskuan dauden umeen lagina.

Hiztegi harkorra		
	β	p
3. itema (IO): Etxean dagoenean gure umeak bere borondatez irakurtzen du...	-.81	.01
8. itema (IS): Umearekin irakurtzen dugunean edukiak azaldu eta zabaltzen ditugu, ideiak edo marrazkiak deskribatzen ditugu.	-.71	.04
14. itema (IM): Umearekin berak telebistan ikusten dituen programei buruz hitz egiten dugu.	-.81	.01
16. itema (J): Umeari egiten dizkiogun oparien artean mahai-joko bat (oka, partxisa, dominoa, etab.) edo joko hezigarriren bat (puzzleak, oroimen-jokoak, etab.)sartzen saiatzen gara.	-.73	.03
19. itema (J): Eguneroko bizitzaren aukerak bilatzen ditugu matematikako kontzeptuak edo hizkuntza-trebetasunak praktikatzeko (adibidez, azokara bagoaz, 5 euroko billete batekin zenbat janari eros dezakegun galdetzen dugu), eragiketa matematiko errazak egin ditzan animatzen dugu (batuketak, kenketak, biderketak edo zatiketak) eta hitz berriak ere irakasten dizkiogu.	-.88	.00
20. itema (J): Umeari musika-mota desberdinak eta poesiak irakasten dizkiogu, eta asmakizunak proposatzen dizkiogu.	-.79	.02
42. itema (AHBFI): Aitak edo erreferentziako 2. figurak umearekin jolasteari denbora eskaintzen dio.	-.81	.01
60. itema (EA): Umea mendialdera eramaten dugu naturaz goza dezan edo zuhaitz bat landatzea zein animaliak ikustea bezalako esperientziak izan ditzan.	-.71	.04
75. itema (GG): Liskarren edo eztabaidaren baten ondoren atsekabea, frustrazioa eta ezintasuna sentitzen dugu.	-.70	.05
Gramatika harkorra		
35. itema (HMD): Umeak haserrealdiren bat badu, irmo eusten diogu.	-.76	.02
62. itema (TFK): Gure etxeko gelak altzariei dagokienez honela daudela uste dugu ...	-.77	.02
66. itema (GE): Umeari jokoak estresa sortzen digu.	-.74	.03
73. itema (GG): Umeari aurrean eztabaidatzen dugu.	-.71	.04
Esaldiak gogoratzea		
7. itema (IO): Etxean denbora ematen dugu umearekin irakurtzen ...	-.76	.02
8. itema (IS): Umearekin irakurtzen dugunean edukiak azaldu eta zabaltzen ditugu, ideiak edo marrazkiak deskribatzen ditugu.	-.78	.02

27. itema (FO): Umeari zerbait gustatzen ez bazaio edo txarto iruditzen bazaio esan diezagula eskatzen diogu.	-0.84	.00
31. itema (Ae): Umeak zerbait ondo egiten badu, aitortzen diogu eta esplizituki balioesten dugu.	-0.92	.00
54. itema (EA): Astero umearekin etxetik kanpo jarduerak partekatzeko denbora hartzen dugu.	-0.76	.02
56. itema (EA): 56. Iaz umeentzako ikuskizunetara joan ginen umearekin (antzerkera, pailazoak ikustera, zirkura edo beste batzuk).	-0.92	.00
58. itema (EA): Ahal dugunean, umea ekitaldi kultural tradizionaletara eramaten dugu (dantza tipikoak, folklore-ekitaldiak...) edo/eta zientzietako edo historiako museo batera.	-0.71	.04
59. itema (EA): Hilean zehar umea liburutegira joaten da (ikasgelako edo eskolako liburutegia eta liburutegi publikoa barne...).	-0.86	.01
67. itema (GE): Gure umearen etorkizunean pentsatzeak eta lagundu ezin izateak kezkatzen gaitu.	-0.77	.02
79. itema (GA): Zailtasunen bat dagoenean, gure umearekin zer egin erabakitzea kostatzen zaigu (adibidez, nola zuzendu bere jokaera txarra, zainketa gurasoek lan egiten badute, etab.).	-0.79	.03
83. itema (GA): Umeak dituen arazoak ulertzea konplexua iruditzen zaigu.	-0.75	.04
Adierazpen-hizkuntza		
21. itema (FO): Umea arazoak bere kabuz konpontzera animatzen dugu, adibidez, beste ume batzuekin dituen desadostasunak.	-0.74	.03
35. itema (HMD): Umeak haserrealdiren bat badu, irmo eusten diogu.	-0.75	.03
79. itema (GA): Zailtasunen bat dagoenean, gure umearekin zer egin erabakitzea kostatzen zaigu (adibidez, nola zuzendu bere jokaera txarra, zainketa gurasoek lan egiten badute, etab.).	-0.79	.03
Lan-oroimena		
14. itema (IM): Umearekin berak telebistan ikusten dituen programei buruz hitz egiten dugu.	-0.80	.01
19. itema (J): Eguneroko bizitzaren aukerak bilatzen ditugu matematikako kontzeptuak edo hizkuntza-trebetasunak praktikatzeko (adibidez, azokara bagoaz, 5 euroko billete batekin zenbat janari eros dezakegun galdetzen dugu), eragiketa matematiko errazak egin ditzan animatzen dugu (batuketak, kenketak, biderketak edo zatiketak) eta hitz berriak ere irakasten dizkiogu.	-0.74	.03
24. itema (FO): Umeari bere jokabidearen ondorio negatiboari buruz hausnartzen laguntzen diogu (“Ez zaudenez mahaian jaten, arropa zikindu duzu”, “hain zakarra zarenez, zure anaiari min egin diozu”).	.73	.04
25. itema (FO): Umeari gure haserrea adierazten diogu zerbait txarto egiten badu, eta gure alaitasuna zerbait ondo egiten duenean.	.94	.00

Ezagutza fonologikoa		
27. itema (FO): Umeari zerbait gustatzen ez bazaio edo txarto iruditzen bazaio esan diezagula eskatzen diogu.	-.93	.00
31. itema (Ae): Umeak zerbait ondo egiten badu, aitortzen diogu eta esplizituki balioesten dugu.	-.74	.03
56. itema (EA): Iaz umeentzako ikuskizunetara joan ginen umearekin (antzerkira, pailazoak ikustera, zirkura edo beste batzuk).	-.75	.03
Iraupen laburreko oroimen fonologikoa		
48. itema (AHBFI): Ama aitaren edo erreferentziako 2. figuraren aldetik ondo babestuta sentitzen da hazkuntza-zereginei dagokienean.	-.74	.03
ADHN Sintomak		
5. itema (IO): Gure umeak irakurtzeko liburu berriak eskatzen dizkigu	-.80	.01
6. itema (IO): Gure umeak bere adinerako liburu eta ipuin egokiak irakurtzen ditu	-.87	.00
8. itema (IS): Umearekin irakurtzen dugunean edukiak azaldu eta zabaltzen ditugu, ideiak edo marrazkiak deskribatzen ditugu.	-.81	.01
21. itema (FO): Umea arazoak bere kabuz konpontzera animatzen dugu, adibidez, beste ume batzuekin dituen desadostasunak.	-.74	.03
23. itema (FO): Umeari zergatik egin duen zerbait txarto eta zein den jokabide zuzena azaltzen diogu.	-.80	.01
36. itema (HMD): Gure umeari hasiera batean etxeko edo eskolako lan bat egitea kostatzen bazaio ere, bere ahalegina eta autonomia sustatzen dugu (adibidez, egunero ohea lantzea).	-.85	.00
42. itema (AHBFI): Aitak edo erreferentziako 2. figurak umearekin jolasteari denbora eskaintzen dio.	-.70	.05
44. itema (AHBFI): Aitak edo erreferentziako 2. figurak aktiboki hartzen du parte etxeko lanetan.	-.79	.01
45. itema (AHBFI): Aita edo erreferentziako 2. figura eskolako bileretara joaten da.	-.88	.00
67. itema (GE): Gure umearen etorkizunean pentsatzeak eta lagundu ezin izateak kezkatzen gaitu.	-.73	.03
80. itema (GA): Benetan izan nahiko genukeen guraso-mota ez garela sentitzen dugu.	-.92	.00
82. itema (GA): Pozik eta lasai gaude gure umearen heziketarekin.	-.77	.04
83. itema (GA): Umeak dituen arazoak ulertzea konplexua iruditzen zaigu.	-.75	.05

22. taula

Estatistikoki Esanguratsuak diren Erlazioak HEFCAS-6-DA eskalako itemen eta Bigarren Ebaluazio-faseko (T2) Neurri Linguistikoen artean. Arriskuan dauden umeen lagina.

Hiztegi harkorra		
	β	p
14. itema (IM): Umearekin berak telebistan ikusten dituen programei buruz hitz egiten dugu.	-.75	.03
16. itema (J): Umeari egiten dizkiogun oparien artean mahai-joko bat (oka, partxisa, dominoa, etab.) edo joko hezigarriren bat (puzzleak, oroimen-jokoak, etab.)sartzen saiatzen gara.	-.75	.03
19. itema (J): Eguneroko bizitzaren aukerak bilatzen ditugu matematikako kontzeptuak edo hizkuntza-trebetasunak praktikatzeko (adibidez, azokara bagoaz, 5 euroko billete batekin zenbat janari eros dezakegun galdetzen dugu), eragiketa matematiko errazak egin ditzan animatzen dugu (batuketak, kenketak, biderketak edo zatiketak) eta hitz berriak ere irakasten dizkiogu.	-.76	.03
20. itema (J): Umeari musika-mota desberdinak eta poesiak irakasten dizkiogu, eta asmakizunak proposatzen dizkiogu.	-.78	.02
Esaldiak gogoratzea		
6. itema (IO): Gure umeak bere adinerako liburu eta ipuin egokiak irakurtzen ditu.	-.75	.03
8. itema (IS): Umearekin irakurtzen dugunean edukiak azaldu eta zabaltzen ditugu, ideiak edo marrazkiak deskribatzen ditugu.	-.86	.00
31. itema (Ae): Umeak zerbait ondo egiten badu, aitortzen diogu eta esplizituki balioesten dugu.	-.74	.03
36. itema (HMD): Gure umeari hasiera batean etxeko edo eskolako lan bat egitea kostatzen bazaio ere, bere ahalegina eta autonomia sustatzen dugu (adibidez, egunero ohea lantzea).	-.73	.03
56. itema (EA): Iaz umeentzako ikuskizunetara joan ginen umearekin (antzerkera, pailazoak ikustera, zirkura edo beste batzuk).	-.74	.03
59. itema (EA): Hilean zehar umea liburutegira joaten da (ikasgelako edo eskolako liburutegia eta liburutegi publikoa barne...):	-.86	.01
64. itema (TFK): Gure familian etxea ordenatuta edukitzen dugu.	.76	.02
78. itema (GA): Gure umeari ematen ari gatzazkion hazkuntzan pentsatzean estutasuna sentitzen dugu.	-.77	.04
79. itema (GA): Zailtasunen bat dagoenean, gure umearekin zer egin erabakitzea kostatzen zaigu (adibidez, nola zuzendu bere jokaera txarra, zainketa gurasoek lan egiten badute, etab.).	-.80	.02

Adierazpen-hizkuntza		
9. itema (IS): Umearekin irakurtzen dugunean gauza zehatzak azaltzera edo deskribatzera animatzen dugu (adibidez, ideia bat deskriba dezan edo egoera bat konparatu edo orokortu dezan)	.84	.01
15. itema (IM): Solasean gaudenean, umeari hitz berrien esanahia azaltzen diogu.	.71	.04
22. itema (FO): Umeak ondo ez dagoen zerbait egiten badu, argi eta berehala esaten diogu.	-.81	.01
Lan-oroimena		
43. itema (AHBFI): Umea txarto portatzen denean aita edo erreferentziako 2. figura ere arduratzen da bere jokaera kontrolatzeaz.	-.71	.04
54. itema (EA): Astero umearekin etxetik kanpo jarduerak partekatzeko denbora hartzen dugu.	-.71	.05
74. itema (GG): Umeak eztabaidaren batean elkarri irainak esan dizkiogula ikusi du.	.70	.04
Ezagutza fonologikoa		
3. itema (IO): Etxean dagoenean gure umeak bere borondatez irakurtzen du...	.81	.01
8. itema (IS): Umearekin irakurtzen dugunean edukiak azaldu eta zabaltzen ditugu, ideiak edo marrazkiak deskribatzen ditugu.	.80	.01
14. itema (IM): Umearekin berak telebistan ikusten dituen programei buruz hitz egiten dugu.	.79	.01
19. itema (J): Eguneroko bizitzaren aukerak bilatzen ditugu matematikako kontzeptuak edo hizkuntza-trebetasunak praktikatzeko (adibidez, azokara bagoaz, 5 euroko billete batekin zenbat janari eros dezakegun galdetzen dugu), eragiketa matematiko errazak egin ditzan animatzen dugu (batuketak, kenketak, biderketak edo zatiketak) eta hitz berriak ere irakasten dizkiogu.	.84	.00
42. itema (AHBFI): Aitak edo erreferentziako 2. figurak umearekin jolasteari denbora eskaintzen dio.	.75	.02
59. itema (EA): Hilean zehar umea liburutegira joaten da (ikasgelako edo eskolako liburutegia eta liburutegi publikoa barne...):	.76	.04
60. itema (EA): Umea mendialdera eramaten dugu naturaz goza dezan edo zuhaitz bat landatzea zein animaliak ikustea bezalako esperientziak izan ditzan.	.70	.05
Iraupen laburreko oroimen fonologikoa		
24. itema (FO): Umeari bere jokabidearen ondorio negatiboari buruz hausnartzen laguntzen diogu (“Ez zaudenez mahaian jaten, arropa zikindu duzu”, “hain zakarra zarenez, zure anaiari min egin diozu”).	.72	.04
25. itema (FO): Umeari gure haserrea adierazten diogu zerbait txarto egiten	.76	.02

badu, eta gure alaitasuna zerbait ondo egiten duenean.

43. itema (AHBFI): Umea txarto portatzen denean aita edo erreferentziako 2. figura ere arduratzen da bere jokaera kontrolatzeaz.	-0.71	.04
47. itema (AHBFI): Ama eta aita edo erreferentziako 2. figura arauen gainean ados egoten gara umeari adierazi aurretik.	-0.73	.03
65. itema (GE): Gure umea zaindu behar izateak daukaguna baino denbora eta indar gehiago eskatzen digula sentitzen dugu.	-0.80	.01

Deskodetzea

4. itema (IO): Gure etxean irakurketa-ohitura sustatu ohi da (egunak astero):	.81	.01
5. itema (IO): Gure umeak irakurtzeko liburu berriak eskatzen dizkigu.	.81	.01
24. itema (FO): Umeari bere jokabidearen ondorio negatiboari buruz hausnartzen laguntzen diogu (“Ez zaudenez mahaian jaten, arropa zikindu duzu”, “hain zakarra zarenez, zure anaiari min egin diozu”).	.74	.03
25. itema (FO): Umeari gure haserrea adierazten diogu zerbait txarto egiten badu, eta gure alaitasuna zerbait ondo egiten duenean.	.71	.04
34. itema (Ae): Umea motibatzen dugu talde-jardueretan parte har dezan (jolas-, kirol- edo kultura-jarduerak ...), eta beste pertsona batzuen jarduerak egiten bere borondatez lagun dezan, adibidez, beste batzuei eskolako lanak egiten lagunduz .	.71	.04
74. itema (GG): Umeak eztabaidaren batean elkarri irainak esan dizkiogula ikusi du.	.76	.02
84. itema (GA): Erraza iruditzen zaigu gure umearen jokaera bere adinerako espero litekeenaren arabera den jakitea.	.83	.02

Lagin horretan, frustrazio optimoarekin zerikusia duten itemak prozesu fonologikoen (iraupen laburreko oroimena, ezagutza fonologikoa eta lan-oroimena) eta deskodetze-trebetasunen funtsezko iragarleak izan ziren. Gainera, irakurketa-ohiturek ere deskodetzean eragin zuten, jolasari eta etxeko irakurketaren sustapenari lotutako aldagaiek, ordea, hiztegi-maila iragarri zuten.

ADHNari lotutako sintomatologiari dagokionez, T1ean hiztegi harkorra eta T2an ezagutza fonologikoa iragarri zituela ikusi zen ($\beta = .69$, $t = 2.35$, $p = .05$; $\beta = -.69$, $t = -2.35$, $p = .05$, hurrenez hurren). Emaidza horiek eztabaida orokorrean komentatuko dira.

23. taula

Erregresio-indizeak Lehen Ebaluazio-faseko (T1) Neurri Linguistikoen eta ADHN Sintomen artean. Arriskuan dauden umeen lagina.

Aldagai dependentea	Iragarlea	β	t	R ² doitua
Lan-oroimena F(1,6) = .349; p = .57		.23	.59	-.10
Iraupen labur. oroimen fonolog. F(1,6) = .03; p = .85		.08	.19	-.15
Ezagutza fonologikoa F(1,6) = .01; p = .92		-.04	-.10	-.16
Hiztegi harkorra F(1,6) = 5.53; p = .05	ADHN sintomak	.69	2.35*	.39
Esaldien errepikapena F(1,6) = 1.87; p = .22		.48	1.36	.11
Gramatika harkorra F(1,6) = .29; p = .60		.21	.54	-.11
Adierazpen-hizkuntza F(1,6) = 1.73; p = .23		.47	1.31	.09
Ez-hitzezko adimena F(1,6) = .01; p = .92		.04	.10	-.16

*p<.05, **p<.01, ***p<.00

24. taula

Erregresio-indizeak Bigarren Ebaluazio-faseko (T2) Neurri Linguistikoen eta ADHDN Sintomen artean. Arriskuan dauden umeen lagina.

Aldagai dependentea	Iragarlea	β	t	R ² doitua
Lan-oroimena F(1,6) = .37; p = .56		.24	.61	-.09
Iraupen labur. oroimen fonolog. F(1,6) = .07; p = .79		.11	.27	-.15
Ezagutza fonologikoa F(1,6) = 5.55; p = .05		-.69	-2.35*	.39
Hiztegi harkorra F(1,6) = 2.69; p = .15	ADHN Sintomak	.55	1.64	.19
Esaldien errepikapena F(1,6) = 3.46; p = .11		.60	1.86	.26
Gramatika harkorra F(1,6) = .00; p = .92		.03	.09	-.16
Adierazpen-hizkuntza F(1,6) = .08; p = .78		.11	.28	-.15
Deskodetzea F(1,6) = .04; p = .83		-.08	-.21	-.15
Ez-hitzezko adimena F(1,6) = .37; p = .56		.24	.61	-.09

*p<.05, **p<.01, ***p<.00

Azkenik, HEFCAS-6-DA eskalaren bidez bildutako aurretiazko gaien (amaren eta aitaren adina, ordezeko zainketaren kalitatea eta edoskitze naturala) rola aztertu zen oinarrizko prozesuei zein umeen hizkuntza-aldagaiei, aldagai fonologikoei eta irakurketa-aldagaiei dagokienez, ebaluazioaren bi aldietan. Erregresiozko analisisietan lortutako emaitzen arabera, erlazio iragarle esanguratsu bakarrak hauek ziren: amaren adinaren eta T2ko adierazpen-hizkuntzaren artekoak ($\beta = -.77$, $t = -2.94$, $p = .02$); aitaren adinaren eta T1eko gramatika harkorraren artekoak ($\beta = -.77$, $t = -3.02$, $p = .02$) eta T2an ($\beta = -.87$, $t = -4.27$, $p = .00$); ordezeko zainketaren kalitatearen eta T2ko iraupen laburreko oroimen fonologikoaren

artekoak ($\beta = -.89$, $t = -4.82$, $p = .00$); eta edoskitze naturalaren eta T1eko ($\beta = -.88$, $t = -4.70$, $p = .00$) eta T2ko ($\beta = -.80$, $t = -3.33$, $p = .01$) gramatika harkorraren artekoak.

11.4. Ondorioak

Kapitulu honetako analisi iragarleetan lortutako emaitzak ikusita, familia-aldagaiak hizkuntza-trebetasunen modulatzailer bezala paper garrantzitsua dutela esan daiteke. Berezi garrantzitsuak dirudite umeen parte-hartze zuzena eskatzen duten testuinguru-aldagaiak. Garapen normotipikoa duten umeen laginaren kasuan, emaitzek aurreko ikerketetako hainbat aurkikuntza egiaztatzen dituzte. Prozesu fonologikoen iragarle nagusiei dagokienez, gurasoen estresak hizkuntzaren eta irakurketaren mekanismo iragarle batzuetan eragiten duela ikusi zen, hala nola, trebetasun fonologikoetan (iraupen laburreko oroimen fonologikoa eta ezagutza fonologikoa) edo oinarrizko prozesuetan (ADHNari lotutako sintomatologia). Emaitza horiek Bernier et al., (2012) edo Noel et al., (2008) bezalako autoreek lortutakoak egiaztatzen dituzte, familia-sistemaren tentsioak funtzio exekutiboetan (inhibizioa edo arreta bezalako trebetasunak barne) eta ondorengo haur-hizkuntzan eragin negatiboa duela frogatu baitzuten. Baina lan horien adin-tartea eskolaurreko garaian kokatzen da (12 hilabeteen eta 4 urteen artean), beraz, ikerketa honen emaitzek familia-tentsioaren eta oinarrizko prozesuen zein hizkuntzaren garapenaren arteko erlazioari buruz dagoen ebidentzia zabaltzen dutela baieztatu daiteke, irakurri aurreko adinetik irakurtze-adinerako trantsizioa egiten ari diren umeen laginetara, hain zuzen. Horrez gain, nabarmendu behar da beste aldagai batzuen artean ere erlazio iragarleak aurkitu zirela, adibidez, esperientzien aniztasunak eta gurasoen inplikazioak lan-oroimena eta iraupen laburreko oroimen fonologikoa iragarri zituzten, hurrenez hurren. Asoziazio horiek ez dira aurretik egindako lanetan aurkitu, hortaz, ikerketabide berri bat zabaltzen da etorkizunean aurkikuntza horien erreplikagarritasuna egiaztatuko duten lanak egin daitezkeen.

Hizkuntza-trebetasunen kasuan, eta aurretik egindako zenbait ikerketaren ildo berean, familia-aldagai batzuek adierazpen-hizkuntza iragarri zuten. Alde batetik, hezkuntza-molde demokratikoaren erabilerak umeen adierazpen-hizkuntza iragarri zuten 6 urte izatean, Hammer-ek et al., (2001) lortutako aurkikuntzak egiaztatuz. Autore horiek iradoki zuten harremanetan inplizitu zeuden hezkuntza-moldeak eta adierazkortasunak hizkuntzaren jarioarekin eta artikulazioarekin lotura estua zutela, adin horretako umeez osatutako lagin batean. Bestetik, irakurketaren sutapenaren eta adierazpen-hizkuntzaren arteko erlazioa

zabal dokumentatu da eskolaurreko adinean dauden umeen laginekin (Conlon et al., 2006; van Bergen et al., 2015).

Adibidez, Wasik-ek eta Bond-ek (2001) edo Simsek-ek eta Erdogan-ek (2015) 4 eta 5 urteko umeen laginak erabiliz egin zituzten ikerketetan, irakurketa partekatuari lotutako jarduerak umeen hiztegian eta adierazpen-hizkuntzan duten eragin positiboa agerian utzi zuten. Ikerketa honek emaitza horiek baieztatu ez ezik, hedatu ere egiten ditu, irakurketa sustatzera bideratutako jokabideen eta adierazpen-hizkuntzaren arteko erlazioa lehen eskolatze-urteetan ere mantentzen dela frogatzen duelako. Ikerketa berriago batean Wesseling-ek, Christmann-ek, eta Lachman-ek (2017) gai hori 3 eta 4 urteko 69 umez osatutako lagin batean aztertu zuten, eta emaitzek erakutsi zuten irakurketa partekatuak adierazpen-hiztegia sustatzen zuela, eta inplizituki, ezagutza grafemikoaren eskuratzea ere bai (ikus ere Debaryshe, 1993). Datu horiek gure laginean item espezifikoak erabiliz lortutako emaitzekin bat datoz, item horiek umearen borondatezko irakurketa eta gurasoen irakurketa-ohiturak deskodetzearekin lotzen baitituzte, eta iradokitzen dute umeak irakurketarekiko duen motibazioa eta gurasoen modelaketa trebetasun horretan gakoa izan daitezkeela, irakurketa-jarduera sarriagoaren bidez.

Adierazpen-hizkuntza iragarri zuen azken familia-aldagaia aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioa izan zen. Horrek aipatutako aldagaia aztertu duten ikerketen aurkikuntzak indartzen ditu, hain zuzen, gurasoen inplikazioak seme-alaben heziketan ondorengo hizkuntzaren garapenean eta umearen komunikazio-trebetasunetan modu positiboan eragiten duela iradokitzen dutenak (Shroeder eta Kelly, 2009; Hammer et al., 2001). Berriki, Pancsofar-ek, Vernon-Feagans-ek, eta Family Life Investigators-ek (2010) frogatu zuten aitaren hezkuntza-mailak eta aitak etxeko heziketa-jardueretan 6 hileko umeekin erabilitako hiztegiak, irakurketa partekatua barne, umeen komunikazio-garapena iragartzen zutela 15 hilabete izatean eta ondorengo adierazpen-hizkuntza 36 hilabete izatean. Ikerketa honek aurkikuntza horiek zabaltzen ditu, erlazio iragarleak aurkitu direlako aitaren inplikazioaren eta adierazpen-hizkuntzaren artean eskola-adinean dauden umez osatutako lagin batean ere bai. Beraz, esan daiteke aitak edo hazkuntzako bigarren figurak, alde batetik, hasierako informazioa aberasten duen eredu berri bat ematen duela, eta bestetik, umearentzat beste modelaketa-figura bat gehitzen duela.

Hizkuntza harkorrari dagokionez, emaitzen arabera jolasa edo irakurketa-ohiturak bezalako aldagaiak sustatzeak, baita guraso-autoeraginkortasunaren pertzepzio altua izateak

ere, umeen gramatika harkorraren gainean eragin positiboa dute. Aurkikuntza horiek iradokitzen dute, gurasoen estresetik harago, literaturan ikertutako aldagai mikrosistemiko batzuek (jolasak, etxeko irakurketa-ohiturek edo irakurketaren sustapenak), eta exosistemikoagoak diren beste batzuek (aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioak, familiaren hezkuntza-moldeak edo guraso-autoeraginkortasunaren pertzepzioak) paper garrantzitsua eduki dezaketela bai hizkuntzaren eta irakurketaren azpian dauden mekanismoen garapenean, bai hizkuntza-trebetasunetan maila harkorrari eta adierazpen-mailari dagokienean. Ikerketa honek aurretik zegoen ebidentzia hedatzea ahalbidetu du, aurretiazko aurkikuntzak aurreirakurketa-etapatik irakurketa-etaparako trantsizio-fasean dauden umeen laginetara zabaltzean, lan gehienak eskolaurreko adinean dauden umeekin egin baitira (adib., Noel et al., 2008; Pancsofar et al., 2010; Wesseling et al., 2017) edo nerabeez osatutako laginekin (adib., Shumow eta Lomax, 2002).

Azpimarratu behar da aurkikuntza horiek ez datozela bat arriskuan dauden umeen laginean aurkitutakoekin. Lagin horretan, jolasa, etxeko irakurketa-ohiturak eta irakurketaren sustapena ere adierazpen-hizkuntzaren eta hizkuntza harkorraren trebetasunei lotzen zaizkie, nahiz eta azken kasu horretan hiztegiari eta ezagutza lexikoari egiten dion erreferentzia eta ez gramatikari, garapen normatibodun umeen laginean bezala. Lagin klinikoan, frustrazio optimoa lan-oroimenean eta prozesu fonologikoetan zein deskodetzean inplikatutako aldagai gakoa izatea interesgarria da. Horrek esan nahi du, arriskuan dauden umeengan, frustrazio optimoa izan litekeela gakoak diren alderdi kognitiboen ibilbide ebolutiboa argituko lukeen testuinguru-elementua, baita hizkuntzaren zein irakurketaren nahasmenduen arteko komorbilitatea azalduko lukeena ere. Lagin normatiboan prozesu horien garapena nagusiki aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioaren, familia-tentsio ezaren eta etxeko irakurketa-ohituraren menpe dagoen bitartean, lagin klinikoan badirudi frustrazio optimoa gakoa dela aldagai erregulatzailerik bezala ingurunearen eskakizunaren eta umearen gaitasun kognitiboaren hedapenaren artean. Hipotesi horrek etorkizunean azter daitekeen ikerketa-lerroa zabaltzen du.

Laburbilduz, familia-aldagaien eta hizkuntzari zein irakurketari lotutako trebetasunen arteko analisi iragarleen bidez lortutako emaitzek familia-testuinguruak hizkuntza- eta irakurketa-zailtasunen garapenean babesle edo arrisku-faktore bezala izan dezakeen garrantzia adierazten dute. Gai guzti horiek eztabaida orokorrean landuko dira zehatzago.

12. KAPITULUA: *Eztabaida orokorra*

Lan honek xede bikoitza zuen. Batetik, hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean parte hartzen duten oinarrizko aldagai kognitiboak identifikatu nahi zituen, hizkuntza-irakurketako sistema eraginkor baten antolaketa funtzionala azaltzeko; bestetik, garapen psikologikoaren ikuspegi epigenetikotik, familia-testuinguruaren aldagaiek—gurasotasun positiboaren dimentsioen ereduaren arabera antolatuak—aldagai kognitibo horietan izan dezaketen eragina aztertu nahi zen.

Horretarako, lehenenik eta behin, HNEaren eta dislexiaren azpian dauden prozesuak (prozesatze-abiadura, arreta, lan-oroimena eta trebetasun fonologikoak), baita hizkuntza-trebetasunak eta irakurketa deskodetzeko trebetasunak ere ebaluatu ziren, garapen normatibodun umeez osatutako lagin zabal batean, eta luzetara (6 urte eta 7 urte zituztenean). Gainera, familia-testuinguruaren kalitatea baloratzeko galdetegi bat bete zuten familiek ebaluazioaren lehen aldian. Aurretiazko lanetan lortutako ebidentzien arabera, aldagai kognitiboak antolatuko lirakekeen moduari eta horietan eragin lezaketen testuinguru-aldagaiei buruzko hipotesi zehatzak proposatu ziren.

Lehen ikerketa lerroari dagokionez, datuek proposatutako hipotesiak egiaztatzen dituzte. Alde batetik, mailakako garapen-ereduaren balioa baieztatu da, non arreta edo prozesatze abiadura bezalako prozesuek trebetasun fonologikoak modulatzeko eragiten dituzten, eta azken horiek, aldi berean, hizkuntza-trebetasun konplexuagoen eskuratzeko eragiten duten. Beste aldetik, datuek erakusten dute lan-oroimenak garapenean zehar hizkuntza-sistemaren antolaketan paper garrantzitsua betetzen duela. Bigarren lan-ildoari dagokionez, kasu horretan ere, emaitzek proposatu ziren hiru hipotesiak egiaztatzen dituzte: lehenengoak defendatzen zuen etxean garapen kognitiboa sustatzeari lotutako aldagaiek (hala nola, jolasak eta irakurketaren sustapenak) hizkuntza-trebetasun orokorren garapenarekin erlazio zuzena edukiko luketela, adibidez, trebetasun gramatikalaren eta adierazpen-hizkuntzaren garapenarekin. Bigarren hipotesiak erresilientzia sustatzearekin erlazioatutako aldagaiek, hala nola, frustrazio optimoak edo hezkuntza-molde demokratikoa erabiltzeak, hizkuntza-trebetasunetan ere eragingo luketela adierazten zuen. Azkenik, datuek aurretiazko ebidentziak egiaztatzen dituzte, horiek iradokitzen baitute familia-sistemaren tentsioarekin zerikusia duten aldagaiek, baita guraso-autoeraginkortasunaren inguruko pertzepzio subjektiboak ere, hizkuntzaren ibilbide ebolutiboa modulatzeko eragiten duten garapen goiztiarreko prozesuetan eragin dezaketela. Emaitza horiek hurrengo atalean deskribatzen dira.

Hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean inplikaturik dagoen sistema kognitiboaren antolaketa: oinarrizko prozesuen garrantzia.

Ikerketa honen emaitzek hizkuntzaren garapenaren inguruko bi ikuspegi nagusien (modularra eta ez-modularra) balio argitzailea egiaztatzen dute, erakutsiz ereduak ez direla bateraezinak, hizkuntza-sistemaren ikuspegi desberdinak islatzen dituzten ereduak baizik. Zentzu horretan, eredu ez-modularrak datuen doikuntza ezin hobea adierazten zuen, eta gainera, hizkuntzaren eskuratzeko inplikaturiko trebetasun espezifikoaren arteko erlazioa ebaluatzea ahalbidetzen duen garapen-eredua egiaztatzen zuen (Fry eta Hale, 1996, 2000; Bornstein et al., 2006). Eredu horrek aldagai kognitiboak hiru maila argi bereizten ditu: lehen mailan oinarrizko prozesuak kokatuko lirake (arreta, prozesatze-abiadura eta lan-oroimena), bigarren mailan trebetasun fonologikoak (iraupen laburreko oroimen fonologikoa eta ezagutza fonologikoa) eta azken mailan hizkuntza-trebetasunak eurak (gramatika harkorra eta ezagutza lexikoa).

Emaitza horietatik ateratzen den alderdi interesgarri bat lan-oroimenaren eta iraupen laburreko oroimen fonologikoaren artean dagoen desberdintasun argia da, eta horrek aurretik egindako ikerketen emaitzak babesten ditu (Alloway et al., 2006; Baddeley, 2000). Emaitzek trebetasun espezifikoaren garapenean ere inplikaturik dauden bi prozesu desberdin direla baieztatu zuten. Lan-oroimenak motaren bateko buru-jarduera edo -monitorizazioa eskatzen duten trebetasunak iragartzen dituen bitartean—eta ezagutza fonologikoa zuzenean iragartzen dute—, iraupen laburreko oroimen fonologikoak biltegiatzeari lotutako trebetasunak inplikatu ditu—eta horregatik ezagutza lexikoa iragartzen du—. Hala ere, bi mekanismo fonologikoak elkarrekin erlazionatuta dauden arren, azpimarratu behar da ezagutza fonologikoa eta iraupen laburreko oroimen fonologikoa funtzio desberdinetan espezializatzen direla garapenean zehar. Monitorizazioa osagaitzat duenez, ezagutza fonologikoa deskodetzearen iragarle argia da; iraupen laburreko oroimenak, ordea, hitzak eta horiek hizkuntzan duten ordena barneratzeko gaitasuna iragartzen du (hurrenez hurren, hiztegiaren eta esaldien errepikapenaren inguruko probekin ebaluatuak). Emaitza horiek aurretik egindako ikerketetan lortutakoak baieztatzen dituzte (Gathercole et al., 1997; 2004; Nation eta Hulme, 2012), eta mekanismo horiek hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean duten paper erlatiboari buruzko ikuspegi ebolutiboa ematen dute.

Izan ere, T1eko eta T2ko ereduak konparatzeak aldagai desberdinen arteko erlazioetan aldaketa ebolutiboak zeudela nabarmendu zuen. Batetik, arretak eta prozesatze-abiadurak lan-oroimenean zuten pisua txikiagotu zen, seguruenik oinarrizko erregulazio-funtzio horiek 7

urterekin sabai-efektuak lortzen dituztelako (Manly et al., 2001). Bestetik, hizkuntza-sistemak espezializazio handiagoa erakutsi zuen adinarekin: lan-oroimenak monitorizazioa eskatzen zuten trebetasunak (gramatika harkorra eta ezagutza fonologikoa) zuzenean iragarri zituen, eta iraupen laburreko oroimen fonologikoa ezagutza lexikoa T1ean baino indar handiagoz iragarri zuen.

Gainera, bi aldien arteko erlazio iragarleek hiru aurkikuntza garrantzitsu erakutsi zituzten: lehenengoa, T1eko prozesatze-abiadura eta trebetasun fonologikoa T2ko ezagutza lexikoaren mailan funtsezkoak dira, aurretik lagin klinikoekin egindako ikerketen ildo berean (Montgomery, 2000; Gathercole et al., 1996); bigarrena, T1eko lan-oroimenak eta trebetasun fonologikoen gramatika harkorra eta adierazpen-hizkuntza iragarri zuten T2an (ikusi Magimairaj eta Montgomery, 2012; Mainela-Arnold eta Evans, 2005); eta hirugarrena, ezagutza fonologikoa deskodetze-trebetasunetan paper espezifikoak zuela erakutsi zuen, eta horrek literaturan bi aldagai horien artean aurkitu den erlazioa erreplikatzeko du (Goswami eta Bryant, 1990), eta hizkuntzaren eta irakurketaren artean dagoen lotura estua frogatzen du. Edozelan ere, ondoriozta liteke lan-oroimena eta trebetasun fonologikoa umeen hizkuntzaren garapenean gako-aldagaiak direla, eta hizkuntza- zein irakurketa-zailtasunen arteko komorbiditatea erakusten duten fenotipoak ulertzeko eta azaltzeko funtsezkoak izan litezkeela (Gray et al., 2017; Ramus et al., 2013).

Datu garrantzitsu bat hau da: arriskuan dauden umeen laginean lortutako emaitzak desberdinak izan ziren lagin normatiboarekin alderatuta, beraz, patroi ebolutiboa kualitatiboki desberdina da, edo bestela, denbora-ibilbide desberdina jarraitzen du. Lagin horretan, prozesatze-abiadurak eta lan-oroimenak ezagutza fonologikoa iragarri zuten T1ean, eta beste alde batetik, lan-oroimena izan zen deskodetzea iragarri zuena T2an, eta ez ezagutza fonologikoa. Horrek iradokitzen du, lagin horretan, lan-oroimenak paper garrantzitsuagoa jokatzen duela trebetasunen eskuratzeko, edo bestela, hizkuntza-sistemaren osagai desberdinek denbora gehiago behar dutela espezializatzeko. Ideia hori bat dator lan honetan aurkitu diren luzetarako erlazioekin, non T1eko arretak iraupen laburreko oroimen fonologikoa iragarri zuen T2an, eta T1eko lan-oroimenak irakurketa deskodetzeko trebetasunari nabarmen lagundu zion T2an.

Arreta eta lan-oroimena populazio horretan bereziki konprometituta egon daitezkeelako ideia (Montgomery, 2000; Finneran et al., 2009) berrestiaz gain, emaitza horiek agerian uzten dute hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmendua izateko arriskuan dauden umeengan aurkitzen diren zailtasunek hizkuntza-sistemaren aldagai garrantzitsuen

antolaketa alda lezaketela garapenean zehar. Horrez gain, azpimarratu behar da ume horiengan aurkitzen diren zailtasun fonologikoek azal lezaketela lan-oroimena izatea, eta ez ezagutza fonologikoa, irakurketa-prozesuaren muinean dagoena, seguruenik, trebetasun fonologikoak ez daudelako barneratuta ez automatizatuta. Hortaz, badirudi hizkuntza-sistemaren antolaketa hizkuntzaren eta irakurketaren garapen normalari eragiten dioten osagai fonologikoetan dauden defizitek modulatzeko dutela. Lan-oroimenak funtsezko papera hartzen du defizit horien konpentsatzaile eta katalizatzaile bezala, eta horrek iradokitzen du monitorizazio-trebetasunak adin goiztiarretatik ebaluatu eta landu beharko liratekeela populazio osoan.

Lan honen ekarpen garrantzitsu bat, hain zuzen, bi laginen analisi konkurrenteetan eta luzetarakoetan aurkitutako desberdintasunetatik dator, bai arazoak ez dituen populazioan hizkuntza-sistemak nola funtzionatzen duen, eta bai HNEaren definizioa zorrotzen eta dislexiarekiko duen komorbilitatea ulertzen laguntzen dutelako. Hala, datuek defizit anizkoitzaren ereduak babesten dute (Pennington, 2006), oinarrizko prozesuek iraupen laburreko oroimenean fonologikoan eta ezagutza fonologikoan duten inplikazioa berresten dutelako, eta azken batean, horiek hizkuntza orokorraren garapenari eragiten diote. Beraz, maila horietako defizitak hizkuntzaren edota irakurketaren nahasmenduak garatzeko lehen arrisku-markatzaileak izan litezke, eta horregatik detekzio goiztiarreko protokoloetan sartzea komeniko litzateke. Bestalde, hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduetan oinarrizko defizit fonologikoa dagoeneko ideiarekin alderatu ebidentzia ematen du, eta horrek bien arteko komorbilitatea ulertzen laguntzen du.

Hala ere, emaitza horiek mugak ere badituzte, arriskuan dauden umeen laginaren tamainari dagokiona nabarmenena izanik. Hain subjektu gutxi edukita, ezin izan ziren bi taldeen arteko konparaketa zuzena ahalbidetuko luketen egitura-ekuazioko ereduak eraiki. Edozelan ere, aipatu behar da lagin hori populazio orokorreko (ez klinikoa) umeen multzo handi batetik atera zela, eta hizkuntzaren edota irakurketaren nahasmenduak izateko arriskuan dauden umeen kopurua bat datorrela lan honen hasierako kapituluetan aipatu diren prebalentzia ehunekoekin, hain zuzen, populazio orokorraren %2 eta %10 artekoa delako. Horrez gain, luzetarako diseinua duen lan bat izateak sendotasuna ematen die emaitzei ahalbidetzen duelako, batetik, bi ebaluazio-aldien artean gertatutako aldaketa ebolutiboak neurtzea, eta bestetik, azalpeneko informazio kausala emango duten iragarpenak ezartzea inplikaturik dauden aldagai desberdinen arteko erlazioei buruz.

Familia-testuinguruaren azterketa hizkuntzaren eta irakurketaren garapenaren esparruan: eredu baten ekarpena.

Tesiaren bigarren helburua zen familia-testuinguruaren aldagai espezifikoak—hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean eragin lezaketenak—neurtzeko diseinatu ziren itemen egitura faktoriala ezagutzea, ikerketa honetan erabilitako familia-galdetegiaren faktore-analisen bidez (HEFCAS-6-DA). Horrela, familia-testuinguruaren kalitatea ebaluatzeko bertsio fidagarri eta sentikorra lortu nahi zen, gurasotasun positiboaren eredutik abiatuta. Faktore-analisi esploratzaileak item batzuk baztertu behar zirela eta testuinguru fisikoari eta sozialari dagokion azpieskala bitan banatu behar zela erakutsi zuen. Azkenean, faktore-analisi berrestaileak bost faktoreren azaleratzea berretsi zuen familia-testuinguruaren aldagai dimentsional bezala: lehen azpieskalak (garapen kognitiboaren eta hizkuntzaren garapenaren estimulazioa) etxeko irakurketa-ohituren, irakurketaren sustapenaren, ikasteko materialen eta jolasaren faktoreetan biltzen zituen itemak. Bigarrenak, garapen sozioemozionalaren estimulazio deritzonak, itemak frustrazio optimoaren, autoestimuairen eta hezkuntza-molde demokratikoaren faktoreetan bildu zituen. Hirugarren azpieskalak umearen testuinguru sozial zuzenaren antolaketari egiten zion erreferentzia, eta itemak bildu zituen aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioari, gizarte-harremanen egonkortasunari eta esperientzien aniztasunari dagozkien faktoreetan. Laugarren azpieskalak (ingurune fisikoaren eta zeharkako testuinguru sozialaren antolaketak), bere aldetik, testuinguru fisikoaren kalitateari, gurasoen estresari eta gurasoen gatazkari dagozkien faktoreetan bildu zituen itemak; eta guraso-autoeraginkortasunari eta garapen psikologikoaren ezagutzari dagozkien faktoreek garapena indartzen duen guraso-profilaren azpieskala osatzen dute.

Amaierako egitura HES-2aren (Velasco et al., 2014) eta HES-7-11/FAren (Barreto et al., 2018) hasierako eskaletako egiturari doitu zitzaion, item kopuru txikiagorekin eta 1. azpieskalan (garapen kognitiboaren eta hizkuntzaren garapenaren estimulazioa) azaleratu ziren bi faktoreekin: etxeko irakurketa-ohiturei lotutako itemak eta irakurketaren sustapenari lotutakoak.

Faktore-analisiaren emaitzek, beraz, galdetegiko itemen egitura berrestea ahalbidetu zuten, eboluzio-aldi desberdinetako umeei zuzendutako eskala horren bertsioetan erabili izan den gurasotasun positiboaren ereduari oinarriturik. Gainera, tresnak barne-tinkotasunaren indize onargarriak erakutsi zituen. Horrek bere sentikortasuna erakusten du familia-testuinguruaren aldakortasunari dagokionean, eta informazio oso aberasgarria ematen du; informazioak familia bakoitza ereduaren dimentsio bakoitzaren continuum kualitatibo eta

kuantitatibo batean jartzea ahalbidetzen du (tratu ona, garapenaren sustapena, gurasotasuna indartzeko ekologia eta egitura). Aukera hori oso baliagarria da familia bakoitzaren indarguneak identifikatzeko, eta hizkuntzaren zein irakurketaren garapenaren dinamika babesleak sendotzen saiatzeko.

Gainera, aurkeztu den tresna gurasotasun positiboaren inguruko politikak—XXI. mendearen hasieratik nazioartean intentsiboki sustatzen ari direnak—zorrotz garatzeko ekarpen handia dela azpimarratu behar da. Zentzu horretan, Europako Ministroen Kontseiluaren 19. Gomendioa (2006) aipatu behar da, non Europar Batasuneko estatuei guraso-gaitasunak sustatzeko politikak inplementatzeko eskatzen dien. Gurasotasun positiboari buruzko ikuspegiaren funtsezko ezaugarria da defizit ezaren ikuspuntua hartzen duela, bai ebaluazioari eta bai familiaren esku-hartzeari dagokionean; familia guztiek indarguneren bat dutela onartzen da, eta hain zuzen, horrek izan behar duela esku-hartze prebentiboen edo terapeutikoen abiapuntua. Ikerketa honetan aurkeztu den tresnak, familia-testuinguruaren ebaluaziorako bokazio sakona duenak, familia bakoitzaren indarguneak eta ahuleziak identifikatzea ahalbidetzen du, eta ondorioz, hezkuntza-, gizarte- eta osasun-arloko profesionalei esku-hartzeak diseinatzeko informazio oso baliagarria ematen die. Azkenik, familia-populazio handiak ebaluatzeko erabiltzen bada, tresna honek hizkuntza- edo irakurketa-atzeratasunen bat duten umeen familientzat ahaldundutze-politika zehatzak diseinatzeko datuak eman ditzakeela esan behar da.

Eskalak eskaintzen duen egitura berritzailea eta hizkuntzaren eta irakurketaren garapena indartzen duten testuinguru-aldagai zehatzak ebaluatzeko egokia den arren, zenbait muga kontuan hartu beharko lirakeke. Jatorrizkoarekin alderatuta eskalaren luzera txikitu denez, komeniko litzateke ikerketa familia-lagin handiagoa erabiliz erreplikatzeko, eta lan honetako faktore-egitura egiaztatzen den ziurtatzea, test-birtest prozesuaren fidagarritasuna bermatzeko eta horrela, datuen egonkortasuna berresteko. Era berean, tresnaren errendimendua estatus sozioekonomikoaren aldetik aldakortasun handiagoa duen lagin batean aztertzea komeniko litzateke, aurreko literatura zientifikoak asoziazio sendoa aurkitu baitu aldagai soziodemografikoen eta familia-testuinguruaren kalitatearen artean (Davis-Kean, 2005); horien artean, amaren estatus sozioekonomikoak umeen garapen kognitiboan duen eragina, eta bereziki, funtzio exekutiboetan duena, erakusten duten emaitzak aipatu behar dira (Daneri, Blair, Kuhn, Vernon-Feagans, Greenberg et al., 2018), hizkuntzaren eta irakurketaren garapenaren prozesu ebolutiboan funtsezkoak baitira. Aldagai horren eta familia-testuinguruaren kalitatearen arteko erlazioen analisia ere, diagnostiko egokiari eta

prebentzioko esku-hartzearen plangintzari begira, oso garrantzitsua da arriskuko profil soziodemografikoa duten familien populazioetan.

Familia-testuinguruaren eragina hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean: aldagai iragarleak eta hezkuntzaren inguruko gogoetak.

Tesi honen hirugarren helburua zen HEFCAS-6-DA eskalaren bidez ebaluatutako familia-testuinguruaren aldagaien gaitasun iragarlea egiaztatzea, 6 urteko umeen laginaren prozesu kognitiboari eta hizkuntza-trebetasunei dagokienean. Erlazio horiek ulertzea oso garrantzitsua da irakurtzen ikasten hasiko diren umeen garapen kognitiboa eta hizkuntzaren zein irakurketaren garapena estimulatuko duten familia-dinamikak eta esku-hartze bereziak sustatzeko, azaleratzen ari diren hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduei asoziatutako zailtasunak txikitzen lagun baitezakete.

Familia-testuinguruko aldagaien eta oinarrizko prozesuen arteko erlazioa dela eta, gai hori aztertzeke egin ziren analisisiek erakutsi zuten testuinguru-aldagaiek ez zutela arreta ezta prozesatze-abiadura ere iragarri—seguruenik, funtzio horiek era goiztiarrean azaleratzen direlako—, bai ordea, trebetasun fonologikoak. Adibidez, esperientzien aniztasunak eta aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioari erreferentzia egiten dion faktoreak T1ean lan-oroimena eta iraupen laburreko oroimen fonologikoa iragarri zuten, hurrenez hurren,. Erlazio horiek ebidentzia gehitzen dute, hizkuntza modu egokian gara dadin, umeen familien barruan kalitatezko interakzio goiztiar zuzenek duten garrantziari buruz, lehen egiaztatu denez, lan-oroimena hizkuntza-sistema eraginkor baten muina baita adin goiztiarretan, eta iraupen laburreko oroimen fonologikoak paper nabarmena jokatzen baitu garapen lexikoan.

Lan batzuek aitaren inplikazioaren eta ondoren, 3 urterekin, edukiko den adierazpen-hizkuntzaren—adierazpen-hiztegia barne (ikusit Pancsofar et al., 2010)—arteko erlazioak aurkitu badituzte ere, ez dago aldagai horren eta iraupen laburreko oroimen fonologikoaren arteko erlazioa (hiztegiaren aldagai aitzindaria) zuzenean aztertu duen aurretiazko lanik. Aurkikuntza horrek funtsezko bi gai iradoki litzake: batetik, hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioak hizkuntza-sisteman prozesu aitzindarien maila oinarrizkoagoan eragiten du, eta dagokion hizkuntza orokorreko mailan islatuko litzateke, aurreko aurkikuntzekin bat etorritik; bestetik, aldagai honen garrantzia umearen bizitzako lehen urteetatik harago doa—sei urterekin izango duen hizkuntza-gaitasuna iragartzen jarraitzen duelako—, eta horrek umeen

garapenean zehar hazkuntzako figura bat baino gehiago izatearen egokitasuna berresten du. Gai horiek etorkizuneko ikerketa-lerroetan hipotesi modura azter litezke.

Lan honen beste erlazio nabarmenetako bat aldagai fonologikoen (iraupen laburreko oroimen fonologikoa eta ezagutza fonologikoa T1ean) eta gurasoen estresaren artean aurkitu zen. Hala, aurretik egindako ikerketek gurasoen estresaren paper negatiboari buruz emandako ebidentziak zabaltzen dira, aurreirakurketa-trebetasunetan ez ezik, hiztegiaren eta hizkuntzaren garapenean ere adierazpen- eta hartze-mailan, eskolaurreko umeengan (ikusi Froyen et al. 2013; Noel et al. 2008). Hala ere, ikerketa honetan, irakurtzen ikasten hasten diren umeak estres toxikoak beren garapenean sor lezakeen eragin negatiboarekiko bereziki sentiberak direla berresten da, trebetasun fonologikoak bai deskodetzearen eta bai hizkuntza-trebetasun konplexuagoen garapenaren oinarrian baitaude. Beraz, oso kontuan hartu beharreko aldagaia da hizkuntzaren edota irakurketaren nahasmendua garatzeko arriskua dagoen kasuetan.

Azpimarratu behar da estresak, guraso-autoeraginkortasunarekin batera, ADHNari asoziatutako sintomatologia ere iragarri zuela. Erlazio horrek eskolaurreko umeen laginak erabiliz aurretik egindako ikerketetan lortu ziren emaitzak berresten ditu. Ikerketa horietan estresak funtzio exekutiboetan duen eragin negatiboa egiaztatzen zen (ikusi Bernier et al., 2012). Gainera, oinarrizko prozesuek arriskuan dauden umeen hizkuntza-sisteman paper nagusia dutela frogatu dute, eta hori kontuan hartuta, logikoa dirudi maila horietan gertatzen diren alterazioak geroko hizkuntzaren garapenean islatzea, Gooch-ek et al. (2016) egindako ikerketak erakutsi zuen bezala. Emaitza horiek argi egiten dute gurasoen estresak funtsezko zenbait prozesuren garapenean jokatzen duen rol garrantzitsuaren inguruan, hain zuzen, funtzio exekutiboetako lotutakoetan (informazio linguistikoarekin buruz jarduteko gaitasuna edo arreta- zein jokabide-kontrola), ondorengo garapenean eragin bailezakete. Gurasoen estresaren eta umeen funtzio exekutiboen garapenaren arteko lotura etorkizunean ikertzen jarraitzeko lan-lerro interesgarria da, zalantzarik gabe, arrisku-aldagai horrek arretazailtasunetan eta ADHNdun umeen ohiko jokabide inpulsiiboetan eduki dezakeen eragina argitzen lagunduko duelako.

Bestalde, interesgarria da bi aldagai horiek (estresa eta guraso-autoeraginkortasuna) izatea, hain justu, arreta-arazoaren iragarleak, biak oso estu lotuta baitaude. Benedetto-k eta Ingrassia-k (2017) erakutsi zuten bezala, guraso-autoeraginkortasun altuak estresaren eragin negatiboaren gainean aldagai babesle gisa funtziona lezake. Hori dela eta, litekeena da aldagai horrek ADHNari asoziatutako sintomatologiaren aurrean bitartekari papera egitea. Erlazio

hori etorkizunerako ikerketa-lerro bat da, ADHNaren etiologiari asoziatutako eragin anitzak ulertzen lagun lezakeelako; gainera, umeengan arreta-zailtasunak daudenean estresik gabeko familia-testuinguruak eta aita edo ama bezala autoeraginkortasun pertzepzio altua izateak izan dezakeen paper babeslearen inguruan ebidentzia ematen du. Emaidza horiek proposatutako hipotesi nagusietako bat egiaztatzen dute, hain zuzen, estresak eta guraso-autoeraginkortasunak hizkuntza- eta irakurketa-trebetasunetan inplikaturako oinarritzko prozesuen azaleratze goiztiarra baldintza dezaketela, eta ondorioz, horien ibilbide ebolutiboa ere bai.

Hizkuntza-trebetasunei eurei dagokienez, aurkeztu ziren hipotesiak berretsi egiten ziren. Lehen hipotesia frustrazio optimoaren zein hezkuntza-moldearen eta hiztegia edo adierazpen-hizkuntza bezalako hizkuntza-trebetasun orokorren artean zegoen erlazioan zetzan (Schroeder eta Kelly, 2009; Molfese et al., 2003). Bigarrenak jolasaren, gurasoen irakurketa ohituren zein irakurketaren sustapenaren eta trebetasun horien arteko erlazioa iragartzen zuen (Dickinson eta Porche, 2011; Quiroz et al., 2010; Rowe, 2012).

Lehen gaiari dagokionean, datuek erakutsi zuten aitaren edo hazkuntzako bigarren figuraren inplikazioak eta hezkuntza-molde demokratikoaren erabilerak adierazpen-hizkuntzarekiko erlazio iragarle positiboa zutela. Puntu horretan, garapen kognitibo eta linguistikoaren estimulazioko azpieskalaren eta haur-hiztegi harkorraren mailaren artean erlazio iragarlea egotea itxaron zitekeen, baina hezkuntza-molde demokratikoak baino ez zuten iragarri aldagai hori. Gainera, azken erlazio hori negatiboa izan zen, eta bi arrazoirengatik izan liteke: zergatietako bat izan liteke hiztegi harkorra (adierazpen-hiztegia ez bezala) batez ere faktore genetikoaren menpe dagoen neurri bat izatea, eta ondorioz, bere aldagai aitzindariaren menpe dagoena (hala nola, lan-oroimena eta, bereziki, iraupen laburreko oroimen fonologikoa). Hain zuzen, Kovas, Hayiou-Thomas, Oliver, Dale, Bishop et al. (2005) bezalako autoreek hizkuntzaren zenbait alderdiren etiologia aztertu zuten (horien artean hiztegia eta hitzezko oroimena zeuden), eta atera zuten ondorioa zen horiek gehiago zeudela genetikaren eta partekatzen ez ziren giroen menpe partekatutako testuinguru-aldagaien menpe baino.

Hipotesi alternatiboa izan liteke hezkuntza-molde demokratikoa ebaluatzen duen faktorean batutako itemak erregulazio-jokabideei dagozkiela, izan ere, item horiek arauen eta agintearen erabilerari lotuta daude. Hortaz, autoritate-maila altuek eragin negatiboa eduki dezakete hiztegiaren eskuratzean. Autore batzuek erlazio positiboa ikusi dute estilo erregulatuzaileago baten eta estres-mailaren zein arreta-zailtasunen artean 7 eta 18 urte arteko

umeengan; horrek, azken finean, arrakasta akademikoan eta hizkuntzaren garapenean eragiten du (Hutchison, Feder, Abar, eta Winsler, 2016) eta unibertsitate garaira arte hedatzen da (Stevens, Canu, Lefler eta Hartung, 2019). Ikerketa honetan egin diren analisi osagarrietan lortutako datuek hipotesi horri eusten diote; datuek ADHNaren eta iraupen laburreko oroimen fonologikoaren (hiztegiaren iragarle nagusia) arteko erlazio negatiboa erakusten dute bi ebaluazio-aldietan.

Bigarren gaiari dagokionez, datuek argi adierazten dute estimulazio kognitibo eta linguistikoko azpieskalan batutako itemek irakurketaren, jolasaren eta kognizio orokorraren sustapenean eragiten dutela. Kasu horretan, espero daitekeen lotura zuzena ikusten da aldagai kognitibo eta hizkuntza-aldagai orokorrekin (hala nola, adierazpen-hizkuntza eta hizkuntza harkorra), eta familia-testuinguruko aldagaiek modulaturako oinarrizko aldagai kognitiboak dira, hain justu, ezagutza lexikoan zuzenean eragiten dutenak hizkuntzaren mailakako garapenean ereduaren. Gainera, jolasa, etxeko irakurketa-ohiturak eta guraso-autoeraginkortasuna bezalako aldagaiek gramatika harkorra iragarri zuten T2an. Zehazki, guraso-autoeraginkortasunak lotura oso estua du aldagai horiekiko, autoeraginkortasunaren pertzepzio baxuak gurasoen inplikazio eta monitorizazio txikira eraman dezakeelako (Jones eta Prinz, 2005), eta ondorioz, jolasaren eta irakurketaren interakzioen murrizketa ekar lezake berekin.

Eskolaurrereko umeekin aurretik egindako ikerketetan jolasa eta irakurketa bezalako familia-aldagaien eta hiztegiaren, adierazpen-hizkuntzaren zein irakurketa-trebetasunen (hitzak ezagutzea, ulermena eta ezagutza grafemikoa, ikusi Dickinson eta Porche, 2011; Laakso et al., 1999; Simsek eta Erdogan, 2015; Wesseling et al., 2017) ondorengo garapenean artean erlazio iragarleak aurkitu ziren. Hala ere, aldagai horiek hizkuntza harkorrekarekin duten lotura literaturan urriagoa da, hortaz, ikerketa honek ebidentzia berria ematen du aldagaiok umeen gramatika harkorrean duten eraginari buruz, eta gainera, jolasak adin berantiaragoetako (lehen hezkuntzako lehen zikloan) hizkuntzaren garapenean rol garrantzitsua jokatzen jarraitzen duela erakusten du. Emaitzek familia-testuinguruak hizkuntza-trebetasun konplexuagoen garapenean duen inplikazioa babesten dute, gramatika harkorrek hizkuntzaren azpian dauden oinarrizko prozesuen eta prozesu fonologikoen erabilera ez ezik, iraupen luzeko oroimenean gordeta dagoen ezagutza morfosintaktikoaren zein lexiko-semantikoaren berreskurapena eta erabilera ere eskatzen duelako.

Etxeko irakurketa-ohiturek ez zutela deskodetzea iragarri esan behar da, seguruenik, eragin hori handiagoa izateagatik adin goiztiaragoetan, umeak oraindik ez direnean

irakurtzen ikasten hasi. Baina faktore horren barruan dauden itemetako bakoitzaren analisi zehatzak nabarmendu zuen horietako hiruk bai iragartzen zutela deskodetzea: aiten eta amen irakurketa-maila etxean, umearen borondatezko irakurketa-denbora etxean eta umearen adinerako egokiak diren irakurketa-ohiturak. Item horiek islatzen dute, batetik, umea ingurune motibatzailean mugitzen den eta gurasoen aldetik irakurketa-ereduak dituen ala ez; bestetik, berezko motibazioa duen irakurketarekiko, bai eta irakurketaren eraginpean zenbat dagoen eta eragin horren aniztasuna. Ikerketa batzuek aldagai horien artean lotura esanguratsuak aurkitu dituzte, berretsiz irakurketa-material eta -modelaketa anitz zein zabalaren menpe jartzen diren umeak, eta gainera jarduera horrekiko inguru motibatzailea dutenak, irakurketarekiko interes eta motibazio handiagoa erakusten dutela haurtzaroan zehar (ikusi Baker, Scher, eta Kirsten, 1997); are gehiago, erlazio hori unibertsitateko ikasleen laginetara ere hedatzen da (Morni eta Sahari, 2013). Izan ere, gai hori aztertzen zuen 99 ikerketako meta-analisi batek (ikusi Mol eta Bus, 2011) lan honen iragarpenen lerro berean zihoazen emaitza interesgarriak lortu zituen: irakurketaren eraginpean egoteak hizkuntzaren eta irakurketaren garapena estimulatu ditu, eta garapen horrek, aldi berean, jarduera horren eraginpean ematen den denborari eragiten dio. Hain zuzen, irakurketari borondatez denbora eskaintzen zioten umeek hiztegi zabalagoa, irakurriko ulermen hobea eta irakurketa-idazketa trebetasun handiagoak zituzten, maiztasun txikiagorekin irakurtzen zuten umeekin alderatuta; emaitzak eskolaurreko adinetik unibertsitate-mailaraino hedatzen ziren. Halaber, interesgarria da adieraztea beste ikerketa batzuek ere aldagai horiek irakurketaren nahasmendu bat garatzeko familia-arriskua dagoenean duten paper babeslea berretsi dutela (ikusi Esmaeli, Kyle, eta Lundetrae, 2019). Aurkikuntza horien garrantzia kontuan hartuta, irakurketari dagozkion familia-interakzioak baloratzeko neurri espezifikokoak garatzeko beharra nabarmena da.

Lan honetatik ateratzen den beste ebidentzia bat, aipatutako aurkikuntzaren ildo beretik doana, bi aldietan testuinguru fisikoaren kalitatearen eta esaldiak gogoratzeko atazaren arteko erlazioa negatiboa izatea da. Ataza horrek iraupen luzeko oroimenetik egitura sintaktikoak eta ezagutza lexikoa berreskuratzeko gaitasuna ebaluatzen du eta gauzatzeko orduan, ebaluatutako pertsonak ahalik eta zehaztasun handienarekin errepikatu behar du aztertzaileak ahoz esaten dion esaldia. Horregatik, ataza horrek iraupen laburreko oroimenaren neurria ez ezik, iraupen luzeko oroimenaren ezagutza linguistiko eta lexikoaren berreskurapena ere eskaintzen duela ondorioztatzen da (ikusi Klem et al., 2015). Hori kontuan izanda, lotura horrek iradoki lezake aipatutako aldagai mikrosistemikoek

hizkuntzaren adierazpen globalean neurri handiagoan eragiten dutela, eta gizabanako bakoitzaren bizipen bakarrek izaera orokorragoko familia-aldagaiak baino gehiago lagunduko diotela hiztegi berriaren ikaskuntzari esaldi-testuinguruan.

Galdetegian jaso diren aurretiazko gaien paperari dagokionez, garrantzitsua da aipatzea ordezeko zainketaren kalitatearen eta T2ko gramatika harkorraren artean aurkitu zen erlazioa, eta batez ere, edoskitze naturalaren eta T1eko lan-oroimenaren zein arretaren artean aurkitutakoa. Ikerketa batzuen kasuan, edoskitze naturalaren iraupenaren eta geroko garapen kognitibo, linguistiko eta motorraren artean erlazioak aurkitu dira 18 hilabeteko umeengan (Leventakou, Roumeliotaki, Koutra, Vassilaki, Mantzouranis et al., 2015) eta 5 urteko umeengan (Quigley, Hockley, Carson, Kelly, Renfrew et al., 2012). Arrisku-laginean edoskitze naturalaren eta gramatika harkorraren artean aurkitu den erlazioak aldagai horren garrantzia babesten du. Diepeveen, van Dommelen, Oudesluys-Murphy, eta Verkerk (2017) bezalako autoreek egindako ikerketetan edoskitze naturala eta amaren adina HNEa garatzeko arriskuaren aurrean aldagai babesleak izan litezkeela iradokitzen da, eta morfosintaxia hizkuntzaren nahasmenduetan ukitutako trebetasuna denez, ikerketa honek ebidentzia gehitzen du lagin klinikoan hizkuntzaren garapenean aldagai horiek duten rola inguruan. Izan ere, edoskitzeak garapenean duen papera mailakako eredu ebolutibotik azal liteke, oinarrizko ikaskuntza-mekanismoetatik abiatuta. Hortaz, lortutako datuek edoskitze naturalaren funtsezko paperaren ideari eusten diote, hain zuzen, bizitzako lehen hiletan nerbio-sistema zentralaren garapenean eta haurtzaroan zehar garapen kognitiboan duen paperari dagokionez (Boucher, Julvez, Guxens, Arranz, Ibarluzea et al., 2017; Horta, de Sousa, eta de Mola), eta gainera, gizakiaren garapen psikologikoa eredu epigenetiko inklusibotik ulertzeko beharra babesten dute, zeinek kontuan hartuko duen behatutako aldakortasun fenotipiko zabala azaltzen duten aldagai desberdinek batera sortzen duten eragina.

Azkenik, azpimarragarriak dira hizkuntzaren edo irakurketaren nahasmendua garatzeko arriskuan dauden umeen lagin txikiarekin lortutako emaitzen berezitasunak. Lehenago esan den moduan, laginaren tamainaren mugak zirela eta, ezin izan ziren egitura-ekuazioko eredu (EEE) analisiak egin, baina erregresiozko analisi batzuk egin ziren galdetegiaren itemetako bakoitzaren eta oinarrizko prozesuen, trebetasun fonologikoen eta hizkuntzaren neurrien artean. Emaitzen arabera, lagin horretan frustrazio optimoa trebetasun fonologikoak, lan-oroimena eta deskodetzea bezalako hizkuntza-prozesu aitzindarien aldagai iragarle nagusia izan zen, eta azken hori etxeko irakurketa-ohiturei buruzko itemek ere

iragarri zuten. Garapen normatibodun umeen laginarekiko desberdintasun interaktibo horiek oso interesgarriak dira, umeen zailtasunen aurrean familia barruan martxan jartzen diren dinamika konpentsatzaile espezifikoen berri ematen baitute. Seme-alaben garapenean zailtasunak daudenean familien joera naturala gehiegiko babesa izatea ulergarria da. Hala ere, umea frustrazioa sentiaraztera eramango duten mugak ezarri behar direla ulertzea ezinbestekoa da. Izan ere, emaitzen arabera, garapenean arazoak dituzten umeek frustrazio optimoak berekin dakartzan exigentzia eta erregulazioa behar dituzte normotipikoek baino gehiago eta, ondorioz, aldagai horren praktikak ahalmen garrantzitsua izango du hizkuntzaren aitzindarien garapena sustatzeko. Analisi horietatik atera zen beste asoziazio bat jolasaren zein etxeko irakurketaren sustapenaren eta hiztegi harkorraren artean zegoena izan zen. Lotura hori lagin normatiboekin egindako aurretiazko ikerketetan aurkeztutako emaitzen ildo berean doa (Conlon et al., 2006; Cook et al., 2011), eta jolastu eta irakurri bitartean sortzen diren interakzioek haur-hiztegia aberasteko sozializazio-tresna bezala duten balioa adierazten du, ikus-entzunezko baliabideak edo idatzitako hitzak bezalako metodo pasiboagoen bidez hitz berrien eraginpean jartze hutsetik harago (ikusi Justice, Meier, eta Walpole, 2005; Krcmar, Grela, eta Lin, 2007).

Osagarri modura, analisi gehigarriak egin ziren ADHNari asoziatutako sintomatologiarekin eta galdetegiko aurretiazko gaiekin. Lagin normatiboan ez bezala, arrisku-laginaren kasuan, ADHNari asoziatutako sintomatologiak hiztegi harkorra iragarri zuen T1ean eta ezagutza fonologikoa T2an. Arriskuan zeuden umeen laginarekin egindako luzetarako analisiak arretaren eta iraupen laburreko oroimen fonologikoaren arteko asoziazioa egiaztatu zuten (ikusi Majerus et al., 2011), eta trebetasun hori hiztegiaren garapenerako ez ezik, unitate fonologikoak buruz maneiatzeko ere beharrezkoa da. ADHNaren sintomen eta hiztegi harkorraren arteko loturetatik atera litekeen hipotesi bat da sintomatologia handiagoak eragin negatiboa edukiko lukeela talde honetako umeen iraupen laburreko oroimenaren defizitetan, eta ondorioz, hiztegiaren eta ezagutza fonologikoaren garapena oztopatuko luke. Hipotesi horren aldeko beste argudio bat lan-oroimenaren eta irakurketaren deskodetzearen arteko lotura izango litzateke, azken trebetasun hori, zailtasunik egon ezean, ezagutza fonologikoan oinarritzen baita. Hortaz, ondorio modura esan daiteke hizkuntzaren eta irakurketaren azpiko trebetasunetan oinarritzko zailtasunak dituzten umeengan arreta-sintomak aurkitzeak ahultasun gehigarri bat ekarriko liekeela, eta, hain zuzen, horrek azal lezakeela nahasmenduen arteko komorbiditatea (Martinussen eta Tannock, 2006; McGrath et al., 2011).

Hezkuntzan dituen ondorioak

Lan honetan zehar ikusi ahal izan den bezala, hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean eragina duten aldagai gehien-gehienak maila mikrosistemikoan kokatzen dira, hau da, umearen garapen-ingurune hurbilenean. Emaitzek familia-testuinguruak hizkuntzaren eta irakurketaren garapenean duen paper modulatzailea berresten dute, eta bidea irekitzen dute gerora egingo diren lanek interakzio horiek esparru epigenetiko inklusibotik— inplikatura dauden aldagai garrantzitsu guztiak kontuan hartuko dituen—iker ditzaten. Esparru horretatik, testuinguru-aldagai jakin batzuen presentzia errepikatuak adierazpen genetikoa modula dezakeela onartzen da, eta fenotipo-konbinazio posible ugarien berri ematen du. Egitate horrek frogatzen du interakzio estimulatzaileek eta babesleek garapenean duten transformazio-ahalmen izugarria. Ildo horretan, interesgarria litzateke jaio aurretik, jaiotza inguruan eta jaiotza ostean garapen neurologikoan ematen diren eragin anitzen ebaluazioa zabaltzea eta txertatzea modu sakonagoan, adibidez, hormona jakin batzuen jariaketa, gurasoen adina eta, bereziki, neurotoxikoekin eta edoskitze naturalarekin zerikusia dutenak.

Gainera, familia-aldagaiak umearen garapenaren zenbait mailatan (adibidez, oinarrizko prozesuetan, trebetasun fonologikoetan, hizkuntzan eta irakurketan) izan dezaketen eraginari buruzko emaitzek agerian uzten dute hizkuntzaren eta irakurketaren nahasmenduen azpian dauden zailtasun kognitiboak prebenitzeko eta lantzeko jardueretan familien inguruko ebaluazioa sartzearen beharra. Hala, etxean harrezkero badauden aldagai babesleak identifikatu ahal izango dira eta, gainera, familiei orientazioa ematea errazagoa izango da. Puntu horretan, berebiziko garrantzia izango du familiek frustrazioaren eta erregulazioaren garrantzia ulertzea, garapena indartzeko gako aldagaia delako arreta goiztiarrean esku-hartzeko unean. Umeak garapen normatiboa duenean, garapenari lagunduko dioten dinamikak sustatzea bilatuko da, eta arrisku-familien edo zailtasunak dituzten umeren bat dutenen kasuan, helburua semearen edo alabaren defizitak arintzen lagunduko duten dinamika eta testuinguru babesleak sustatzea izango da, etxean harrezkero badauden aldagai babesleak indartuz (ikusi Yamaoka eta Bard, 2019). Edozelan ere, xedea beti izango da umearen garapenerako ahalik eta testuinguru estimulatzaileena sortzen laguntzea familiei.

Bukatzeko, lan honetan eman diren datuek familia-politikak egiteko orduan ondorio argiak dituzte. Familia-aldagaien eta umearen hizkuntza-irakurketa garapenaren arteko

erlazioen ezagutza sakonak zailtasunen antzematea hobetzean jar dezake indarra, horretarako protokolo zorrotzak sortuz, eta horrekin batera, inplikaturako profesionalei prestakuntza emanaz (besteak beste, pediatrei, hezitzaileei edo erakunde publikoetako eragileei—Berritzeguneak eta aldundiak, adibidez)—. Halaber, prestakuntza jasotzeko eta egunero sor litezkeen zalantzak argitzeko gune segurua sortuko duten tailer teoriko-praktikoak eskaini dakizkieke familiei, beti ere, kasu bakoitzaren indibidualtasuna eta berezitasunak kontuan hartuta.

Tesi honetan aurkeztutako datuetatik eta Koloniako Unibertsitatean (Universität zu Köln, Alemania) egindako egonalditik sortu diren argitalpenak.

Acha, J., Agirregoikoa Lopez, A., Barreto, F. eta Arranz Freijoo, E. (2019). Cognitive predictors of language and reading development in primary school children. *Developmental Psychology*. (En revisión).

Acha, J., Agirregoikoa Lopez, A., Barreto, F. eta Arranz Freijoo, E. (2019). The dynamic interaction between memory and language knowledge in children's language development: the role of sentence recall. *International Journal of Behavioral Development*. (En revision).

Agirregoikoa Lopez, A. eta Acha, J. (2017). Visual Letter and syllable detection impairments in children with SLI: Are the deficits only linguistic? Poster presented on the Workshop on Infant Language Development, Bilbao.

Agirregoikoa Lopez, A., Acha, J., Barreto, F. eta Arranz Freijoo, E. (2019). HES-DA-6: A new instrument for family context assessment of 6-year-old children at risk of language and reading difficulties. *Infancia y Aprendizaje*. (En revisión).

Grünke, M., Wilbert, J., Tsiriotakis, I. K. eta Lopez Agirregoikoa, A. (2017). Improving the Length and Quality of Texts Written by Fourth Graders With Learning Disabilities Through a Peer-Tutoring Graphic Organizing Strategy. *Insights into Learning Disabilities 14*(2), 167-188.

- Acha, J. eta Perea, M. (2008). The effects of length and transposed-letter similarity in lexical decision: Evidence with beginning, intermediate, and adult readers. *British Journal of Psychology*, 99, 245-264. Doi:10.1348/000712607X224478
- Acosta Rodríguez, V., Ramírez Santana, G. M. eta Hernández Expósito, S. (2017). Executive functions and language in children with different subtypes of specific language impairment. *Neurología*, 32(6), 355-362. Doi:10.1016/j.nrleng.2015.12.007
- Adams, A. M. eta Gathercole, S. E. (1995). Phonological working memory and speech production in preschool children. *Journal of Speech, Language, and Hearing Research*, 38(2), 403-414. Doi:10.1044/jshr.3802.403
- Albareda-Castellot, B., Pons, F. eta Sebastián-Gallés, N. (2011). The acquisition of phonetic categories in bilingual infants: new data from an anticipatory eye movement paradigm. *Developmental science*, 14(2), 395-401. Doi:10.1111/j.1467-7687.2010.00989.x
- Alfonso, O., Suárez-Coalla, P. eta Cuetos, F. (2015). Spelling impairments in Spanish dyslexic adults. *Frontiers in psychology*, 6, 466. Doi:10.3389/fpsyg.2015.00466
- Alloway, T. P., Gathercole, S. E., Adams, A. M., Willis, C., Eaglen, R. eta Lamont, E. (2005). Working memory and phonological awareness as predictors of progress towards early learning goals at school entry. *British Journal of Developmental Psychology*, 23(3), 417-426. Doi:10.1348/026151005X26804
- Alloway, T. P., Gathercole, S. E. eta Pickering, S. J. (2006). Verbal and visuospatial short-term and working memory in children: Are they separable? *Child development*, 77(6), 1698-1716. Doi:10.1111/j.1467-8624.2006.00968.x
- American Psychiatric Association (2000). Diagnostic and statistical manual of mental disorders (4th ed., text revision). Washington, DC: Author.
- American Psychiatric Association (2014). Manual Diagnóstico y Estadístico de los Trastornos Mentales (DSM-5), 5ª Ed. Madrid: Editorial Médica Panamericana

- Anthony, L. G., Anthony, B. J., Glanville, D. N., Naiman, D. Q., Waanders, C. eta Shaffer, S. (2005). The relationships between parenting stress, parenting behaviour and preschoolers' social competence and behaviour problems in the classroom. *Infant and Child Development*, 14(2), 133–154. Doi:10.1002/icd.385
- Archibald, L. M. eta Gathercole, S. E. (2006). Short-term and working memory in specific language impairment. *International Journal of Language & Communication Disorders*, 41(6), 675-693. Doi:10.1080/13682820500442602
- Ardila, A. eta Rosselli, M. (2014). Spanish and the characteristics of acquired disorders in reading and writing. *Studies in Psychology*, 35(3), 502-518. Doi:10.1080/02109395.2014.965453
- Aro, M. eta Wimmer, H. (2003). Learning to read: English in comparison to six more regular orthographies. *Applied psycholinguistics*, 24(4), 621-635. Doi:10.1017/S0142716403000316
- Arranz, E. (2004). *Familia y desarrollo psicológico*. Madrid: Pearson.
- Arranz, E. (2005). Family context and psychological development in early childhood: Educational implications. In O. N. Saracho & B. Spodek (Eds.), *Contemporary perspectives on families: Communities, and schools for young children* (pp. 59–82). Creenwich, CT: Information Age.
- Arranz, E., Martin, J., Manzano, A., Olabarrieta, F., Bellido, A. eta Richards, M. (2005). *Quality of family context and child development in 5 & 8 years old children of the Basque country (Spain): A longitudinal approach*. *Simposio contexto familiar y desarrollo cognitivo*. XII European conference on developmental psychology, Tenerife, Spain. Published in the conference minutes.
- Arranz, E., Olabarrieta, F., Fernández, Manzano, A., Martín, J. L. eta Galende, N. (2012). Escala Etxadi Gangoiti: una propuesta para evaluar los contextos familiares de niños de 2 años de edad1 The Etxadi Gangoiti Scale: a Proposal for Evaluating the Family Contexts of Two-year-old Children. *Revista de Educación*, 358, 218-237. Doi:10-4438/1988-592X-RE-2010-358-076
- Arranz, E. B., Olabarrieta, F., Manzano, A., Fernández, A., Martín, J. L., eta Galende, N. (2014). Etxadi–Gangoiti scale: a proposal to evaluate the family contexts of two-year-

- old children. *Early Child Development and Care*, 184(6), 933-948.
Doi:10.1080/03004430.2013.829823
- Arranz, E. B., Olabarrieta, F., Manzano, A., Martín, J. L., Cruz, N. eta Etxaniz, A. (2016). Assessment of positive parenting programmes in the Autonomous Region of the Basque Country (Spain). *Psychosocial Intervention*, 25(2), 127-134.
Doi:10.1016/j.psi.2016.03.003
- Arranz, E., Olabarrieta, F., Manzano, A., Barreto, F. B., Roncallo, C. P., Sánchez, M. eta Garcia, M. D. (2017). Assessment and preventive education for families, based on the principles of positive parenting. *Early Child Development and Care*, 1-10.
Doi:10.1080/03004430.2017.1344234
- Avons, S. E., Wragg, C. A., Cupples, W. L. eta Lovegrove, W. J. (1998). Measures of phonological short-term memory and their relationship to vocabulary development. *Applied Psycholinguistics*, 19(4), 583-601.
Doi:10.1017/S0142716400010377
- Baddeley, A. (1992). Working memory. *Science*, 255, 556-559.
Doi:10.1126/science.1736359
- Baddeley, A. (2000). The episodic buffer: a new component of working memory? *Trends in cognitive sciences*, 4(11), 417-423. Doi:10.1016/S1364-6613(00)01538-2
- Baddeley, A., Chincotta, D., Stafford, L. eta Turk, D. (2002). Is the word length effect in STM entirely attributable to output delay? Evidence from serial recognition. *The Quarterly Journal of Experimental Psychology Section A*, 55(2), 353-369. .
Doi:10.1080/02724980143000523
- Barreto, F. B eta Arranz, E. B. (s.f.). An epigenetic approach to understand human psychological development. Manuscript under review.
- Barreto, F. B., González Safont, L., Roncallo, C. P., Acha, J. eta Sánchez de Miguel, M. (2018). Family context assessment and positive parenting policies. *Early Child Development and Care*, 188(11), 1606-1619. Doi:10.1080/03004430.2018.1499624
- Barrouillet, P., Bernardin, S. eta Camos, V. (2004). Time constraints and resource sharing in adults' working memory spans. *Journal of Experimental Psychology: General*, 133(1), 83. Doi:10.1037/0096-3445.133.1.83

- Bayliss, D. M., Jarrold, C., Baddeley, A. D., Gunn, D. M. eta Leigh, E. (2005). Mapping the developmental constraints on working memory span performance. *Developmental psychology*, 41(4), 579. Doi:10.1037/0012-1649.41.4.579
- Benedetto, L. eta Ingrassia, M. (2017). Parental Self-efficacy in Promoting Children Care and Parenting Quality. En *Parenting-Empirical Advances and Intervention Resources*. IntechOpen. Doi:10.5772/interchopen.68933
- Bentler, P. M. (1990). Comparative fit indexes in structural models. *Psychological Bulletin*, 107, 238–246. Doi:10.1037/0033-2909.107.2.238
- Bentler, P. M. (2001). EQS structural equation modelling software (version 6.0) [Computer software]. USA: mvsoft.
- Bernier, A., Carlson, S. M., Deschênes, M. eta Matte-Gagné, C. (2012). Social factors in the development of early executive functioning: a closer look at the caregiving environment. *Developmental Science*, 15(1), 12-24. Doi:10.1111/j.1467-7687.2011.01093.x
- Bidmead, C., eta Whittaker, K. (2007). Parenting and family support: a public health issue. En S. Cowley (Ed.), *Community public health in policy and practice: a sourcebook* (2^a Ed.) London, Bailliere Tiddall.
- Bishop, D. V. (1992). The underlying nature of specific language impairment. *Journal of child psychology and psychiatry*, 33(1), 3-66. Doi:10.1111/j.1469-7610.1992.tb00858.x
- Bishop, D. V. (1997). Cognitive neuropsychology and developmental disorders: Uncomfortable bedfellows. *The Quarterly Journal of Experimental Psychology: Section A*, 50(4), 899-923. Doi:10.1080/713755740
- Bishop, D. V. M. (2006). What causes specific language impairment in children? *Current Directions in Psychological Science*, 15(5), 217-221. Doi:10.1111/j.1467-8721.2006.00439.x
- Bishop, D. V. (2008). Specific language impairment, dyslexia, and autism: Using genetics to unravel their relationship. *Understanding developmental language disorders: From theory to practice*, 67-78.

- Bishop, D. V., Adams, C. V. eta Norbury, C. F. (2006). Distinct genetic influences on grammar and phonological short-term memory deficits: evidence from 6-year-old twins. *Genes, Brain and Behavior*, 5(2), 158-169. Doi:10.1111/j.1601-183X.2005.00148.x
- Bishop, D. V. M. eta Hayiou-Thomas, M. E. (2008). Heritability of specific language impairment depends on diagnostic criteria. *Genes, Brain and Behaviour*, 7, 365-372. Doi:10.1111/j.1601-183X.2007.00360.x
- Bishop, D. V., Nation, K. eta Patterson, K. (2014). When words fail us: insights into language processing from developmental and acquired disorders. *Philosophical Transactions: Biological Sciences*, 369(1634), 1-11. Doi:10.1098/rstb.2012.0403
- Bishop, D. V., North, T. eta Donlan, C. (1996). Nonword repetition as a behavioural marker for inherited language impairment: Evidence from a twin study. *Journal of child Psychology and Psychiatry*, 37(4), 391-403. Doi:10.1111/j.1469-7610.1996.tb01420.x
- Bishop, D. V. M. eta Snowling, M. J. (2004). Developmental dyslexia and Specific Language Impairment: same or different? *Psychological Bulletin*, 130(6), 858-886. Doi:10.1037/0033-2909.130.6.858
- Blake, J., Austin, W., Cannon, M., Lisus, A. eta Vaughan, A. (1994). The relationship between memory span and measures of imitative and spontaneous language complexity in preschool children. *International Journal of Behavioral Development*, 17(1), 91-107. Doi:10.1177/016502549401700106
- Boucher, O., Julvez, J., Guxens, M., Arranz, E., Ibarluzea, J., de Miguel, M. S., ... eta O'Connor, G. (2017). Association between breastfeeding duration and cognitive development, autistic traits and ADHD symptoms: a multicenter study in Spain. *Pediatric research*, 81(3), 434. Doi:10.1038/pr2016238
- Bogenschneider, K., Small, S. A. eta Tsay, J. C. (1997). Child, parent, and contextual influences on perceived parenting competence among parents of adolescents. *Journal of Marriage and the Family*, 345-362. Doi:10.2307/353475

- Bornstein, M. H., Hahn, C. S., Bell, C., Haynes, O. M., Slater, A., Golding, J. eta Wolke, D. (2006). Stability in cognition across early childhood: A developmental cascade. *Psychological Science, 17*(2), 151-158. Doi:10.1111/j.1467-9280.2006.01678.x
- Bowey, J. A. (2001). Nonword repetition and young children's receptive vocabulary: A longitudinal study. *Applied Psycholinguistics, 22*(3), 441-469. Doi:10.1017/S0142716401003083
- Bradley, L. eta Bryant, P. E. (1983). Categorizing sounds and learning to read: A causal connection. *Nature, 301*(5899), 419-421. Doi:10.1038/301419a0
- Bradley R. H. eta Caldwell B. M. (1984). *Home observation for measurement of the environment: administration Manual*. Little Rock: University of Arkansas.
- Bradley, R. H., Corwyn, R. F., McAdoo, H. P. eta García, C. (2001). The home environments of children in the United States Part I: Variations by age, ethnicity, and poverty status. *Child Development, 72*(6), 1844-1867. Doi:10.1111/1467-8624.t01-1-00382
- Brenning, K., Soenens, B., Van Petegem, S., & Vansteenkiste, M. (2015). Perceived Maternal Autonomy Support and Early Adolescent Emotion Regulation: A Longitudinal Study. *Social Development, 24*(3), 561–578. Doi:10.1111/sode.12107
- Bridges, L. J., Roe, A., Dunn, J. eta O'Connor, T. (2007). Children's perspectives on their relationships with grandparents following parental separation: A longitudinal study. *Social Development, 16*, 539–554. Doi:10.1111/j.1467-9507.2007.00395.x
- Brocka, R. L. eta Kochanska, G. (2016). Interparental conflict, children's security with parents, and long- term risk of internalizing problems: A longitudinal study from ages 2 to 10. *Dev Psychopathol, 28*(1), 45–54. Doi:10.1017/S0954579415000279
- Bronfenbrenner, U. (1977). Toward an experimental ecology of human development. *American Psychologist, 32*(7), 513. Doi:10.1037/0003-066X.32.7.513
- Bronfenbrenner, U. (2005). *Making human beings human: Bioecological perspectives on human development*. Sage.
- Bruce, D. J. (1964). The analysis of word sounds by young children. *British Journal of Educational Psychology, 34*(2), 158-170. Doi:doi.org/10.1111/j.2044-8279.1964.tb00620.x

- Burgess, S. R., Hecht, S. A. eta Lonigan, C. J. (2002). Relations of the home literacy environment (HLE) to the development of reading-related abilities: A one-year longitudinal study. *Reading Research Quarterly*, 37(4), 408-426. Doi:10.1598/RRQ.37.4.4
- Cantón, J., Cortés, M. eta Justicia, D. (2007). *Conflictos entre los padres, divorcio y desarrollo de los hijos*. Madrid: Pirámide
- Carballo, G. (2012). Guía para la evaluación del TEL: algunas consideraciones. *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología*, 32(2), 87-93. Doi:10.1016/j.rlfa.2012.03.004
- Carlisle, J. F. (2000). Awareness of the structure and meaning of morphologically complex words: Impact on reading. *Reading and writing*, 12(3), 169-190. Doi:10.1023/A:1008131926604
- Carlson, S. M., Moses, L. J. eta Breton, C. (2002). How specific is the relation between executive function and theory of mind? Contributions of inhibitory control and working memory. *Infant and Child Development*, 11(2), 73-92. Doi:10.1002/icd.298
- Castles, A. eta Nation, K. (2008). Learning to be a good orthographic reader. *Journal of Research in Reading*, 31(1), 1-7. Doi:10.1111/j.1467-9817.2007.00367.x
- Castro-Rebolledo, R., Giraldo-Prieto, M., Hincapié-Henao, L., Lopera, F. eta Pineda, D. A. (2004). Trastorno específico del desarrollo del lenguaje: una aproximación teórica a su diagnóstico, etiología y manifestaciones clínicas. *Revista de Neurología*, 39(12), 1173-1181.
- Casey, B. J., Giedd, J. N., eta Thomas, K. M. (2000). Structural and functional brain development and its relation to cognitive development. *Biological psychology*, 54(1), 241-257. Doi:10.1016/S0301-0511(00)00058-2
- Cates, C. B., Dreyer, B. P., Berkule, S. B., White, L. J., Arevalo, J. A. eta Mendelsohn, A. L. (2012). Infant communication and subsequent language development in children from low income families: the role of early cognitive stimulation. *Journal of developmental and behavioral pediatrics: JDBP*, 33(7), 577. Doi:10.1097/DBP.0b013e318264c10f
- Catts, H. W., Adlof, S. M. eta Ellis Wismer, S. (2006). Language Deficits in Poor Comprehenders: A Case for the Simple View of Reading. *Journal of Speech, Language and Hearing Research*, 49, 278-293. Doi:10.1044/1092-4388(2006/023)

- Catts, H. W., Adlof, S. M., Hogan, T. P. eta Weismer, S. E. (2005). Are specific language impairment and dyslexia distinct disorders? *Journal of Speech, Language, and Hearing Research*, 48(6), 1378-1396. Doi:10.1044/1092-4388(2005/096)
- Chen, Y. eta Baram, T. Z. (2016). Toward understanding how early-life stress reprograms cognitive and emotional brain networks. *Neuropsychopharmacology*, 41(1), 197–206. Doi:10.1038/npp.2015.181
- Chiappe, P., Siegel, L. eta Gottardo, A. (2002). Reading-related skills of kindergartners from diverse linguistic backgrounds. *Applied psycholinguistics*, 23(01), 95-116. Doi:10.1017/S014271640200005X
- Chiarella, J., Tremblay, R. E., Szyf, M., Provençal, N., eta Booij, L. (2015). Impact of Early Environment on Children’s Mental Health: Lessons From DNA Methylation Studies With Monozygotic Twins. *Twin Research and Human Genetics*, 18, 623–634. Doi:10.1017/thg.2015.84
- Clahsen, H., Aveledo, F. eta Roca, I. (2002). The development of regular and irregular verb inflection in Spanish child language. *Journal of child language*, 29(3), 591-622. Doi:10.1017/S0305000902005172
- Coleman, P. K. eta Karraker, K. H. (2003). Maternal self-efficacy beliefs, competence in parenting, and toddlers' behavior and developmental status. *Infant Mental Health Journal: Official Publication of The World Association for Infant Mental Health*, 24(2), 126-148. Doi:10.1002/imhj.10048
- Conlin, J. A., Gathercole, S. E. eta Adams, J. W. (2005). Children’s working memory: Investigating performance limitations in complex span tasks. *Journal of Experimental Child Psychology*, 90(4), 303-317. Doi:10.1016/j.jecp.2004.12.001
- Conlon, E.G., Zimmer-Gembeck, M. J., Creed, P. A. eta Tucker, M. (2006). Family history, self-perceptions, attitudes and cognitive abilities are associated with early adolescent reading skills. *Journal of Research in Reading*, 29(1), 11-32. Doi:10.1111/j.1467-9817.2006.00290.x
- Consejo de Europa (2006). Recomendación Rec 19 del Comité de Ministros a los Estados Miembros sobre políticas de apoyo a la parentalidad positiva. Recuperado de <https://goo.gl/ognx1K>

- Conti-Ramsden, G. eta Durkin, K. (2007). Phonological short-term memory, language and literacy: developmental relationships in early adolescence in young people with SLI. *Journal of Child Psychology and Psychiatry*, 48(2), 147-156. Doi:10.1111/j.1469-7610.2006.01703.x
- Cook, G. A., Roggman, L. A. eta Boyce, L. K. (2011). Fathers' and mothers' cognitive stimulation in early play with toddlers: Predictors of 5th grade reading and math. *Family Science*, 2(2), 131-145. Doi:10.1080/19424620.2011.640559
- Cowan, P. A. eta Cowan, C. P. (2002). Interventions as tests of family systems theories: Marital and family relationships in children's development and psychopathology. *Development and psychopathology*, 14(4), 731-759. Doi:10.1017/S0954579402004054
- Cowan, N., Elliott, E. M., Saults, J. S., Morey, C. C., Mattox, S., Hismjatullina, A. eta Conway, A. R. (2005). On the capacity of attention: Its estimation and its role in working memory and cognitive aptitudes. *Cognitive psychology*, 51(1), 42-100. Doi:10.1016/j.cogpsych.2004.12.001
- Crnic, K. A., Gaze, C. eta Hoffman, C. (2005). Cumulative parenting stress across the preschool period: Relations to maternal parenting and child behaviour at age 5. *Infant and Child Development: An International Journal of Research and Practice*, 14(2), 117-132. Doi:10.1002/icd.384
- Cuervo, A. (2010). Pautas de crianza y desarrollo socioafectivo en la infancia. *Diversitas: Perspectivas en psicología*, 6(1), 111-121.
- Cuetos, F., Rodríguez, B., Ruano, E. eta Arribas, D. (2007). *PROLEC-R: Batería de evaluación de los procesos lectores revisada*. Madrid: TEA.
- Cunningham, C. E. eta Boyle, M. H. (2002). Preschoolers at Risk for Attention-Deficit Hyperactivity Disorder and Oppositional Defiant Disorder: Family, Parenting and Behavioral Correlates. *Journal of Abnormal Child Psychology*, 30(6), 555-569. Doi:10.1023/A:1020855429085
- Daneman, M. eta Carpenter, P. A. (1980). Individual differences in working memory and reading. *Journal of verbal learning and verbal behavior*, 19(4), 450-466. Doi:10.1016/S0022-5371(80)90312-6

- Daneri, M. P., Blair, C., Kuhn, L. J., FLP Key Investigators, Vernon-Feagans, L., Greenberg, M., Cox, M., Burchinal, P., Willoughby, M., Garrett-Peters, P. eta Mills-Koonce, R. (2018). Maternal Language and Child Vocabulary Mediate Relations Between Socioeconomic Status and Executive Function During Early Childhood. *Child development*. Doi:10.1111/cdev.13065
- Davis-Kean, P. E. (2005). The influence of parent education and family income on child achievement: the indirect role of parental expectations and the home environment. *Journal of family psychology*, 19(2), 294. Doi:10.1037/0893-3200.19.2.294
- Day, D. M., Factor, D. C. eta Szkiba-Day, P. J. (1994). Relations among discipline style, child behaviour problems, and perceived ineffectiveness as a caregiver among parents with conduct problem children. *Canadian Journal of Behavioural Science/Revue canadienne des sciences du comportement*, 26(4), 520. Doi:Doi:10.1037/0008-400X.26.4.520
- De Bree, E., Wijnen, F. eta Gerrits, E. (2009). Non-word repetition and literacy in Dutch children at-risk of dyslexia and children with SLI: results of the follow-up study. *Dyslexia*, 16(1), 36-44. Doi:10.1002/dys.395
- Debaryshe, B. D. (1993). Joint picture-book reading correlates of early oral language skill. *Journal of child language*, 20(2), 455-461. Doi:10.1017/S0305000900008370
- Dickinson, D. K. eta Porche, M. V. (2011). Relation between language experiences in preschool classrooms and children's kindergarten and fourth-grade language and reading abilities. *Child development*, 82(3), 870-886. Doi:10.1111/j.1467-8624.2011.01576.x
- Diego-Balaguer, R., Martínez-Alvarez, A. eta Pons, F. (2016). Temporal attention as a scaffold for language development. *Frontiers in Psychology*, 7(44). Doi:Doi:10.3389/fpsyg.2016.00044
- Diepeveen, F. B., van Dommelen, P., Oudesluys-Murphy, A. M. eta Verkerk, P. H. (2017). Specific language impairment is associated with maternal and family factors. *Child: care, health and development*, 43(3), 401-405. Doi:10.1111/cch.12451

- Dumka, L. E., Gonzales, N. A., Wheeler, L. A. eta Millsap, R. E. (2010). Parenting self-efficacy and parenting practices over time in Mexican American families. *Journal of Family Psychology, 24*(5), 522. Doi:10.1037/a0020833
- Dunn, L. M. eta Dunn, L. M. (1997). *PPVT-III: Peabody picture vocabulary test*. Circle Pines, MN: American Guidance Service.
- DuPaul, G. J., Power, T. J., Anastopoulos, A. D., & Reid, R. (2016). *ADHD Rating Scale—5 for Children and Adolescents: Checklists, Norms, and Clinical Interpretation*. Guilford Publications.
- Ebert, K. D. eta Kohnert, K. (2011). Sustained Attention in Children with Primary Language Impairment: A Meta-Analysis. *Journal of Speech, Language and Hearing Research, 54*(5), 1372–1384. Doi:10.1044/1092-4388(2011/10-0231)
- Eden, G. F., Olulade, O. A., Evans, T. M., Krafnick, A. J., & Alkire, D. R. (2016). Developmental dyslexia. In *Neurobiology of Language* (pp. 815-826). Academic Press. Doi:10.1016/B978-0-12-407794-2.00065-1
- Edwards, J., eta Lahey, M. (1998). Nonword repetitions of children with specific language impairment: Exploration of some explanations for their inaccuracies. *Applied Psycholinguistics, 19*(2), 279-309. Doi:10.1017/S0142716400010079
- Esmaeeli, Z., Kyle, F. E. eta Lundetræ, K. (2019). Contribution of family risk, emergent literacy and environmental protective factors in children’s reading difficulties at the end of second-grade. *Reading and Writing, 1*-25. Doi: 10.1007/s1114
- Facoetti, A., Corradi, N., Ruffino, M., Gori, S. eta Zorzi, M. (2010). Visual spatial attention and speech segmentation are both impaired in preschoolers at familial risk for developmental dyslexia. *Dyslexia, 16*(3), 226-239. Doi:10.1002/dys.413
- Ferguson, A. N. eta Bowey, J. A. (2005). Global processing speed as a mediator of developmental changes in children’s auditory memory span. *Journal of Experimental Child Psychology, 91*(2), 89-112. Doi:10.1016/j.jecp.2004.12.006
